
ONOMASTICON VASCONIAE

22

ONOMASTICON VASCONIAE

22

FERNANDO ARANBERRI ODRIUZOLA

ERMUA - EITZAGA

LEKU-IZENAK

GEURE IZANAREN BARRENA



EUSKALTZAINDIA

2001



ERMUKO UDALA



**BIZKAIKO FORU
ALDUNDIA**

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Liburu-sortaren zuzendaria / Director de la colección ONOMASTICON VASCONIAE: Andrés Iñigo

Aholkularitza / Consejo asesor: Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea /
Comisión de Onomástica de la Real Academia de
la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

Burua / Presidente: **Andrés Iñigo**
Idazkaria / Secretario: Mikel Gorrotxategi
Kideak / Vocales: Henrike Knör
José Luis Lizundia
Txomin Peillen
Patxi Salaberri
Juan San Martín
José María Satrustegi
Amaia Usabiaga

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca
Plaza Barria, 15
48005 BILBAO
Tel. 94 - 415 81 55
Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: info@euskaltzaindia.net

Orrazketa-zuzenketak: Ricardo Badiola Uriarte

ISBN: 84-95438-04-6
Legezko Gordailua / Depósito Legal: NA - 0010/2002

Fotokonposizioa / Fotocomposición: ONA Industria Gráfica
Pol. Agustinos, calle F - 31013 Pamplona / Iruñea

Inprimaketa / Impresión: GRAPHYCEMS / Gráficas CEMS. S.L.
San Miguel Industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

Eraketa / Diseño: Enric Mir i Malé

ESKAINZA:

Etsekoei eta lagun guztiei.

Fernando Aranberri Odriozola

ESKERRAK:

Mikel Gorrotxategi (Euskaltzaindiko normalizazio aholkularitza), Nerea Mujika (metodologia), Mikel Zabala (historialaria), Estibalitz González, Imanol Bustinduy, Joxemari Arnal, Iñaki Arregi, Mikel Yarza, Harritxu Araiztegi, M^a Asun Ardanza, Idoia Carracedo (Jarraipen batzordekideak), Javier Enríquez (Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboko langilea), Gerediaga Elkartea, Jon Irazabal, Piedi Eizagirre eta Ricardo Carro.

BERRIEMAILEAK:

Javier Aranberri, Inés Ugarriza, Emilio Areitio, Jesusa Ardanza, M^a Esther Olaetxea, María Bengoetxea, Joseba Idigoras, Juan Domingo Astarloa, Diego Arriaga, Joxemari Zendoia, Pedro Bildosola, Esteban Agirre, Antonio Izagirre, Pedro Abarrategi, Irene Aldalur, Zeberi Agirregomezkorta, Vitoria eta Margarita Aranburu, Agurne, Elbira eta Agus Agirregomezkorta, Dioni Ardanza, Zezilia Mallabiabarrena, Vicente Markina, Mikaela Sagastagutxia, Ignazio Urreta, Leoncia Areitio, Dominga Narbaiza, Felix Ugalde, Jesús Ormaetxea, Iginia Ormaetxea, Felisa eta Bitore Mugerza, Antonia Madariaga, Gregorio Mugerza, Juanita Ormaetxea, Trinidad Totorikagüena, Jose Luis Abarrategi, M^a Luisa Mugerza, Miren Agirregomezkorta, M^a Luz Yarza, Pablo Zubiarremertería, Manuel Elustondo, Justo Narbaiza, Javier Gorritxategi, Josu Bergaretxe, Eugenio Mallabiabarrena, Jose María Larrañaga, Felipe Egia, Pedro Agirregomezkorta, Juan Azpiri, Genoveva Onaindia, Juan Isidro Amillategi, Pedro Zubizarreta, Jose Antonio Gisasola, Zakarias Yarza, Alberto Aranzibia, M^a Jose Goigana, Floren Arriaga, Felix Bildosola, Jesusa Bergaretxe, Felix Gorrotxategi, Jose Ignazio Aranzibia, Benita Areitio, Pedromari Bergaretxe.

ARGAZKIAK:

Ojanguren artxibategia, Jesús Zamalloa, Fernando Aranberri, Irudi argazki denda, Jaime Izagirre, Jesusa Ardanza, Juan Lizaso, Esteban Agirre, M^a Esther Olaetxea, Balendin Lasuen, Alberto Aranzibia, Pedromari Bergaretxe, Juan Isidro Amillategi.

“Toponomastika toki-izenak ikertzen dituen zientzia da. Herri bateko toponimia bertako jendeak egunegun idatzitako dokumentua da, zeinetan, aldian aldian kultur aroaren hitzak erabiliz, pasadizo historikoak, ekonomia eta langintza tradizionala, erlijio sineste eta obiturak eta beste hainbat errealitate islatu baitituzte”.

Nafarroa, Toponimia eta mapagintza

“Los topónimos son parte integrante del patrimonio cultural de la nación, y tienen la misma dignidad que los centros ceremoniales indígenas, iglesias y conventos coloniales, molinos de harina, obrajes añileros, y todo tipo de testimonio histórico. Viven en el corazón de la historia, ya sea pasada o la que se construye cada día. Representan muchas imágenes vivas con múltiples facetas.

Tan pronto como sea efectuada la recopilación toponímica y, más exactas sean las fuentes de información, más valorizados serán nuestros lugares, nuestros paisajes, y la población tomará plenamente, más conciencia y posesión de su medio ambiente”.

Hélène Hudon

AURKIBIDEA

HITZAURREA, Carlos Totorika Izagirre.....	13
ERMUA, DURANGALDEA ETA BIZKAIAREN ATARIA, DEBARROTIK, José Luis Lizundia Askondo.....	15
AZTERKETA HONEN HELBURUAK	19
LABURDURAK.....	21
SARRERA, Fernando Aranberri Odriozola	23
I.- METODOLOGIA	25
1.1.- IDATZIZKO ITURRIA.....	27
1.1.1.- Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala (BAHP)	28
1.1.2.- Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa (BFA)	29
1.1.3.- Jabego Erregistroa (JE)	31
1.1.4.- Gernikako Batzarretxeko Artxibategia (GBA)	31
1.1.5.- Bizkaiko Eliz-Histori Agiritegia (BEHA)	32
1.1.6.- Ermuko Santiago Elizako liburuak (ESE)	32
1.1.7.- Ermuko Udal Artxiboa	33
1.1.8.- Zaldibarko Udal Artxiboa (ZUA)	34
1.1.9.- Bergarako Udal Agiritegia (BUA)	34
1.1.10.- DEIKER Institutua	34
1.1.11.- Olaetxeko paper solteak (Esk. 005).....	34
1.1.12.- Markinako karmeldarren konbentua. Iturriza (MKK.I)	34
1.1.13.- Komunikabideak	35
1.1.14.- Planoak eta mapak.....	35
1.1.15.- Argazkiak.....	35

1.2.- AHOZKO ITURRIA	35
1.2.1.- Metodologia	36
1.2.2.- Berriemaileak.....	37
II.- NORMALIZAZIORAKO IRIZPIDEAK	39
2.1.- Leku berberari dagozkion izen desberdinen aurrean zer egin?	41
2.2.- Idazkera	42
2.3.- Ahoskera.....	44
2.4.- Azentua	44
2.5. Artikulua.....	46
2.6.- Deklinabidea	47
III.- TOPONIMOETAN AGERTZEN DEN HIZTEGIA	49
IV.- BIBLIOGRAFIA	59
V.- GEURE IZANAREN BARRENA	65
VI.- LEKU-IZENEN FITXEN EGITURA.....	73
VII.- HERRI BARRUKO LEKU-IZENAK	77
VIII.- SALLABENTEKO LEKU-IZENAK	249
IX.- ERMUKO MENDI ALDEKO LEKU-IZENAK	291
X.- EITZAGAKO LEKU-IZENAK.....	369
XI.- OLAERREAGAKO LEKU-IZENAK.....	427
XII.- AURKIBIDE KRONOLOGIKOA	453
XIII.- LEKU-IZENEN AURKIBIDEA	461
Herri barruko leku-izenak.....	463
Sallabenteko leku-izenak	470
Mendi aldeko leku-izenak	472
Eitzagako leku-izenak.....	478
Olaerreagako leku-izenak	482

HITZAURREA

Eskuarte duzun liburu honek gauza txiki eta arrunten historiak gure artean duen presentzia islatzen du.

Denok dakigu bi modutara begira diezaiokegula gure iragan hurbilari: batetik gure garaiko historia baldintzatzen duten gertakari garrantzitsuei so eginez eta, bestetik, natura, erlijio, ohitura edo familia-kontuak direla medio sortutako xehetasun nimiñoak aintzat hartuz, aldaketa sozial handiak eragin ez arren, gure herriaren sentimenduak eta jardun ona ageri-agerian jartzen baitituzte.

Toponimiak, herriaren kulturak merezi duen aintzatespen zintzoaren birtatez, leku-izenen jatorria eta esanahia aztertzen du. Oraingo honetan gainera, gure herriaren antzinako kultura, -euskara den hizkuntza aberats eta anitzaz adierazia- berreskuratzen ahalegindu gara, Betiondo, Ureta, Elorreta, Urko, Arrako, Zinko, Txan txiko, Orozko, Motxu, Santuko, Konbentukoa, Antonatxa eta beste izen asko eta asko gure herriaren egitura historiko eta sozialaren zati garrantzitsu baitira.

Herritarrok etorkizunerantz begiratu behar dugu, garaien aldaketa, kultur aberastasuna, aniztasuna, herritarren aurrerapauso ekonomiko eta sozialak onartuko dituen gizarte bat eraikiz.

Nolanahi ere, etorkizun oparo bat eraikitzeke ezinbesteko gauza da oinarriak sendo eta ondo zainduta edukitzea, eta horretara dator hain zuzen ere honako liburu hau. Gure iragana onartu egin behar dugu eta harro egon gainera, herri hau, oztopoak oztopo, bere sustriak gorde eta garairik garai kontserbatzeko gauza izan delako.

Ermuan, 2001eko iraila

Carlos Totorika Izagirre,
Ermuko alkatea

ERMUA, DURANGALDEA ETA BIZKAIAREN ATARIA, DEBARROTIK

Debarroko ibarrean geografikoki kokaturik badago ere, Ermua Durango-ko merindadean barruko lau urietariko bat da Tabira, Otxandio eta Elorriorekin batera. Gipuzkoako probintziatik ekialdetik sartukeran duzu uri hau. Hedaturaz txikia, biztanlez ere oraintsurarte, baina gero inmigrazio eta industrializazioaren uholdez, izugarri handitu da. Hala eta guztiz ere Ermuak ez du galdu bere euskaltasuna, besterik badirudi ere. Etorkinak ez dira izan galziarrak edo beste Estatuko herrialde askotakoak bakarrik, baita Euskal herrietakoak ere; baina bere-berea duen uriko euskara berezia gorde du Ermuak berbetan, Durangoko tabirarek eta Elorriok bezalaxe, albo-ko elizateetatik berezia, oso aberatsa eta interesgarria.

Ermuarekin duela 40 urte baino gehiagotik ditut harremanak, ermuar euskaltzale askorekin, hain zuzen. Era askotakoak, iritzi desberdinetakoak, baina euskaldunak erabat. Ia lehen uneko Gerediaga elkarteko Agustin Aranberriarekin hasi eta Lorentzo Iturriagoitia ordezkariarekin, baita ere Mallabiko ordezkari zen Justo Arriaga, Ermuan bizi zenarekin eta Olaizotarrekin, Guriditarrekin, Ardantzatarrekin, Arindarrekin, Atxatarrekin, Berrizbeitiarrekin, Amillategitarrekin eta beste askorekin jarraituz. Ermuko Santiago-Santa Ana jaia ere ez dira niretzat arrotzak, alderantziz baizik. Oroipen onak ditut. Bidenabar, zer portaera ona izan zuen nirekin Saez de Cabezón bertako botikari izan zenak. Urte askotan bertako parroko izan zen eta oraindik bizi den D. Teodoro Zuazua ere adiskide dut, auzokide gainera, ni Trañaxenagusikoa, hura Trañabarren baserrikoa, oso hurbilekoak gara eta etxearteko harreman ugariarekin, senitarteko ez bagara ere. Norbaitek, noizbait besterik idatzi badu ere, zin dagit ermuarrekin, gehienetan, euskaraz hitz egin dudala, eurek ermuarrez eta nik abadiñarez.

Ermuak badu euskararen batasunarekin ere zerikusi oso garrantzitsua, eta ez nuke aipatu gabe utzi nahi, 1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean Gerediaga elkarteak antolaturiko “Euskal Idazleen Biltzarra”. Garai hartan, elkarte horren idazkari

nintzen, baina bereziki, Agustin Aranberria Gerediagaren Ermuko ordezkari zenaren laguntza oparoa izan genuen. Gerra osteko lehendabiziko euskal idazleen biltzar agerikoa Hego Euskal Herrian. Ideia Juan San Martin eibartar eta elkarteko bazkidearena izan zen, uste baitzuen, Arantzazuko Biltzarra baino lehenago, komenigarria zela idazleei bilerara deiturik, eurek adierazitakoa entzutea. Urte haietan ez zen erraza elkarre legeztatua izatea eta Gerediagak, bestalde, ospea hartu berria zuen bere ekintzekin, bereziki, Euskal Liburu eta Disko Azokarekin. Elkarre horrek ezin zuen edonon biltzarrik antolatu, ez bazen Durangoko Merindade zaharraren 12 udalen eremu barnean. Orduan, Ermua hautatu zuten.

Ermuak eta Durangaldeak, ez bakarrik, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko euskaltzaileen artean zubi egin zuen, baita Ipar eta Ekialdearena ere, hasi Gabriel Aresti idazle bilbotarra, biltzar haren “izarra” esango nuke, eta amaiera hitzaldia egin zueneraino. Tarteetan, Imanol biak, Berriatua eta Laspiur, Aingeru Irigarai euskaltzain nafarra, Salvador Garmendia, Juan Antonio Letamendia hizlariak, ahanzi gabe exiliotik txostena igorri zuen Txillardegi, lagun asko bildu baikinenean uriko Eskola Profesionalean.

Toponimiaren garrantzia aipatzearen Paco Llera Ramo Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle asturiarraren pasarte zenbait dakartzat hona, hain zuzen berak Academia de la Llingua Asturianaren *Lletres Asturianas* – 19, 1986an argitaratutako aldizkarian agertutako artikulua interesgarria baiteritzat:

“Identidad colectiva y territorialidad” da haren titulua. Dauden-daudenean uzten ditut zenbait pasarte: “Me voy a mover, por tanto, en el terreno de la valoración social que la colectividad da a la denominación del espacio físico sobre el que se asienta desde no sabe cuándo. Estamos ante un problema sociocultural, en el que cotidiana e inconscientemente se simbolizan y se reproducen la identidad colectiva de un pueblo y su territorialidad... Si hay algo que condensa tras de sí la toponimia tradicional, es un proceso sociocultural por el que cada grupo humano denomina y domina su espacio natural, en el marco del universo simbólico de sus representaciones colectivas... Con las aportaciones de la Ecología Humana en la mano, quiere esto decir que no podamos perder de vista la ubicación ecológica de cualquier componente cultural al que nos hayamos de referir. Por esta razón, me parece pertinente recordar la sugerencia que R.V. Sayce hacia tiempo atrás a propósito de la conveniencia de conceder mayor atención a los aspectos ecológicos de la cultura... Es precisamente, el componente simbólico que implica la toponimia lo que aquí nos interesa; a este propósito, los distintos elementos que definen y llenan el territorio, así como su denominación, tienen una significación y son expresiones metafóricas de distintos aspectos de la estructura social. En palabras de J.L. García ‘lo que dentro del análisis de la territorialidad metafórica se trata de dilucidar es por qué la organización espacial, que constituye el territorio concreto, es de una forma determinada y tiene un significado preciso dentro de esa comunidad’... De la mano de lo que P. Birnbaum llama ‘la lógica del Estado’, se va produciendo una progresiva centralización manu militari a distintos niveles estructurales (administrativo, económico, etc.), que, en último término, trata de homogeneizar la territorialidad sociocultural de los distintos pueblos... Con la construcción estatal de tipo imperial y absolutista se va produciendo una centralización política y, lo que es más importante, se genera una dinámica de relación conductiva, que se puede denominar centro-periferia... Indudablemente, la dinámica centro-periferia tiene componentes políticos, militares, económicos, territoriales y socioculturales... Va a ser, en definitiva, sobre el territorio o la territorialidad donde se va a librar una batalla histórica por la conquista del centro o la centralidad del conjunto de significados culturales, que constituían las re-

presentaciones colectivas de los pueblos peninsulares... En nuestro peculiar proceso de centralización político-económica y de descentración cultural de los pueblos o sociedades peninsulares, lo que se produce es un desplazamiento de las centralidades culturales tradicionales por la nueva cultura política castellana, que sirve de envoltorio y de vehículo de la expansión del Estado unitario... Esta particular usurpación toponímica puede que no sea, ni más ni menos, que el último eslabón de ese proceso general, que podemos denominar con G. Heraud 'alienación étnica', y que se puede definir como dominación social desde fuera, que lleva a la pérdida de la identidad colectiva de un grupo humano a distintos niveles (político, demográfico, lingüístico-cultural, económico, territorial y psicológico)... R. Robertson y B. Holzner lo plantean en términos de 'identidad' y 'autoridad', cuando tratan de explicar y caracterizar los cambios de la textura socio-cultural de nuestras sociedades. Indudablemente, la prepotencia político-económica de la expansión homogeneizadora del Estado necesita de la fuerza para imponerse, pero también de la autoridad, y esta última sólo se consigue a través de la inoculación del valor de lo 'otro' en el corazón del 'nosotros' colectivo tradicional".- "De otra parte, esa autorización valorativa de lo estatal, lo castellano, lo urbano, lo industrial sólo se puede reforzar internamente, en la medida en que el poder local se deja convencer e instrumentalizar por tal conveniencia, en una especie de compra que sólo persigue auto perpetuar su posición; de no ser así, la resistencia del poder local a tal suerte de colonización sólo podrá acabar con la sustitución por nuevos grupos de poder intermedio, capaces de sustentar simbólicamente y revalorizar culturalmente la nueva centralidad externa... En tal proceso, la recuperación de la toponimia tradicional (asturiana), en cuanto que condesa y simboliza el maridaje de la lengua y el territorio autóctonos, resulta una labor en absoluto desdeñable y, seguramente, básica, cuando está casi todo por conseguir".

Fernando Aranberriren liburuki honek badu, ene ustez, aberasgarri den beste zerbait. Askotan uste izan da euskara baserriarren hizkuntza dela eta orobat, toponimia, baserrietxe, solo, landa, baso eta abarrena. Baina, ez horrenbeste hiri hizkuntza. Oraindik, Euskal Herriko hiri ertain eta txikien hizkeren arteko azterketa konparatua egiteke dagoen bezalaxe, hiri toponimien kidekotasuna ere sistematizatu gabe dago. Nire aldetik nahiko nuke, Ermuko toponimiaren ondoren, Elorrio, Durangoko Tabira eta Otxandioen hiri toponimiaren ikerketekin jarraitzea. Baita 12 elizateena ere, baina, orain, 4 hiriena interesatzen zait. Hor agertzen baita *pasealeku* hitza. Askotan, asmatu behar ez zen "ibiltokia" eta holako neologismoen bila joan beharrean, pasealekua egonda Gernikan, Bergaran, Otxandion; Barrenkaleak, Goienkaleak eta Zeharkaleak dauden bezalaxe. Izen berriak asmatu dira, askotan, beharrianik gabe, gure hiri berrietan, kasurik egiteke, aspaldiko hiri euskaldunetan bazirela hiri toponimiarako izen egokiak.

Oroitzen naiz nola Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkateak, hango toponimia ikerketaren XV. Onomasticon Vasconiae aurkeztu zenean, bertako Udaletxean eta, liburuan *Artekale* izena aurkitu "calle del Medio" rako, aitak esan omen zion: "hori lehen *Artekale* zuan, orain hasi zarie *Erdiko kalea* esaten". *Artekale* hasi Bilbotik Debarroaino, toki askotan egon baitago. Interesgarria litzateke *Artekalari* buruzko zein aipamen egiten duen liburuki honetan, Fernando Aranberrik.

Durangon, 2001.eko ekainaren 30ean.
Jose Luis Lizundia Askondo,
Onomastika batzordekidea

AZTERKETA HONEN HELBURUAK

- 1.- Leku-izenak jasotzea.
- 2.- Leku-izenak aztertu, bateratu, normalizatu eta ofizialtzeko irizpideak ematea.
- 3.- Leku-izenak berreskuratzea eta esparru guztietan haien erabilera sustatzea.
- 4.- Izana aztertzea eta aztertu gabeko ikuspegi honetatik herritarren ondare historikoari ekarpen berria ematea.
- 5.- Idatzizko artxiboa izateaz gain, jasotako argazki bildumarekin artxibo bisuala ere sortzea.
- 6.- Euskal Herrian egiten ari diren Toponimiari buruzko azterketen abanikoa zabal-tzea.

LABURDURAK

Oharra: Lan honetako izenen erreferentzietan erabiltzen diren laburdurak ondo ulertzeko, eta hala nahiez gero dokumentu hori erraz topa dezazuen, *idatzizko iturriak* atalean artxibo bakoitzeko agertzen diren argibideak begira itzazue.

ARTXIBOAK:

BAHP. : Bizkaiko artxibo historiko Probintziala
BEHA. : Bizkaiko Eliz-histori agiritegia
BFA. : Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboa
BUA. : Bergarako udal agiritegia
ESE. : Ermuko Santiago elizako liburuak
GBA. : Gernikako Batzarretxeko artxibategia
JE. : Jabego erregistroa
MKK.I.: Markinako karmeldarren konbentua

NOTARIOAK:

FB. : Fernando Basturen
JAA. : Juan Antonio Amandarro
JBG. : Juan Bautista de Gamboa
JM. : Jose Meabe
PRG. : Pedro Ruiz Gamboa

ESKRITURAK:

- Esk. 001 : Javier Aranberri (*Joxio* baserria)
 Esk. 005 : M^a Esther Olaetxea (*Olaetxe* baserria)
 Esk. 024 : Zezilia Mallabiabarrena (*Eitzagagoiko* baserria)
 Esk. 036 : Gregorio Mugerza (*Zerkaburu / Santuko* baserria)
 Esk. 065 : Jose Antonio Gisasola (*Artamendi* baserria)
 Esk. 068 : M^a Jose Goigana (*Errekalde* baserria)
 Esk. 070 : Felix Bildosola (*Eitzagabarrenengo* baserria)

OROKORRA ETA DOKUMENTAZIOARI DAGOKIONA:

- Admin. : Administratiboa
 Den. Est. : Denetariko estatistikak
 Dok. Topogr. : Dokumentazio topografikoa
 Erreg. : Erregistroa
 Esp. : Espedientea
 Est. : Estatistika
 Hil. : Hildakoen liburua eta aurretik tomo zenbakia
 Bat. : Bataioen liburua eta aurretik tomo zenbakia
 Karp. : Karpeta
 Koad. : Koadernoak
 Lur. Est. : Lurralde estatistikak
 M.T. : Mapa topografikoa. Bizkaiko Foru Aldundia. 1934. 6. or.
 Mug. Jur. : Muga juridizionala
 O. : Horman idatzirik agertzen den izena
 Or. : Orria
 Udal Kon. Aur. : Udal kontuak. Aurrekontuak
 Udal Konpo. : Udal konponketak
 Zk. : Zenbakia
 TAU : Arkitektura eta hirigintzako lantegia. Sopela

SARRERA

Ermua-Eitzaga: leku-izenak. Geure izanaren barrena izenburuak, ziur aski, bateren bat harritu egingo du. Ingurukoa ez denak Ermua herria ezagutuko du, baina Eitzaga, entzunda ere ez. Eitzaga, Ermuarekin joten dagoen Zaldibarko auzo bat da, administratiboki Sallabente eta Olaerreaga auzoak hartzen ditu. Jende askok Ermutik Eibarrera beste herririk ez dagoela eta muga Ermuan hasten delako ustea badu ere, ez da horrela. Bizkaiko mugarrria dagoen lekua Zaldibar da, Olaerreaga auzoa, hain zuzen. Bidea jarraituz Sallabentera heltzen gara, Ego ibaia zeharkatu eta Ermura sartzen gara. Ermua eta Eitzaga Ego eta Udaeta mendiaren azpiko Beko erreka ibaiek mugatzen dituzte. Herri-mugak zirela eta, eztabaida ugari izan dira, sarri epaietan amaitu direnak. XV-XVI. eta XX. mendeko auziak dira aipagarrienak, guztietan zergak eta herribasoak eztabaidan.

Fisikoki XX. mende amaieran Ermua zeharo aldatu da, herria hazi eta antzinako kaleak zortzi pisuetako etxeen azpian gelditu dira. Industrializazioaren ondorioz biztanle kopuruak gora egin zuen. Eitzaga, berriz, A-8 autopistak jan zituen base-riak eta lurrak kenduta, berdín dago. Ez da nabarmen aldatu. Azken mende amaieran izan duten bilakaera desberdina gorabehera, euren arteko harremanak berdín dirau, beste modu batez bada ere.

Elizaz da lotura handiena. Eitzagan bi ermita ditugu, bata San Pedro Eitzagakoa eta bestea Sallabentekoa. Biok Ermuko Santiago elizaren esku daude. Beraz, politikoki Eitzagakoak zaldibartarrak izan arren, elizaz ermuarrak dira. Elizkizunetan, letaginetan eta erromerietan batera ibili dira beti.



Antzinatik eta XX. mendera arte, bertakoak elkartu dira ermandade eta kofradien bidez. Armagintzan, nekazaritzan eta baita abeltzaintzan ere elkarren laguntzaz aurre egin diete gaixotasun, izurrite eta zoritxarrei.

Eskola, lehen-lehen ez zegoen eta umek baserriko ganbaran hartzen zituzten klaseak. 1926an Sallabente eta Eitzagako eskolak altxatu zituzten. Orduan, bertako irakaslea Ermukoa baino hobea zela, ibiltzea komeni zela, Ermuko ume asko auzo-

eskola hauetara joan ziren. Gaur egun, alderantziz, Eitzagako umeak Ermura joaten dira eta eskolak auzo-elkarteak bihurtu dituzte.

Harreman sendo horiek hizkuntza ere batu dute. Ermua eta Eitzagako euskara bat da. Ingurukoak antzerakoa badira ere, zenbait ezaugarri desberdin dituzte. Adibide bat jartzearen, Mallabikoek “etxie” egiten dute, eta guk “etxia”; Eibarkoek “ekarri detsat” eta guk “ekarri dotsat”... tonua, azentua, ezaugarri fonetikoak eta toponimiaren bilakaerek ere gure hizkera inguruko herrietatik bereizten dute.

Fernando Aranberri Odriozola



I METODOLOGIA

1.1.- IDATZIZKO ITURRIA

Idatzizko iturria arakatzean, XVII. mende aurretik idazten oso jende gutxi zekiela argi gelditu behar da; goi mailakoen pribilegio bat zen. Notarioak, nobleak eta apaizak idazten eta irakurtzen zuten bakarrak ziren. Dokumentu guztiak euren lumaz eginikoak dira. Herria, artean guztiz analfabetoa zen. Herritar gehienak alfabetatu gabeko euskaldun elebakarrak ziren.

Edozelako itun egiteko orduan, bai udal mailan bai norberari zegozkionetan ahozko tramite guztia euskaraz egiten zen, eta gero paperatzeorakoan notarioa zen itzultzaile bihurtzen zena. Inguruetako herrietatik baserriz baserri ibilita euskara entzuten ohituta zeuden notario hauek. Eta, segur aski, euskaldunak izango ziren. Hala ere, leku-izenak jaso eta euskal izen horiek garai horretako gatzelaniazko grafiaz emateko orduan nahaste handia ikusten da:

“Lo que claramente se observa es que el funcionario que iba escribiendo los nombres de las casas traducía casi siempre al castellano el nombre distintivo de la casa. Así, no cabe duda de que los naturales del lugar dirían Otsa erdikoa, y él lo traducía y anotaba Ossa la del medio; la de abajo en vez de azpikoa; la de arriba en vez de goikoa, etc. Los amanuenses no fueron fieles testigos de lo que oían, ni, por tanto, fieles escribanos o secretarios, cargo del que hacían gala en todos los escritos introductores de cada lugar en que actuaban en nombre de las Juntas Generales” (KEREXETA, Jaime 92: 22. or).

Armagin, artisau edo baserritar herriari, bere zereginetan sartuta, axola gutxi letretako mundua; eguneroko bizitza, enkanteak, salerosketak, ezkontzak, hilburukoak... euskaraz egin arren, eskriturak erdaraz egiten ziren eta askotan itzuli behar izaten zitzairen erosiari edo parte hartzen zutenei:

(1660) “Don Pedro de Unda es un hombre tan pobre y necesitado que para haver de sustentarse hassi y a su mujer suele trabajar de día y de noche en su oficio de labrar paños y en beneficiar la lana nesaria para el dho exersisio y que no se le conosen bienes algunos muebles ni rayzes sino solo las herramientas de su trabajo y que por no tener hazienda propia suya vive en una casa alquilada a costa de su sudor y trabaxo de suerte que si continuamente no trabaxa no tiene un pan que comer, y que demas desto es un hombre que no save leer ni escribir, ni entender la lengua castellana y menos entiendo de papeles, ni pleytos, ni administraciones” (BAHP.: JRG, 140. zk. 3. zatia, 18. or).

“Juan Jose Agudo, sacerdote de la parroquia, quien certifica el 29 de Marzo de 1829: “haber leído y explicado en lengua vulgar el auto de visita precedente en dicha parroquia al tiempo del ofertorio de la misa conventual” (BEHA.: Ermua, Santiago apostolu-43004. Fabrika liburua (1799-1889), 77 or.).

1854 “Esplicacion en idioma vulgar de las condiciones dispuestas en dos de Junio y aclaratoria de la septima del seis del mismo Junio, asi como del encabezado de la declaracion pericial del Maestro de Obras (...) y advertencia de que primero se sacarian a remate los terrenos en los que vecinos de dicha villa de Ermua tenian derecho.

(...) despues de leer las condiciones, y dadas a entender por el secretario en lengua vulgar vascongada, se encendio la vela segun la costumbre” (BFA.: Admin., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 2., 1. zk.).

Notarioen artean, leku-izen bera emateko orduan grafia aldetik dagoen nahasteaz gain, batzuetan beste hanka-sartze ugari ikusten dira.

Garaiazen arabera grafia bat erabiltzen bazen ere, askotan garaikideen artean edo notarioak berak bi grafia desberdin ager ditzake. Esaterako, gure herriaren izena dokumentu berean eta orrialde berean “h” edo “h” barik ager dakiguke. Beraz, garai horietako gaztelania ere ez zegoen gaur bezala hain normalizaturik.

Iturririk garrantzitsuena fogerazioak izan dira. Zerrenda hauen aurrean, berriz, arazo bat dago: etxeak bertan bizi izan zen familiaren izena hartzen zuen. Askok ziren erreterero, familia aldatzean, izena ere aldatu egiten zen, eta izen zaharra baztertzen zuten. Oztopo honek eta Konbentzio gerraren aurreko informazio faltak toponimo zahar horien identifikazio zehatza egitea galarazi didate.

1.1.1.- Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala (BAHP)

Hemen XVII. mende hasierako datuak lortu ditut. Dakigunez, garai horretako dokumentazio gutxi gorde da, horregatik hemen duguna, nahiz eta dokumentuen egoera oso ona izan ez, oso baliotsua izan dut, daturik zaharrenak hemen daudelako.

Nik Ermuari dagozkion dokumentuak aztertu ditut soilik, Eitzagako abizen ezagunen bat agertu denean (Bildosola, Arriaga, Olaetxea, Bizinai, Gorritxategi, Ardanza...) Zaldibarkoak ere arakatu ditut. Dena dela, kanpokoren batek lursailak edo etxeak Ermuan eduki ditzake, honen aipamena Bizkaia edo Gipuzkoako edozein herritako dokumentazioan egiten dela. Denak arakatzea, jakina, ezinezkoa.

Artxibo hau kontsultatzeko orduan eskerrak eman behar dizkiot Mikel Zabalari, berak Ermuari dagozkion notarioen eta paper sorten zerrenda eman dit eta:

- *Juan Bautista de Gamboa* (JBG), paper sortak: 77 (1623koa), 78 (1626koa), 79 (1628-1629koa), 80 (1630ekoa), 81 egoera txarrean (1634koa), 82 (1637koa), 83 (1638koa), 84 egoera txarrean (1640koa), 85 egoera txarrean (1643koa), 86 egoera txarrean (1644koa), 87 egoera txarrean (1645ekoa), 88 oso egoera txarrean (1646koa), 89 oso egoera txarrean (1648koa), 90 oso egoera txarrean (1649koa) eta 91.a (1650ekoa).
- *Pedro Ruiz de Gamboa* (PRG), paper sortak: 139.ak bi zati ditu 1658koa eta 1959koa, 140.ak hiru zati ditu: 1660koa, 1661ekoa eta beste bat 1660koa, 141, 142 eta 143. legadoak oso egoera txarrean daude eta ez dizkidate atera.
- *Jose Meabe* (JM): 1759-1816 bitarteko urteei dagokie. Ermuari buruzko berri gutxi agertzen da. Paper sorta guztien artean hona hemen baliagarri izan direnak: 387 (1773koa), 388 (1775ekoa), 389 (1777koa), 391 (1779koa), 392

(1781ekoa), 393 (1782koa), 394 (1781ekoa), 399 (1791koa), 400 (1793koa), 401 (1794koa), 402 (1795ekoa), 403 (1797koa), 404 (1799koa), 408 (1803koa), 409 (orri solte batzuk daude, Ermuari ez dagozkionak eta totxo handia egoera txarrean dago), 410 (bi zati, bigarrena egoera txarrean), 411 (egoera txarra), 413 (1811koa), 414 (egoera txarra)¹.

- *Juan Antonio Amandarro* (JAA) Elorrio: Notario honen dokumentazio gehiena egoera txarrean dago, beraz hemen bakarrik zerbait aportatu duten dokumentuak aipatuko ditut: 839 (1735ekoa), 846 (1742koa), 847-855 bitartekoak egoera txarrean, 856 (1753koa), 857 (egoera txarra), 958 (1756koa), 859-860 egoera txarrean, 861 (1763koa), 862 (1765ekoa), 863-865 (egoera txarrean), 866 (1776koa), 867 (egoera txarrean).
- *Fernando Basturen* (FB): 6812 (1879koa), 6813 (1880koa), 6814 (1881ekoa), 6815 (1882koa), 5906 (1883koa), 7005 (1884koa), 7043 (1885ekoa), 5710 (1875ekoa).

1.1.2.- Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa (BFA)

Hau nire lanerako izan den artxiborik nagusiena izan da, hemen Udal Artxiboa, Korrejimendukoa, administratiboa... biltzen baitira. Eskerrak horko funtzionarioei emandako laguntzagatik.

a) *Ermuko Udal Artxiboa*

Konbentzio gerraren ondorioz, Ermuko artxiboko liburuak eta legadoak erre egin ziren. Beraz, datu asko falta dira. Bizkaiko Foru Aldundiko artxibo honetan biltzen direnak XIX. mende hasieratik gaur artekoak dira. Dokumentuak oso ondo sailkaturik daude, eta behar den bezala informatizaturik. Beraz, hemengo hustuketa oso modu azkarrean eta zehatzean egin daiteke.

Atera dudana informazioa polita izan da, zehatzena izan delako. Gehiengotan, konponketak, bideak, mugarri-jartzeak, salmentak, alokairuak eta abar aipatzen dira. Toponimo ugari atera ditut eta benetan, Ermuko historia hobeto ezagutzeko oso aberatsa.

b) *Artxibo administratiboa (Admin.):*

Artxibo honek dokumentu guztien katalogoa dauka. Nik dokumentu guztiak arakatu ditut, hemen gure lanerako erabili ditudanak datozkizu:

- *Auziak eta autuak*. Informazio hau oso ondo katalogaturik dago, atal honen barruan erregistroak daude. Erregistro bakoitzak badu bere aurkibidea. Hemen ataratako informazioa oso garrantzitsua izan da, oso zaharra delako, XVII. mendekoa.
- *Propioak eta arielak*: 5. tomoa, 4, 9 eta 12. erregistroak

1. 386, 390, 405, 406, 407, 412, 415, 416 eta 417 legajoak ere aztertu ditut, baina hauetatik lan honetarako baliagarri izan daitekeen deus ez dut atera.

Erreg. 4: 1799koa, oso informazio polita atera dut, hemen frantsesen osteko etxe-izenak aipatzen dira. Sarraski horren ondorioz sarritan halakoak agertzen dira: *Casa quemada sita en..., casa nueba...*

Erreg. 9: 1810koa, oso antzekoa.

Erreg. 12: 1816koa, soilik herribasoen izenak agertzen dira. Datu gutxi.

- *Lurralde Estatistikak, industrial eta merkatala (Lur. Est.)*. 1892-1896 bitarteko informazioa dago. Herri bakoitzak du bere karpeta. Hamargarrena Ermukoa da eta hamaikagarrena Zaldibarkoa. Alde batetik, herriko eraikuntzen izenak agertzen dira; eta bestaldetik, lursailen izenak. Benetan, toponimoak topatzeko eskertzekoa.
- *Lurralde Estatistikak I (Lur. Est. I)*. Erreg. 3 (1810koa), Erreg. 4 (1814koa), Erreg. 5 (1824koa), Erreg. 8 eta Erreg. 9 (1863koa). Orain arteko informaziorik zehatzena atal honetan agertu da: kaleak, etxeak eta jabeak.
- *Denetariko Estatistikak I (Den. Est. I)*. 1831-69 bitartekoa da, denetariko gaiak agertzen dira, aztertutako dokumentuak: Erreg. 1, Leg. 2 eta Leg. 3; Erreg. 5, Leg. 5; Erreg. 8, Leg. 2; Erreg. 11, Leg. 1; Erreg. 13, Leg. 1.
- *Denetariko Estatistikak II (Den. Est. II)*. 1859-65 bitarteko dokumentazioa, denetariko gaiak agertzen dira, ikusitakoak: Erreg. 1, Leg. 1 eta Erreg. 5, Leg. 1.
- *Babituak eta enbargatuak, basoen ustiapena*: Hemen 264. kutzatik 300.era aztertu dut (290.etik 300.era salto egiten du). Kutxa hauen artean soilik 5 kutxatan Ermuko espedienteren bat agertzen da. Ez oso interesgarri eta informazio gutxiakoa, 1887-1917 bitartekoa.
271 kutxan, Ermuak Zaldibarrekin duen auzi batean hiru toponimo agertzen dira.
271 kutxan, Ermuari dagokion espediente bat baina toponimorik ez.
287 kutxan, Goienkaleko krokis bat agertzen da, baina toponimorik eta zerbait argi ateratzeko datu zehatzik ez.
290 kutxan, *Arriendo de la casa venta de San Lorenzo*.
300 kutxan, bi espediente: Batean lur zati baten salmenta baina detailerik ez; eta bestean, Udaletxearen ondoan egin behar zen eraikuntza bati apelazioa. Azkeneko honetan toponimorik ez, baina antzinako Ermuko armari zaharra erabiltzen da.
- *Dokumentazio topografikoa (Dok. Topogr.)* 4 sala. Katalogatu gabeko 150 karpeta dira, hala ere karpeta gehienak herria aipatzen dute, Ermukoak berea ez du, horregatik Zaldibarkoa erabili behar izan dut. Herria aipatzen ez duen karpeta bat badago. Bertan Bizkaiko zenbait plano agertzen dira. Horien artean, 89. orrialdean Ermuko 1934ko plano bat agertzen da.
- *Muga Jurisdizionalak (Mug. Jur.)*. Karp. 8, Esp. 43 (1917koa) eta Karp. 10, Esp. 54-75 (1925koa) Ermua eta Zaldibarren arteko gatazka ikusteko oso ona, bestalde Sallabente eta Olaerrea auzitan sartzen dituen dokumentazio honetan Eitzagako baserri eta lursailen aipamen ugari egiten dira.
- *Udal Kontuak eta Aurrekontuak (Udal Kon. Aur.)*, Erreg. 460 (1852-1882koa), Erreg. 462 (1891-1895koa), Erreg. 463 (1897-1899koa), Erreg. 464 (1901-1903koa), Erreg. 465 (1906-1909koa), Erreg. 466 (1910-1911koa), Erreg. 467 (1852-1883koa) ikusi ditut. Herrian burutu ziren zenbait obren aurrekontuak jasotzen ditu.
- *Udal Kontuak Aurrekontuak (Udal Kon. Aur.)*. 1078, 1083 eta 1084 kutxak. XX. mende hasierakoak. Dokumentazio hau aurrekontuak dira, ia dena zenbakiak dira.

- *Planoak* oso-oso berriak dira. Ez didate balio izan.
- *Udal Erregistroa, Udal konponketak (Udal Konpo.)*. Erreg 51.

c) *Denetariakoak*:

Atal honetan argazkiak, planoak, postalak, grabadoak... biltzen dira. Nire kasuan ezin izan dut Ermuari dagokion ezer baliagarririk lortu.

1.1.3.- Jabego Erregistroa (JE)

Ermua eta Zaldibarko informazioa Durangon dago. Erregistro honetan, 1873tik hasita gaur egunera arteko eskritura guztiak gordetzen dira. Bertan, lursailen jabeak, leku-izenak, zabalera eta beste hainbat datu biltzen dira. Salerosketa edo eskuz aldaketarik izanez gero, horren berri ere jasotzen da. Askotan, izena gure nagusien oroimenean galdurik badago ere, hemen jatorrizko izen zaharra agertzen da, eta baita gaurko izen berria edo etxe-zenbakia ere.

1.1.4.- Gernikako Batzarretzeko Artxibategia (GBA)

Artxibo honetako Beheko Atalean dokumentu interesgarrienetarik bat aurkitu dut, *1825eko Polizia Errolda* alegia. Bertan, hurrengo etxez etxeko informazio hau biltzen da: Izen-abizenak, adina, egoera zibila, ogibidea, jaioterria, auzotasunezko urteak eta alfabetatze maila. Beraz, garai horretako oso datu interesgarriak agertzen dira.

Bestalde, errolda honetan azpimarratzekoa da Ermua udalerria lau kaletan sailkatzen dela:

- a) *Barrenkale*.
- b) *Artekale*.
- c) *Goienkale*.
- d) *Izelaieta*.

Ermuko kaleak izendatzeko orduan Euskal Herrian erabili ohi den sailkapena Ermuan ere erabili izan da, hau da, kokapenaren arabera *Barrenkale* (Barrenengo kalea), *Artekale* (Erdiko kalea) eta *Goienkale* (Goiko kalea).

Arraroa da gaur egun hain ezaguna den Zubiaurre kalea, oraindik ere ez agertzea. Honek ez du esan nahi hor ziren etxe eta baserri zaharrak ez zeudela, baizik eta baserri eta etxe zahar hauek arestian aipatutako kaleetan, batez ere Artekalen sailkatzen zirela. Era berean, herritik oso urrun zeuden baserriak (Elorreta, Ongarai, Urko, Telleria...) edo auzoak (San Antonio, Sallabente...) kale horietan (batez ere Goienkalen) agertzen dira sailkatutik.

Artxibo berean dokumentu bereko bi kopia agertzen dira: bata jatorrizkoaren fotokopia dena; eta bestea, gaur egun informatizaturik dagoena. Dokumentu berri honetan informazioa askoz txukunago eta argiago agertzen da, baina ez da ahaztu behar kopia baten aurrean gaudela eta transkribatzeko orduan batzuetan jatorrizko grafia ez duela errespetatzen. Horregatik, bateren batek kontsultatu nahiko balu jatorrizko dokumentura jotzea aholkatuko nioke.

1.1.5.- Bizkaiko Eliz-Histori Agiritegia (BEHA)

Derioko seminarioan dagoen Artxibo honetan hurrengo atal hauek ikusi ditut:

Santiago parrokia: Parrokia liburuak
 Fabrika liburuak
 Denetariko agiriak
 Paper solteak

Hemen agertzen den informazioa ez da oso handia izan, baina agertu dena garrantzitsutzat jo daiteke.

Alde batetik dokumentazio zaharra agertzen da, 1794an Konbentzio gerran egindako sarraskiaren aurrekoa. Herritar batzuei esker, Elizako zenbait liburu etxe partikularretan gordez, frantsesen garretatik libratu ahal izan ziren. Liburu hauek ezaguna ez den garai ilunenetara hurbiltzen gaituzte: Untzamako San Martin, Eitzagako San Pedro, San Pelaio eta Sallabente ermiten berri dakarkigute. Leku-izen asko agertu ez badira ere Ermuko historia ulertzeko bidea zabaldu eta argitu dit. Normalean, liburu hauetan ermitek zituzten maiordomoak, basoen alokairuen kontuak, behartsuen ostalaren gorabeherak, obren aurrekontuak, kapilautzak, kofradiak eta abar agertzen dira.

Bestaldetik, gure lanarentzat oso baliagarria izan diren bataioen liburuak eta matrikula liburuak daude. Hemen, dokumentaziorik zaharrena 1547koa bada ere, garai horretako aktetan ezin izan dut informazio handirik atera akta horiek nahiko sinpleak direlako: gurasoak, aitabitxi eta amabitxiak besterik ez dira aipatzen. 1886tik aurrera, ostera, jaioberriaren etxea agertzen da. Baina, baserria ez bada etxe horren izena aipatu beharrean, zenbakia eta kalea agertuko dira bakar-bakarrik.

Santiago parrokiako *matrikula liburuetan* (1886-1940) kale-izenen berri ematen du. Etxe-izenak agertzeaz gain, batzuetan etxekoen gaitzizena agertzen da. Gaitzizen hori askotan, etxeari egokitu zaio.

1.1.6.- Ermuko Santiago Elizako liburuak (ESE)

Santiago elizako liburuetan 140 bat izen desberdin aurkitu ditut, ia den-denak eraikuntza edo etxebizitzei (oikonimiar) dagozkienak. Lortutako informazio honetan izen ugari aldaera ortografikoak ditu, idatzi duenaren arabera batik bat. Dena dela hemendik zerbait ikas genezake (esaterako azentuazioa, aldaketa fonikoak...)

Bestalde kontutan hartu behar da izen asko kokatzeko orduan Ermuko e-strukturazio zaharrari jarraitzen diola. Antzinako kale antolakuntza hori dela eta etxeak kale hauen barruan (zenbaki batekin) sartzeko joera dago. Gaur egun, berriz, kale antolakuntza hau ezin da erabili, herria izugarri hazi delako eta kale, plaza eta gunek desberdinak sortu direlako.

Hau Artxiboa baino Deriora bidali ez diren liburuak dira:

“Ermua. Bataioen liburua. 8. zk. (1887-1906)”
 “Ermua. Bataioen liburua. 9. zk. (1906-1921)”
 “Ermua. Bataioen liburua. 10.zk. (1922-1944)”
 “Ermua. Bataioen liburua. 11. zk. (1944-1954)”
 “Ermua. Bataioen liburua. 12. zk. (1954-1962)”
 “Ermua. Heriotzen liburua. 7. zk.”
 “Ermua. Heriotzen liburua. 8. zk.”

Liburu hauetan abadeak zaharragoa den ohitura bati jarraituz, askotan jaioberriaren jaiotetxea aipatzen du. Izen propioa badu idazten du, auzoa eta etxe zenbakia ere aipatuz. Honela izanda, leku-izena nahiko zehatz eta garbi agertu da. Dena ez da erraza izan, leku-izena kokatzeko zalantzak ere egon dira, baina jaioberriaren izena eta abizenak ikusirik On Teodoro Zuazua abadeari galdetzeko bidea izan dut, berak ahal izan duen guztietan zuzen erantzun didalarik. Laguntza honen bitartez agertu izan diren leku gehienak kokatu ahal izan ditut.

1.1.7.- Ermuko Udal Artxiboa

Artxiborik nagusia, urtetan, Udaletxekoa izan da, bertan idatziz jasotzen baitziren herriko zertzelada burokratiko guztiak. Giltzapean eta ondo sailkaturik gordetzen ziren, bateren batek noiz kontsultatuko zain. Udaletxeak eskaintzen zuen horma sendoen babesak eta ondo zaindutako soruaren beroak mendetako informazioa biltzen zuten.

Mendeetan izan diren gudaldiek, ordea, hori guztia ez dute gogoan izan eta udaletxeak eraso latzak jasan behar izan ditu. Guztietan aipagarria Konbentzio gerran gertatutakoa, herriko etxe guztiak, bost izan ezik, suntsitu zituen. Jausitakoan artean, egoera txarrean, eliza parean zegoen udaletxea izan zen. Suak hartuta eta hautsa bihurturik udaletxea eta herriko artxiboa lur jota gelditu ziren. Gertaera horrek gure historian sortu duen hutsunerik handiena izan da.

“...dos invasiones, la primera por las tropas francesas en la tarde del 19 de Agosto de 1774, de tan fatales consecuencias, que sólo siete casas quedaron en pie, habiendo quemado y arrasado el resto del pueblo, incluido el Ayuntamiento con su archivo municipal, y la segunda por las tropas del General Rodil en la primera guerra civil” (ONAINDIA 71: 31. or).

Honen ostean Udaletxea plazan altxatu zuten eta bertan Artxiboa. Gerra zibilean, orduan beldurrak eraginda artxiboko dokumentu konprometituek desagertarazi zituzten, garaiko informazio asko galduz. Gelditu den dokumentazio zahar guztia, orain dela gutxi, Bizkaiko Foru Aldundiko artxibora eraman dute. Beraz, hara jo behar izan dut iturri horiek arakatzeraz.

Ermuan gordetzen dena gerra zibilaren ostekoa da, nire lanerako nahiko berritsua. Hala ere, txosten hauek oso baliagarri izan ditugu:

- Plan especial de protección y reforma interior-casco histórico. *Catálogo*, 1988.
- Plan especial de protección y reforma interior-casco histórico. *Normativa general*, 1988.
- Plan especial de protección y reforma interior-casco histórico. *Normativa específica I-II*, 1988.
- Plan especial de protección y reforma interior-casco histórico. *Estudio económico financiero*, 1988.
- Plan especial de protección y reforma interior-casco histórico. *Memoria*, 1988.
- Plan especial de protección y reforma interior-casco histórico. *Catálogo*. Escala 1:5000, 1988.
- Modificación plan parcial-Area de Urtia. *Hiribai*. Las Arenas/Areeta, 1997.

Gaur egun, Ermuko Artxiboko dokumentaziorik zaharrena, Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboan, Udal atalean, dago.

1.1.8.- Zaldibarko Udal artxiboa (ZUA)

Lanaren ardatza Ermuko leku-izenak aztertzea bada ere, Eitzagako toponimoak ere biltzen saiatu naiz. Horretarako Zaldibarko Udal Artxiboa kontsultatu dut. Ermukoarekin gertatzen den bezalaxe Zaldibarko antzinako dokumentu gehienak Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibora eramanak dira. Udaletxean gordetzen direnak, gehien bat, XIX. mende amaierakoak eta XX. mendekoak dira. Hauen artean nik katastroa eta “Jabego zedula” atalekoak aztertu ditut. Katastroan agertzen diren izenak gutxi dira eta gainera oso orokorrak, izen apur horiek kokatzeko planoa ere badago. Zeduletan izen horiek errepikatu egiten dira.

1929-63 eta 1935-50eko estatistikak ere aztertu ditut, emaitzarik ez ordea. 1996ko biztanleen Udal-erroldan (BUE) baserrien izenak aipatzen dira.

Beraz, nahiz eta artxibo hau ondo sailkaturik egon, ateratako informazioa oso txikia izan da. Eitzagari dagozkion leku-izenak beste iturri batzuetatik jaso behar izan dira.

1.1.9.- Bergarako Udal Agiritegia (BUA)

Hemen Ermuari dagozkion 17 dokumentu aurkitu ditut, gehienak auziak eta autuak dira eta hemendik ezin izan dut informazio handirik atera. Badago, dokumentu bat, XXI-2-B-05 hain zuzen ere, non eskritura bat agertzen den. Hau izan da dokumenturik garrantzitsuena. Besteak garrantzi gutxikoak dira, baina zelan batzuk frantsesen aurrekoak diren, beste zenbait lanetarako balioetsuak izan daitezke eta kontsultatu beharrekoak.

1.1.10.- DEIKER Institutua

Deikerrek egindako lanetatik Ermuko 34 izen eta Eitzagako 20 izen inguru atera ditut. Hau izan da kontsultatu nuen lehendabiziko iturria. Gure herriko hain izen gutxi jasota zeudela ikusteak bultzatu ninduen lan hori osatzera. Hemendik eskertzekoa da terminologia, izena deskribatzeko orduan geografia ikuspuntutik egin delako, garbi zehaztuz zein entitatearen aurrean gauden.

1.1.11.- Olaetxeko paper solteak (Esk. 005)

Etxe inguruko leku-izenak jasotzeko paregabea. Urteetan zehar Olaetxekoek baserriari zegokion paper bilduma gorde dute, horien artean testamentuak, ezkontzarako kontratuak, mezak, ordain agiriak, hipotekak, eskriturak... Maleta batean, inolako sailkapenik gabe gorderik dauden dokumentu hauek 1535.etik 1928.erakoak dira, urteen joan-etorriek oso egoera txarrean utzi dituzte, ia irakurtezinak dira. Gehienetan orriak solte daude, sekulako puzzle bihurturik.

1.1.12.- Markinako Karmeldarren Konbentua. Iturriza (MKK.I)

Hemen Juan Ramon Iturrizak idatzitako lehen eta bigarren tomoa aurkitu ditut. Toponimia txikiaren aldetik ezer aurkitu ez dudan arren garaiko ikuspegi orokorra izateko baliagarria.

1.1.13.- Komunikabideak

- *La Voz de España* (1956-1961)
- *Hoja Oficial del Lunes*
- *Correo español. El Pueblo Vasco.* (1958-65)
- *Eibar* aldizkaria (50. zk-185. zk)

Egunkari eta aldizkari hauek nahiko berriak dira, hemen ez da toponimo asko agertzen. Kaleen izenak eta salbuespenak salbu, hemen ateratako toponimoak hutsaren hurrengoak dira. Toponimo hauek, ahozko eta artxiboetako dokumentazio-tik ateratakoen aldean, gauza gutxi dira.

1.1.14.- Planoak eta mapak

Oso plano gutxi aurkitu ditut, zaharrenak XIX. mendekoak dira, oso zehaztasun gutxiokoak. Plano hauek Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboan gordetzen dira. Zaharragoak ere badaude, baina horietan herriaren izena besterik ez da aipatzen, plano hauetatik ateratako informazioa txikia eta zehaztu gabekoa izan da.

1983koak, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza sailak eginiko mapa mutua ditugu (62-64, 63-49 eta 63-57), topografikoki oso zehatz eginak daudenak. Mapa hauen gainean Deustuko Deiker Institutuak 1986an toponimoak idatzi zituen, kode geografikoak finkatuz. Mapa mutu horietaz baliatu naiz eta izenak jartzeko orduan berriemaileen laguntzarekin.

Herri barruko toponimia jasotzeko, ostera, Ermuko Udalak ateratako kale-izendegia erabili dut. Izen nagusiak jasotzen dira, kaleak, monumentuak, udal instalakuntzak... Nire asmoa toponimia txikia jasotzea denez, plano hau ez zait oso baliagarri izan. Beraz, Ermuko Udalak darabilen plano mutu on bat hartu eta bertan idatzi ditut jasotako toponimoak.

1.1.15.- Argazkiak

Kanpo lana egiteko, argazkiak oso tresna baliotsua izan ditut. Argazki zahar gehienak *Irudi* argazki dendako artxibokoak dira. Beste apur batzuk berriemai-leek jiratu dizkirate eta Sallabentekoak Jesus Zamalloa abadeak 1971. inguruan egingakoak dira. Azken hauek izan ezik, argazkien egilea ez dugu ezagutzen. Badakit batzuk Indalezio Ojanguren eibartarrak ateratakoak direla, baina gehienetan egilea identifikatu barik dago.

Argazki berriak, 1997 eta 2000. urteen bitartean Fernando Aranberrik eginak eta beste zenbait *Irudi* argazki dendakoak.

1.2.- AHOZKO ITURRIA

Iturri honen bidez gaur egungo ahoskera eta kokapena ezezik leku-izenen izana ere ezagutu dut.

Liburu honetan izen normalizatua proposatzen dut, baina ez da ahaztu behar idazkera eta ahoskera desberdinak direla. Idazkeraren bidez jatorrizko izen osoa

berreskuratzen da. Ahoskeraren bidez, berriz, gaur egungo ahozko erabilera da kontuan hartzen duguna. Ahoskera eta ebakera hori da ahozko kode normalizaturako proposatzen dudana.

Idatzizkoan agertzen ez diren zenbait leku-izen agertu dira. Soloen edo basoen izenak soilik jabeak ezagutzen dituenak, etxean bakarrik erabiltzen direlako. Beste batzuek, berriz, kalean erabiltzen ziren eta idatziz erabiliak izateko indarririk ez dute izan, edo berri-berriak dira eta ez dira zabaldu.

Askotan, herritarren hizketaldietan ez dira erdarazko dokumentatuetan agertzen diren formak erabiltzen. Atzizkiak, aldaerak edo barianteak agertzen dira. Leku-izena erabili beharrean jabearen pertsona izena, abizena edo gaitzizena erabiltzen dira:

Adib. "Patri, Kareaga, Sargentu, Kondea, Izarra, Ambrosia, Rifeño, Eskola, Foteria, Kaminero, Kantabria, Mendiola, Txotxolo, Urrea, Agua, Pedromari, Kartero, Kokos, Kristo, Mantia, Metxeros, Mugerza, Ritxar, Segunda, Sosua, Totoa... e.a".

1.2.1.- Metodologia

Elkarrizketak egiteko, lehendabizi zeini/nori egin pentsatu dut, gero galdekizuna prestatzen dut. Hau egin ostean, bera edo berriemailearen lagun batekin jartzan naiz harremanetan, horri nire egitasmoa zein den azaltzen diot, eta horren bitartez berriemailearengana jotzen dut. Biltzeko eguna eta ordua jartzeko telefonoz egiten dut, eta gero etxera edo baserrira joaten natzaio.

Berriemailearekin nagoenean, ostera ere nire egitasmoa azaltzen diot eta galdekizunari ekiten diot. Lehendabizi toponimia orokorra dena, nik nahiko ondo ezagutzen dudana azaltzeko esaten diot. Gero, beharbada berak bakarrik ezagutzen duena: etxeko soloak, basoak, etxe ingurua.... Eta azkenean, nik prestatutako galdekizun osoa galdetzen diot.

Hau egitean, datuak SONY TCM-S68V grabagailuaz hartu ditut eta normalean planoez eta airetik ateratako argazkiez baliatzen naiz, izenen kokapena hobeto zehazteko asmoz. Berriemaileak lagundurik izenak behin-behineko plano batean idatziz jasotzen ditut, geroago behin betiko plano egiteko orduan datuak argiago izateko.

Inkesta amaitzen dudanean, idatzizko datu guztiak garbira pasatzen ditut eta grabazioa berriz entzuten dut. Garbira pasatu ostean planoratzten ditut eta fitxetan sartzen ditut. Iturri honetatik hartutako leku-izen gehienek, idatzizkoetatik hartutakoak ez bezala, fitxa daukate, izenaz gain kokapena ere agertzen delako.

Azkeneko urrats hau oso garrantzi handikoa da eta, elkarrizketa amaitu eta gutxira, biharremunerako gehien jota, egitea komeni da. Osterantzean, interpretazioa ez da hain freskoa izaten.

Non grabatu: Ermuko zabalera osoan eta mugakide diren inguruko base-rietan.

Nori grabatu: Onena baserri edo lursailen jabeai. Zenbat eta nagusiago orduan eta informazio gehiago lor daiteke.



1.2.2.- Berriemaileak

Lan hau osatzeko Ermuko jende nagusia izan dut iturritzat, beraz, jende honen laguntzarik gabe ezin izango nukeen lana aurrera eraman. Hona hemen elkarriketatu ditudan berriemaileak dagozkien zenbakiekin²:

- 001 Javier Aranberri
- 002 Inés Ugarriza
- 003 Emilio Areitio (Sallabentebekoa)
- 004 Jesusa Ardanza (Joxio)
- 005 M^a Esther Olaetxea (Olaetxea)
- 008 María Bengoetxea (Txindurrinekoa)
- 009 Joseba Idigoras (Labakoa)
- 010 Domingo Astarloa (Betiondo)
- 011 Diego Arriaga (Bizinai)
- 012 Jose M^a Zendoia (Aresti)
- 015 Pedro Bildosola (Eitzagabarrenengoa)
- 016 Esteban Agirre (Sallabente)
- 017 Antonio Izagirre
- 018 Pedro Abarrategi (Olaetxetxiki)
- 019 Irene Aldalur (Patakonia)
- 020 Zeberi Agirregomezkorta
- 021 Vitoria Aranburu, Margarita Aranburu, Pilar Bilbao (Malengo)
- 022 Agurne Agirregomezkorta, Elbira Agirregomezkorta, Agus Agirregomezkorta
Migel Yarza (Lomiñonekoa)
- 023 Dioni Ardanza (Joxio)
- 024 Zezilia Mallabiabarrena (Eitzagagoikoa)
- 025 Vicente Markina, Juana Buruaga (Abeletxe)
- 026 Luisa Egia
- 027 Mikaela Sagastigutxia (Olaerreaga)
- 028 Ignazio Urreta
- 029 Leonzia Areitio
- 030 Dominga Narbaiza
- 031 Felix Ugalde (Elorretabekoa)
- 032 Jesús Ormaetxea (Udaeta)
- 033 Iginia Ormaetxea (Zubiondo)
- 034 Bitore Mugerza, Felisa Mugerza (Mugertzanekoa)
- 035 Antonia Madariaga (Espilla / Areitio)
- 036 Gregorio Mugerza (Zerkaburu / Santuko)
- 037 Juanita Ormaetxea (Egoarbitza)
- 038 Trinidad Totorikaguena
- 039 Jose Luis Abarrategi (Olaetxetxiki)
- 041 Miren Areitioaurtena
- 042 Mari Luz Yarza
- 043 Javier Agirregomezkorta
- 044 Alberto Elejalde

2. Inkestak 1994-2000 urte bitartean eginak dira, tarte honetan berriemaile batzuk zendu dira. Goian beude.

- 045 Elixeo Areitioaurtena
- 046 Joxe Ignazio Arrarte
- 047 Ignazio Onandia
- 048 Pablo Zubiarrementeria (Aixolabekoa)
- 049 Manuel Elustondo (Eitzagagoikoa)
- 050 Justo Narbaiza (Urkogoikoa)
- 053 Javier Gorritxategi (Larrosianekoa)
- 054 Josu Bergaretxe (Espilla)
- 055 Joxemari Agirre (Berdengillo)
- 056 Eugenio Mallabiabarrena (Areitioaurtengoa)
- 057 Jose María Larrañaga (Elorretagoikoa)
- 058 Felipe Egia (Telleria)
- 059 Pedro M^a Agirregomezkorta (Aldapabarrena / Arrako)
- 060 Juan Azpiri (Plazagoiena / Infreñu)
- 061 Vitoria Aranburu (Zerkaburu / Santuko)
- 062 Genoveva Onaindia (Aldapakoa)
- 063 Juan Isidro Amillategi (Zinkonekoa)
- 064 Pedro Zubizarreta (Palaziozarra)
- 065 Jose Antonio Gisasola (Artamendi)
- 066 Zakarias Yarza (Orozko)
- 067 Alberto Aranzibia (Abeletxe)
- 068 Mari Jose Goiogana (Errekalde)
- 069 Floren Arriaga (Bizinai)
- 070 Felix Bildosola (Eitzagabarrenengoa)
- 071 Jesusa Bergaretxe (Telleria)
- 072 Felix Gorrotxategi (Eitzagaetxebarria)
- 073 Jose Ignazio Aranzibia, Benita Areitio (Palazioa)
- 074 Pedromari Bergaretxe (Munikola)
- 075 Maria Luisa Mugerza (Zerkaburu / Santukoa)



II
NORMALIZAZIORAKO
IRIZPIDEAK

Lan honen helburuetako bat izenak normalizatzea da. Historian zehar, izen batzuetan, zenbait aldaera sortu da. Leku-izenak, gizaldien joan-etorrietan, itxuraz alda daitezke, izen berriak agertu eta baita izen zaharrak ordezkatu ere. Hori dela eta izen bat normalizatzeko orduan zenbait arazo izan dut. Leku-izen bat edo aldaera bat onartzeko edo baztertzeko erabakia hartu behar da. Erabaki hori hartzea ez da erraza izaten, arlo filologikoa edo etimologikoa kontuan hartzeaz gain, faktore historikoak, soziolinguistikoak, eta ahozko eta idatzizko erabilera ere kontuan hartu behar direlako. Irizpideak finkatzeko orduan, Euskaltzaindiaren aldetik, Mikel Gorrotxategiren aholkularitza izan dut³.

2.1.- Leku berberari dagozkion izen desberdinen aurrean zer egin?

Leku bati izen bakarra egokituz gero, izen hori normalizatzen da. Bi edo gehiago egokituz gero, normalean bat hautatu dut. Hautaketa hori ez da matematikoa izaten.

Honen aurrean, lehendabizi, izen horiek itxura desberdina badute, etimologikoki ea jatorri berbera duten begiratu behar da (*Kareobiaga*>*karabixa*), etimologia erabat gardena izan baldin badute, errestituzioak egingo dira eta normalean idatzirik agertzen den forma osoagoaren alde jo dut⁴. Ez badute zerikusirik, datu guztiak aztertu ditut: idatzizkoan noiz eta zenbat agertzen den, eta zein den azkeneko aldiz agertzen dena; ahozkoan zein erabiltzen edo ezagutzen den eta zeinek eta zenbatek erabiltzen duten; izen horrek zeri egiten dion erreferentzia, lekuari (*Aldapabarrena*, *Bideburu*, *Goikoerrota*...), naturari (*Amezti*, *Artarrai*, *Elorreta*...), pertsona xeble bati (*Kantabria*, *Feliz Izagirre*, *Droget*...), gertaera edo

3. Ik. GORROTXATEGI, M. eta SALABERRI, P. (2000): "Toponimia txikia arautzeko irizpideak", *Euskera* agerkaria, 2000, 1: 273-314 orr. EUSKALTZAINDIA.

4. Errestituzioak egiteko orduan ere kontu handiz jokatu dut, salbuespenak egin behar direlako. Esaterako *Arizmendi*: Nahiz eta *Arexmendi* jatorrizko forma izan, idatzirik mendeak dira horrela erabiltzen ez dela. Ahozkoan ere aldatu da, forma zaharra baztertuz.

pasadizo bati (*Zerkaburu/Santuko, Infreñu, Betiondo...*) eta hau guztia kontuan hartuta bat aukeratzen dut. Batzuetan arazo larria izan dut, leku batek bi izen izan dituelako eta bakoitzak informazio garrantzitsua ematen duelako. Informazio hori, nahiz eta gero fitxa barruan agertu, galtzea ez dut bidezkoa ikusi. Ezin dut orain dela urteak galdurik dagoen izen bat proposatu edo baztertu. Beraz, batzuetan izen bi aukeratu ditut: bata idatzizkoan agertzen dena, baina duela denbora dezente galdua; eta bigarrena, gure nagusien oroimenean bizirik dirauen toponimoa izaten da, baina nahiko izen berria (*Aldapabarrena/Arrako, Infreñu/Plazagoiena, Irukurutzeta/Pasealeku, Bustintza / Palaziozarra, Arriola /Aixola...*).

2.2.- Idazkera

Izen bat edo beste hautatu eta gero, izen horren idazkera ere normalizatu behar da. Horretarako, normalean idatzizko iturria eta gaur egun Euskaltzaindiak onartu dituen arauak eta grafia kontuan hartzen dira. Irizpiderik aipagarrienak hauek dira:

a) Ortografia

- Gaur egungo Ermuko hizkeraren ezaugarriak izen normalizatuetan ez dira agertuko, asko eta asko ez baitira guk uste bezain zaharrak.
Euskara batuaren ereduari jarraituko diot, bere grafia erabiliz eta jatorrizko formak errespetatuz⁵. Bokalez bukatzen den berba batek artikulua hartzen duenean, Ermuan egiten diren bokal aldaketak soilik ahoskeran eta herriko hizkeraz idaztean hobesten ditut. Herri hizkeran kontsonantez hasten den atzizkia hartzean, jatorrizko bokala berreskuratzen da (*Errotabekotik, Santukora, Elizbideko etxea...*).
EA (euskara batua) > IA (Ermuko euskara) Adib.: *Jubileteea, Kondea, Bekomotea...*
OA (euskara batua) > UA (Ermuko euskara) Adib.: *Aldapakoa, Arrakoa, Santukoa, Arribakoa, Elorretabekoa, Bolintxoa...*
IA/ IO (euskara batua) > IXA / IXO (Ermuko euskara) Adib.: *Batzokia, Bولاتokia, Kareobiaga, Telleria, Purgatorio...*
D (euskara batua) > R (Ermuko euskara) Adib.: *Bidegurutze...*
IT (euskara batua) > ITX (Ermuko euskara): Adib.: *Ermita...*
- Salbuespen moduan, batuak hobetsitako forma Ermuan idatzirik eta dokumentaturik agertzen ez bada, ahozko euskarari jaramon egingo zaio eta forma hori onartuko da.
 - Jakina denez, mendebalde osoan legez *ts/tz* eta *s/z* txistulari sail biren arteko neutralizazioa bete da.
 - */ts/* dokumentaturik ez da agertzen, beraz, nik ez dut */ts/* erabili.
 - */tz/* idatziz ere ez da agertzen, baina ahozko hizkeran */n/*-ren ostean */z/* */tz/* bihurtzen da. Neuk ere horrela jokatu dut: *Untzama, Antzola, Bustintza...* Bestelakoetan batuaren ereduari jarraituko diot.

5. Ahoskera eta idazkera gauza desberdinak dira. Gogorazi nahi dizuet, hauek idazteko arauak direla eta ahoskera kontuan, gaur egungo Ermuko euskara hartu behar dela eredu. Herriko euskarari dagokionez ikusi ARANBERRI (96): *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermuko Udala. Gertu.

- XIX. mendera arte idatzirik agertu ez arren, /ñ/ bailara honetako ezaugarri orokorra da. /i/+ /n/ > /i)ñ/ bilakaera arrunta da. Beraz, /ñ/ sabaikaria erabili dut: *Errigaztañadi, Mañærreka, Jardina, Ibañeta, Antoliñena, Imiñasolo, Infreñu, Kamiñopea...*
- Dardarkari azkar baten eraginez /e/ ireki eta /a/ bihurtu da. Bokal hau espezi-fikoetan gordeko da, ez generikoetan. Adib.: *Errotabarri, Etxebarri, Zubibarri...*
- Idatzizko iturrian kontrakorik agertzen ez bada Debarroko aldaerak onartuko dira: *Basobaltza, Erretenpeko soloa, Ardinarrukoa, Kipulanekoa, Etxeaurdia...*
- /H/-ren galera ahozko hizkuntzan aspaldikoa da, bokal berdinen elkarketa burutu da. Idatziz, XVIII mendera arte, Ermua, Ermita...“h”-z dokumentatuta dago. XVIII.etik aurrera gutxiago agertzen da. Izen horiek Euskaltzaindiaren ereduari jarraituz, hau da, “h” barik normalizatu ditut. Adib.: *Basozarra, Kanterazarra, Telleriazarra...*
- Izen berrietan, jatorrizkoa erdal izena bada erdal grafia onartzen dut. Hauek oso izen gutxi dira eta XX. mendekoak. Esaterako: *Herrero, Monte Hermoso...*
- Leku-izena osagai espezifiko bakar batez osaturik egon daiteke. Esaterako: *Joxio, Ermua, Urko, Aldapa, Untzama...* Beste batzuetan, espezifiko eta generikoa batera, izen bakar batean joaten dira. Holakoetan loturik idatzi ditut Adib.: *Rosinaetxea, Drogeteniturri, Goienkale, Telleriaturu, Olaetxetxiki, Etxebarri, Sanantonioburu, Zapaterosolo, Sallabenteaurrekoa, Eitzagagoikoa, Etxeaurdia, Osinzuri, Basobaltza...*

Salbuespenak, berdinak diren bokalak elkartzen direnean egingo ditut. Holakoetan idatzizkoan normalean gioi batez loturik agertu ohi dira. Ermuko euskararen ere bokal berdinek mantentzen dira. Nik gioi baten bidez bereiziko dut eta bigarren osagaia minuskulaz idatziko dut. Adib.: *Sanantonio-oste, Karabiaga-aldea, Aldapaundi, Abade-etxe, Estrata-aldea, Ureta-andikoa, Ezpilla-azpi, Udaeta-azpi, Errota-azpikoa, Etxeondoko-orma*⁶...
- Banaturik agertzen bada, bigarren osagaia izen generiko arrunta da, hau da, entitate geografikoaren “izaera” adierazten duela esan nahi du. Bigarren osagai hori hizki xeheaz idazten dut. Holakoetan, aurretik “-ko” deklinabide atzizkiak agertzen dira: *Izelatietako iturria, Ongaraiko kurutzeta, Ardinarruko aldatza, Larrosako buelta, Zearreko buelta, Torreko atxak, Herriko zubia, Etxeosteko soloa, Erretenpeko soloa*⁷...
- Generikorik ez badauka, eta jentilizioa pertsona-izena edo gaitzizen batetik eratorria bada, normalean ahozko euskararen “-(#)nekoa” erabiltzen da. Adib.: *Pedromarianekoa, Antonatxanekoa, Kastotxuanekoa, Agirrenekoa, Ambrosianekoa, Eskolanekoa Etxaixanekoa, Foterianekoa, Izagirrenekoa, Frantsesanekoa, Izarranekoa, Kajeroanekoa, Kamineronekoa, Karteroanekoa, Kaskillona, Kipulanekoa, Kokosenekoa, Kristonekoa, Ariñonekoa, Aguanekoa, Mandiolanekoa, Txotxolonekoa, Segunda-*

6. Euskaltzaindiak bokal biak elkarturik idazteko gomendioa ematen du. Neuk bakarrik elkarketa aspaldian egin zirenetan idatziko dut. Holakoetan, ahoz bokal bakarra egiten da eta idatziz ere horrela agertzen dira. Beraz, salbuespen moduan hartuko ditut: *Olaurre, Olalde, Beko errekaldea, Beko txabolaldea, Errekalde, Bidalde, Presalde, Sakonaldea, Txabolalde...*

7. Salbuespenak bigarren zatiko entitatea, etxe, errota, txabola edo antzerako eraikuntza bat denean egiten dut. Esaterako, *Goikoetxea, Bekoerrota, Goikoerrota...*

nekoa, Urretanekoa, Torteroanekoa, Urrianekoa, Sosuanekoa, Burrunanekoa, Mugerzanekoa...

Hauetatik arau guztiotatik kanpo hiru salbuespen daude: *Abadeaneko Etxezarra, Gure Etxea eta Lauron-etxe*.

2.3.- Ahoskera

Ahoskerari dagokionez, Debarroko ezaugarri nagusienak betetzen dira⁸. Hona hemen ezaugarri aipagarrienak eta batasunaren aldetik, arazo gehien eman dizkidanak. Belaunaldiz belaunaldi, hots berri batzuk sartu eta zaharrak ordezkatzan dirrelako:

- Sabaiko leherkariak (TT eta DD): Toponimoetan /dd/ ez da agertzen. /tt/ kasuan "iturri" osagaia duten toponimoetan agertzen da ("*Drogeteniturrri, Lapurriturrri, Itturritta, Galiturrri, Itturbe*"...). Gazteek /tt/ > /tx/ darabilte eta gaur egun batua- ren eraginez /t/ ere sarritan entzuten da.
- /z/ agertzen da, nahiz eta, bizkaieran legez, neutralizazioa izan eta /s/ ahoskatu ("*Albisuri, Aldapasar...*") edo /tz/ bihurtu ("*Burduntzali...*"). Salbuespen moduan, berriemaileren batek (idatzizkoaren eraginez eta ez beti), /z/ mantendu izan du. Adib.: "*Aranza, Unzama...*".
- /x/ agertzen da. "*Aixola, Joxio, Xatua, Lixibaeta...*".
- Bokal arteko kontsonantearen galeraren ondorioz, bokal luzeak izaten dira. Adib.: "*Maastixa, Xaatua...*".

Zelan ahoskatu behar diren ikusteko transkripzio fonetiko erabili dut.

Transkripzio fonologikoa > transkripzio fonetiko

- tx > [č] ("*Kaltxango, Txantxiku, Abeletxe, Etxarte, Mantxibar...*")
- tz > [c] ("*Ametza, Bustintza, Untzama, Arantza, Eitza...*")
- rr > [ř] ("*Lurbarri, Zubiaurre, Errotabarri, Urkoerrea...*")
- x > [š] ("*Joxio, Aixola, Diaxua, Kerexeta...*")
- tt > [t̪] ("*Lapurriturrri, Drogeteniturrri, Ermittakua, Galiturrri...*")
- ñ > [ɲ] ("*Infreñu, Rifeñu, Titiñoanekua, Kamiñopea, Iramiña...*")
- ll > [l̪] ("*Tellerixa, Mallaerrotta, Okillo...*")
- j > [x] ("*Joxebenta, Joxio, Jaroimonte, Jardiña...*")

2.4.- Azentua

Oraintsu arte, izenak normalizatu direnean azentuari ez zaio inolako jaramonik egin. Benetako normalizazioa nahi badugu, leku-izenek duten azentua markatu beharra dago, helburua, azken finean, izen hauen erabiltzean baitatza. Eta, azentua markatu ezean, Ermukoa ez denak ez du jakingo Ermuan nola ahoskatzen diren leku-izen hauek.

Azentua ipintzeko orduan beti ahozko iturria hartuko dut kontutan. Izen normalizatu ahozko hizkeran ez bada jaso, orduan ez du izango transkripzio foneti-

8. Ik. ZUAZO, Koldo (1999): *Deba ibarreko euskera*. Zenbait Udal. Gertu.

korik. Erabili dudak idatzizko dokumentazioan ia inoiz ez da azentua jaso. Beraz, gaur egungo Ermuan egiten den azentuari egingo diot kasu.

Silaben arabera Ermuan egiten den azentua honelakoa litzateke:

- Bi silabakoetan: Azentua lehenengoan eramango du (‘_’)⁹.
Adib.: *Úrko, Tráke, Égo, Íbur, Márda, Krísto...*
- Hiru silabakoetan: Azentua normalean bigarrenean agertzen da (‘_’_’_’).
Adib.: *Ermúa, Maléngo, Otórre, Tronkútso, Arráko, Bizínai, Sakóna, Torréta...*
- Lau silabakoetan: Bigarrenean ere (‘_’_’_’_’).
Adib.: *Burdúntzali, Elórreta, Barréncale, Balério, Artámendi, Errékalde, “Karábi-xa”...*
- Bost silabakoetan: Azentua bigarren silaban agertzen da eta laugarrenean indar gutxiagoko beste azentu bat ere egiten da (‘_’_’_’_’_’).
Adib.: *Aldápakoa, Errótabarri, Ostátukoa, Errébalburu, Ermitakoa, Irúmugarre, Uzábaleta...*
- Sei silabakoetan: Bigarren silaban, laugarrenean eta seigarrenean indar gutxiago beste bana.
Adib.: *Ardínarrukoa, Aldáparaburu, Eskólanekoa, Dendábarrikoa...*

Honen arabera azentua Ermuko euskarari oso finkaturik dagoela ustea har daiteke, baina ez da horrela. Zergatik?

Leku-izenen azentuaren eta leku-izen horiei dagozkien pertsona-izenen azentuaren artean aldeak daudelako, eta azentuaren bidez pertsona eta etxea bereizten direlako. Adibidez:

Pertsona izena ≠ leku-izena

Árrako ≠ Arráko

Úreta ≠ Uréta

Íspilla ≠ Ispilla

Sántuko ≠ Santúko

Txántxiko ≠ Txantxíko

Txíkuri ≠ Txikúri

Kóndia ≠ Kondía... e.a

Erdal azentua gure euskarari sartzen delako, jatorrizko azentua baztertzera edo nahastatzera bultzatzen gaituelarik. Adib.:

Euskaraz → Gaztelanera

[éř múa] → [éř mwa]

[ař tář aĭ] → [ař tař áĭ]

[betioŋdo] → [betioŋdo]

[karábiša] → [karabiša]

[šerúkua] → [šerukóa]

[goieŋkale] → [goieŋkále]... e.a

Azalpen gaitza duten beste motatako salbuespenak ere ager daitezke.

9. Salbuespen moduan “*Sabón* eta *Antón*”.

2.5. Artikulua

Deklinatzeko orduan sor daitekeen arazorik handiena artikulua da, /a/ bokala berezkoa den ala ez galdetzen dugunean. Beraz, deklinabidea azaldu baino lehen artikuluaren gainean aipamena egitea merezi du.

a) Artikulugabea

Ermuko leku-izenetan joerarik nagusia artikulu gabekoa da. Hala erakusten dute Ermuko izenik zaharrenek: *Barrenkale, Artekale, Zubiaurre, Ongarai, Albarrandi, Albizuri, Zerkaburu, Goiengkale...*

Deklinatzeko orduan izen hauek ez dute inolako arazorik.

• Bokalez amaiturikoak:

- /a/ bokala kontsonante baten atzean, kontsonante horrekin silaba bat osatuz, baldin badago, bokal erantsia izango da eta beti mantentzen da¹⁰, euskara batuan legez.. Adibidez: *Torreta, Eitzaga, Aixola, Barrena, Infreñuerreka, Arantza, Benta, Zerka, Txara, Marda, Mota, Udala, Santela, Untzama, Irukurutzeta, Kareobiaga, Irulieta, Aldapa, Erleta, Estrata, Muna, Eibarlanda, Egoarbitza...*
- /e/ bokala: Euskara batuan legez. Esaterako: *Zubiaurre, Sallabente, Artekale, Barrenkale, Abeletxe, Elexoste, Lasalde, Olalde, Auntzarte, Otaerre, Trake...*
- /i/ bokala: Euskara batuan legez. *Aresti, Artamendi, Arizmendi, Albizuri, Aldapa-aundi, Amezti, Udaeta-azpi, Lindari, Lizardi, Egurmendi, Tantai...*
- /o/ bokala: Euskara batuan legez. Adib.: *Urko, Ego, Joxio, Areitio, Atebaso, Zapatasolo, Zubiondo, Okillo, Barrutisol, Zinko...*
- /u/ bokala: Euskara batuan legez. *Arrabalburu, Zerkaburu, Espillaburu, Estrataburu...*

- **Kontsonantez amaiturikoak.** Euskara batuan legez. Esaterako: *Arestizabal, Arrikruz, Aldapazar, Basakatz, Basobaltz, Berotegizar, Buenos Aires, Urbidekurutz, Ibargain, Iburutx, Iturriotz, Sabon, Pagadisakon, Osinbaltz, Mantxibar, Larrazar, Bidegain...*

b) Artikuluduna:

Euskaraz artikulua /a/ bokala da, noiz ez den artikulua arestian azaldu da. Hurrengo kasuotan artikuluduna izango da.

• Kontsonante + artikulua:

Izen hauek “non, nondik, nora, norako” deklinabide atzizkiak eranstean “e” bokala hartzen dute, kontsonantez amaitzen direnen eran. Esaterako: *Aldapazarrean, Palaziozarrekoa, Frontozarrera, Bentazarretik...*

• Bokal + artikulua:

“a” bokala, silaba desberdinekoa den beste bokal baten atzean bada, artikuluduna izango genuke. Salbuespenak: *Telleria, Kondea, Patakonia...*

a) Gehienek genitibozko deklinabide atzizkia eramaten dute. Izen hauei entitaterik ez bazaie eransten, “a” artikulua gehituko litzaieke, adibidez: *Ermua, Diaxoa, Konbentukoa, Labakoa, Torrekoka, Zerukoa, Eitzagabarrenengoa, Elorretagoikoa,*

10. Salbuespenak: *Sakona...*

Konbentukoa, Ostatukoa, Ermitakoa, Kajerokoa, Areitigoenengoa, Aldapakoa, Arrakoa, Txantxiku, Bergarakoa, Sallabentebekoa, Arribakoa, Izarranekoa, Tximiñokoa, Ariñenekoa, Eskolanekoa, Ambrosianekoa, Lomiñonekoa...

b) Entitatea gehituz gero, artikulua barik agertuko lirateke. Esaterako: *Ermuko eliza, Diaxoko aldapa, Konbentuko etxea, Aldapako baserria, Labako baserria, Ariñeneko etxea, Eitzagabarrenengo baserria, Elorretagoiko baserria, Zeruko etxea, Santuko baserria, Lomiñoneko etxea, Torreko atxak, Erretenpeko soloa, Diaxoko Karabiagaldea...*

c) *Bestelakoak:*

Hemen artikulua barik zein artikulua erekin erabiltzen diren leku-izenak sartzen dira. Nire ustez, leku-izenak nortasun propioa hartu, eta izen arrunta legez erabilia izateari lagatzen dionean “a” artikulua galtzen du, idatzirik, ohituraz, artikulua mantendu arren. Esaterako: *Esparrua, Etxaburua, Etxeostea, Etxeaurrea, Erretenpea, Beko errekaldea, Arrabaletxea, Bekoetxea, Beko sagastia, Bekotxabolaldea, Beko soloa, Zubibarria, Txabolaldea, Solonagusia, Sololuzea, Solotxikia, Losaburua, Errekatxoburua, Frontoibarria, Abade-etxea, Ongaraiazpia, Batzokia, Bolatokia...* Toponimo hauek nahiko berritzat jo ditzakegu.

Euskaraz leku-izen hauek abizen moduan erabiltzen direnean, artikulua agertzen da: *Olaetxea, Eitzagaetxebarria...*

Gaztelaniaz, berriz, bereizketarik ez da egiten eta gehienetan “a” artikulua erantsita agertzen da bai abizenetan bai leku-izena denetan ere. Esaterako: *caserío Elorretagoikoa, Torre de Santukoa, caserío de Aldapakoa...* (Euskaraz: *Elorretagoiko baserria, Santuko torrea, Aldapako baserria...*).

2.6.- Deklinabidea



Deklinabideak ez du arazorik ematen. Ahozkoan aldaketarik aipagarrienak honako hauek dira:

Norantz	→	Norutz
Noraino	→	Noraiñok
Norena (Juliorena)	→	Juliona

Genitiboan ematen den kontsonantearen galera, idatzikoan ere ematen da. Beraz bidezkoa jo dut, aldaketa horren berri izen normalizatuan ere agertzea.

		ARTIKULU GABEKO LEKU-IZENAK				ARTIKULUDUNAK	
	Kontsonantez amaiturikoak	Bokalez amaiturikoak		/ a /	Kontsonate + artikulua	Bokal + artikulua	
		/ e / i / o / u /	/ a /				
Zein	Basakatzen	Artarrai	Zubiaurre	Elorreta	Palaziozarra	Konbentukoa	
Zeini	Basakatzi	Artarrai	Zubiaurre	Elorretari	Palaziozarrari	Konbentukoari	
Zeinek	Basakatzek	Artarrai	Zubiaurrek	Elorretak	Palaziozarrak	Konbentukoak	
Zenen	Basakatzen	Artarrai	Zubiaurren	Elorretan	Palaziozarran	Konbentukoan	
Zeinekin	Basakatzeekin	Artarrai	Zubiaurrekin	Elorretekin	Palaziozarrakin	Konbentukoekin	
Zeinendako	Basakatzenendako	Artarrai	Zubiaurrendako	Elorretendako	Palaziozarrandako	Konbentukoandako	
Zeingaitzik	Basakatzezagaitzik	Artarrai	Zubiaurrezagaitzik	Elorretzagaitzik	Palaziozarragaitzik	Konbentukoagaitzik	
Zerez	Basakatzez	Artarrai	Zubiaurrez	Elorretaz	Palaziozarraz	Konbentukoaz	
Non (nun)	Basakatzen	Artarrai	Zubiaurren	Elorretan	Palaziozarren	Konbentukoan	
Nondik (nundik)	Basakatzetik	Artarraitik	Zubiaurretik	Elorretatik	Palaziozarretik	Konbentukotik	
Nora	Basakatzerara	Artarrai	Zubiaurrera	Elorretara	Palaziozarrera	Konbentukora	
Norañok	Basakatzerarañok	Artarrai	Zubiaurrerañok	Elorretarañok	Palaziozarrerañok	Konbentukorañok	
Noruz	Basakatzerutuz	Artarraituz	Zubiaurrerutuz	Elorretarutuz	Palaziozarrerutuz	Konbentukorutuz	
Nungo/Zeñetako	Basakatzeko	Artarrai	Zubiaurreko	Elorretako	Palaziozarrako	Konbentukoko	
Norako	Basakatzerako	Artarrai	Zubiaurrerako	Elorretarako	Palaziozarrerako	Konbentukorako	
Zenik	Basakatzenik	Artarraitik	Zubiaurrerik	Elorretarik	Ermurik	Konbentukotik	
Zeintzat	Basakatzetatik	Artarraitatik	Zubiaurreretatik	Elorretetatik	Ermurtzat	Konbentukotzat	

Deklinabideari buruz informazio gehiago jakin nahi izanez gero Ik. ARANBERRI (96): 47-74. orr.



III
TOPONIMOETAN
AGERTZEN DEN HIZTEGIA

abade: *iz. Apaiz, elizgizon:* Abade-etxea...

abere: *iz. Ganadu, azienda:* Abeletxe, Abeletxebarrena...

aga: *atzizkia. Leku, bide:* Olaerreaga, Pagonabarraga, Zubibarriaga, Eitzaga, Kareobiaga, Idoizarraga, Pagazubiaga, Kareaga, Madariaga, Sasitxuaga, Urteaga, Usoturriaga...

agerre, agirre: *izond. Begibistan dagoena:* Ermuan soilik abizenetan agertzen da. Agirre, Izagirre...

albizuri: *iz. (Bot) Sarale, jaraila. Holcus mollis:* Albizuri...

aldapa: *iz. Aldats, malda:* Aldapaburu, Aldapakoa, Aldapa, Aldapa-aundi, Aldapabarrena, Aldapazar, Aldapasoloa...

aldapara: *iz. Errotarako urtegi:* Aldaparaburu...

aldatz: *iz. Aldapa, malda:* Ardinarruko aldatza...

alde: *iz. Inguru, eremu:* Oso modu zabalean lursailak azaltzeko erabiltzen da, normalean urrunetik izendatzeko balio du. Eransten zaion berba /a/ bokalaz amaitzen bada gioi baten bidez idatziko da, bestelakoetan elkaturik: Abeletxealde, Bentiondoalde, Joxioalde, Ongarrialde, Sanpelaioalde, Urkoalde, Iturralde, Artaluzealde, Elexalde, Estarta-alde, Udaeta-aldea, Txabisola-alde, Kareobiaga-alde, Iturralde...

Loturik idatzi ohi direnak errespetatuko ditut, idatzirik hala agertzen direlako: Olalde, Beko errekaldea, Bekotxabolaldea, Errekalde, Bidalde, Presalde, Txabolalde...

ametz: *iz. (Bot.) Haritzaren familiako zuhaitza, añubietako zuhaitza (Quercus pyrenai-ca):* Amezti...

arantza: *iz. (Bot.). Punta zorrotzez beteriko zuridun zuhaitza (Crataegus Monogyna):* Arantza, Arantzako gaiña... Ik. Elorri.

ardi: *iz. (Zool.) Ahariaren emea:* Ardinarrukoa...

argi: *iz. Elektrizitatea:* Argiberria...

arku: *iz. Uzta:* Arkupezarrak...

arra: *iz. Eskubarruaren neurria:* Arrakoa...

arrabal: *iz. Herriko alde zaharretik edo erdigunetik urrun edo bereizirik gelditzen ziren barruti, esparru edo baserriak:* Arrabalburu, Arrabaletxea...

- arte:** 1 *posp.* Toki biren artean egon obi den distantzia: Artekale, Etxearte, Auntzarte, Urbitarte... 2 *iz.* (Bot.) Zurtoi sendoa eta adaburu trinkoa dituen zuhaitz hostoi-raunkorra. Ertzak osoak edo horztunak, eta azpialdeak ilupadunak dituzten berde ilun koloreko hosto obatu edo luzangak ditu (*Quercus ilex*): Artarrai, Artaluze, Artamendi, Artabe, Artetiluze, Artarregi...
- aska:** *iz.* Ganbela. Ganaduak ura edateko, iturri edo erreka baten ondoan harlosaz egin-dako putzu artifiziala: Askabarri, Askasibar...
- asto:** *iz.* (Zool.) Zaldia baino txikiago den zamari apal belarri luzea (*Equus asinus*): Astabide...
- ate:** *iz.* Sarrera, sarbide: Atebaso...
- atxa:** *iz.* Harkaitza, arroka: Torreko atxak, Atxa, Arkatze, Atxaostea
- atze:** *iz.* / *izond.* Gibel: Atzizki honen ordeztze erabili egiten da.
- aurre:** *iz.* / *izond.* Aitzin: Sallabenteaurre, Olaurre, Etxeaurre, Zubiaurre, Garaiaurre, Torreta-aurre...
- aurren:** *iz.* / *izond.* Aurrekoa: Areitioaurretengoa...
- auzo:** *iz.* Auzune, auzotegi: Auzo-elkartea, Auzo-eskola...
- azpi:** *iz.* Behe, -pe, -be: Ezpilla-azpi, Udaeta-azpi, Errota-azpikoa, Etxeazpi...
- * * *
- bako:** *izlag.* Gabe: Arribakoa...
- baltz:** *izend.* Zaindu gabeko lur zatia. Txara. Sakona, Iluna: Basobaltz, Okinbaltz...
- barren:** *iz.* Zerbaiten beheko ertza, bazterra edo alde: Eitzagabarrenengoa, Barrenkale, Txarabarrena, Aldapabarrena, Gaztañaribarrena, Sakonbarreneko zuloa, Abeltxebarrena, Estartabarren, Musterrekabarrena...
- barrena:** *iz.* Urez mugituriko gailua, zentrala: Barrena, Barrenazarra, Barrenaburu...
- barri:** *adj.* Duela gutxi sortua, lehengoaren ordeztza: Errotabarri, Etxebarri, Solobarria, Antonatxabarri, Salaberria, Aixolabekobarri, Argiberria, Zubibarriaga, Askabarri, Kamiñobarri, Frontoibarria, Iturbarriaga, Lurbarri, Ormabarri, Ormabarripea, Ormabarriburu, Aldapasoloa...
- barruti:** *iz.* Esparru, saik: Elorretako barrutia, Goiko barrutia, Barrutisolo...
- baso:** *iz.* Jatorriz, oihan edo zuhaizkaz beteriko esparrua. Zuhaitzak bota eta gorri egon arren izena mantentzen da: Kondebaso, Kurabaso, Basobaltz, Berrizko basoa, Goiko basoa, Basozarra, Karlosbasoa, Basakatz, Udaetabaso, Ulakosakonabaso, Urkobaso, Andiko basoa, Atebaso, Basotxu, Kaltxanbaso, Martintxobaso, Olaetxebaso, Soldaubaso, Kurabaso, Albarrandiko basoa...
- bedeinkatu:** *adj.* Dontsu, zorioneko, dohatsu: Urbedeinkatu...
- be(h)e / pe:** *izond.* Azpi: Beko errekaldea, Beko erreka, Beketxe, Bekoerrota, Beko motea, Beko soloa, Eitzagabekoa, Sallabentebekoa, Elorretabekoa, Urkobekoa, Aixolabekoa, Iturbe, Bidepe, Estartapea, Pagope, Santixapekoa, Arkupezarrak, Ormabarripea, Errotapea, Iturripea, Erretenpea, Erretenpeko soloa, Zearreko kamiñopea, Zearrapea, Kaltxangopea, Bidebeko gaztañatxo...
- benta:** *iz.* Ostatu, jatetxe: Sallabenteko benta, Eitzagako benta, Olaerregako benta...
- beti:** *adb.* Guztietan: Betiondo, Betiko potzua...
- bi:** Zenbakia = 2: Urbitarte, Urbieta...
- bide:** *iz.* Errepide, kamino: Bidepe, Bideburu, Bidekurutze, Bidekurutz, Bidebitarte, Bidegain, Mandabide, Urbidekurutz, Astabide, Bidebeko gaztañatxo, Trenbideburu...
- bidegurutze:** *iz.* Bi bide edo gehiago gurutzatzen diren lekua: Bidekurutze...
- bitarte:** *iz.* Tarte, arte: Urbitarte, Bidebitarte...

bizkar: *iz. Mendiaren gainaldea luzanga eta biribil gisakoa denean:* Erralladureko bizkarra, Bizkarra...

bolatoki: *iz. Bolo jokorako leku apropos eratua edo egokia.*

borda: *iz. Txabola, etxola:* Bordatxiki, Borda-aundi...

burdin: *iz. Zenbaki atomikoa 26 duen elementu kimikoa (Fe) metal gris, harikor, xaflakor eta gogorra:* Burdinkurutzeko egia...

buru: *iz. Goiko aldea, tokiz goialdean edo toki nabarian aurkitzen den lekua:* Etxaburua, Espillaburu, Telleriaburu, Abeletxeburu, Ongaraiburu, Albarrandiburu, Etxebarriburu, Kaltxonburu, Torretaburu, Ermitaburu, Sanmartinburu, Sanpelaiburu, Sallabenteburu, Arrabalburu, Olaburu, Errotaburu, Barrenaburu, Aldaparaburu, Txabolaburu, Berrizkortaburu, Zerkaburu, Estartaburu, Bideburu, Trenbideburu, Presaburu, Erretenburu, Arriburu, Losaburu, Ormabarriburu, Aldaparaburu, Txaraburu, Otaburu, Ameztiburu, Arestiburu, Aritxulueta, Zabaleta, Elorretaburu, Errekatxuburu, Etxaburuko soloa, Patronsoloburu, Artabeburu...

* * *

denda: *iz. Saltoki:* Dendabarrikoa...

di: *atzizkia. Multzo adierazi nahi du:* Gaztañadi, Aresti, Lizardi, Amezti, Pagadieta, Errikastañadi, Potzuetako gaztañadia, Gisastia ...

* * *

elixa: *iz. Kultu erlijiosoa ospatzeko den saindutegia:* Elizbide, Elexoste, Elexalde...

elkart: *iz. Lagunartea:* Gazte-lagun elkartea, Auzo-elkartea...

elorri: *iz. (Bot.) Arantza zuria, basamakatz (Crataegus monogyna):* Elorri esaten denean elorri-zuriari egiten zaio erreferentzia, elorri-beltzaz aritzen denean, berri, *Prunus Spinosa* delakoari. Elorreta... Ik. Arantza.

erdi: *iz. Artekoa, ertzetatik distantzia berberatan dagoen puntua:* Aixolaerdikoa, Erdi-kokale, Erdiko soloa...

ermita: *iz. Baseliza:* Ermitaburu, Ermitakoa...

erre: *aditz. Suak hartu:* Otaerre, Otaerreko sakona...

errege: *iz. Monarkikoen buru:* Olaerreaga

erreka: *iz. Ibai txikia:* Ibur erreka, Imiñaerreka, Infreñuerreka, Kanteraerreketa, Okinerreka, Udaetaerreka, Kortatxuerreka, Errekalde, Errekazabal, Beko erreka, Beko erreketeta, Beko errekaldea, Errekatxuburu, Musterreka...

errekaxo: *iz. Erreka txikia, batzuetan sikatu egiten da:* Errekatxoburu...

errepide: *iz. Kamino, bide.*

erret-bide: *iz. Errege-bide, "antzinako autopistak".*

erreten: *iz. Ubidea, ura joateko bidea:* Erretenpeko soloa, Erretenpea, Erretenburu...

errot: *iz. Zenbait materia ehotzeko tresna eta horretarako eraikin aproposa:* Errotabari, Errotabarrisolo, Errotaburu, Errotai, Goikoerrot, Bekoerrot, Errotapea, Errotaostea...

eskola: *iz. Ikastetxe:* Eskolanekoa...

esparru: *iz. Barruti, eremu:* Esparrua...

estarta: *iz. Gurdin-bide, bide zabala:* Estartaburu, Estartapea, Estarta-alde, Estartaburren...

-eta: *Lekua edota ugaritasuna adierazten duen atzizkia:* Elorreta, Altzeta, Sakonzuloeta, Urzabaleta, Izelaieta, Kanteraerreketa, Kerexeta, Lixibaeta, Intxaurreta, Olamue-eta, Pagadieta, Pagatxueteta, Udaeta, Irukurutzeta, Irulieta, Irumugarrieta, Torreta, Zabaleta, Zelaizarreta, Aritxulueta, Errekazabaleta, Espurueta, Ibañeta, Urbieta, Indoleta, Iturrieta, Pagoetako laua, Potzuetako gaztañadia, Landareta...

etorbide: *iz. Bidea:* Gipuzkoa etorbidea, Bizkaia etorbidea...

etxe: *iz. Gizakiaren bizileku den eraikuntza:* Etxeaurre, Etxaburua, Etxeazpia, Etxeondoko orma, Etxaburuko soloa, Etxarte, Etxebarri, Beketxe, Arrabaletxe, Olaetxea, Abeletxe, Abeletxebarrena, Egoetxea, Abade-etxea, Lauron-etxe, Gure Etxea, Etxegiaña, Jubiletxea, Kanteraetxea, Etxeko sastra...

ezkiña: *iz. Bazter:* Txaraezkiña...

* * *

frontoi: *iz. Pilotaleku:* Frontoiostea, Frontoibarria, Frontoizarra...

* * *

gain: 1 *iz. Zerbaiten goialdea:* Iturgain, Egogain, Bidegain, Eitzagagaiñekoa, Errotagaiñekoa, Ibergain, Eztakoagaiñekoa, Kareobiagagaiña... 2 *iz. Gailur, tontor, punta.* Motagaiña, Udaetagaiña, Goinengo gaina, Sasitxuagagaiña, Arantzako gaina, Kareaga-gaiña, Okillogain...

garai: *iz. Goiko aldea, goi, altu, gora:* Garaiaurre, Mallagarai...

gaztain: *iz. (Bot.) Gaztainondoaren fruitua (Castanea Sativa):* Gaztañadia, Errigaztañadia, Gaztañazuuloa, Gaztañadizarra, Gaztañibarrena, Bidebeko gaztañatxoa, Palazioko kastañak, Potzuetako gaztañadia, Gaztañisakona, Gaztañatxiki...

geriza: *iz. (Bot.) Gereziondoak ematen duen fruitu txiki mardul eta bezurduna, gehienetan azal gorri iluna duena (Prunus Avium):* Kerexeta...

gisats: *iz. (Bot.) Sarothamnus scoparius:* Gisastia.

goi: *iz. Garaia, altua:* Goierri, Goiko, Goiko basoa, Goikoetxea, Goiko barrutia, Goikoerrota, Goiko mota, Eitzagagoikoa, Urkogoikoa, Elorretagoikoa, Sallabentegoikoerrota, Aixolagoikoa...

goien, goen: *iz. Zerbaiten goiko aldea edo ertza, zerbaiten alde edo gune garaiena:* Goienkale, Goiensole, Plazagoiena, Areitiogoenengoa, Eitzagagoiena, Goinengo gaina...

* * *

(h)aitz: *iz. Arri, harkaitz:* Atxaostea...

(h)aitzarte: *iz. Harkaitzen artekoa:* Auntzarte

(h)aize: *iz. Airezko korrontea:* Herri etimologia faltsua: Arriola > Aixola...

(h)altz: *iz. (Bot.) Zuhaitz hostogalkorra, 20 m-rainokoa, azal arre iluna duen enbor zuzena, hosto zerratu obatu edo biribilak, eta lore arrak gerba zilindrikotan eta emeak egurrezkoetan dituen. Oso arrunta da ibaiertzetan eta klima bezetan kolonizatzailea da (Alnus glutinosa):* Altzartea, Altzeta...

(h)anbre: *iz. Gose:* Anbre...

(h)andi: *adj. Neurri, tamaina edo obikoa gainditzen duena:* Borda-aundi, Aldapa-aundi Albarrandi, Soloaundia...

(h)andiko: *adb. Hangoa. Urrunen dagoena:* Udaeta-andikoa, Andiko basoa, Andiko soloa...

(h)aretx: *iz. (Bot.) Hosto lobulatuak dituen tamaina handiko zuhaitz hostogalkorra. Lore arrak gerbatan eta emeak taldetan daude. Fruituak ezkurak dira. Europa heze guztian hazten da eta bere zura oso preziatua da (Quercus robur):* Aresti, Arestiburu, Arestizabal, Arizmendi...

(h)arri: *iz. Lurrazalaren osagai den edozein material kimiko mineral; adiera hertsian, konposizio kimiko ez-homogenoa duena (alegia, mineral desberdinez osatua dena):* Artarrai, Arriburu, Irumugarre, Arrikruz, Arribakoa, Arriola...

(h)arrobi: *iz. Harria ateratzen den tokia:* Ik. Kantera

(h)egi: *iz. Bizkarra, ertza, bazterra, mendi-isuria:* Burdinkurutzeko egia, Artegiluze, Artarregi...

(h)emetiko: *adb. Hemengoa, gertukoena:* Albarrandimetikoa...

(h)erri: *iz. Udal, lurralde batean bizi den jendeak osaturiko taldea, zein kokaleku duen lurra*: Goierri, Errigaztañadi...

(h)iru: *zenbakia = 3*: Irukurutzeta, Irumugarre, Irupago...

ibai: *iz. Ur-korrante naturala, aski handia, itsasora edo beste ibai batera isurtzen dena*: Ibaiondo...

ibar: *iz. Bailara, haran edo erreka bazterra*: Mantxibar, Ibagain...

infreñu: *iz. Infierno*: Infreñu, Infreñuerreka...

intxaur: *iz. Zuhaitza (Juglans regia)*: Intxaurreta...

ira: *iz. Garoa*: Iraleku...

iturri: *iz. Lur azpitik ateratzen den euri-ura, lurrazalera isurtzen dena*: Iturgain, Lapurritturri, Iturrieta, Iturritxo, Iturriondo, Drogeteniturri, Galiturri, Ixuturri, Iturbe, Iturriotz, Iturbe, Iturralde, Iturritxo-ondo...

kale: *iz. Karrika. Bide edo pasabide baten aldamenetan dauden etxe ilara multzoa*: Goienkale, Erdikokale, Barrenkale, Artekale...

kaltzada: *iz. Bide*: Kaltzadazarra...

kamiño: *iz. Bide*: Kamiñokoa, Kamiñopea, Kamiñobarri, Zearreko kamiñopea, Kamiño-ondoa...

kanposantu: *iz. Hilerri*.

kantera: *iz. Harrobia*: Kanterazarra, Losakantera, Kanteraerreketa, Kanteraetxea...

kare: *iz. Harri mota bat. Gisu*: Kareagaiña, Kareobiaga...

kareobi: *iz. Kare harria suaren bidez hauts bihurtarazten den lekua*: Kareobiaga

kipula: *iz. (Bot) Allium cepa*: Kipulanekoa...

-ko / -go: *deklinabidezko genitibo lekuzko atzizkia*: Beko errekaldea, Aixolabekoa, Elorretabekoa, Elorretagoikoa, Urkobekoa, Urkogoikoa, Eitzabarrenengoa, Goikoetxea, Lukrenekoa, Eskolanekoa, Mendiolanekoa, Pagoetako laua, Potzuetako gaztañadia, Etxeko satra...

koba: *iz. Haitzulo, harpe*: Mundioko koba, Eitzagako koba,...

kobazulo: *iz. Haitzulo, harpe, koba*.

konbentu: *iz. Orden erlijioso bateko kideak bizi diren etxea*: Konbentukoa...

konde: *iz. Noblezi titulua, hierarkian markesaren eta bizkondearen artean dagoena*: Kondebaso, Kondeanekoa...

konporta: *iz. Erreten edo kunbo bateko atea*: Konporta....

korta: *iz. Ganadua gordetzeko txabola, etxola, ikulu*: Berrizkorta, Berrizkortaburu, Kortatxuerreka...

kunbo: *iz. Presa, Urtegi*: Munikolako kunboa...

kura: *iz. Apaiza, elizgizon, abade*: Kurabaso...

kurutze: *iz. 1 Kristauen ezaugarri nagusiena. 2. Bide edo kale desberdinak elkarren artean zeharkatzen diren gune*: Arrikruz, Irukurutzeta, Urkoko kurutzea, Santamañeko kurutzea, Bidekurutzea, Ongaraiko kurutzea, Urbidekurutz, Burdinkurutzeko egia, Kurutzeoste, Bidekurutz...

laba: *iz. Harriz egindako meta da. Barruan bi zulo ditu: Bata, behean sua egiteko erre-gaia (egurra) sartzeko; eta bestea, joten, lehenengoaren gainean, landu nahi den materiala (normalean, ogi-orea) sartzeko*: Labakoa...

landa: *iz. zelai*: Landazarra, Udaetako landa, Landareta...

lapur: *iz. Ebasle*: Lapurritturri...

lar: 1 *iz. (Bot.) Errosazeoen familiako eta Rubus generoko landare bizikorren izen arrunta.* 2 *Zelaiak:* Otarlar, Larrazar, Eibarlarra...

larrosa: *iz. (Bot.) Arroza-landarearen lorea, tamaina handikoa eta usaintsua:* Larrosako buelta, Larrosia...

larru: *iz. Azal:* Ardinarrukoa...

lau: *zenbakia = 4:* Lauron-etxe...

laua: *iz. Lautada, zelai:* San Pelaioko laua, Potzuko laua, Pagoetako laua...

leze: *iz. Goitik beherako norabidea duen koba, haitzulo:* Errekaldeko lezea, Artarraiko lezea, Munikolako lezea...

leku: *iz. Toki:* Pasealeku, Probaleku, Dantzaleku, Iraleku, Porruleku...

lezar (lizar): *iz. (Bot.) Fraxinus generoko zuhaitz hostogalkorren izen arrunta (Fraxinus excelsior):* Lexardi, Lizardi...

losa: *iz. Harri aski handia, mehea eta laua, zoladura, estalki eta antzekoetan erabiltzen dena:* Losaburu, Losakantera...

lur: *iz. Lurraren gainazal solidoa eratzen duen osagaia, bereziki tamaina txikiko ale mineral edota organikoz osatutako material ez-trinkoa:* Lurbarri...

luze: *adj. Garai, zabal:* Artaluze, Artegiluze, Sololuzea...

* * *

ma(h)ats: *iz. Mabatsondoaren fruitua, askotan multzoa adierazten duen tildi atzizkia hartzen du:* Mastia, Mastisoloko...

mando: *iz. (Zool.) Zaldia eta astemea edo behorra eta astarra gurutzatzearen ondorio den animalia sendo eta indartsua, antzua izaten dena:* Mandabide...

mendi: *iz. Inguruko lurretatik nabarmenki goratzen den lur-zatia, bakartua edo beste batzuekin multzoa osatzen dagoena:* Arizmendi, Udaetamendi, Menditxo, Artamendi, Mallamendi, Egurmendi, Zepamendia, Mendiola, Garamendi...

mota: *iz. Zulo edo batxe asko dagoen lekua:* Motagaiña, Goiko mota, Beko mota...

muna (muino): *iz. Tontorguneak, koska txikiak, begi, mendiska, bizkar:* Munaburu, Muna, Munabidea...

muga: *iz. Lindare:* Munikola, Irumugarrieta...

* * *

nagusi: *adj. Maila edo garrantziaren arabera lehena dena:* Solonagusi.

-neko: *atzizkia. Jabetasuna adierazten du:* Sosuanekoa, Burrunanekoa, Aguanekoa, Ambrosianekoa...

* * *

obi: *iz. Kantera, meategia, zuloa:* Kareobiaga...

ola: *iz. Burdina landu, egurra ebaki edo sagardoa egiteko lantegia:* Aixola, Olaetxea, Munikola, Olaburu, Olaerreaga, Olaurre, Olaetxetxiki, Mendiola, Otaola, Olalde...

onaindi: *Handikoa:* Onaindibasoa...

ondo: 1. *iz. Albo, alde, aldamen:* Ondoa, Kamiño-ondoa, Ibaiondo, Zubiondo, Iturriondo, Txabolondo, Etxeondoko orma, Iturritxo-ondo, Presondo... 2. *adb. Ederto, polito.* Betiondo

orma: *iz. Pareta:* Ormabarri, Ormabarripea, Ormabarriburu, Etxeondoko orma...

osin: *iz. Putzu:* Okinzuri, Okinbaltz, Okinerreka...

ostatu: *iz. Benta, jatetxe:* Ostatukoa...

oste: *iz. Atze. Normalean alde honetan eguzkiak ez du jotzen:* Frontoioeste, Etxeoste, Sanantonio-oste, Motaoste, Tronkutxo-oste, Elexoste, Burduntzalioste, Kurutzteoste, Atxaoste, Errotaoste, Bizinaioeste, Palazio-oste...

ote: *iz. (Bot.) Leguminosoen familiako eta Ulex generoko zubaiska txikien izen arrunta. oso adakera itxia dute, hosto txandakatu txikiak dituzte eta oso arantzadunak dira. Loreak horiak dira (Ulex sp):* Otararra, Otaburu, Otaerre, Otaola, Otaerreko sakona...

* * *

pago: *iz. (Bot.) Fagus sylvatica:* Pagonabarraga, Pagorbe, Irupago, Pagadieta, Pagatxuetta, Pagazubiaga, Pagope, Pagoetako laua...

palazio: *iz. Jauregi:* Palazioa, Palaziozarra, Palazioko kastañak, Palazio-oste...

pasealeku: *iz. Ibiltoki:* Pasealeku...

patron: *iz. Nagusi:* Patronsoloburu...

perra: *iz. Metalezko arku-moduko txikia, zamarietara eta abelgorriekira apoen basbesgarri ezartzen zaiona:* Perratokia...

pilotaleku: *iz. Frontoi.*

pinu: *iz. (Bot.) Ler.*

plaza: *iz. Herriko zabalguneko nagusia, herritarrek berriketarako biltzen ohi diren lekua:* Plazagoiena, Plazakoa...

portal: *iz. Atari, peora:* Portalekoa...

potu: *iz. Sakonean lur asko dagoen lekua:* Potokoa, Potoko zulo...

potzu: *iz. Osin:* Potzukristo, Betiko potzua, Potzuko laua, Potzuetako gaztañadia...

presa: *iz. Kunbo, urtegi:* Presaburu, Presalde, Presondo...

proba: *iz. Dema, apustu:* Probaleku...

* * *

sagar: *iz. (Bot.). Sagarrondoaren fruitua (Malus Sylvestris Miller):* Sagastitxoa, Sagastizarra, Beko sagastia...

sakon: *iz. Hondo, barne:* Martintxosakon, Sakonzuloeta, Migelsakon, Sakonaldea, Sakonbarreneko zuloa, Solosakona, Ulakosakonabaso, Pagadisakon, Sakona, Gaztañisakona, Otaerreko sakona...

sala: *iz. Areto. Deituretan agertzen da:* Salaberria...

santu: *iz./adj. Eliza katolikoak, kanonizazioaren bidez, kristau-bertuteen bikaintasuna edo adorea ezaigutu eta deklaratu dien fededun bildakoei ematen dien deitura:* Santukoa, Kanposantu...

santuak: Antonio, Pelaio, Sebastian, Roke, Isidro, Martin, Ignazio, Roman, Ana, Santiago, Pedro, Lorentzo, Marina, Zezilia...

sastra: *iz. Lar, zikin:* Etxeko satra, Sastra

soldau: *iz. Gerlari, gudari:* Soldaubaso

solo: *iz. Generoa (artoa, garia... eta abar) hasten den lur-zatia, soro, lur-zati:* Beko soloa, Goiko soloa, Goiensolo, Erdiko soloa, Barrutisoloko, Andiko soloa, Etxaburuko soloa, Erretenpeko soloa, Solozarra, Solobarria, Solonagusia, Soloandia, Solotxikia, Sololuzea, Zesterosolo, Zapatasolo, Errotabarrisolo, Txabisolo, Patronsoloburu, Ursolo, Urkosolo, Imiñasolo, Mastisoloko, Txarako soloa, Mastisoloko...

* * *

taberna: *iz. Ardotege:* Antolineko taberna, Ezkerranekoa...

tailer: *iz. Lantegi txikia.*

teila: *iz. Eraikuntzen estaldura egiteko erabiltzen den pieza, buztin egotziz egin ohi dena:* Telleria, Tejabana, Telleriazarra, Telleriaerreka...

tejabana: *iz. Lastoa leku sikuan eta inoiz ganadua gordetzeko erabiltzen den txabola:* Tejabana...

telleria: *iz. Teilak egiten diren lekua:* Telleria, Telleriazarra, Telleriaerreka...

toki: *iz. Leku:* Bolatoki...

torre: *iz. Forma karratua edo biribila duen eraikuntza gogor garaia, talaia bezala altxatzen dena:* Torrekoa, Torreeta, Torretaburu, , Torreeta-aurre, Torreko atxak...

tren: *iz.* Trenbideburu. Trenbidepea...

trintxera: *iz.* *Lur-ebakia, estarta:* Trintxera...

txabola: *iz.* *Etxola, borda:* Txabola-aldea, Bekotxabolaldea, Txabolondo, Txabolaburu...

txalet: *iz.* *Landako edo mendiko etxea, bereziki denbora-pasarako eraikia:* Txaleta...

txara: *iz.* (*Bot.*) *Zikina, larra eta arbola txikiak edo landare arantzadunak dauden lekua:* Txara, Txarabarrena, Urkotxara, Txaraburu, Txarako soloa, Txaraezkiña, Palazioko txara...

txiki: *izend.* *Kaskar, txiker, ñimiño:* Bordatxiki, Olaetxetxiki, Matxintxiki, Benidortxiki, Solotxikia, Pepetxiki, Gaztañatxiki...

txo: *atzizkia.* *Txiki:* Iturritxo, Menditxo, Errekatxoburua, Basotxo, Tronkutxo, Bolintxo, Martintxobaso, Sagastitxo, Bidebeko gaztañatxo, Iturritxo-ondo, Kortatxuerrea...

* * *

udal: *iz / adj.* *Herrikoa, komunala:* Udala, Udaleta...

ur: *iz.* *H^o:* Urbedeinkatu, Urzabal, Urzabaleta, Urbitarte, Urbidekurutz, Urbietta, Ursolo...

urki: *iz.* (*Bot.*) *Betula generoko zuhaitz eta zuhaisken izen arrunta, erraz pintatzen den azal zuri eta leuna eta ertz zerraduna duten hostoak dituzte. Betuna alba, L.: Urkietia, Urkitza...*

* * *

zabal: *Iz. / adj.* *Hedatsu, paraje laua eta ohikoa baino handiagoa:* Urzabal, Arestizabal, Urzabaleta, Udaetazabal, Ongaraizabal, Errekazabaleta, Zabaletaburu...

za(ha)r: *adj.* *Aintzinako, aspaldiko:* Barrenazarra, Bentazarra, Santamañazarra, Telleriazarra, Basozarra, Kanterazarra, Palaziozarra, Errigaztañadizar, Frontoizarra, Gaztañadizarra, Idiozarraga, Kaltzadazarra, Sagastizarra, Solozarra, Zelaizarreta, Aldapazarra, Arkupezarrak, Berotegizar, Landazarra...

zapato: *iz.* *Oinetakoa:* Zapatarikoa, Zapatarisolo...

zarratu: *iz.* *Hesi batez mugatutako barrutia, esparrua:* Zarratua...

ze(h)arra: *iz.* *Mendi malda:* Zearra, Zearreko buelta, Zearpea, Zearburu, Zearkale, Zearreko kamiñopea, Zearreko soloa...

zelai: *iz.* *Belarra hasten den esparrua:* Izelaieta, Zelaizarreta...

zentral: *iz.* *Energia elektrikoa ekoizteko instalazioen multzoa.*

zerka: *iz.* *Orma, hesi:* Zerka, Zerkaburu...

zerratoki: *iz.* *Zerrategi, zura zerraz ebakitzen den lantegia:* Zerra, Zerrakoa, Zerrakoena...

zeru: *iz.* *Infreinuaren kontrakoa:* Zerukoa...

zepa: *iz.* 1. *Belar mota bat, ortuetan simaurra bota ostean irteten den belartxo.* 2. *Hondakinak:* Zepamendi...

zubi: *iz.* *Ibai, trenbide edota errepide gainetik igarotzeko eraikuntza:* Zubiondo, Zubiaurre, Zubibarriaga, Pagazubiaga...



zulo: *iz.* *Sakona, irekiune:* Sakonzuloeta, Sakonbarreneko zuloa, Potoko zulo, Gaztañazulo...

* * *

Gatzizenak: Agua, Txantxiku, Kipula, Ardinarruko, Txindurri, Sargentu, Kondea, Burruna, Eskola, Etxaixa, Foteria, Kaminero, Kantabria, Txotxolo, Urrea, Kartero, Kokos, Kristo, Metxeros, Sosua, Totua, Leontxiki, Polbora, Mantia, Pepetxiki, Txantxiku...

Gentilizioak: Izarra, Agi, Anbrosia, Antolin, Anton, Antonatxa, Pedratxa, Pedromaria, Balerio, Patri, Kareaga, Mendiola, Mugertza, Ritxar, Segunda, Juankruz, Paskua, Iturriaga, Okariz, Ibarrola, Pagaldai...

Herriak: Bergara, Orozko, Rif, Buenos Aires, Patagonia...



IV BIBLIOGRAFIA

ACADEMIA DE LA HISTORIA (1802): *Diccionario geográfico-histórico de España*. Madrid.

AGIRREAZKUENAGA, J. eta beste batzuk (1995): *Diccionario biográfico de los diputados generales, burócratas y patricios de Bizkaia (1800-1876)*. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

AITONA (1975): “Hijos ilustres de Ermua” in *Ermuko Jai egitaraua*. Santixauak-75.

ARANBERRI, Fernando (1996): *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermuko Udala. Euskara batzordea. Gertu.

ARREGI AZPEITIA, Gurutzi (1987): *Ermitas de Bizkaia*. Bizkaiko Foru Aldundia-Labayru Institutua. Bilbo.

ARREGI, Iñaki; CANO, Jon; FERNANDEZ, Francisco (1988): “Ermuko historiariako apunteak” (Argitaratu gabea).

ARRIOLA, M^a J.; ASEGUINOLAZA, M^a I.; GOROSTIZA, M^a J.; MENDICUTE, C. (1973): “Ermua Comunidad en Eclipse”. Jose Ignacio Olabuenagak zuzenduriko tesina. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. (Argitaratu gabea).

BIZKAIKO ESPELEOLOGIA TALDEA (1985): *Catálogos de cuevas de Vizcaya*, Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA HIRIGINTZA SAILA (1983): *Informatika Bidezko Kartografia*. Eskala 1:5.000, 63-49, 63-57, 62-64, 88-1eta 88- 8 orriak.

BOSTAK BAT KULTUR ALKARTEA (1988): *Sinomimoen hiztegia*. Antonimoduna. Adorez 3. Bilbo.

CALVO, Juan L. (1997): *La industria Armera Nacional 1830-1940*. Fábricas, Privilegios, Patentes y Marcas. Comisión damasquinado-Ego Ibarra.

CORTEGADA- Fresno de la Polvorosa (1959): *Diccionario geográfico de España*. Madrid. Ediciones de Movimiento.

DEIKER (1986): Bariarbleen ikerketaren informazioa: “Bizkaiko ondare historiko, arkeologiko, artistiko, etnografiko eta urbanistikoa”, Udalerrri Ermua (034). Biz-

kaiko Foru Aldundia: Lurralde eta Udal-ekintzapeen Saila. Hirigintza eta Ingurugiro-zuzendaritza. Deustuko Unibertsitatea.

DEIKER-DEUSTUKO UNIBERTSITATEA (1994ko apirila): "Elaboración de la toponimia para la cartografía a escala 1:5000 de Alava y Guipuzcoa". Deustu. (Argitaratu gabea).

DIEZ, Raul (1997): "Ermua, arrantza paradisia 1952" in DROGETENITTURRI XXXIV, 2. or.

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA (1996): *Durango ezagutu*. FIEPA.

* * *

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA - ELKAR S. L. (1994): *Euskal biztegi modernoa*. Donostia.

ERMUKO UDALA (1996): *Erret bidea. Ermua-Markina*. Udaleko Inguruko saila.

ETXEBARRIA, Toribio (1986): *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar*. Euskaltzaindia. Bilbo.

ETXEBARRIA, Toribio (1993): *Ibiltarixanak*. Eibarko Udala-Ego ibarra. Kutxa Fundazioa. Eibar. Itxaropena.

ETXEGARAY, J. M. (1980): *La actualidad de la casa Blasonada en el País Vasco-Merindad de Durango*. Laiz.S.A. Bilbo.

* * *

FUENTES DOCUMENTALES MEDIEVALES DEL PAIS VASCO (1997): *Foguer-ara-vecindario de las villas de Vizcaya de 1511*. 78. zk. Eusko Ikaskuntza.

FUENTES DOCUMENTALES MEDIEVALES DEL PAIS VASCO (1997): *Foguer-ara-vecindario de las villas de Vizcaya de 1514*. 79. zk. Eusko Ikaskuntza.

FUENTES DOCUMENTALES MEDIEVALES DEL PAIS VASCO. Enríquez, Javier; Hidalgo de Cisneros, Concepción; Lorente, Araceli; Martínez, Adela: *Co-lección documental de los monasterios de Santo Domingo de Lequeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)*. 46. tomoa. Eusko Ikaskuntza.

* * *

GARCIA, L. LLONA, A. (1990): *Programa de arqueología de intervención: elementos de interés arqueológicos*. Escala 1:10.000.

GONZALEZ, Estibalitz (1995-2000): "Gure aintzinako Ermua" in DROGETENITTURRI hilabetekaria. Ermua.

GORROTXATEGI, M. eta SALABERRI, P. (2000): "Toponimia txikia arautzeko irizpideak", *Euskera*, Euskaltzaindia.

* * *

INDUSTRIA GUIPUZCOANA DE LA CUENCA DEL DEVA (1956-57). *Villa de Ermua*.

IRIGOIEN, A. eta OLASONDO, E. (1998): *Nombres de familia y oicónimos en las fogueraciones de Bizkaia de los siglos XVII y XVIII*. CDROM. Bizkaiko Batzar Nagusiak.

* * *

JIMENO JURIO, J. M. (1984): Nafarroa: *Toponimia eta mapagintza*. Nafarroako Gobernua.

JIMENO JURIO, J. M. eta SALABERRI ZARATIEGI, P. (1999): *Artaxoa. Euskal Toponimia*. Altaffaylla Kultur Taldea, Nafarroako Gobernua, sociedad de Corralizas y Electra de Artajona. Tafalla.

JUARISTI, M. (DUNDUZAR) (1958): "Txindurri bertsolaria" in *Karmel* VIII urtea, VI atala, 26-27. orr.

* * *

KEREXETA, Jaime (1987): *Casas Solariegas de Bizkaia*. Wilsen editorial. Bilbo.

KEREXETA, Jaime (1992): *Fogueraciones de Bizkaia del Siglo XVIII*. Labayru. BBK. Bilbo.

* * *

LABAYRU, E. (1968): *Historia General del Señorío de Bizkaya*. La Gran Enciclopedia Vasca III. Bilbo.

* * *

MARCOS AGUSTIN, Jose María: *El árbol de los pispillos-pizpilu zuhaitza*. Ermua hiriko Udala. Ingurugiro Saila.

MITXELENA, L. (1989): *Apellidos vascos*. 4. argitalpena. Txertoa. Donostia.

MUJIKA, Luis María (1989): *Euskal toponimiazko materialeak (Elgeta)*, XVII alea, Gipuzkoako Foru Aldundia.

* * *

ONAINDIA ESTRADA, M. (1971): *Ermua I. Carta de fundación de la villa y otros datos de interés*. Gráficas Onaindia. Ermua.

ONAINDIA ESTRADA, M. (1973): *Ermua II. Monografías de hombres ilustres de la villa hasta el siglo XX*. Gráficas Onaindia. Ermua.

* * *

PINEDO OTAOLA, J. A. (1996): *Monografías de pueblos de Bizkaia: Ermua, Mallabia y Zaldibar*. Bizkaiko Foru Aldundia.

* * *

RAMOS, F. (1986): "Ermua en 1886. Un ejemplo de sociedad tradicional en el País Vasco a fines del siglo XIX". ERNAROA. *Euskal Herriko Historia* aldizkaria, 3.zk.

ROS CUBAS, A eta CABELLO. J. Ma (1997): *Basauriko Toponimia*. Basauriko Udala. Labayru Ikastegia. Bilbao.

* * *

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi (1994): *Eslaba Aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*. Onomasticon Vasconiae, 11. Euskaltzaindia.

SAN MARTIN, Juan (1996): "Ego ibarrera begira. Oharrez eta umorez" in *Egan* 1996-1. Euskalerrriaren adiskiskideen elkarteko "Boletin"-aren euskarazko gehigarria. Donostia.

SAN MARTIN, Juan (1958): "¿Villa circundada de cruces?" in *La Voz de España*, 1958ko ekainaren 21a.

SAN MARTIN, Juan (1993): *Antzinako Eibar. Ego Ibarra*. Eibar. Gertu.

SAN MARTIN, Juan (2000): *Eibar eta Elgetako Toponomastika*. Euskaltzaindia. Onomasticon Vasconiae, 21.

SANTANA, Alberto eta OTERO, Xabi (1993): *Baserria*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura eta Turismo Departamentua. Donostia.

SARASUA, Asier (1997): *Eibarko Basarrixak. David Arriolan omenez*. Eibar. Ego Ibarra.

* * *

TALDEA (1989): *Burdina. Burdingintza eta forjaketa tradizionala*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura Departamentua.



* * *

ZABALA MONTOYA, M. (1997): "Esbozo documental para la historia de Ermua". Ermuko Udala. (Argitaratu gabea).

ZALDIBARKO UDALA (1997): *Eitzako egitaraua-jaiak 1997*.

ZARRAUA, E. eta KEREXETA, R. (1995): *Eibarko hiri-toponimia*. Euskaltzaindia. Onomasticon Vasconiae, 13. Ego Ibarra. Eibar.

ZUAZO, Koldo (1999): *Deba ibarreko euskeria. Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eibar, Elgoibar, Leintz-Gatzaga, Oñati eta Soraluzeko udalak*. Gertu.



V
GEURE IZANAREN BARRENA

Lurralde Historikoa: Bizkaia
Eskualdea: Durangaldea

Alderdi Judiziala: Durango
Hedadura: 6,2 km²

Ermua Bizkaiko lurraldearen hegoekialdeko muturrean dago, Durangaldeko eskualde naturalaren barne, Durangaldeak dituen ezaugarri fisiko berberak izanik. Hala ere, kontuan hartu behar da, Gipuzkoako mugatik gertu dagoenez gero, Debarroarekin harremana estuago izaten duela sarritan.

Udalerri honetako lurrak Bigarren Aroan azaleratu ziren; gero, Hirugarren Aroaren azkenaldian, Alpeetako mugimendu orogenikoak jaso eta plegatu egin zituen.

Mugimendu horien ondorio dira udalerria mugatu eta zeharkatzen duten kare eta harearizko mendi formazioak. Ekialdetik, Udalan hasten den mendikatea Ermurantz luzatzen da, bertako erpina Urko mendia izanik; 791 metroko mendi horrek Deba eta Artibai arroak elkarrengandik bereizten ditu.

Hirigunea ibai baten ibar sakonean dagoenez, inguruko beste udalerri batzuk baino beheiago dago (121 m); hala ere, zintzur estu horrek mendi-hegal malkartsuak ditu albo banatan.

Hidrografiari dagokionean, Ermua Ego ibaian abiarazten diren erreka beteta dago, berori Deba ibaia adarra da eta. Tenperatura suabeak eta klima euritsua direla eta, hezetasuna eta humusa ugari dira bertako lurretan; landaredi trinkoa emateko lur egokiak erabat. Jatorriz harizti eta pagadi ziren basoetan koniferak landatu dira, intsinis pinuak, batez ere¹¹.

Ermua, Zaldibar eta Mallabia herrietatik sortua da. Hango biztanle batzuk hona etorri ziren, eta Errekazabaleta eta Urteaga erreka elkartzan diren gunen zabal eta lauan lehendabiziko baserriak, edo hasieran txabolatxoak izango zirenak altxatu zituz-

11. Sarrera geografikoa: *Ermuko Gida*, 1999. Ermuko Udala.

ten¹². Leinuen arteko borroken beldur, harresi eta dorretxeak egin zituzten, hor ditugu, Torreta, Lomiño, Zerkaburu / Santuko, Ongarai... hauen babesean bi pisuko kale-etxeak altxatu zituzten eta horrela, errege bidearen bazterretan Artekale, Barrenkale eta Goienkale sortu ziren.

“Esta ordenada su caserío según un sencillo plano de bastida, el tradicional en las ciudades góticas: dos cortas calles paralelas (Barrenkale y Artekale) que eran atravesadas ortogonalmente por un cantón (Plazuela de Santiago). La nueva puebla se dispuso sobre el camino que conducía a Guipúzcoa, que se convirtió en su calle principal (Barrenkale), condicionando posteriormente el crecimiento de las demás.

Este casco se hallaba encerrado dentro de un perímetro murado en el que se abrirían cuatro puertas-a fines del XVIII aún se conservaban las dos del lado occidental-. El río, como en tantos otros casos, cumplían la función de foso natural al Sur de la población¹³.

(...) Poco tardaría la población en rebasar estos estrechos límites, dando lugar a una tercera calle, la actual plaza Cardenal Orbe -hoy parcialmente transformada en un amplio espacio abierto-, y su continuación a través de Goienkale, en la que se alzó en el XVI el monumental palacio de Loviano. Los tres viales así desarrollados convergerían en la salida hacia Guipúzcoa, en la calle Izelaieta, también poblada en el siglo XVI. Menos éxito parecer haber tenido el intento de ensanche en dirección a Durango y al resto de la cuenca del Ibaizabal, reflejado tan sólo en Torreta” (TALDEA-DEIKER: Bizkaia: Arqueología, urbanismo y arquitectura histórica. Bizkaiko Foru Aldundia. Deustuko Unibertsitatea. 244-255. or).

1372.an hiribilduaren izendapena lortu zuen¹⁴. Izendapen honek herriko mugak zehazteaz gain¹⁵, merkataritzarako baldintza egokiak ekarri zituen. Abeltzaintza eta nekazaritza bigarren plano batera pasatu ziren eta artisautza eta merkataritza indartu ziren. Baserritarrak, artisauak, olagizonak, errementariak, armaginak¹⁶, abarkagile-

12. Lehendabiziko izen hauek naturarekin zerikusi zuzena zeukaten: Kareaga gaina, Elorreta, Arezti, Eitzaga, Artarrai... Iturri zaharretan leku-izenak agertu beharrean abizenak agertzen dira, esaterako “...de Elorreta, ...de Urko, ...de Abeletxe”... Batzuetan leku-izenak ezetik lanbidea ere azaltzen da (Carbonero...)

Abizenen artean, 1566. urtean “Ermua” abizena da aipagarriena (Ik. BEHA.:Bataioen liburua I. Juan de Ermua, Martin Saenz de Ermuaren semea).

13. Harresitik kanpo ortuak eta solako zeuden, pixkat urruntxoago sagastiak eta mendi magaletan hain jaki garrantzitsua izan zen gaztaina. Gorago, herritik urrun samar hariztiak eta tokian tokiko landaretza.

14. Herriaren antzikotasunari dagokionez Marcelino Onaindia luze aritu da *Ermua I* liburuan (31-40.orr).

15. *“Otto si vos do previllejado que lo hayades por previllejo de mi por merced para siempre jamas todo lo que esta dentro de estos límites siguientes es a saver: Comenzando de la piedra crucijada de Olaerreaga por el bando arriba, al pasaje de Pagazubiaga, é dende por el camino real adelante fasta la Hermita de Santa Maria de Areitio, é dende por el camino ajuso al arroyo de Mallagarai, é dende á suso al arroyo que descende de las tejerías é pasaje de Eztacona, é dende arriba a dicho Eztacona, ó del dicho Eztacona a Artiaga, é del dicho Artiaga, é del dicho Artiaga al arroyo que pasa a Berano aguirre, é por el camino adelante a Beranogoitia, é dende al arroyo que esta debajo de Astorregui arriba fasta encima del cerro, é del dicho cerro a Undiogana, é dende por do se vierten las agoas adelante a la Sierra de Urcogana por las esquinas á juso por do se vierten las agoas de Lexarreta, é del dicho Lexarreta por do se vierten las agoas por las esquinas a juso á Pagonabarraga é Careaga, é dende ajuso derecho a la crucijada de la piedra de Olaerreaga”.* (ONAINDIA 71: 12-13.orr).

Jatorrizkoaren kopia bat Iturrizak jaso zuen bere II tomoan, 119. orrialdean. Kopia hori eta Onaindiak jasotakoa oso antzekoak dira, *Lexarreta* beharrean behin *Elorreta* idazten badu ere.

16. 1638an oso herri armagina zen Ermua. Etxe bakoitzean armak, arkabuzeak eta mosketoiak gordetzen ziren. Edozein gerarate baten aurrean herriko jauntxoak biltzen ziren eta etxe bakoitzeko arma kopurua zenbatzen zituzten, honen zerrendak oso luzeak dira eta herriko gehienek hartzen zuten parte. Ik. BAHF: JBG, 83. zk., 99. or, 169. or eta 239. or.

ak, karegileak, harginak, ikazkinak, karreteroak, txerriidunak, harakinak, okinak, medikuak, apaizak... eta horrelako lanbide tradizionala zuen jendeaz osaturik zegoen Ermua.

“La villa de Ermua era en los siglos XIV y XV el centro comercial de toda la comarca que media entre ella y la villa de Durango, celebrándose en ella mercados, tanto de ganados como de ropas, lanas, etcétera, todos los sábados del año, estando obligados los de los contornos a acudir al mercado de Ermua para realizar sus operaciones de venta, no pudiendo hacerlas en sus pueblos o lugares”. (*Industria Guipuzcoana de la cuenca del río Deva*: 235-236. orr).

1600an Santa Margarita konbentua eraiki zen.

1636an badakigu Ermuan taberna-posada bat, bale-olioa saltzeko denda, harategi bat, pisu bat eta arrandegi bat zeudela¹⁷. Horretaz gain lau errota: Otaola, Urkitza, Mallea eta Bolunsarri.

1760an Baldespina markesaren jauregia eraiki zen eta horren inguruan Barenkale.

“En el año 1775, existían en Ermua quince fraguas de herreros, en las que se fabrican llaves de escapeta y fusil, existiendo también un barreno para cañones y una ferrería. en menor escala se fabrican asimismo balaustres y erramientos”. (*Industria Guipuzcoana de la cuenca del río Deva*: 235-236. orr).

1794ko abuztuaren 29an, Ermuko gerragunearen komandantea zen Joaquin de Larrinagak, frantsesak Ondarroa harturik eta Eibarko aldetik Ermurantz zuzentzen zirela jakin izan zuen. Olaerreako zubian 350 bat gizon garaitu ondoren, frantsesek Eibar eta Ermua bitartean dagoen toki hau hartu zuten, Sallabenteko basilizan instalatuz. Eguerdiko ordubiak inguru herriaren kontrako eraso hasi, eta handik bi ordutara sartu ziren, herriari sua emanaz. Ondorioz, apenas zazpi etxe geratu ziren suntsitu gabe; aldi berean 22 gorpu (9 Ermukoak) eta 24 zauritu suertatuz¹⁸.

(1810) *“esta villa se halla en la última y extrema miseria”.* (BFA.: *Admin., Hazienda. Est. Patr., Balparda, 222 Kutxa*).

(1866) *“... debo manifestar que esta villa tenía su correspondiente hospital pero que fue incendiado en el año 1794 por el ejército francés, y tanto su solar como los montes raíces que tenía en 1806 vendió el gobierno”.* (BFA.: *Admin., Den. Est. II., Erreg. 5, Leg. 5*).

“Para el debido conocimiento y claridad de la Estadística de esta Villa de Ermua se supone que toda ella se compone de pequeños labradores que por la tenuidad de sus labores pagan las rentas en dinero; y no hay otra clase de riqueza que la territorial; y de armeros de las Reales Fabricas de Placencia que tiene suspendidos sus armamentos desde la Yrruccion de los Franceses, sin que en el día tengan mas ocupación que la de algunos remiendos que apenas les propocionan el necesario sustento.

Se supone tambien que hay tres Beneficiados, dos cuzeros (sic) y uno medio; un cirujano y un Escribano.

Y por ultimo se supone no haber Ferreria ninguna pues aunque la de Olaerrea se considerava de esta jurisdicción en la Epoca en que la Junta General de Vizcaya la liberto de contribuciones por el incendio perecido; en el día que no le resulta esta utilidad la incluiu en Dueño en la riqueza de Zaldibar”. (BFA.: *Admin. Lur. Est. I., Erreg. 4, 1814. urtea*).

17. BAHF: JRG, 140. zk., 2. zatia, 75. or eta BAHF: JBG, 91. zk., 352. or.

18. Joxemari Arnal: “Konbentzio Gerra Ermuan” Argitaratu gabea. Ik. ONAINDIA (73): *Ermua-II*. Graficas Onaindia. (55-57. orr).

“Sus montes concegiles se reducen a algunos pocos arbolados deteriorados en las entanacias de los franceses”. (BFA.: *Admin., Lur. Est. I., 1814. urtea*).

“Su contribución es al respecto de 38 1/2 fogueras, y su población de 357 almas. Era ántes mayor; pero fué saqueada é incendiada por los franceses en 29 de agosto de 1794, habiéndose preservado del incendio solas 8 casas de 84 que existian. Se hallan ya muchas reedificadas, y entre ellas la del ayuntamiento, en que está el peso público y la carnicería. En el casco de la villa, compuesto de 2 calles y una callejuela con 2 puertas, reside casi todo el vecindario, y solo hay fuera de él 7 caseríos habitados por labradores: otros 18 hay en la villa...

Hay escuela gratuita de primeras letras, y cirujano dotado: hay tambien 2 fuentes muy buenas, y existen en su término 6 puentes de piedra, una ferrería y 8 molinos. Tiene iglesia parroquial dedicada á Santiago, que se reedifico en 1602, y su feligresía comprende 11 caserías fuera de la jurisdicción de la villa, y en términos de Zaldúa...

Hay 3 ermitas en términos de la villa, dedicadas á S. Lorenzo, á S. Pelayo, y á S. Sebastian y S. Antonio: otra tiene la feligresía en territorio de Zaldúa dedicada á S. Pedro. Hubo un convento de religiosas dominicas fundado en 1594; pero se trasladáron á Elorrio en 1700”. (Academia de la historia (1802): *Diccionario geográfico-histórico de España*. Madrid).

Herriko biztalen gehienak armaginak ziren eta miseria gorrian bizi ziren:

(1814) “Las demas casas de este pueblo son de nueva habitación y no producen mas que las Rentas que van anotadas y estan habitadas de Fabricantes de armas, en el dia sin trabajo, hasta que lo determine el gobierno”. (BFA.: *Admin. Lur. Est. I., Erreg. 4*).

(1868) “La labranza de aqui es muy corta por lo que la mayor parte de la gente se compone de armeros y artistas”. (BFA.: *Admin. Den. Est. I., Erreg. 1, Leg. 2*).

Herribasoak, Udaeta, Mallamendi, Egurmendi, Artabe, Basakatz, Zubibariaburu eta Urko saldu izan behar ziren, zorrei aurre egiteko:

(1811-Zaldibar) “Se produciere a la venta y enajenación de los terrenos comunes despoñados de ella”. (BAHP.: JM., 413. zk., 43. or).

1860ean kale-izendegi berria onartzen da¹⁹. Horrela gelditzen delarik: Barrenkale, Artekale, Goienkale, Zubiaurre, Izelaieta eta Sallabente auzoa.

1881ean, sekzio berri bat erabiltzen dute²⁰: Baserriak.

Pizkunde txiki honen ostean, karlistadak burutu ziren. Karlistadak galdurik, udala eta herria oso pobretu egin ziren. Gerra garaian sortutako zorrei (ejertzitoari lagundu) eta gerra ostean izandako gastuei aurre egiteko (konponketak...), herri-basoen salmenta onartzen da. Urte gogorak izan ziren haiek. Hala ere, Ermuan etxe bakoitzean, atariz atari tailertxoak sortzen hasi ziren, zeinetan etxeokoak eta bi beharginedo lan egiten zuten.

(1880) “No radica en esta población fabrica de ninguna clase, son armeros los mas vecinos pero resulta que trabajan en piezas sueltas de toda clase y remiten a la proxima villa de Eybar donde hacen la montura para todas partes”. (BFA.: *Admin., Sec. Pri. Ind. Com., Fer., Erreg. 1., Leg 2-bis*).

1886an, trenaren etorrera izan zen. Trenarekin batera, industria indartu eta herria zabaldu egin zen. XIX. mende amaiera honetan herria Izelaieta kalean amaitzen bazen ere, trenbidetik behera San Antonioraino hedatzen hasi zen. Kale eta etxe ilara berriak sortu ziren.

19. Ik. 1860 BFA.: *Admin., Den. Est. II., Erreg. 13, Leg. 1*.

20. Ermuko Udaleko Akta liburua (1881ekoa).

Karlistaden ostean.

“A mediados de la década de 1890 comienzan los profundos cambios que transformaron las pequeñas poblaciones del valle del Deva y de la Vizcaya Oriental. Para 1930, al final del proceso, economía y sociedad tenían ya formas similares a las actuales.

En primer lugar, la separación entre capital y trabajo se hizo más nítida. La fábrica sucedió al pequeño taller como forma más común de unidad productiva. La electricidad favoreció la implantación de maquinaria. Hubo nuevas orientaciones productivas: desde los años 90 el revólver sucedió a la pistola como producto típico. También surgieron otras actividades al margen de la armería. el proceso productivo ganó en complejidad, con lo que surgieron centros de formación técnica (Escuela de armería en 1913), que quitaron al taller una parte de su función de aprendizaje. A las empresas familiares se añadieron sociedades mayores. Se instalaron los ferrocarriles...” (ERNAROA 1986: 3. zk. 144. or).

“Durante el período que media entre los años 1900 a 1920, al igual que el resto de las poblaciones de la Cuenca del Deva, la industria armera alcanza su máximo desarrollo, fabricando un elevado número de armas de fuego, pistolas y revólveres particularmente, y suministrando a las importantes factorías de Eibar miles de piezas y accesorios para el montaje de sus armas. Durante estos años había en la villa de Ermua más de cien armeros, destacando por sus producciones los talleres de los señores Acha, Areitio, Eizaguirre, Urreta, Salaverría y otros. Las medidas de restricción que afectaron tanto al final de este período a la industria armera eibarresa, repercutió simultáneamente en la villa de Ermua que se ve envuelta en la más aguda e insospechada crisis iniciándose la decadencia de esta tradicional producción. Todavía el año 1934 funcionaban en la villa de Ermua algunos talleres dedicados a la fabricación de armas, si bien a un ritmo que presagiaba su desaparición completa”. (Industria Guipuzcoana de la cuenca del río Deva: 241-242. orr)²¹.

Gerra zibilaren aurretik herria, gaurko egoeraren aldean, oso txikia zen. Industria edo merkataritzari buruz hitz egiten denean. Ez zegoen gaur ezagutu eta erabiltzen diren gune komertzial erraldoi horietakorik. Dendak ziren txikiak, baina ugariak. Ez zegoen komunikabide egokirik, beraz, herritik irteeta nahiko gaitza izaten zen, horregatik hemen irabazitako diruak hemen gastatzen ziren. Hau kontutan hartzen badugu 1.200 biztanleko herri txiki honetan nola egongo zirela hainbeste denda eta taberna erraz ulertuko da. Dendak txikiak baziren ere, denetarik zeukaten, eta ez zegoena normalean ferietan, kinkileeroek, motxaiek, Ondarruko arrantzaleek... edo bestelakoek eskura ipintzen zuten; baziren okindegi, arrandegi, errota, farmazia, estanko, tabernak²², denetariko dendak... herriko beharra asetzeko beste.

Gerotxoago, gerra zibila etorri zen eta goardia zibilak Ermuan hain ugari ziren arma tailerrak itxi egin zituen, Ermuak izan zuen armagintza historia aparta betiko desagertuz²³. Garai horretan gure herriko hizkuntza debekatu zuten, transmisioa eten zuten eta mendeetan zehar erabili izan diren izenak ordezkatu zituzten, berriak jesarririk: Plaza de España, General Mola, Santa Zezilia... Zorionez, gaur egun, betiko izen asko berreskuratu dira.

21. 1910eko plano zehatza (BFA.: *Udal Erreg. Udal., Konpo., Erreg 51, Leg 2 nº 3 [bis]*).

22. “10 tabernas y cafes” (1910, BFA.: *Udal Erreg. Udal., Konpo., Erreg 51., Leg 2., 3. zk-bis*).

“bar Ostatukua, bar Herrero, bar Ibarranguelua, bar Ezquerria, bar Valerio, bodega Iturri, Bodegas Riojanas, bar Choko, bar Machín Chiqui, cinema Ermua, bar Ongui-Etorri, bar Bocho, bar Tokiona” (*Correo 58-IX-28*).

23. Ik. ARANBERRI, F (96): (155-156. orr).

Gerra ostean, Ermua laster hazi zen; tailertxoak txiki gelditu ziren eta tailer handiagoak, bai leku aldetik, bai eta langile kopuru aldetik ere sortzen hasi ziren. Kanpoan eskatzen zena hemen egiten hasi zen: bizikletendako osagarriak, kremaile-rak, labanak...

“Canteras de piedra y arena. La industria cuenta con cuatro fábricas de tornillos, una de planchas eléctricas, una de juguetes, una de herramientas, dos de navajas, una de gaseosas, una de embutidos, cuatro de serrar madera, varias de piezas de recambio, una de bicicletas, una de acuñación de metales y varias industrias menores. Carretera de Bilbao a San Sebastián y otra que empalma con la de Marquina. Cartería y centrales telefónica y telegráfica. Est. de f.c.

El pueblo está formado por 131 edif. destinadas a vivienda y siete a otros usos, en compacto”. (CORTEGADA- Fresno de la Polvorosa (1959): Diccionario geográfico de España, Madrid. Ediciones de Movimiento).



Hazkunde ekonomiko horrek langileak etorrarazi zituen, biztanleriaren kopurua handituz.

(1973) *“Los grandes grupos están formados por Vascos, Castellanos, Leoneses, Gallegos y Andaluces-Extremeños. Excepto la región Este de España y las Islas, el resto de España está representado con holgura en esta mininación laboral e industrial, abigarrada y presa entre dos abruptos peñascos y tres ramales de carretera”. ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturarako tesina, argitaratu gabea).*

(1973) *“La Ermua actual ha debido su desarrollo a una nueva condición de su suelo, la baratura. Próxima a la villa industrial de Eibar, ofrecía una infraestructura cómoda, asentada y barata. La carestía, y consiguientemente los precios de la vivienda en Eibar, obligaron al obrero inmigrante a buscar en Ermua el asentamiento que necesitaba para sí y su familia. De esta forma Ermua pasó de pueblo a suburbio, de villa autónoma a Villa dependiente, de comunidad de trabajo a comunidad dormitorio. Para los nuevos habitantes que comenzaban a afluir a ritmo, a ritmo creciente, Ermua venía a identificarse con un sólo factor de su vida social la vivienda”. ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturarako tesina, argitaratu gabea).*

(1973) *“En realidad el tráfico es un avatar, los espacios verdes no han sido respetados en función de la vivienda, las edificaciones se han encaramado en las laderas del monte, como única posibilidad de residencia. En otras palabras, la improvisación ha suplantado al cálculo, la vivienda ha perdido su carácter genérico de hábitat para convertirse en simple dormitorio”. ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturarako tesina, argitaratu gabea).*


1973tik aurrera, izugarritzko aldaketak egon dira. Hauek guztiak begi-bis-takoak dira, nik ez ditut hona ekarri. Hurrengo belaunaldiari utziko diot guk bizi izan dugunaren balantzea egiten.





VI
LEKU-IZENEN
FITXEN EGITURA

Leku-izenak jaso ditut, hau da, lekua eta leku horri dagokion izena. Batzuetan entitate berari izen bat baino gehiago esaten diote, holakoetan aldaera eta bestelako izen guztiak toponimo normalizatuaren fitxan sartu ditut. Izena ezagutu bai, baina erreferentzia egiten dion lekua edo kokapena ezagutu ezean leku-izenak ez ditut sailkatu²⁴, datu zehatzagoak izan arte.

Fitxak irakurtzea oso erraza da, guztiak modu berean egin ditut eta.



24. Esaterako: *Larderokea, Ospitalbaso, Pagaisakoneta, Domekasagasti...*



VII
HERRI BARRUKO
LEKU-IZENAK

ERMUA herria

OHARRAK:

Ermua izena aipatzen denean, misterio baten aurrean gaudela ematen du. Alde batetik bere historia ez delako behar bezala ezagutzen, eta beste aldetik bere izenaren jatorriaz ez delako behin betiko iritzia eman.

Iritzi guztiak aztertu ostean, Mitxelenak esan zuenarekin egiten dut bat. Mitxelenaren arabera Ermua latinezko *eremutik* etorriko litzateke: *eremu* > *ermu*. Bere esanahia *desierto*, *yermo*, *término*, *jurisdicción* edota *superficie*, *espacio* da. Jakin badakigu Laudioko *La virgen del yermo* izeneko ermitaren ondoko errekatxoak *Ermuko erreka* izena hartzen duena. Latinezko *eremu* hitzak euskaraz *ermu* eman du. Gazte-



Ermua (1920-1930)

laniaz, berriz, *yermo*. Oraindik ere, mendebaldeko euskaraz *ermua* hitza erabiltzen da landu gabeko lurra izendatzeko. Iturrizak hauxe dio *fue fundada en hiermo o despoblados quando se les concedio el privilegio de su hereccion*, bere esanahia *desierto* delarik (MKK.I.: I, 92. or eta II, 9 eta 233. or)²⁵.

XVI. mendeko testuetan, *Billa ferrera* esaten zaio. Izen hau ez da askotan agertzen, baina garai horretako dokumentazio gutxi gorde denez, agertzen denean kontutan hartu behar da. Iturrizak ere esaten du gauza bera: aitzinean “Villa ferrera” esaten zioten Ermuari.

“Esta forma del nombre parece normal, ya que la villa ferrera proviene efectivamente, de villa del hierro y bien notorio es el hecho de que en Ermua las herrerías y la fabricación de artículos del dicho metal, (Armas, llaves, etc.) datan, como bien dice Delmas, de tiempo inmemorial, bien entendido que se trata de dar un calificativo al nombre de Ermua que, en definitiva, es el verdadero, o, por lo menos, el que el Infante D. Juan puso en la carta de fundación”. (ONAINDIA 71: (29. or). Liburu honetan iritzi guztien bilduma egiten da).

Grafiari dagokionez, garaian araberakoa da. XVII. mendean, grafia oraindik ere ez dago finkaturik eta *germua* askotan agertzen da, baita *yermua* eta *hermua* aldaerak ere. *Germua*-ri dagokionez, Jaime Kerexetak bere lanetan azaltzen du dokumentazio zaharretan “y” eta “g” askotan nahasten direla. Eskribauak berak forma desberdin bi, edota inoiz hiru ere, erabiltzen ditu.

XVIII mendean *Ermua* normalean “h”-z agertzen da. XIX. ean, berriz, “h”-z zein “h” barik. Mende hasierako joera “h”-z idaztea bazen ere, mendea aurrera joan ahala joera hori desagertzen hasi zen, XX. mendean “h” gabeko *Ermua* nagusitu da²⁶.

Deklinabideari dagokionez: *Ermua*, *Ermuari*, *Ermuak*, *Ermuan*, *Ermutik*, *Ermuraino*, *Ermurantz*, *Ermurako*...

Atal hau amaitu baino lehen, ez da ahaztu behar ahoskera: Euskaraz *Ermua* hitza hiru silabatan egiten da eta azentua bigarren silabak eramaten du [eř/mú/a]. Lehen erdal ahoskera ere halaxe zen, “Ermúa”²⁷. Gaur egun, oster, erdarazko ahoskera aldatu egin da eta erdaldunek diptongoa egiten dute (euskaldunok ere erdaraz egiten dugunean), hau da, berba bi silabatan ahoskatzen dute [éř/mwa].

Ahozkoa: [eř múa]

- 010, 025, 016, 054 “Ermua”

Idatzizkoa:

- 1372 villa de Hermua (ONAINDIA 71)
- 1480 billa ferrera de Hermua (FUENTES.: 46. zk., 201. or)
- 1572 billa de hermua (BUA.: C/0373, Esp. 8)
- 1609 Villa ferrera de Hermua (BEHA.: 9-270, Ezkontzak)
- 1626 Villa de germua (BAHP.: JBG, 78. zk., 38. or)
- 1626 yermua (BAHP.: JBG, 78. zk., 39. or)

25. “Iturrizak *Eremuba*-tik datorrela ere esan zuen, baina honekin ez nator bat, “*u+a=ba*” markineraren ezaugarria izan baita, esaterako, munduba, eskuba...”

26. 1513 inguruan normalean *Billa ferrera* izena hartzen zuen. 1626an *germua*, behin *yermua* eta beste salbuespen moduan behin 1638an *villa de Ermua*. Hori notarioak berak (BAHP.: JBG, 83. zk., 155. or). 1660.ean, notarioa aldatzean *Billa de hermua* agertzen da (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 2. or.) eta 1753an Amandarro zeritzan notarioak “h” zein “h” barik idazten zuen.

27. *Enciclopedia Universal Ilustrada Europeo Americana*. Espasa-Calpe S. A. Madrid. Barcelona. (514. or.).

- 1628 villa de hermua (BAHP.: JBG, 79. zk., 251. or)
- 1630 La villa de germua (BAHP.: JBG, 80. zk., 102. or)
- 1630 villa de ermua (BAHP.: JBG, 80. zk., 111. or)
- 1636 Villa de Ermua (BFA.: Auziak eta Autuak., Erreg. 7, 60. zk.)
- 1638 villa de Hermua (BAHP.: JBG, 83. zk., 183. or.)
- 1658 villa de hermua (BAHP.: JBG, 139. zk-A., 2. or)
- 1658 Villa de hermua (BFA.: Auziak eta Autuak, Erreg. 19, 111. zk.)
- 1660 Billa de hermua (BAHP.: PRG, 140. zk. 1. zatia, 94. or)
- 1729 Villa de Hermua (Esk. 005)
- 1731 Villa de Hermua (Esk. 005)
- 1753 Villa de Hermua (BAHP.: JAA, 856. zk., 10. or)
- 1753 Villa de Ermua (BAHP.: JAA, 856. zk., 20. or)
- 1773 villa de Ermua (BAHP.: JM, 387. zk., 201. or)
- 1777 Hermua (MKK.I.: I, 9. or)
- 1791 noble villa de Ermua (BAHP.: JM, 399. zk., 377. or)
- 1799 Villa de Hermua (BFA.: Propioak eta arielak, Erreg. 4, 629. or)
- 1810 Villa de Hermua (BFA.: Propioak eta arielak, Erreg. 9, 458. or)
- 1814 Hermua / villa de Ermua (BFA.: Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1817 Villa de Ermua (Esk. 005)
- 1833 Noble villa de Hermua (BFA.: Udal., 0010/002)
- 1833 Villa de Ermua (BUA.: XXI-2-C-01, 2. or)
- 1923 Villa de Ermua (Esk. 010)
- 1988 Ermua (DEIKER)



Baldespina jauregia / Udaletxea

Harmarria:

“Tiene por armas la Villa de Ermua, en su Casa Consistorial, un escudo de bronce amarillo partido en tres cuarteles. En el de la derecha, el Arbol de Guernica con dos lobos cruzados horizontalmente mirando hacia fuera, los lobos son negros y están cebados, con dos corderos sangrientos en campo de plata; en la izquierda y en la parte superior, una media luna con las puntas hacia abajo en planta con fondo dorado y, en la parte inferior, una cadena en forma de media luna con dos estrellas de seis puntas perpendiculares, ambas de bronce, con fondo plateado. Rematando el escudo en la parte superior, una concha marina con la cruz.

En cuanto al origen de estas armas, si bien los historiadores se limitan a citarlas solamente, de la parte que corresponde al escudo de la provincia el Dr. Salazar de Mendoza escribe: “Este D. Diego (D. Diego López de Haro, el Bueno, XII Señor de Vizcaya) tomó por armas dos lobos negros cebados, con dos corderos sangrientos en campo de plata, por alusión del patronímico López o porque D. Lope, su padre, tratándose de Lobis por dos lobos esculpidos en ella, y que estas armas comunicó al Señorío de Vizcaya, el cual las trae arrimadas al escudo del Arbol de Guernica”.

En cuanto a la media luna y estrellas, tuvieron origen, según el P. Moret, en el libro tercero, capítulo noveno, de las “Investigaciones de Cantabria”, en el año 1212, apropiándose muchos que estuvieron en la famosa batalla de las Navas de Tolosa, concedidas por el Rey D. Sancho el Fuerte de Navarra a la villa de Villava, de Pamplona, que se conservan en las ventanas de aquella iglesia.

Por lo que a la concha y la cruz se refiere, por tratarse de dos símbolos claros que aparecen en todas las rutas del Camino de Santiago, no queda más que pensar que Ermua, de una manera más o menos directa, participó en ésta tan mundialmente conocida ruta, siendo muy posible que el ramal que desde Irún venía franqueando la costa hasta Iciar, en donde se dividía, un lado partía para Marquina y Cenarruza, pasando de allí a Guernica y Bilbao, y el otro seguía la faja costera hasta Lequeitio”. (ONAINDIA 71: 25-26. orr).



Santiago elizan dagoen armarria



Gaurko armarria

ABADE-ETXEA

Abade-etxea (1998)

Kokapena: Barrenkale, 5. zk.

OHARRAK: *Abade-etxea* lehengo *Izarra* eta *Sosuaneko* etxeetako orubean dago. Etxe honetan, Luisa Egiak esanda, garai batean *Brunaneko* estankoa egon zen, baita konfitegia ere. Ik. Bidebitarte / Abade-etxazarra

“Edificio adosado y con caballete paralelo a la fachada. Aparejo enfoscado y sillar marcado ángulos y vanos. Distribuido en tres alturas más ático. Los accesos adintelados”.
(DEIKER: Bariarleen ikerketaren informazioa. Udalerria: Ermua 034).

Ahozkoa: [abádeče]

- 009 “Abade etxe”

ABELETXEBARRENA (*soloak*)

Kokapena: Irulieta

OHARRAK: Zubiondo tailerra dagoen lekuan.

Ahozkoa: [abélečeḃařéna]

- 022 “Abeletxebarrena”

Idatzizkoa:

- 1878 Abelechebarrena, termino de (JE.: Liburu II, tomo 45, Finka 91)
- 1882 Abelechebarrena, heredad en el término de (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 194)

ABELETXENEKOA (*etxea*)

(*Botata*)

Kokapena: Zubiaurre, 17. zk.



Abeletxenekoa

OHARRAK: *Pepetxiki / Txantxiku* baserriaren aldamenean. San Ildefonsoren ondokoa. Bertan ganaduari ferrak jartzen zizkioten. Horregatik *Errementarianekoa* ere esaten zaio.

Ahozkoa: [abélečenekua]

- 022, 064, 066 “Abeletxenekua”
- 009 “Errementarixanekua”

ALDAPA *kalea*

Kokapena: San Pelaio auzoa

OHARRAK: San Pelaiotik Betiondorako aldapa. Etxeak egin dituzte eta kaleak hartu du izena.

Ahozkoa: [a]ldápa]

- 022, 063 “Aldapa”
- 036, 061 “Aldapia”
- 010 “Aldapasarra”

Idatzizkoa:

- 1877 heredad en el termino llamado Cuesta de San Pelayo, conocida con el nombre de Aldapacoa (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 104, 25. or)
- 1878 Cuesta de San Pelayo (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 109)
- 1882 Aldapia, heredad llamada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 181)
- 1889 Aldapasolua o Aldapacua, heredad llamada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 237)
- 1945 “Aldapia” (Esk. 036)



Aldapa

ALDAPA-AUNDI *soloa*

(Desagertua)

Kokapena: San Pelaio auzoa

OHARRAK: Gaur egun, bere lekuan *Eroski* eta *Errebalburuko* etxe berriak daude.

Ahozkoa: [a]ldápa-áũñdi]

- 059 “Aldapa-aundi”

*ALDAPAKOA (baserria)**Kokapena:* Aldapa kalea, 1. zk.*OHARRAK:* Baserri honen bi aldeetan aldapa zegoen, gaur egun bietan eskailerak: frontoiostekoa eta *Aldapako* zeharbidekoa. Aldapako baserria frontoi ostean dago, aurrean *Santuko* eta *Infreñu* baserriak zituelarik.*Ahozkoa:* [aldápakua]

- 009, 022, 060, 062 “Aldapakua”
- 003 “Aldapekua”

Idatzizkoa:

- 1824 Aldapacua (BFA.: Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Aldapacua (GBA.: Polizia Errolda)



Aldapakoia (1997)

- 1882 Aldapecoa, casa llamada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 233)
- 1961 Aldapakua, casa (ESE.: 8 Hil., 66. or)

ALDAPAZAR

(Desagertua)

Kokapena: Txabisola (VI. Mendeurrena)

OHARRAK: *Mallaerrotako* etxaburua, 1923. urtearen inguruan Drogetek txatal hau erosi eta bertan bere “Rantxoia” altxatu zuen. Ik. Droget.

Idatzizkoa:

- 1900 Aldapazar o Echeburua (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 305)
- 1923 Aldapazar o Echeburua, heredad llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 408)

ANAITASUNA ikastola / ONGARAI eskola

Kokapena: Ongarai auzoa

OHARRAK: *Anaitasuna* ikastola²⁸ eta *Ongarai* eskola biltzen dituen eraikuntza hau 1972an altxatu zuten. Hasieran, *Santiago* eta *Teodoro Zuazua*²⁹ ikastetxeak egon ziren.

“A finales de 1972, se inauguraron dos colegios nacionales, de 22 aulas cada uno, que acogieron a la población escolar repartida en los edificios industriales y Ongaray, que habían dejado de funcionar a finales del curso 1971-72. Estos dos nuevos grupos escolares, aunque han sido diseñados siguiendo las normas dictadas en la nueva ley de Educación, por lo que están equipadas de laboratorio, salas de hogar, biblioteca, despachos de consulta, equipo de medios audiovisuales, etc., no reúnen sin embargo todas las condiciones exigidas por la citada Ley, como se comentará más adelante...”

(...) En cuanto a la localización de estos nuevos centros, puede decirse que es buena para lograr suficiente ventilación, iluminación, quedando alejada de centros fabriles, carreteras, etc. Sin embargo, por su emplazamiento ocurre que, al tener que albergar a la mayoría de los niños en edad escolar, las distancias a recorrer son grandes, agravando todo ello por las enormes pendientes como único acceso a Ongaray, que han sido ampliamente reseñadas y comentadas en el presente estudio”. ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturarako tesina, argitaratu gabea, 22-23. orr).

Geroago, Teodoro Zuazua desagertu eta *Anaitasuna* ikastolak hartu zuen bere lekua, bere sorkuntzatik tokirik toki eginiko ibilaldi luzea amaituz.

28. Ik. Ikastola Elkarte (1994): *Anaitasuna* Ikastola XXV. urteurrena 1968-1993. Ermuko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskadiko Kutxa. Ermua.

29. Teodoro Zuazua herriko apaizaren izena da.

ANBROSIANEKOA (okindegia)

Ambrosianekoa



Ambrosianekoa (1979)

*(Desagertua)**Kokapena:* Kaltxango

OHARRAK: Konbentuko ortuan, *Etxeaurrean* (gaur egungo *BBVA*-ren aurrean) 1940. urtearen inguruan eraikia. Okindegia izandakoa.

Ahozkoa: [ambřósiánekua]

- 009, 022, 028, 062 “Ambrosianekua”

ANTOLIÑENEKOA (etxea)

Kokapena: Probaleku kalea

OHARRAK: *Probaleku* parean. Bertan oilar-borrokak egiten ziren. Taberna izandakoa.

Ahozkoa:

- 009, 022, 028, 062 “Antoliñen tabernia”
- 063 “Antoliñenekua”
- 022, 066 “Antoliñ”



Antoliñenekoa, Probalekun (1963)

ANTONATXABARRI (etxea)

Kokapena: San Pelaio kalea

OHARRAK: San Pelaio ermitaren atzean. Futbol zelaiaren ondokoa.

- 1957. urtean *Antonatxa* baserria etxeak eraikitzeko bota zutenean, Tototrika familiak etxe berria egin zuen San Pelaion. Etxe horri *Antonatxabarri* izena jarri zioten, *San Pelaion* eraiki ziren lehendabizikoetakoa izan zelarik.

Ahozkoa: [aṽtónačabáři]

- 003 “Antonatxabarri”



San Pelaio futbol zelaia (1959)

ANTONATXANEKOA / SABON (baserria)

(1955.ean botata)

Kokapena: Zubiaurre kalea, 4. zk.



Antonatxanekoa (1950)

OHARRAK: Baserri honek Anton Atxa jabearen izena hartu zuen. Baina, jatorriz, eskritoretan *Sabon* izena agertzen da. Ermuan *Zinkoneko* baserriak ere *Sabon* izena hartzen zuen (idatzizko iturriaren arabera).

Dorretxe hau, Artekalek Beranoerrekarekin egiten duen kantoian zegoen. Bere itxuragatik, Ermuko etxerik zaharrenetariko bat izan dela esan daiteke.

Ahozkoa: [aṗtónača]

- 009, 010, 022, 026, 028, 062, 064, 066 “Antonatxa”
- 009, 010, 036, 063, 064 “Antonatxanekua”

ARDINARRUKO ALDATZA

Kokapena: Iruliet auzoa

OHARRAK: *Irulietatik Goienkalera* joateko aldapatxoa. *Pasealekuan.*

Ahozkoa: [ařđinař uko ałdaca]

- 009 “Ardinarruko aldatza”



Ardinarruko aldatza (1935)

ARIZMENDI (basoa)

Kokapena: Urteaga-aldea

OHARRAK: Ermuko pilotalekuari, bere gainean dagoen *Arizmendi* basoak eman zion izena. Izen hau Ermuko zaharrenetariko bat da. Lehen herritik kanpo, Mallabirako bidean zegoen alde hau haritzez beterik zegoen. Haren gainaldean *Mallamendi* mendia; behealdean, *Urteaga* erreka eta bestealdean *Bolintxoaga*. Arizmendi barruan *Txabolaburu* dago.

Arexmendi aldaera zaharragoa da, baina gehienetan abizen moduan agertzen da. Nahiz eta abizenak leku-izenetatik sortu direla jakin, gaur egun normalizatuta dagoen aldaera hobesten da: *Arizmendi*.

Abozkoa: [arízmeñdi]

- 022, 063, 066 “Arimendi”
- 009, 010 “Arizmendi”

Idatzizkoa:

- 1550 Arexmendi (BEHA.: 9-270, Bataioen liburua I)
- 1638 La tierra y manzanal de cearra que alipda con la geredad de Lasalde por un lado y por la otra con la del licen^{do} carate ycem^e (sic) de arexmendi” (BAHP.: JBG, 223. zk., 8. or)
- 1873 Arismendi, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 28)
- 1894 Arismendi, monte (BFA.: Lur. Est., Karp. 10)
- 1900 Arizmendi o Urtialdea, monte robledal (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 305)
- 1903 Arismendi, camino vecinal de (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 464)
- 1905 Arismendi (BFA.: Udal., 002/013)
- 1923 Arizmendi o Urtialdea, monte robledal llamado (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 413)
- 1947 Arismendi, monte llamado (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 524)
- 1971 Arizmendi, monte en (JE.: Liburu XV, Tomo 433, Finka 841)
- 1994 Frontón Arizmendi (UDALA: Planoa eta kale izendegia)

ARIÑONEKOA (*etxea*)

Kokapena: Irulieta, 9. zk.

OHARRAK: Trenbidea eta *Titiñoneko* etheen artekoa. Gaur egungo Caritasen egoitza. Ik. Matxintxikiko argazkia.

Abozkoa: [aríñonekua]

- 009, 022, 064 “Ariñonekua”

AROTZANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Zearkale, 1. zk.

OHARRAK: 1934-35 inguruan Ostolazak egindako etxea. Etxe honen kontran arotzegia eta zerratokia egin zuten eta hortik datorkio izena. Aldamenean baskula zegoen.

Abozkoa: [arócanekua]

- 009 “Angelanekua”
- 022 “Arotzanekua”
- 066 “Arotzan etxia”



Arotzanekoa (1997)

ARRABAL *kalea**Kokapena:* Arrabal kalea*OHARRAK:* *Orozko*, *Txantxiku* eta *Mallaerota* baserrien arteko kalea. Gaur egun, Errebal eta Errebalburu aldaerak erabiltzen dira.*Ahozkoa:* [efé**β**alkalía]

- 066 “Calle Errebal”

Idatzizkoa:

- 1623 Arrabal de cubiaur (BAHP.: JBG, 77. zk., 92. or)
- 1866 Arrabal de Zubiaurre, dos travesias que van al (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1873 Arrabal, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 59)
- 1905 Rabal (BFA.: Udal., 0004/023)

ARRABALETXEA*(Desagertua)**Kokapena:* Zubiaurre*OHARRAK:* Gaur egun postetxea dagoen lekutik pixka bat gorago (Tintoreria/ Zauraztarra dagoen lekuan). Bere ondoan, joten, **Orozko** baserria.*Ahozkoa:* [eř'ėbalečia]

- 022, 059, 062 "Errebaletxia"

ARRABALBURU (kalea)*Kokapena:* Txabisola-alde*OHARRAK:* **Torreko** baserria zegoen lekutik buelta egin, eta gorako kalea **Arrabalburu** zen. XIX. mendean sagastiak zeuden. 1960ko hamarkadan, berriz, etxeak egin zituzten eta kale hau sortu zen. Gaur egun, Errebal eta Errebalburu aldaerak erabiltzen dira.Katastroaren arabera **Arrabalburu Txabisolaren** zati bat da.*Ahozkoa:* [eř'ėbalburu]

- 017 "Errebal =Erre barri"
- 062 "Errebalburu"
- 010, 022, 028 "Errebal"

Idatzizkoa:

- 1873 Rabalburu (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1873 Arrebalburu, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 61)
- 1882 Errabalburu, término de (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 206)
- 1889 Errabalburu, termino denominado (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 262)
- 1894 Errebal-buru (BFA.: Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Errabalburu, monte y huerta (BFA.: Lur. Est., Karp. 10)
- 1957 Arrabalburu, termino de (JE.: Liburu XIII, Tomo 404, Finka 677)
- 1994 Errebalburu (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

ARRARTE (etxea)*(Desagertua)**Kokapena:* Zubiaurre kalea, 21. zk.*OHARRAK:* **Torreko Etxeondoko soloa** zen orubean Arrartek egindako etxea. **Ibargain** eta **Etxeaundiaren** artean.*Ahozkoa:* [ař'árte]

- 028, 062, 066 "Arrarte"
- 064 "Polaneko etxia"



Zubiaurre (1951)

ARRIBAKOA (*etxea*)

Kokapena: Goienkale, 6. zk. (Gaurko Orbe Kardinal Plaza)

OHARRAK: Konbentzio gerraren aurreko etxea. Bere ondoan *Kalekoa* eta *Zapatarikoa*. XX. mende hasieran, hirugarren solairuan Angel Ibañez (Txo), bigarren Urretanekoak eta lehenengoan Suinatarrak bizi ziren. Behean Salaberriaren estankoa. 1947 urtetik aurrera, Solozabal familiak hartu zuen. Hasieran jateko denda, gero liburudenda eta azkenean drogeria izan zelarik.



Portale, Kalekoa eta Arribakoa (1997)

(1878) “La casa nombrada Arribacua, señalada con el numero cuatro, situada en la Calle de Goyencalle de la villa de Ermua, que comprende mil doscientos veinte y cuatro pies, equivalentes a noventa y cinco metros de cabida, y la que se compone de tienda ó taller, y cuadra, á piso llano, de tres habitaciones y desban. Confinante por Oriente con casa de la representación de Dn Domingo de Arguiarro, por Medio día con la calle de Goyencalle, por Poniente con Casa de la representación de Dn José de Eizagagoicoechea, y por Noreste con camino antiguo que baja al río de Zubiaurre”. (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 117).

Abozkoa:

- 009 “Txo, Urreta, Salaberria, Estankua”
- 022 “Salaberrianekea”
- 064 “Urreta, Salaberrianekuak”

Idatzizkoa:

- 1730 Erraicua, Sepultura de (BEHA.: 9-271, Hilak)
- 1810 Erraicoa, Casa llamada (BFA.: Admin., Erreg. 9, 448.or)
- 1814 Erraicoa (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Arraycua (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Erraicoa, caserio (GBA.: Polizia Errolda)
- 1878 Arribacua, casa nombrada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 117)

ARTEKALE

OHARRAK: Eliza ondoko kalea. Bertatik errege-bidea pasatzen zen.

Santiago eliza, *Udaletxezarra* eta *eskola* bertan zeuden eta larunbateroko azoka ere elizaren aurrean egiten zuten.

Artekale, *Barrenkale* eta *Goienkale* kaleen artekoa da eta hortik datorkio izena. Gerra zibilaren ostean, euskal izenak debekatu zituztenean kale honi *calle de los Mártires* izena jarri zioten. Honek ez zuen luzaroan iraun. Baina, izena berreskuratzean, hau da 1979an, jatorrizko izena beharrean *Erdikokale* izen okerra jarri zioten. XX. mendera arteko dokumentazioan agertzen den *Artekale* izena neuk ere erabili dut.

Artekaleko etxeak bi-hiru pisutakoak ziren, bertan familia desberdinak bizi ziren. Hori dela eta askotan, jatorrizko izena ahaztu egin da eta egoile berrien izena egokitzen zaie etxe hauei.

- *Orbe Kardinal* Plazaren ostekoa, goitik behera: *Pedromarianekoa*, *Solozabalenekoa*, *Erleta*, *Felix Izagirre* kaletxoak, *Herrero*, *Segundanekoa*, Kostantina Ormaetxea, Okariz-Herreroanekoa, Motxoia eta *Elexoste*.
- *Barrenkale* ostekoa, goitik behera: *Antonatxanekoa*, *Okarizenekoa*, *Ibarrolanekoa*, *Dendabarri*, *Udaletxezarra* (*Arkupezarrak*) eta *Santiago* eliza.

XIX. mendean, bestaldetik, kale honetan herritik kanpo gelditzen ziren hainbat etxe sailkatzen zituzten:

- Herritik kanpo, errekaaren beste aldean, *Mallaerrot*a, *Labakoa*, *Torrekoa*, *Ongarai*, *Urkogoikoa*, *Urkobekoa*, *Sabon* (*Zinkonekoa*)
- Identifikatu gabeak, *Oreaga*, *Aresti*, *Arando*, *Luzarraga*, *Portalekoa*, *Udala*, *Udala* eta *Barrabe* (1824, BFA.: Admin., Est. I, Erreg. 5)

Artekaletik Zubiaurrera zubi bat zegoen, zubi honi *Artekalezubia* esaten zioten. Itsaso gainetik zuen altuera 169 metrokoa zen.



Artekale (1996)

Ahozkoa: [aĩ tɛkale], [eĩ ðikokále]

- 022, 028 “Artekale”
- 008, 009, 028, 062 “Erdikokale”
- 010, 064 “Erdikokalia”

Idatzizkoa:

- 1637 calle de medio (BAHP.: JBG, 82. zk., 215. or)
- 1650 casas en artecalle (BAHP.: JBG, 91. zk., 362. or)
- 1733 Artecalle (BUA.: XXI-2-B-5, 139-b)
- 1799 una casa que se quemó en la Imbasi3n del frances sita en Artecalle (BFA.: Admin., Propioak eta Arbitrioak, Erreg. 4, 641. or)
- 1810 Artecalle (BFA.: Admin., Lur. Est., Erreg. 9, 448. or)
- 1865 Calle de medio y Elexaoste, 3 sea ArteCalle (BFA.: Udal Kon., Erreg. 51, Leg. 2., 2. zk.)
- 1884 reparaci3n de la fuente de Artecalle (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 466)
- 1894 Artecalle (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1928 Local y piso de las Escuelas con la que ocupa el Sr Maestro en la calle de Alfonso XIII n3 15 (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1083 kutxa)
- 1938 Calle de los Martires antes Artecalle (ESE.: 10 Bat., 192. or)
- 1958 Calle de los martires (*El Correo Espa3ol*: 8-IV-23)
- 1958 Erdico-subi (*El Correo Espa3ol*: 58-VIII-1)
- 1994 TRAVESIA ERDIKO KALE (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

ATXA-ANAJETAKOA (*etxea*)

Kokapena: San Antonio 36, 34, 30, 28. zk.

OHARRAK: Eusebio eta Javier anaiek egindakoa.

“ACHA HERMANOS: Empresa armera establecida en Ermua, Vizcaya, a inicios de la década de 1910. Aparece inicialmente en el B.O.P.I. con la razón social de “Pedro María Acha Hermanos”, obteniendo la patente N° 56955 (1914) por “una pistola automática” (20 años) y registrando la marca LOOKING GLASS (Nª 38432) para distinguir “armas de fuego en general y de flecha, para salón y otros usos”, que es la única que figura a su nombre”. (CALVO, J. L 1997: 91.or).

Ahozkoa: [ačánajétakua]

- 009 “Atxanekoa”
- 022 “Atxa-anaietakua”
- 064 “Atxa-anaieta”



San Antonio kalea (1997)

ATXARAN / MANTIANEKOA (*etxea*)

(1999an desagertua)

Kokapena: Izelaieta kalea, 18. zk.

OHARRAK: Aldamenean trenbidea; parean *Izelaieta* kalea, errepidea, *Irulietako* iturria eta *Iturgain* txaleta. Bere ondoan *Bustintza / Palaziozarra*.

Ahozkoa: [mántianekua], [kař téruanekua]

- 010, 009, 022 “Mantianekua”
- 009, 075 “Karteruanekua”

Idatzizkoa:

- 1824 Acharan (BFA.: Lur. Est. I, Erreg. 5)

- 1825 Caserio Acharasi (GBA.: Polizia Errolda)
- 1873 Acharan, casa llamada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 16)
- 1907 Mantianecoa (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 387)
- 1923 Mantianecoa (Esk. 010)
- 1962 mantianecoa (Esk. 010)



Karteroanekoa (*Konpañiana*) eta *Mantianekoa* (1997)



Mantianekoa (2000)

BALERIONEKOA (*jatetxea*)*(Desagertua)**Kokapena:* Artekale

OHARRAK: Jatetxe izandakoa. Eraikuntza honen gainean dagoen plazari *Balerionekoa* esaten zaio. Etxe honen azpialdean, *Pasealekuan*, gerra zibilaren garaian babeslekuak egin ziren. Gure berriemaileek hor arrandegia ere ezagutu zuten.

Ahozkoa: [balério]

- 009, 026, 064 “Balerionekua”
- 003, 022 “Restaurante Balerio”

Idatzizkoa:

- 1958 bar Valerio (*El Correo Español* 58-IX-28)
- 1994 Valerio, edificio (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)



Balerionekoa (1998)

BALDESPINA jauregia

Jauregiari erantsitako etxeko armarrria. Giltzarri hau etxe horrek atzealdetik zeukan atean zegoen (zaldi-tokian). Gaur egun Udaletxe barruan dago ikusgai

Kokapena: Barrenkale

OHARRAK: *Barrenkale* eta *Santiago* eliza ditu aurrean eta *Burduntzali* atzean; aldamenetan *Larrosako buelta* eta *Abade-etxea*.

Jauregia baino lehen Agustin Orbe eta Larreategiren jaiotetxea zegoen.

(...) Adibide bikaina Valdespinako markesaren jauregia da, Ermuan, bizkaitar barrokoaren bitxietako bat, uribilduaren hazkuntza eta satsaduraren ganetik iraun dauan eraikina; oraintsu eraberritua, gaur egun udaletxea da. Uribildura zabalik dagoan jauregia da, baina landara be zabalik dago, atzealdea Urtia ibaiak bitan banandutako ortura begira egoan eta (ortua jendearentzako parkea da orain); ozta-ozta rokoko estiloan sartu ez sartu dabilzan osagarrietan aberatsa da; barrizaillea da eskailera-begia gangaz eta linternaz estaltzen dauan aldetik.

Jauregia parrokiaren aurrean dago, haren kupuleagaz "pendat" orekatsua osotzen dauala, biak maisu berak taxutu ebazan eta. Orbe artzapezpikuak Sebastian de Lecuo-

nari agindu eutson bere jauregia eregitea, 1729an, eta baita parroko dorrea be; maisua 1740an lanak amaitu orduko hil zala, haren ordez Joseph de Zuaznabarrek ekin eutson eta baita lanak amaitu be gizaldi horrexetarako 50eko hamarkadan”. (PINEDO 86: 239-240. orr).

Ahozkoa: [palásjua]

- 009, 017, 022, 025, 036, 064 “Palasiua”



Baldespina jauregia



Palazioko zubia

Idatzizkoa:

- 1791 casa Palacio del señor marques de Valdespina (BAHP.: JM, 399. zk., 384. or)
- 1796 palacio del marqués de Valdespina (KEREXETA, J: 92: 609.or)
- 1799 Casa Palacio del Señor Marques de Baldespina (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 4, 641. or)
- 1810 casa Palacio (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 457. or)
- 1814 Palacio de Orbe (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1824 Palacio de Orbe (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 5)
- 1873 Palacionuevo, casa (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 22)
- 1873 sus jardines y huertas que estan contiguas a el y se comunican con la Casa Palacio por un puente construido sobre el rio (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 22)
- 1889 Casa-palacio (ESE.: 8 Bat., 26. or)
- 1905 Labadero Barrencalle (BFA.: Udal., 002/013)
- 1931 Casa palacio (ESE.: 7 Hil., 240. or)
- 1967 Palacio Marques de Valdespina (ESE.: 8 Hil., 159. or)
- 1994 Marques de Valdespina (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)



Baldespina jauregia

BARRENKALE

OHARRAK: Gaur egungo *Marques de Valdespina* kale bera. *Barrenkale* izena zuen, barrengo kalea zelako.

Barrenkale *Osinerreka* eta *Artekale* artean sortu zen. Sorrera horretan oso etxe gutxik osatzen zuten kale hau. Kale hasiera *Santiago* elizak markatzen zuen eta kale amaiera alde banatan *Antonatsxaneko* baserriaren atzealdeak eta *Lasalde* baserriak.



Barrenkale (1969)



Aste Santua (1935)

Geroago, Artekale osteko etxeei erantsirik hiruna pisuko hiru etxe altxatu ziren, orduan kale itxura hartu zuen.

1729an, Orbe Kardinalen Baldespina jauregia bertan altxatzeko erabakiak indarra eman zion kaleari eta herriko kalerik dotoretxoena bihurtu zen.

“Los trabajadores incluidos en el grupo de otros se asientan sobre todo en Artekale y Barrenkale, en esta última debido a la cantidad de sirvientes y propietarios que habitan en el palacio de Valdespina y alrededores”. (ARREGI, I.; CANO, J.; FERNANDEZ, F. (1988): “Ermuko historiarako apunteak”, 14. or.).

Ondo egituratutako kalea da. Jauregiaren ostealdean *Osinerreka* eta *Burduntzali* daude, eta alde honetan markesaren lorategia zegoen. Hori dela eta, udalak orube hau erosi arte, bertan ezin izan da eraiki eta herriko hazkuntzak beste norabide batera jo behar izan du.

Kale honetan agertu diren jatorrizko izenak lekutzea oso zaila da. Alde batetik, etxe berean bi-hiru familia bizi zirelako. Egoilearen izena edo gaitzizena hartzen zuen leku-izen. Familia aldatzean, berriz, jatorrizko izen zaharra ahaztu egiten zen eta egoile berrien izena egokitu.

OHARRAK: Lehengo *Eroski* zaharra zegoen lekua.

Idatzizkoa:

- 1923 Ibagain, caseria (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 387)
- 1923 Ibagain, caseria (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 397)
- 1945 caseria Ibagain (Esk. 036)

Ahozkoa: [ibáɾgaj̃]

- 009, 028, 036, 066 “Ibagain”
- 062, 064 “Ibarrola”

IBARROLANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Artekale, 6. zk.

OHARRAK: *Okarizenekoa* eta *Dendabarri* artekoa.

Ahozkoa: [ibáɾolanekua]

- 064 “Ibarrolaneko etxia”

INTXAURRETA (*parajea*)*(Desagertua)**Kokapena:* San Antonio*OHARRAK:* San Antonioko kioskoa zegoen lekuan. Bertan erreka bazterrean intxaurren rondoak zeuden eta.*Ahozkoa:* [inčájřeta]

- 022 “Intxaurreta”

IMIÑASOLO*(Desagertua)**Kokapena:* Burduntzali*OHARRAK:* Gaur egungo San *Ignazio* etxe multzoa dagoen lekuan.*Idatzizkoa:*

- 1878 Ymiñasoloa, heredad llamada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 98)
- 1923 Ymiñasolo, heredad llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 425)

IRUBIETA (*soloak*)*Kokapena:* Irulieta*OHARRAK:* Ziurrazki *Irulieta* hitzaren aldaera da. Bertan XX. mende hasieran *Iturgain* txaleta eraiki zuten.*Idatzizkoa:*

- 1923 Yrubieta, heredad llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 401)

IRUKURUTZETA / PASEALEKU*(Guztiz aldatuta)**Kokapena:* Irulieta auzoa*OHARRAK:* Gaur egungo *Jubiletxearen* goialdea. Paraje horretan lehen hiru gurutze zeuden eta hortik dator kio *Irukurutzeta* izena. XX. mende amaieran *Pasealekua* nagusitu zen.Behean *Larrosako buelta* eta goian *Ardinarruko aldatza*.*Ahozkoa:* [pašialeku], [irúkuruceta]

- 009, 075 “Irukuruseta”
- 009, 062 “Pasialeku”
- 022 “Pasialekua”

Idatzizkoa:

- 1866 Yrucuruceta, paseo de (BFA.: Udal., 0006/005))
- 1866 Yrucureta, término de (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1887 Irucuruceta, paseo de (BFA.: Admin., Udal Erreg., Udal Kon., Erreg. 51., Leg. 4., 4. zk.)
- 1905 el Paseo (BFA.: Udal., 0004/023))



Irukurutzeta (1946)

IRULIETA (auzoa)

OHARRAK: *Irulieta* auzoa, XVI. mendean, herriko sarreran, errege-bidearen aldamean sortutako arrabala da.

XIX. mende amaieran, *Irulieta* izen zaharra baztertuz, *Izelaieta* izena nagusitzen hasi zen. Ordezkatze prozesu hau, dena dela, ez da zeharo bete, nagusienek jatorrizko izena gorde dutelako eta alde biak ondo bereizten dituztelako.

Kale nagusietatik kanpo zeuden etxeak biltzen zituen, etxe horiek *Pasealeku* ingurukoak ziren: alde batean *Kajeroa*, Batzokia eta zinema; bestaldean, gune garrantzitsu bilakatu zen *Izelaieta* kalekoak, non armagin ugari biltzen ziren.

1824an: “*Yzelaieta arrabala: Irusta, Labakoa, Aranburu, Berrizbeitia, Palaziozarra, Aranzibia, Jainaga Zalduegui, Zokollo, Adorriaga edo Iturrikoa, San Antonio, Abele-txe, Espilla, Otaola, Goikoerrota, Sallabente, Bekoerrota eta Elorreta biak*” etxe, base-*rri eta errota hauek osatzen zuten auzo hau.* (BFA.: Admin. Lur. Est. I, Erreg. 5).

1886an, trenbidearen etorreraz batera, *Irulieta* auzoa *San Antonio* auzorantz luzatu zen, etxe berriak eraiki ziren eta arrabalean gelditzen ziren etxe horiek ere *Irulieta* auzokoak izatera pasa ziren.

Irulieta barruko leku-izenak: *Izelaieta kalea, Kajeroanekoa, Labakoa, Kastotxuaneakoa, Txindurrinekoa, Torteroanekoa, Kuartela, Palaziozarra, Atxaran, Konpaniako etxea, Tren geltokia, Orbe, Paulatxonekoa, Atxanekoa, Eusebio Atxanekoa, Ardinarruko aldatza, Kajerokoa (Ardinarrukoa), Motxuneko soloak, Zinema, Batzokia, Frontoibarra, Iturgain, Lomiñonekoa, Irulietako iturria, Irulietako labaderoa, Iturrikoa, Ariñonekoa, Titiñonekoa, Totuanekoa, Matxintxiki, Potzukristo, Osinerreka.*

Abozkoa: [irúliča]

- 022, 064 “Irulita”
- 008, 062 “Irulitxa”



Ermua(1920)



Irulieta (1925)

Idatzizkoa:

- 1513 Yruheta, la tierra e huer/ta que nos avemos en (FUENTES.: 46. zk., 214. or)
- 1630 otra parte del Rio detras de las casas de yrurieta (BAHP.: JBG, 80. zk., 138. or)
- 1701 calle llamada Ydulieta (BUA.: XXI-2-A-07)
- 1704 Yruleta, barrio de (IRIGOIEN:98)
- 1733 Yrulieta (BUA.: XXI-2-B-5, 139-B)
- 1745 Yrulieta, calle de (IRIGOIEN:98)
- 1753 Ilurieta, Arrabal de (BAHP.: JAA, 856. zk., 194. or)
- 1796 Idulieta, calle de (IRIGOIEN 96)
- 1799 Yruleta, barrio de (IRIGOIEN 96)
- 1799 Iruleta, Barrio de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 634. or)
- 1810 Irulieta, Barrio de (BFA.: Admin., propioak eta arielak, Erreg. 9, 453. or)
- 1826 Irulieta, barrio de (BFA)
- 1873 Yturrieta o Ytturrioz, barrio llamado (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1873 Ylurieta, barrio llamado de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1923 Yturrieta, barrio de (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 394)
- 1958 Irulita, paso a nivel de (*El Correo Español* 58-VII-58)
- 1994 Izelaieta (P1)

IRULIETAKO ITURRIA*Kokapena: Irulieta auzoa***OHARRAK:***Idatzizkoa:*

- 1867 Punto de la fuente (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg.51, Leg. 4, 4. zk.)
- 1883 construcción de la pequeña fuente de la calle Ycelayeta (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 466)
- 1922 Yzelaieta, fuente de (ESE.: 10 Bat., 6. or)

Ahozkoa:[iṭuřiča]

- 009 “Irulitxako iturria”
- 022 “Estasiñuko iturrixa”



Irulietako iturria

IRULIETAKO LABADEROA

(1980. urtearen inguruan kendu zuten)

Kokapena: Irulietako auzoa

OHARRAK: Trenbidearen ondoan zegoen. Ermuan hiru labadero zeuden: *Errebalburukoa*, *Palaziokoa*, eta 1884an eraiki zen Irulietako hau. Honetaz gain, lisiba egiteko erreka, baserrietako askak, Sallabenteko labaderoa, Eitzagakoa eta Olaerreagoa ere erabiltzen ziren. Ik. GONZALEZ, Estibalitz (1996): *Urak ekarri ta urak eruan 1911* in DROGETENITTURRI XXIX

Ahozkoa: [labáderua]

- 009 “Irulitxako labaderua”
- 022 “Labaderua”

Idatzizkoa:

- 1885 lavaderos (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg, 460)
- 1897 Lavadero de Ycelayeta (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg, 463)



Irulietako labaderoa

ISASI-ISASMENDI (etxea)

Kokapena: San Pelaio Aran: 008

OHARRAK: San Pelaio aldean, Manuel Isasi-Isasmendik egindako hiru pisuko etxea.

Ahozkoa: [isásiisásmeñdi]

- 017 “Isasisasmendi”

ITURGAIN (*txaleta*)

Kokapena: Irulieta auzoa, 5. zk.

OHARRAK: *Irubieta* soloan 1925ean egindakoa. *Izelaietako* iturria gainean, gorago *Estartapea*.

Ahozkoa: [itúr gain]

- 003, 022, 059 “Iturgain”
- 009, 022, 063, 064 “Txaleta”
- 009, 064 “Kareagana”

Idatzizkoa:

- 1923 Ytur-gain, finca llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 401)
- 1961 Iturgain (ESE.: 8 Hil., 64.or)
- 1961 Iturgain (O)



Iturgain

ITURRALDE / MALENGO (*errota*)

Kokapena: Zubiaurre kalea, 44. zk.

OHARRAK: 1924-26 inguruan Mallabiko *Malengo* baserrikoek *Txabisolan* zegoen *Ursolo* lursaila erosi eta bertan errota hau eraiki zuten. Arteta eta Urko aldetik zetozen urak erabiltzen zituzten, Mallabiko baserri batzuei argi-indarra emateko. Aurretik, paraje horrek *Iturralde* zuen izena. sasoi batean jatorrizko izen hori mantendu bazen ere, segituan herriko jendeak *Malengo* erabiltzen hasi zen.

Malengo inguruan *Erletzepea*, *Solonagusia* eta *Sololuzea*; aurrean *Urbibitate*; atzean *Okinzuri*; ondoan *Zubiaurre* kalea eta *Buenos Aires* etxea.

Ahozkoa: [maléngo]

- 003, 017, 036, 021, 022, 064 “Malengo”
- 022, 066 “Malengoeneko etxia”

- 063 “Malengon etxia”
- 054 “Malengona”
- 025, 059 “Malengonekua”

Idatzizkoa:

- 1923 Yturralde, sitio de (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 400)
- 1929 Yturralde, caseria llamada (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 372)
- 1923 Malengüena, caserio de (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 400)
- 1929 Malen-güena, casa (ESE.: 10 Bat., 99. or)
- 1930 Malengona, frente a la regata de Cavisola (ESE.: 10 Bat., 112. or)
- 1930 Malen-gona (BEHA.: 9A-715, Matrikula)
- 1931 Malen-guena (ESE.: 10 Bat., 117. or)
- 1940 Malengo, casa (ESE.: 10 Bat., 206. or)
- 1942 Iturralde, caseria (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 372)
- 1947 Malengo casa de la cantera (ESE.: 11 Bat., 65. or)
- 1951 Malengo txabola de (ESE.: 11 Bat., 184. or)
- 1959 Malengo, casa de (*El Correo Español* 59-V-24)



Iturralde(1998)



Iturralde

ITURRIKOA / ADORRIAGA (etxea)

Kokapena: Irulietako 9, 11, 13. zk.

OHARRAK: *Abeletxe* baserriko soloetatik eta *Otaerre* basotik behera joaten zen ura bilduz, iturri bat egin zuten (Irulietako antzinako labaderoa zegoen lekuan, hain zuzen). Bertara, Irulietako jendea joaten zen. Gaur egun, bertan hiru bloke daude: *Ariñonekoa*, *Titiñonekoa* eta *Matxintxiki*.

Idatzizkoa:

- 1728 Sepultura de Iturricoa (BEHA.: Hilak 9-271)
- 1753 Casa llamada de adorriaga y mas bulgarmente y de Yturricoa, que es sita y notoria a la entrada de esta villa en el Arrabal de Ylurieta de ella (BAHP.: JAA, 856. zk., 933. or)
- 1753 casa llamada Adorriaga o Yturricoa, su huerta y heredad (BAHP.: JAA, 856. zk., 934. or)
- 1799 Iturricoa, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 634.or)
- 1810 Iturricoa, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 452.or)
- 1814 Iturricoa (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Adorriaga o Yturricoa (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Adorriaga ó Iturricoa, Caserio (GBA.: Polizia Errolda)
- 190? Yturricoa, huerta en el término de (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 378)
- 1878 Yturricoa, casa urbana llamada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 114, 133, 138)
- 1900 Yturricoa, término (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 327)

- 1929 Yturricoa, casa sita en el término (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 137)
- 1947 Yturricoa, termino (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 557)



Ariñonekoa, Titiñonekoa eta Matxintxiki (1997)

IZARRANEKO ETXEA

Kokapena: Burduntzali, 8. zk.

OHARRAK: Barrenkaleko atzealde hau markesaren lorategia eta soloak ziren. Alde honi *Osinaga* edo *Burduntzali* esaten zioten. 1960 inguruan, Izarratarak etxe berria egin zuten bertan. Izarreneko etxe zaharra Barrenkalen zegoen.

Ahozkoa: [iśář aneko ečía]

- 009 “Isarraneko etxia”

Idatzizkoa:

- 1945 Ojinaga o Burdunzuli, paraje (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 520)
- 1946 Izarra, villa (ESE.: 11 Bat., 50. or)
- 1949 Izarra, villa (ESE.: 11 Bat., 113. or)



Izarreneko etxea (1998)

IZELAIETA (kalea)

Kokapena: Irulietako auzoa

OHARRAK: *Izelaieta* kalea *Irulietako* barruan sailkatzen da, nahiz eta XIX. mendea ezkerotik, *Irulietako* izena ahaztu eta *Izelaieta* izena nagusitu den.

Gerra zibilaren ostean kale honi izena aldatu eta *General Mola* ezarri zioten. Gaur egun, berriz ere, jatorrizko izena berreskuratu du.

“Hilera de casas urbanas con caballete paralelo a la fachada, conformando un grupo destacable, aunque de estilos diversos, pero todos sometidos a la “parcela gótica” tradicional en las villas vascas y sus ensanches más tempranos. En este caso se trata de un arrabal nacido en el siglo XVI flanqueando la vía de Guipúzcoa”. (DEIKER: Barialleen ikerketaren informazioa. Udalerria: Ermua 034).

“Así los armeros se localizaban preferentemente en Izelaieta y Zubiaurre en edificios generalmente de dos o tres plantas y bajo, en los cuales viven dos o tres núcleos familiares emparentados entre sí, utilizando el bajo como taller, se trata pues de casas-taller de carácter familiar donde la producción armera sería de carácter artesano”. (ARREGI, I.; CANO, J.; FERNANDEZ, F. (1988): “Ermuko historiako apunteak”).

Gipuzkoatik zetorren Errege-bidea hemendik sartzen zen Ermura. Herritik kanpo gelditzen ziren zenbait etxe ere zentsuetan kale honen barruan sartzen ziren. Beraz, nahiz eta kale hau geografikoki oso ondo definiturik egon, kale honi zegozkien eraikuntzak askoz ugariagoak ziren:

Kale ostean, erreka bueltan, *San Antonioko* aparkalekuetaraino hondartza txiki bat egiten zegoen: *Osina (Osinerreka)* esaten zaiona. *Osinerreka*-ren ostekoa, *Burduntzali*.

Kalearen parean, *Motxuneko soloa* (lautada handi bat, gaur egun Batzokia eta zinema dauden leku bera). Goragokoa, *Estartape*.

Ezkerraldean, *Ardinarruko aldatza*, *Pasealekua*, *Irukuruzeta* eta *Larrosa-ko buelta*.

1886ean 12 etxek osatzen zuten kale hau; 1904.ean kale honen barruan *Markesaren lorategia, Pasealeku, Trenbidea, Urko, Aterpea, Benta* eta *S^a Antonio* etxeak daude (BFA); 1930ean, berriz, badakigu hor *Goardia zibileko kuartela, Maria Gallastegi (Torreta), Casto Orbe (Matxin-txiki), Justo Olañeta (Totua)* eta *Salvador Zabala (Titiñua)* bizi zirela. Honetatzen gain iturri bat eta hurrengo etxe hauek ere egon dira: *Ariño, Apoitana, Txindurri...*

Ahozkoa: [isélajeta]

- 008, 009, 022, 064 “Iselaieta”

Idatzizkoa:

- 1825 Icelayeta, calle (GJA.: Polizia Errolda)
- 1859 Izelayeta (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1866 Yzelayeta, Calle (BFA.: Admin., Udal Erreg., Udal Konpo.. Erreg. 51., Leg. 2., 3. zk.)
- 1866 Izelayeta, calle (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1867 Yzelayeta, Calle (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 4., 4. zk.)
- 1884 nueva fuente en la parte de Ycelayeta (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 460)
- 1891 puente pequeño que da paso a las huertas y camino de Ycelayeta (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 462)
- 1893 Icelayeta (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1906 Albergue de Izelayeta (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 465)
- 1909 Izelayeta (BFA.: Udal., 0004/025)
- 1914 Yzelayeta, calle (BFA.: Udal., 0005/052)
- 1958 Calle General Mola (*El Correo Español* 58-VII-31)
- 1961 General Mola, Calle (ESE.: 8 Hil., 64. or)

Atari-zenbakia eta etxearen izena, hurbilenetik urrunenera:

14 “Palaziozarra”

6 “Kuartela”

10 “Torteroanekoa”

*Palaziozarra*ren ondoan:

18 “Mantianekoa”

20 “Konpainiana / Asensionakoa”

Atari-zenbakia eta etxearen izena, hurbilenetik urrunenera:

2 “Kajeroanekoa”, Unamuno

4 “Labakoa”

6 “Kastotxuanekoa”

8 “Txindurrianekoa”

10 “Urretanekoa” edo “Torteroanekoa”

6 “Kuartela”



Izelaia (1950)

JUANKRUZENEKOA (*etxea*)*(Desagertua)**Kokapena:* Probaleku kalea, 7. zk.*OHARRAK:* Etxe hau *Probaleku* eta *Zubiaurre* arteko kantoian zegoen, Antonatxaneko baserriaren parean. Gaur egun Iltze optika denda dago.

Juankruz jabearen izena zen. Ugalde sendagileak erosi zuenean jendea *Ugaldenekoa* esaten hasi zitzaion. Antzinako etxe honen ondoan *Artixanekoa* zegoen, bertan Ermuko lehendabiziko telefonoa jarri zuten, eta herritarrek hara joan behar zuten deitzera edo dei bat hartzera.

Ahozkoa:[ugá|de]

- 009, 064 “Ugalde”
- 063 ”Ugaldena”
- 022, 062 “Ugaldenekua”

Idatzizkoa:

- 1877 Juan-cruz-enecoa, casa titulada (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 162)
- 1889 San Juancrucenecua, casa titulada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 275)
- 1923 Juan-crucenecua, casa llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 275)
- 1954 Juan Crucenecua, casa (JE.: Liburu XII, Tomo 381, Finka 606)



Eskumaldeko lehendabiziko etxea, Juankruzenekoa da; aldamenekoa, Artixanekoa; eta kantoia egiten duena, Ostatukoa (1966)

JUSTOFELITXO (*etxea*)

Kokapena: Goienkale auzoa, 3. zk.

OHARRAK: *Lomiñoko* jauregiaren aurrean, *Mendiola* gainean.

Ahozkoa: [xústofelíčo]

- 009, 062 “Justopelitxo”
- 062 “Erreronekuak



Justofelitxo (1997)

KAJERONEKOA (*etxea*)

Kokapena: Irulieta auzoa, 2. zk.

OHARRAK:

“Ardinarrukua. Hor dao etxe bat Ardinarrukua esate otze oin. A zuan ... bere izena dok Kajeronekua, baña mallabittarra zuan, Mallabitzik hona etorritakua. Jantzi zuan erregular, disfrasau zuan aratostietan ardi-narruakin da Ardi-narru ipini otzen izena berari. Da gero etxiari Ardinarrukua”. (Antonio Izagirre).

“Eizaga-Etxebarriak erakusten dauan mazmoarroa be, landare-gaiez ondo apaindua bera, garai beronetakoa da. Honen armak gorputz biko gaztelua eta zortzi izarreko zizkua dira. Multzo biribil honi eusten lehoi bi dagoz, ta guztiaren buruan kaskoa dago. Armariaren behean sein baten iruditxoa ageri da, hanken artean balako idaztorri bat dauala, hurrengoa idatzita bertan: “ARMAS DEL APELLIDO EYZAGA-ECHEVARRIA AÑO DE 1717”. (PINEDO 86: 238.or).

Ahozkoa: [kaxéero], [aĩđinařukua]

- 009, 017 “Kajeronekua”
- 009, 017, 022, 062 “Ardinarrukua”
- 022, 064 “Artamendiñekua”

Idatzizkoa:

- EITZAGAETXE BARRIA (O)
- Kajerokua (OJANGUREN)



Kajero / Ardinarrukoa (1997)

KAJEROANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Izelaieta kalea, 2. zk.

OHARRAK: Jatorrizko izena ez da ezagutzen eta hau bertokoari jarri zioten gaitzizena da, *Caja de Ahorro*seko kajero zelako. Beherago, *Larrosako buelta* eta *Pasealeku*; gora-gorago, *Labakoa*; atzean *Osinerreka*; eta aurrean *Izelaieta* kalea.

Ahozkoa: [kaxéruanékua]

- 009, 022, 064 “kajeruanekua”

KALEKOA (*etxea*)

Kokapena: Goienkale, 5. zk. (Gaurko Orbe Kardinal Plaza)

OHARRAK: *Portale* eta *Arribakoa* artekoa. Luis Marzanaren gaitzizena.

Hona hemen Estibalitz Gonzálezen aipamena:

“Herri guztixetan dao xelebre edo zeozergaitxik ezaguna dan pertsonaren bat. Haren famaren zergatixa ez da oso argixa izaten, baiña bere ipoiñak ta “susedidduak” ahotik ahora dantzán ibiltzen dia luzaruan. Gure berrixan be banaka batzuen errekuerdua gordeta dao ta “Kalekua” da tarte horretan dauenetako bat.

Luis Marzana Mugerza berton Ermuan jaixo zan 1889. urtian ta 79 urte beranduao, otsailaren 22xan, plazako bere betiko etxian hil zan, bihotzekuak emonda. Maria zan bere ama; jasua ta libistia baiño garbixaua. 1932. urtian, gazte zala ondiñok, hil eñ zan. Luis aitxa; Axpe-Marzanan jaxotakua ta etxe-eitxallia zana.

Seme bakarria izan zan “Kale”. Ume-umetatik ikusi eben argixa etorrela ta ikasteko buru ona ekala. Urtiak beranduaio Arrate bailleko Santakruz auzoko eskolako maixua izan zan ta berakin eskolia hartutakuak maixu ontzat dakate.

Bere gazte denporan guapua ta itxurosua ei zan, Ermuko mutil gazterik ederrenetakua sasoi baten. Inok ezkontzeko konturik aitzatu ezker, agudo erantzuna: premiñarik ez ekala, gabero neska gazte biren artian eitxen ebala lo (ezker-eskumako etxietan bi neska bizi zian). Ez zan sekula ezkondu ta urtiak pasau ahala narrasten jun zan.

Beran buruari bapebe jabetasunik emon barik bizi zan: jakia alanbreren baten katiu ezker, haren politisiko ertzak josi bihar ziranik bez ta gustora ekan erropia ibillian ibilliaz birrindu arte ez eban soiñetik kentzen. Premiñarik ez ta eskekuan trazia emoten zotsan bere pertsoniari. Euren denporan dirua manejauteko jentia zan ta hil zanian aitzak ekartzen diru danak semiari itxi zotsazen. Baiña dana batera gastauko ete eben bildurretan edo, “kaja ahorrosian” aginduta laga eban hillian behiñ honenbeste diru bakarrik emongo zotsiela. Hamendik edo handik semiari tejuu hartuta euan!

Beti alegre ta umoreko, txistia ekan abo-miñian. Inori kalterik eiñ leixonik, bururatu bez. Oiñ, txakur txiki batzuk gehixau irabazteko esperantzan tranpa banaka batzuk eiñdakuu bada. Ferixaz-ferixa saltzen ibiltzen zan: artaxiak, txiskeruak, ulia mozteko makiñak... Lurrian papel bat zabal-zabalik ipiñi ta haren gaiñian jartzen zitxuan erremintxok; mutil koskorren bat harek ikutzera noz urratuko zain egoten zan, gordeta ekan makillatxuakin dzi-dzi astintzeko.

Makiñok eskuetan hartu ta “aitzak semiari, semiak aitzari...” esan da esan egoten zan. Orduan be halan edo holan publizidadia eiñ bihar ta saltzia gaur beste kosta. Modu onian ezin ebanian, txarrera jo bihar ta horretan ez zan ez, moldaktxa! Zetazko papel fiñian batzen eban makiña edo artaziren bat ta karuu saltzen eban, beste danak baiño hobiau zala siñistu eraiñda erosliari. Obitxuria ekan bata apartauta lagatzeko ta merkatarixak begixa hari bota ezker, karuuu zala ta enkargauta euala esateko; nahikua izaten zan horixe entzutia. haxe ez beste danak nahi izateko. Tira ta saka, azkenian saldu eitxen zotsan, ez baiña etortzeko zan “erosliaren” hasarriaren bildurra erakutsi barik. Eiñ ta kontau gaiñera: “tonto banakak dagozan artian ondo gabizak” esaten ebala dakat entzunda.

Behiñ berari jarritxako beko horrek bertsuokin eiñ neban topo. Oiñ dala ixa 60 urte Esteban Bilbaok euren “Kristoneko” panaderixara ogitxara etorri zan baten jarri zotsasen:

*Bazabiz zu “Kalekua
beti umore onekua
gizon kondiziñokua.
Makinak saltzen
hortxe zabiltzaz
kantsaurik asko burua,
irabazitzen dirua
ta engaiñatutzen mundua...
hori da bizimodua!*

*Joaten zera ferixara”
handik gero “kerixara”
irabazirikan bada.
Edo bestela etortzen zera
noble ta zuzen etxera
ta orduan juaten zera
afaldu barik ohera...
burua freskatutzera!”*

(GONZALEZ Estibalitz (1997): “Luis Marzana Kalekua” in DROGETENITTURRI XLII).

Abozkoa: [kalékua]

- 064 “Kalekua”
- 022 “Inbirri”
- 009 “Kalekua, Inbirri, Atxa, Barberusarra”

KALTXANGO (*etxea / auzoa*)

Kokapena: Bizkaia etorbidea, 23. zk.

OHARRAK: Kaltxango etxe baten izena da. XIX. mendean etxe honen inguruan sortu zen arrabalak ere izen bera hartu zuen. Bertan *Kaltxango*, *Torreta*, *Zinkonekoa* (*Sabon*), *Arrakoa* (*Aldapabarrena*) baserriak eta *Larrosianeko* etxea besterik ez zeuden.

Ahoskerari dagokionez, Ermuan Kaltxango esaten da eta horrela dago normalizaturik. Idatziz, gerra zibilera arte, beti Kaltxongo agertu bada ere. Hortik aurrera, berriaz, Kaltxango. Nik neuk, ermuar guztion artean Kaltxango aldaera ondo uztauririk dagoenez, forma hori mantenduko dut, hitz konposatua denean (Kaltxonburu, Kaltxonbaso...) idatzizko jatorrizko forma errespetatu arren.



Kaltxango (1974)

Ahozkoa: [kalčánɡo]

- 008, 009, 010, 017, 022, 059, 062, 063, 064, ... “Kaltxango”
- 066 “Ibarrola”
- 064 “Kaltxangosarra”

Idatzizkoa:

- 1791 casa nueva que estoy executando en terreno comprado a esta villa, pegante a su nuevo camino carretero que dirige de ella para la de Durango y se halla frente de la casa llamada de torreta de esta citada villa de Ermua, que es correspondiente a las Religiosas Dominicanas de la de Elorrio, y por la parte de arriba confina con el camino contiguo emprendrado que existe en su inmediacion (BAHP.: JM, 399. zk., 429. or)
- 1810 Casa nueva del barrio de Torreta (BFA.: Admin., Propioak eta autuak, Erreg. 9, 452. or)
- 1882 Calchongoa, casa llamada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 210)

- 1886 Calchongua (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1889 Calchongua-mayor, casa llamada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 236)
- 1893 Calcongoa (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Chalcongoa, casa y pertencidos (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Chalconburu, monte (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1905 Calchongua (BFA.: Udal., 0004/023)
- 1923 Calcongoa-mayor, casa nombrada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 236)
- 1927 Calchongua (ESE.: 10 Bat., 73. or)
- 1936 Calcongoa, calle de (ESE.: 10 Bat., 176. or)
- 1949 Calchango, barrio (ESE.: 11 Bat., 134. or)
- 1958 Calcango (*El Correo Español* 58-II-26)
- 1971 Calchongoa, casa llamada (JE.: Liburu XV, Tomo 433, Finka 820)

KALTXANGOPEA (*solea*)

Kokapena: Kaltxango

OHARRAK: *Torreta* parean, *N-634* eta *Zearkale* artekoa. Bus-geltokia dagoen lekua.

Idatzizkoa:

- 1889 Calchongopia, heredad llamada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 263, 285)
- 1900 Calchongoa o Calchonpia, heredad llamada (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 330)
- 1929 Calchongoa ú Calchompia, heredad (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 463)
- 1929 Calchongoa, heredad llamada (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 484)

KANPOSANTUA

(*Desagertua*)

Kokapena: Estartaburu (Santa Ana auzoa)

OHARRAK: Gutxienez lau kanposantuen berri izan dut: lehendabizikoak Eliza barruko hilobiak izan ziren; gero ermiten ondokoak, San *Antonio* eta *Sallabente* ermitakoak, hain zuzen ere; geroago, hauek ere txiki gelditu zirenean, *Estartakoa* (edo *Santa Anakoa*) egin zuten.

“Hilerriei joakenean, ezin dogu besterik aitatu Ermuko Santa Anako antxinako kanposantuko portadea baino, gaur egun jendearentzako parkeko atea dana. Estilo neoklasikoaren barruko portadea da, harlanduzkoa, mitra eta etxegoi-ertz mailakatuduna. Giltzarrian 1893 urte-zenbakia ageri da”. (PINEDO 86: 231.or).

Sasoi batean herritik at zegoen kanposantu hau ere, 1970 inguruan Ermuak eduki zuen hazkundearen ondorioz txiki gelditu zen eta Pagorbeko kanposantuak hartu zuen bere lekua.

Idatzizkoa:

- 1796 Yturricoa, la casa titulada de (IRIGOIEN:98)
- 1854 Iturricoa, paraje (BFA.: Udal., 0004/006)
- 1854 Nuevo Campo Santo (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1890 Estartapia, terreno denominado (BFA.: Udal., 0004/005)



Kanposantuko ataria (1997)



Ermua(1920)

KANTERAETXEA

(Desagertua)

Kokapena: Goienkale, 34. zk.

OHARRAK: *Kanterazarra* ondoan.

Abozkoa: [kanteraečĩa]

- 022 “Kanteraečĩa”

Idatzizkoa:

- 1947 Cantera-echea, casa denominada (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 560)

KANTERAZARRA / KAREOBIAGAKO KOBIA

Kokapena: Urbitarte baserria

OHARRAK:

“Entre los Km. 46 y 47 de la carretera de Ermua a Markina (sic), se halla la cantera del mismo nombre. En sus laboreos de extracción apareció en una de sus paredes esta oquedad que tiene una galería interior. Boca de 6 m. alta por 4 de ancha. Cara NW del monte Urko. Coord.: N-43° 11' 21'' E-1° 11' 15'' del 1:50.000”. (Bizkaiko Espeleologia Taldea. Catálogos de cuevas de Vizcaya, Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao, 1985.: 172. or).

Idatzizkoa:

- 1985 CUEVA DE ZUBIKARAI o KARABIZA'KO KOBIE (Bizkaiko Espeleologia Taldea 1985)



Kanterazarra (1996)

KAREOBIAGA / KARABIXA (*baserria / kalea*)*(Desagertua)**Kokapena:* Kareobiaga, 2. zk.*OHARRAK:* Gaur egun izen normalizatua *Karabixa* bada ere jatorrizkoa *Kareobiaga* hitz konposatua da: Karea + obi (meategi) + aga (lekua, bidea)³⁶.

Kareobiaga (1630)> Karobiaga (1700)> Karabiaga (1854)> Karabiya (1942)> Karabixa (1956)

Markesak egindako etxe honen ondoan iturri bat egin zuten.

1886an *Goienkalen* sailkatzen zuten eta 1930tik aurrera *Zubiaurren*.

1970. urtearen inguruan sortu berri den kaleak hartu du desagertutako baserriaren izena.

Aurrealdean *Goienkale* kalea eta *Zerka*, eskumaldean erreka, atzealdean *Urbibitarte* eta gainean *Estartaburu*. Inguruan, *Kareobiaga-aldean*, sagarrondo ugari ziren.

Kareobiaga

Ahozkoa: [karábiša]

- 009, 010, 017, 022, 028, 036, 060, 063, 064, 066 “Karabixa”

Idatzizkoa:

- 1623 careobiaga (BAHP.: JBG, 77. zk., 93. or)
- 1630 careobiaga (BAHP.: JBG, 80. zk., 183. or)
- 1636 “dos puentes nuevas, la una en el termino de Carabiaga y la otra en el camino que ban a la ermita de San Lorenzo”(BFA.: Admin., Auziak eta Autuak, Erreg. 7, 110. or)
- 1650 careobiaga, casas de (BAHP.: JBG, 91. zk., 362. or)

36. Bokal arteko kontsonantea galtzeko joera zabala da Euskal Herriko izen askotan. Adibidez, Erlo azpiko Madariaga auzoa ahozkoan “Madarixa” moduan laburtzen da.

- 1660 heredad de careobiaga que confina por una parte con la heredad del conbento y por la otra con la heredad de cerca Buru (BAHP.: JRG, 140. zk. 2. zatia, 182. or)
- 1733 Carobiaga (BUA.: XXI-2-B-5, 139-B)
- 1796 Carobiaga (KEREXETA, J: 92)
- 1799 Carobiaga, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 641. or)
- 1810 Carobiaga, Caseria de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 449. or)
- 1814 Carobiaga (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1825 Carobiaga (BJA.: Polizia Errolda)
- 1854 Carabiaga (BEHA.: 9A-199, Urteburuko mezak)
- 1873 Caradiaga o Carobiaga, caseria rustica titulada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 33)
- 1878 Carobiaga, termino de (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 101)
- 1880 Carabiaga, casa llamada (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1891 Carabiaga, caserio (ESE.: 8 Bat., 62. or)
- 1893 Carobiaga (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Carobiaga, casa y tierras (BFA.: Admin., Lur. Est. , Karp. 10)
- 1899 Carabiaga, Camino vecinal de (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 463)
- 1899 Carabiaga, fuente de (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 463)
- 1923 Cadariaga o Carobiaga, caseria (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 397)
- 1929 Carabiaga, caserio (ESE.: 7 Hil., 217. or)
- 1942 Carabiya, caserio (ESE.: 7 Hil., 363. or)
- 1956 Caravixa, caserio (ESE.: 8 Hil., 24. or)
- 1962 Carobiaga (Esk. 010)
- Carabiya-alde (KATASTRO)

KAREOBIAGA-ALDE (ortuak)

Kokapena: Kareobiaga

OHARRAK: *Kareobiaga* baserriaren inguruan.

Ahozkoa: [karábišaálde]

- 066 “Karabixa-alde”
- 060 “Karabixa aldeko biria”

Idatzizkoa:

- 1877 Carabialde, huerta llamada llano de (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 147)
- 1882 Carabialdia, huerta llamada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 233)

KARTEROANEKOA (*etxea*)

(1999an desagertua)

Kokapena: Izelaieta

OHARRAK: Mantianeko alboko orubean altxatu zuten, trenbidearen ondoan. Gaur egun botata dago.

Ahozkoa: [kaĩtéruanekua]

- 009, 022 “Karteruanekua”

KASTOTXUANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Izelaieta kalea, 6. zk.

OHARRAK: *Labakoa* eta *Txindurrineko* etxeen artekoa.

Ahozkoa: [kaštóćuanekua]

- 009, 022, 064 “Kastotxuanekua”



Kastotxuanekoa(1999)

KONBENTUKOA

(Desagertua)

Kokapena: Konbentukoa kalea, 2. zk. Argazkia: Irudi 073 / 1958

OHARRAK: Gaur egun *London* taberna dagoen lekuan.

Eraikuntza honi itsatsirik, *Txotxoloneko* eta *Otxuaneke* baserriak eraiki bide ziren. Beraz, *Konbentuko* kalea lehen hiru etxe hauek besterik ez zen: aurrealdean erreka eta *Motxuneko* baserria; atzealdean ortuak eta Mallabitik datorren *Urteaga* erreka, soloak, sagastiak eta segituan *Burduntzali* eta *Zearra* mendiak; aldamenean, lehen aipatutako *Txotxoloneko* baserria eta *Otxuaneke*.

Gaur egun kaleak mantentzen du izena, bertan *Santa Margarita* konbentua egon zen eta. Hasierako urteetan Konbentu hau *Lomiño* ondoko *Trakeneko* etxean egon zen. 1600ean, leku hau txiki gelditu eta *Barrenkalen* konbentu berria altxatu



Ermua (1958)

zuten. 1676an Elorrio herria *Santa Margarita* konbentu hau hartzeko prest agertu zen eta 24 urte geroago monjak hara joan ziren, Ermua betiko lagata³⁷.

Konbentu honek Ermuan garrantzi handikoa izan zen, monjek botere zeukaten eta euren inguruko kofradiak sortzeaz gain, *Torreta* eta zenbait lursailen jabe ziren.

Monjok alde egin ostean, konbentuko gelak alokatu egiten zituzten. 1799-1810 urtean bitartean, behintzat, hiru-lau gela alokatzen zituzten.

Joateko arrazoiaren artean, batzuek diote izurrite batek kutsatuko ote zituen beldur zirela eta beste batzuek, berriz, urak harrapatu zituela.

37. Honi buruzko zehaztasun gehiago izateko ikusi Eugenio Rodríguez Condadok, 1998an idatzitako *El monasterio de Santa Ana de Elorrio* liburua (Graficas Alustiza. S.L., Veritas). Liburu honetan konbentu honetako historia osoa agertzen da.

“*Han euazen mojak, urak hartu jitzuan epoka baten, iges ei juen Elorrixora*”.(Antonio Izagirre).

Gerra zibilaren ostean **Fueros** izena jarri zioten kali honi. 1979an, ordea, **Konbentukoa** jatorrizko izena berreskuratu zuen.

Ahozkoa: [kombéntukua]

- 010 “Kombentuko”
- 009, 017, 022 “Konbentukua”

Idatzizkoa:

- 1623 combento de Santa margarita (BAHP.: JBG, 77. zk., 93. or)
- 1626 combento de monjas (BAHP.: JBG, 78. zk., 38. or)
- 1637 combento de dicha villa (BAHP.: JBG, 82. zk., 72. or)
- 1638 monasterio de santamargarita (BAHP.: JBG, 83. zk., 68. or)
- 1644 combento de santa Margarita de esta villa de Hermua (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 129. or)
- 1688 combento de santa Margarita de esta villa de Hermua (BUA.: XXI-2-A-07, 1. or)
- 1688 combento de santa Margarita horden de Predicadores de la villa de hermua (BUA.: XXI-2-A-07, 3. or)
- 1729 Conbento, sepultura de (BEHA.: 9-271, Hilak)
- 1731 Santa Margarita, convento de (Esk. 005)
- 1799 casa del combento (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 630. or)
- 1799 Santa Margarita, combento de (Esk. 005)
- 1810 Casa del convento viejo (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 449. or)
- 1810 casa convento (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 450. or)
- 1814 Convento biejo de las monjas de Elorrio que tiene diferentes habitaciones (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Combento viejo (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Convento viejo (GJA.: Polizia Errolda)
- 1873 Conventucoa, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 1)
- 1873 Conventuzarra (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 59)
- 1877 Conventoviejo, caseria titulada (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 167)
- 1894 Conventucoa, casa y tierras (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1905 Casa Convento (BFA.: Udal., 0004/023)
- 1923 Conventucoa, caseria (Esk. 010)
- 1923 Convento-viejo, Caseria de (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 416)
- 1965 Conventokoa (*El Correo Español* 65-X-26)
- 1994 Konbentukoa (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

KONPORTA (*soloa / ortua*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Arrabal kalea

OHARRAK: Merkatua dagoen lekuan. Ik. Etxeostea.

Ahozkoa: [kompóřta]

- 066 “Komporta”

Idatzizkoa:

- 1882 Conporta o San Pelayo, punto llamado (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 225)
- 190? Comporta o San Pelayo, punto denominado (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 354)
- 1942 Pomporta, huerta llamada / en el punto denominado deposito de aguas (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 494)

KUARTELA

Kokapena: Izelaieta kalea, 6. zk.

OHARRAK: Atzealdean *Trenbideburu*, *Osinerreka* eta *Burduntzali*; aurrealdean *Izelaieta* kalea; ezkerrealdean *Bustintza / Palaziozarra* eta eskumaldean *Torteroanekoa*

Izatez, *Palaziozarreko* atal bat zen, baina XIX. mende amaieran goardia zibilaren kuartel bilakatu zuten. XX. erdialdean txiki gelditu zitzaizen eta Ongaraira (gero *Gure Etxera*) mudatu ziren. Egun, Ermuan ez dago kuartelik.

Bertan *Emakumearen Etxea* eraikitzeke proiektua dago.

Ahozkoa: [kwářtela]

- 009, 064 “Kuartela”

Idatzizkoa:

- 1880 Casa Cuartel de la Guardia Civil (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1929 casa que ocupa la Guardia cibil en esta villa (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1083 Kutxa.)
- 1931 Casa cuartel de la Guardia civil (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1084 Kutxa.)
- 1925 Casa cuartel (ESE.: 10 Bat., 43. or)
- 1938 Casa cuartel de la guardia civil (ESE.: 10 Bat., 179. or)

LABAKOA (*baserria*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Zubiaurre kalea, 5. zk.

OHARRAK: *Labakoa* izen zaharra, etxeok soilik erabiltzen zuten. Kaleko jendeak, berriz, *Pedratxanekoa* esaten dio. Aldameneko eraikuntzan *Udala* etxea (Adi, hau ez zen udaletxea), *Zubiaurre* taberna eta tailertxo bat zeuden.

Ahozkoa: [labáko bašěřiša]

- 009 “Labako baserria”
- 009, 022, 028, 062, 066 “Pedratxanekua”

Idatzizkoa:

- 1799 Labacua, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 4, 632. or)
- 1810 Labacoa, casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 451. or)
- 1810 Labacoa (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Labacua (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Labacua (GBA.: Polizia Errolda)
- 1878 Labacoa, casa titulada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 77)
- 1893 Labacoa (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1959 Labacoa, casa titulada (JE.: Liburu XIV, Tomo 418, Finka 808)

LABAKOA (*etxea*)

Kokapena: Izelaieta kalea, 4. zk.

OHARRAK: *Kajeroanekoa* eta *Kastotxuaneko* etheen artean.

Ahozkoa: [laḃákua]

- 022 “Kasalix”
- 009 “Labakua”



Labakoa (1999)

LANDAZARRA (*solea*)

Kokapena: Goienkale

OHARRAK: Goienkaleko *Sakona* aparkalekuaren gainaldea, ur depositua dagoen lekua. Txataltxoa, txikia.

Ahozkoa: [laɲdásaʁa]

- 036, 061 “Landasarra”

Idatzizkoa:

- 1882 Landazarra-Marchatondo, manzanal titulado (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 178)
- 1945 Landa sarra Marchatondo (Esk. 036)

LARROSAKO BUELTA

Kokapena: Barrenkale

OHARRAK: Familia: Magnoliaceak; jeneroa, Magnolia; espeziea, Magnolia X soulan-giana.

Larrosako Buelta Irukurutzeta paselekua eta *Baldespina* jauregiaren artean dago, Jubiletxearen aurrean, alegia.

Paraje honetan Ermuan oso ezaguna izan den Pizpilu zuhaitza dago.

“Aspaldidanik, herritarrek espezie horri “pizpilu zuhaitza” izenez ezagutzen dute botatzen dituen loreak puztu egin baitaitezke, globo txikitxoak bailira. Herritarrek jarritako izen arrunt hori euskaratik eratorria da, hain zuzen ere “puzpilu” hitzetik (“burbuila, globo”, geroago “pispilli” bezala pasatu dena gaztelaniara).

Maria Txindurrik kontatzen duenez, bide jenerala zena zabaltzeko asmoa izan zuten gerra aurretik, baina asmo hori bertan behera utzi zuten zuhaitza ez ukitzeagatik, berau bide bazterretik oso burbil zegoelako. Gaur egun ere lehenago bideak zuhaitza zegoen tokitik pasatzean egiten zuen bihurtzean itxia bere hartan mantentzen da.

Ehun urte baino gehiago badira zuhaitz horren loreak erabiltzen zirela eliza apaintzeko.

Herrian bertsio ugari eta ezberdinak daude zuhaitzaren jatorriari buruz, hau da, nork eta noiz ekarri zuen. Batzuen esanetan jauregia eraiki ondoren landatu zen zuhaitza, duela 200 urte inguru. Beste zenbaitzuk diotenez, markesek izan zuten neskame frantziar batek ekarri zuen.

Dena den, seguruenik, José María de Orbe eta Elioren semeak, Valdespinako hirugarren markesa zenak, José Nepomucenok hain zuzen ere, ekarriko zuen Frantziatik. Jakina denez, aipaturiko markesa ezaguna izan zen bere botanikarekiko zaletasunagatik.

1989ko irailaren 4an, zuhaitza bidean jausita agertu zen, eta badirudi zuhaitza alperriek galtzearen arrazoia onddo bat izan zela.

Gaur egun, toki berebean, magnolio berri bat landatuta dago, normaltasunez hazten ari dena. Aldi berean, espezie bereberek beste bost zuhaitz ere landatu dira Institutua-ren eta Ongaraiako etxebizitzaren artean dagoen lur zati berrian”. (MARCOS AGUSTIN, Jose Maria: El árbol de los pispillos-pizpilu zuhaitza. Ermua hiriko Udala. Ingurugiro Saila).

Ahozkoa:[laʁósaɔo bwelʁa]

- 009, 022 “Larrosako bueltia”

Idatzizkoa:

- Pizpilu zuhaitza (MARCOS)

LARROSIANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Kaltxangoea (Kaltxango auzoa, 17. zk.)

OHARRAK: *Torreta* azpiko etxea, *Kaltxango* baserriaren ondoan, XIX mende amaieran eraikia. Eitzagako Larrosia baserritik etorritakoak bizi ziren bertan.

Ahozkoa: [lařóšianekua]

- 022, 059, 062, 064, 066 “Larrosianekua”
- 009 “Kaskillonekua”



Ezkerretatik eskumatara: Torreta, Larrosinekoa eta Kaltxango (1998)

LASALDE / MOTXU (*baserria*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Barrenkale

OHARRAK: Markesarena izandakoa. Eraikuntza honen izen zaharra *Lasalde* da, baina ahozko tradizioan aspalditik *Motxuneko baserria* nagusitu da. *Lasalde*, etxeokoe besterik ez dute ezagutzen eta eskriturretan horrela agertzen da.

Lasalde baserria *Barrenkale* eta *Konbentukoa* kaleek egiten duten kantoian zegoen.

Ahozkoa: [móču]

- 009 “Motxuneko baserria”
- 010 “Lasalde” / “Motxu”
- 025, 064, 066 “Motxu”

- 021 “Motxuenekua”
- 063 “Motxuanekua”
- 036 “Motxunekua”

Idatzizkoa:

- 1637 lasalde, casa de (BAHP.: JBG, 82. zk., 357. or)
- 1704 Lasalde, la casa de (IRIGOIEN:98)
- 1726 Lasaldecoa, sepultura de (BEHA.: 9-271, Hilak)
- 1799 Lasalde, la casa de (IRIGOIEN:98)
- 1814 Lasalde, casa (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1824 Lasalde (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 5)
- 1825 Lasalde, Caserio (GJA.: Polizia Errolda)
- 1886 Mochu (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1899 Lasalde, casa y tierras (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1923 Lasalde, casa conocida con el nombre de (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 388)
- 1945 Lasalde (Esk. 036)
- 1962 Lasalde, casa (Esk. 010)



Motxu

LAURON-ETXE

Kokapena: Estartan / Santa Ana kalea

OHARRAK: Etxe honen aurrean *Elorreta* bidea dago. Neotoponimoa.

Idatzizkoa:

- Lauron-etxe (O)



Lauron-etxe (1998)

LEONTXIKIANEKOA (*etxea*)

Kokapena: San Antonio, 38. zk.

OHARRAK: *San Antonio* baserriarekin joten. Etxe hau Iturriagak egin zuen, horregatik *Iturriaganekoa* ere esaten zaio. Leontxikia gaitzizena da.

Ahozkoa: [leónčikišānekua]

- 022 “Leontxikixanekua”
- 022 “Iturriaga”
- 009 “Iturriaganekoa”
- 064 “Leonekua”

LOMIÑOKOA (*jauregia*)

Kokapena: Goienkale, 8. zk.

OHARRAK: Atzean *Estartaburu*; ezker aldean *Trake*, *Estrata* eta *Zerkaburu* (*Santuko*) dorretxea; eskumaldean, *Teresa Murga*; aurrealdean *Plazagoiena* (*Infreñu*) base-
ria, *Justo Pelitxo*, *Balerio* eta *Pasealekua*.

“Del estudio de algunos documentos del siglo XVI se desprende, según Shelma Huxley, que el primer dueño del palacio de Lobiano fue uno de los personajes más importantes

durante el siglo XVI en el País Vasco. Lobiano fue un armador de barcos que participó en la carrera comercial que se estableció con el nuevo mundo tras el descubrimiento de Colón y que se conoce como la “carrera de las Indias”. La actividad mercantil de Lobiano se basaba en la compra de minerales de hierro de Bilbao. Este era embarcado en su nave rumbo al puerto de Sevilla, que era el punto principal del comercio con las Indias. Allí, con el dinero obtenido con la venta del mineral, compraba sal y partía de nuevo rumbo a Terranova (Canadá) donde, con la sal comprada en Sevilla, salaban el bacalao que pescaban. Tras varios meses en Terranova, volvían a Vizcaya a vender el bacalao”. VILLA DE ERMUA 87-Apirila: (4.zk., 12-13.orrr.).

Bertakoen artean **Lobiano** izena ez da erabiltzen. Eguneroko hizketan **Lomiño** esaten diote. Izen hau XIX. mende amaieran ere idatziz agertu izan da. Idazteko, euskaraz **Lomiño** hobesten dut³⁸.

*“Lomiño Filomena
se ha cortado la melena
y su hermana Anastasia
asto txiki baten trazia”
(Herri-kanta)*



Lomiño

38. Abadiano > Abadiño; Amatiano > Amatiño...

“Uribilduko biztanlegoaren hazkuntzak eragin eban zabalkundean sortu zan Goienkale, eta hortxe dago jauregia, Ermuko eraikinen artean ederrenatariko bat: “Es un palacio informadísimo de la moda de finales del siglo XVI, del manierismo versión italiana, promoción de un hombre poderoso y culto”, hau guztia eraikineren egituran eta armariaren beheko ataburuan erakusten dauan “Scévola” dalakoan ikusi daitekeala, horrek Francisco de Lovianoren dohatsutasuna erakusten dau, ganera, gogoan hartze-koa izanik monja dominikarren Konbentua eregi ebala, santa Margaritaren adbokazi-nokoa, nahiz eta gero hangoak Elorriko beste batera aldatu izan.

Kanpoalde nagusiko ormak harlanduzkoak dira, eraikineren nobletasunaren ispilu, baina hain agerian ez dagozan beste zuin batzuetan ormak ez dagoz horren ondo bardinguta. Oin-plano errektangeluarrekoa, oin bikoa da (bebekoa bestea baino garaiagoa da) eta bien arteko banaketea eginaz ozkadura oso nabarmenak daukazan inbelpa ikusi daiteke. Erainkinean hainbat huts-gune dagoz, danak burutuak, begoaldeko ormearen kanpoaldeko bigarren oinean ageri dan arkodun karrajuan izan ezik, horkoak ziri-ozkaduradun erdi-puntuko arkuak dira eta. Tamalgarria da arkupe hori gaur egun itsututa egotea, eraikinari grazia kentzen joko eta; gogoan izan behar da, ganera, berau dogula Errenazimentuko egoitzetarik artean interesgarrietakoa, Barrokoan bere goren gradura igaro ziran osagarriak ageri dauazala gure honek be.

Aurrekaldeko lau huts-guneak, ostera, burutuak dira, etxegoi-ertzez eta ozkadurez erdiko biak eta zutabe erantsitetan euskarrituriko etxegoi-ertzez alboko biak. Errenazimentuko harako jarraibide ha, arkitektura ordena klasikoak egituretan barik, apaingarrietan agertu behar ziralakoa, garatuaz horretara; bada, huts-guneok, arkitektura fatxaden bidez landu ziran.

Bigarren oinean ertz-dorrea erakusten dau, harburu zabal, apaindu eta hegalkindu baten ganean.

(...) Ate nagusia, eskoikoa, jauregi guztian dagoan osagarri aitagarriena da. Izan be ataburudun sarrerea da, zutabe apaingarriek mugatuta, zutabeotan pilastra uzkiurtuak daukezala. Harroinek errobo bidez apainduriko idulki handi biri deustie; horren ganean juste ildaskatuak dagoz, joniar estiloarena egiten dabezan ginbelek burutuak. Zutabeon artean sarrerako huts-gune zabala dago, zurezko orriakaz, goialdeetan loredun untzak eta kasetoiak dagoz, eta honeetan armari eta geometri osagarriak ageri dira. sarrerako ate-zangoak be geometri gaiakaz apainduta dagoz, eta tinpolo zabalean lekua egin joko armariari eta Scétuaz ohaltza ozkatu bat dago, harburuetan euskarrituik inbelpearri jarraituaz. Etxeaurre plaresko zoragarri hau goiko solairuko huts-gunean errepikatzen da, baina apaindura apalagoz, halan etxeko ardatz nagusia zein dan azpimarratuaz.

Aurreko armariari joakonean, hegaldun lehoiek eusten eta kaskoak eta lumek burutzen daben idaztorri baten barruan dagoala esan behar da. Armariari bi zati egiten dau Santiago Gurutzeak; eskumakoan sustraidun zugatza ageri da eta beronen oinetan otsoak, ahoan bildotsa eta ibiltan. Ezkerrekoan halako xingola bat, muiturrean zortzina izarragaz. Honen guztiaren inguruan bost lebio dagoz. Behean, lehenago be esan dogun legez, scévola dalako bat dago, bikaina: bizardun zaldunaren gorputz erdia, gollilaz eta eskuan ezpata dauala”. (PINEDO 86: 237-238. orr).

Abozkoa: [Lomiñokua]

- 009 “Lomiñoko palasiau”
- 017, 022, 036, 060, 064 “Lomiñokua”

Idatzizkoa:

- 1549 Lobiano (BEHA.: 9-270, Bataioen liburua I)
- 1637 Lobiano, cassa de (BAHP.: JBG, 82. zk., 357. or)

- 1724 Loviano, Sepultura de la Torre y Palacio de (BEHA.: 9-271, Hilak)
- 1733 Loviano, casa de (BUA.: XXI-2-B-5, 169-B)
- 1799 Lobiano, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 640. or)
- 1810 Lobiano, Palacio de (Esk. 005)
- 1810 Loviano, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 456. or)
- 1814 Lobiano, Torre (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1814 Lobiano (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)³⁹
- 1824 Loviano (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 5)
- 1825 Lobiano, caserio (GBA.: Polizia Errolda)
- 1825 Loviano, Torre de (GBA.: Polizia Errolda)
- 1873 Lobiano, Casa Palacio de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1886 Lomiñokua (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1893 Torre-loviano (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1893 Loviano (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1930 Lomiñokua (BEHA.: 9A-III, Matrikula)
- 1994 Lobiano, palacio (UDALA: Planoa eta izendegia)

MALENGO lezea

Kokapena: Okinzuri

OHARRAK: Topatu gabea

(1985)“*Situada muy cerca de Ermua, después de pasar el puente de cemento en el camino hacia Errekalde, paso obligado también para la cueva de Urko (Nº -1049). Altitud 215 metros. Distancia de la cueva al puente de cemento: 100 m. Profundidad 6 metros.*” (Bizkaiko Espeleologia Taldea 1985: 213. or).

Idatzizkoa:

- 1985 MALEN'GO LEZIA (Bizkaiko Espeleologia Taldea 1985: 213. or)

MALLAERROTA

(*Desagertua*)

Kokapena: Txabisola

OHARRAK: Gaur egun *Probalekuko* garajeak dauden lekuan. Ondoan *Errebalburuko labadero*, *Errebaletxea*, *Orozko* eta *Txantxiku*, beste aldean *Sabon* eta *Arrako* baserriak⁴⁰.

1824. urtean *Artekale* barruan sailkatzen zuten arren, *Zubiaurre* izena hartu izan du. Santos Suinaga “Matxin” pilotariak erosi zuenean *Matxineko* errota esaten hasi zitzaion. Errota honetan garia eta artoa ehotzen ziren. Gero argia ekarri

39. Garai honetan bi Lobiano zeuden. Ik. *Torretakoa*.

40. 1630ean, Mallea Zubiaurreko errotoak jabea zen eta baita Bolunsarriko ere. Errota bi hauek erreteroa bera zuten.

zuten, baina ur gutxi zeukanez ez zuen indar handirik sortzen. Ur indarra aprobetxatuz tailerra ipini zuten.

Ahozkoa:[mačiñekua]

- 009 “Matxinen errotia”
- 021, 022 “Matxiñenekua”
- 010, 017, 022, 054, 064 “Matxin”
- 017 “Matxiñena”
- 059 “Matxiñeneko etxia”
- 066 “Santos Matxin”
- 063 “Suinaga”

Idatzizkoa:

- 1517-20 molino de Mallea (FUENTES.: 46. zk., 219. or)
- 1623 molino que esta junto a la dya torre (de zubiaur) con sus presas (BAHP.: JBG, 77. zk., 92. or)
- 1636 Mallea, molino de (BFA.: Admin. Auziak eta Autuak, Erreg. 7., 60. zk., 113. or)
- 1630 arrendamiento de los molinos de cubiaur y el manzanal que esta detras de dicho molino (BAHP.: JBG, 80. zk., 142. or)
- 1630 molino de cubiaur (BAHP.: JBG, 80. zk., 148. or)
- 1660 molino de cubiaur (de Pº de mallea) (BAHP.: JRG, 140. zk. 2. zatia, 102. or)
- 1799 Zubiaurre, Molino de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 636. or)
- 1810 Mallea, molino de (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1810 Zubiaurre, molino de (BFA.: Admin. Auziak eta autuak, Erreg. 7, 60. zk., 113. or)
- 1824 Malla Errota (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 5)
- 1825 Malla errota, caserio (GBA.: Polizia Errolda)
- 1867 Molino Zubiaurre (BFA.: Udal., 0009/006)
- 1873 Molino de Zubiaurre (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 73)
- 1894 Mallaerrota, casa y huerta (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1904 Lavadero de Zubiaurre (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1078 Kutxa, Erreg. 01078/07)
- 1910 Molino del Sr Suinaga que aprovecha actualmente entre otras las aguas del manantial de San Pelayo (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 2, 3. zk.-bis)⁴¹
- 1928 Lavadero del Rabal (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1083 Kutxa)
- 1930 Molino Santos Suinaga (BEHA.:9A-715, Paper solteak)

MARTXATONDO (soloak)

Kokapena: Santa Ana

OHARRAK: *Santukobarri* txaleta dagoen parajea. *Zerkaburu* gainean. Etxekoek *Txabela-alde* esaten diote.

41. Dokumentu honetan kokapen zehatza dugu.

Abozkoa: [čabóla]d̥e]

- 036, 061 “Txabolalde”

Idatzizkoa:

- 1799 heredad titulada Marchatondo (BAHP.: JM, 404. zk., 331. or)
- 1882 Landazarra-Marchatondo, manzanal titulado (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 178)
- 1882 Marchatondo, termino llamado (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 180)
- 1945 “Marchatondo” (Esk. 036)

MASTIA

Kokapena: Betiondo baserria

OHARRAK: *Monte Hermoso* azpian eta *Aldapa* gainean. Idatzizkoan /a/ bakarria agertzen da. Ahoz, berriz, oraindik ere bokal luzea edo bokal bikoitza gordetzen da. Horregatik, nahiz eta idatziz /a/ bakar bat idazteko proposatu, berba egiten dugunean, gaur egiten den bezalaxe, hau da, bokal bikoitza ahoskatuko dugu.

Abozkoa: [maás̺tiša]

- 010 “Maastixa”

MASTISOLO

(*Desagertua*)

Kokapena: Gipuzkoa etorbidea, 2. zk.

OHARRAK: Gaur egun bertan etxeak daude.

Idatzizkoa:

- 1877 Mastisolo, heredad llamada (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 147)
- 1929 Martinsolo, heredad denominada (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 464)
- 1929 Echeaspia, terreno heredad llamado (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 475)

MATADEROA (HILTEGIA)

(1983-84 inguruan botata)

Kokapena: Burduntzali

OHARRAK: *San Antonioko* aparkalekua dagoen lekua. Aurretik, Orbe Kardidale plazako Udaletxezarreko albondigan akabatzen zuten ganadua.

“Lo mismo alkolak... Ermuan jeuan alondiga bat. Ezin neikian nik direktamente zertu, erosi... o sea oiñ erosi eitxen dok direkto, baña oiñ eukitze ok botilla bakoitsak ipinitxa bere zera... Orduan etxeuan alakorik! Orduan danak, ardauek da alkol asuntu guztia pasau bihar izaten zuan alondigatik. Da, bakoitsak bere herrixan ekan bere alondigia.

Ermukua, bertan... zerian euan... Ermuko ayuntamiento zarra ezautu eban ik? Aren aspixan euan: alde batian ganauak hiltzen zian: mataderua; da, bestekaldian jeuan

alondigia. Da, auaxilla izaten zuan alondigako zer hori erabiltze ebana. Da, bestian eoten zuan karnizerixako mataderua. Ganauak hiltze itxuen bantxe. Astian hilko zitzuan ba... en general izaten zuan astelehena ero euenta ero holako zeren bat". (Joseba Idigoras)

1907an udalak txerriak kalean edo etxeparean hiltzeko debekua atera zuen. Harrezkero txerriak-eta udal hiltegiak akabatu behar ziren.

Ahozkoa: [matáderua]

- 022 "mataderua"

Idatzizkoa:

- 1756 para pagar a los oficiales Carpinteros lo que han travayado en la casa nuena de Carnizeria toriles y Alondiga de esta villa (BAHP.: JAA, 858. zk., 444. or)
- 1776 Alondiga de Ermua (BAHP.: JAA, 866. zk., 678. or)
- 1782 matanza casa de la (BAHP.: JM, 393. zk., 70. or)
- 1856 Casa mataderia (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg, 460)
- 1878 casa mataderia (BFA.: Udal., 0011/004, 81. or)
- 1891 Matadero al lado del río (BJAN)
- 1910 Matadero de reses (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 2., 3. zk.-bis)
- 1958 nuevo Matadero (*El Correo Español* 58-VII-24)

MATXINTXIKI (taberna / etxea)

Kokapena: Irulietako auzoa

OHARRAK: Gerra baino lehen taberna horretan bizkaitarrak biltzen ziren. Beheko soilariak etxe osoari ematen dio izena.

Ahozkoa: [mačičiki]



Ariñonekoa (9), Titíñonekoa (11) eta Matxintxikinekoa, etxe hauen atzean Totuanekoa (1998)

- 022 “Matxintxiki”
- 008, 009 “Matxintxikineko taberna”
- 017, 022 “Matxintxikinekua”

Idatzizkoa:

- 1930 machin chiqui (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)
- 1958 bar Machín Chiqui (*El Correo Español* 58-IX-28)

MENDIOLANEKO (*etxea*)

Kokapena: Artekale, 19. zk.

OHARRAK: Lehen hor *Tximiñokoa* zegoen, gero bere lekuan gaurko etxea egin zuten. Gerra aurretik farmazia egon zen.

Ahozkoa: [mendíola]

- 009, 026, 060, 062, 064, 066 “Mendiolanekua”
- 017 “Mendiolaneko etxia”
- 022 “Mendiola”
- 017 “Tximiñokua”
- 009 “Ambrosianekua”

Idatzizkoa:

- 1799 Mendiola, casa (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 4, 635. or)
- 1810 Mendiolacoa, casa llamada (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 454. or)
- 1825 Caserio de Mendiola (GJA.: Polizia Errolda)



Mendiola (1998)

MERKATUA

(1983-84ean botata)

Kokapena: Kantabria zeharbidea (Zerka), 2. zk.

OHARRAK: 1958an, eraikitzeke erabakia hartu eta 1960ean proiektua enkantean jarri zuten. Gaurko merkatu berria *Konporta* esaten zitzaion orubean dago. *Arrako* baserriaren etxeostean, alegia.

Ahozkoa: [meɾkátua]

- 022 “Merkatua”

Idatzizkoa:

- 1958 Plaza del Mercado (*El Correo Español* 58-VII-24)

METXEROSENEOA (*etxea*)

Kokapena: Barrenkale 6. zk.

OHARRAK: Goian Martegi (*Metxeros*); erdian 1932-33an Maltzagatik etorritako Iturbe; behean, trastu zaharrak. *Montenekoaren* ondokoa.

Ahozkoa: [mečérosoenekua]

- 009, 022, 064 “Metxeros”
- 022 “Metxerosenekua”



Metxerosenekoa (1997)

MONTE HERMOSO (*solea*)

Kokapena: Ongaraialdea

OHARRAK: *Anaitasuna* ikastolako jantokitik goragokoa, ur-biltegi txikirainokoa.

Ahozkoa: [món̄teef mós̄o]

- 010 “Monte ermoso”

Idatzizkoa:

- 1929 Monte hermoso, heredad (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 129)
- 1933 Monte hermoso (Esk. 010)

MONTENEKOA (*etxea*)

Kokapena: Barrenkale, 8. zk.

OHARRAK: *Metxeros* eta *Antonatxaneko* korten artekoa. Sagardotegia izandakoa. Goian Mugika *Etxaixanekoa*; behean *Montenekoa* eta *Metxeroseneko* tailerra.

Ahozkoa: [moñ̄ténekua]

- 009, 022, 064, 066 “Montenekua”

N-634 errepeidea (*errege-bidea*)

OHARRAK: Bide hau betidanik oso garrantzitsua izan da, probintzia batetik bestera joateko derrigorrez hartu behar zelako.

Olaerregan katea egon zen garaitan, estraperlo ugari egon zen. Katea ez pasatzearren, baseritarrek, txerridunek, merkatariek, armaginek... mendiko bideak aukeratzen zituzten probintzia batetik bestera pasatzeko. Honetan, ezagunak dira Eloreetatik Eibarrera menditik pasatzen zirenen zertzeladak (Ik. Katea)

Lehengo bide zaharra, erreka ondo-ondotik pasatzen zen. Gaurko bidearen aldean askoz baxuagoa zen, eta Ego errekaaren araberrako bihurtuneak egiten zituen. Sallabenten, ermitaren aurrean, gurutzeta dagoen lekuan bide hau bitan zatitzen zen: Ermurako bide nagusia; eta, Eitzagan barrena zegoen *Pagazubiaga* bidea. Askotan Ermuan zergak ez ordaintzearren, merkatariek Eitzagarako bidea hartzen zuten, igo Goierriera eta handik Durangora joateko.

“Otro si mando a todos los caminantes, ó recuas que ban, é fueren de la Villa de Sant Andres de Heibar, é Villamayor de Marquina, é Valle de Mendaro é Montreal de Deva, é Villa de Motrico, é de todos los otros Lugares para la Villa de Tabira, é Bilbao, que pasen, é bayan por su camino real por la villa de Hermua, é non por el camino de Pagazubiaga sopena de cient marabedis por cada persona...”. (ONAINDIA 71: 14.orr).

“(Ermua) Encajonada en un apartado y sombrío rincón, bajo la mole del monte Urko, que en inclinada ladera alza soberbio sus 791 metros sobre el nivel del mar, desviándose de su paso de los caminantes, arrieros y mercaderes en sus viajes entre las villas de Durango, Eibar y Deva, internándose para ganar tiempo y evitar peajes por la barrancada que inicia en el barrio de San Lorenzo, camino éste conocido por el nombre de Pagazubiaga, ocasionando un perjuicio a la villa esta desviación del tráfico de mercaderes, del camino real que a través de la villa alcanzaba el alto de Areitio, para adentrarse en Vizcaya por los mismos lugares, más o menos, en que actualmente está trazada la carretera”. (Industria Guipuzcoana de la cuenca del río Deva: 235-236. orr).

Honetaz gain, Donejakue bide gisa ere erabiliak izan zen:

“Sarrera Gipuzkoatik bide bikoitzari esker egingo litzateke. Helkorrenak, orografia arloan, Eibar-Ermua lerroan abiabidea eta ataria aurkitzen ditu. Hamahirugarren mendearen azken urteetan, horien biztanleriak hain finkatuak zeuden, monarkiak biri kartak eman baitzizkien, argi eta garbi lurralde bien arteko komunikabidea bultzatzeko. Edozein bidaiariri, eskulangilego espezializatuak bilakaturiko burdin eta armagintza eta hirigune bikainak bisitatzea, Madalen edo Arnoate mendate zailetatik pasatzea baino askoz atsegingarriagoa litzaioke. Erlijio adierazleak badaude”. (ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier (93): Santiago bideak Bizkaian. Bizkaiko Foru Aldundia. Kultura Saila. 20.or).

Bide hau Sallabente pasa eta S. Antonion sartzen zen herrian. Izelaietatik, herri erdi-erditik zihoan, Artekale eta Zubiaurre kaleak zeharkatu eta *Torreko* baserritik eta *Errebaletxearen* artean gora egiten zuen *Ongaraira*. Ongarai baserritik gorago, orain dela gutxi berritutako bide honetako zati bat ikus daiteke.

“Hasiera batean, ibilbidea “burdinezko bidea” zeritzana izan zen, hau da; mandoekin zamak garraiatzen zituzten gurdientzako bidea. XVIII. mendera arte bide hori ez zen erret bidea izango. Geroago pertsonak garraiatzeko zaldi-gurdi eta karrozak ere erabili zituzten, Deba Beheko nobleak hildakoak lurperatzeko Zenarruzara joaten zirenean erabiltzen zituztenak adibidez.

XIX. mendean (1875. urtean) Ermua-Arangizganako (Trabakua) bide berria zabal-tzearekin erret bidearen gainbehera eta baztertzea etorri zen”. ERMUKO UDALA (1996): ERRET BIDEA. ERMUA-MARKINA. Udaleko Ingurugiro Saila.



Sallabenterako bidea (1968)

Mende askotan bide nagusia hau izan da. XX. mendean, berriz, gaurko bide gehienak egin dituzte. Aipagarrienak, 1920an Trabakura joateko bide berria, gerra ostean egin zen Areitioko bidea, Mallabirako bide berria eta 1971ko Bilbao-Behobia autopista.

Idatzizkoa:

- 1623 camino Real que sube para hongaray (BAHP.: JBG, 77. zk., 92. or)
- 1637 camino real que baxa a cubiaur (BAHP.: JBG, 82. zk., 357. or)
- 1637 camino real queba a ongaray (BAHP.: JBG, 82. zk., 357. or)
- 1747 camino real (BEHA.: 9A-199, Arino-Espilla, Kapillautza)
- 1833 camino real, orilla del (BUA.: XXI-2-C-01, 9. or)
- 1833 camino real entre San Antonio y San Lorenzo (BUA.: XXI-2-C-01, 108. or)
- 1876 Ongaray, camino de (BFA.: Udal., 0011/003, 76. or)
- 1885 caminos vecinales de Ongaray y de Estratagüena (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 460)
- 1996 Erret Bidea (ERMUKO UDALA)

OKARIZENEKOA (*etxea*)

Kokapena: Artekale, 4. zk.

OHARRAK: *Pedromarianeko* etxearen parean, *Antonatxaneko* baserria eta *Ibarrolaneko* etxearen artekoa. Okarizeneko taberna bertan zegoen, gaur egun Kalotx taberna.

Abozkoa: [okárisenekua]

- 064, 066 “Okariseneko etxia”

OLAÑETANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Irulieta



Olañetanekea (1998)

OHARRAK: *Bidebitarte* edo *Lomiñoneko* etxearen gainekoa. Gerra ostean egindakoa.

Ahozkoa: [olañetanekua]

- 022 “Olañetanekua”
- 022 “Errotabarrikua”

ONDOA (*txatala*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Urkitzu

OHARRAK: *Errotabarri* baserriaren ondoan.

Idatzizkoa:

- 1873 Onchua, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 3)
- 1873 Onduna, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 3)
- 1907 Camiñoondura, heredad nombrada (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 367)

ONGARAI (*baserria*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Ongarai

OHARRAK: Auzoak baserri honetako izena bereganatu du. Domingo Astarloaren arabera baserri hori Konbentua izandakoa da eta 700-800. urtearen inguruan egin eizuten, Baserria desagertu ondoren Santiago apostolu ikastetxea egin zuten.



Ongarai baserria (1945)



Ongarai baserria

Ahozkoa: [óngaraj]

- 009, 010, 017, 022, 025, 032, 036, 063, 064, 065, 066 “Ongarai”

Idatzizkoa:

- 1517-20 Ongaray (FUENTES.: 46. zk., 217. or)
- 1553 Donegaray (BEHA.: 9-270, Bataioen liburua I)
- 1637 gongaray, cassas de Rebal de (BAHP.: JBG, 82. zk., 357. or)
- 1650 ongaray, heredad mancanal y jaral de (BAHP.: JBG, 9. 1. zk., 153. or)
- 1704 Ongaray, la casa de (IRIGOIEN)
- 1722 Ongarai, sepultura de (BEHA.: 9-271, Hilak)
- 1733 Ongaray, monte de (BUA.: XXI-2-B-5, 169-B)
- 1799 Ongaray, caseria de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 633. or)
- 1799 Ongaray, la casa de (IRIGOIEN:98)
- 1810 Ongaray, caseria de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 446. or)
- 1814 Ongaray, casa titulada (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1824 Ongaray, torre de (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Ongaray, torre de (GJA.: Polizia Errolda)
- 1855 Ongaray, caseria de (BEHA.: 9A-199, Urteburuko mezak)
- 1873 Ongaray, caseria rustica titulada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 59)
- 1873 Ongaray o Estartaburu, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 74)
- 1895 Ongaray, caserio (ESE.: 8 Bat., 133. or)
- 1906 Ongaray (BFA.: Udal., 0005/031)

- 1910 Arroyo Ongaray (BFA.: Udal Erreg. Udal Konpo., Erreg 51., Leg. 2., 3. zk-bis)
- 1934 Donagarai (M.T)
- 1952 Ongaray, caserío (ESE.: 7 Hil., 482. or)
- 1962 Ongaray, caserío (Esk. 010)
- 1994 Ongarai (UDALA: Planao eta kale-izendegia)

ONGARAI (*auzoa*)

OHARRAK: Ongarai baserriko soloetan 65. urtearen inguruan etxeak egin zituzten.

(1973)“Ongaray, por su parte, ofrece un esmero de localización estratégica, limpieza, luz, amplitud de viario, variedad de trazado. Es el único barrio, donde al ruido, al tráfico, y al humo de los talleres no se les ha permitido destruir el ambiente residencial de sus viviendas. Abundan las lonjas dedicadas a establecimientos comerciales de primera necesidad, diminutos mini-parques y patios de recreo para los niños, la iluminación es abundante, y el pavimento está cementado sin baches y limpio de basuras. No obstante, participa con San Pelayo su condición insular. El barrio está concebido como célula desgajada de la comunidad total. Las consecuencias son graves. El acceso directo desde el pueblo se realiza mediante una carretera tan estrecha que imposibilita el tráfico en doble sentido, con pendiente superior al crítico 15 %, bloqueada con un muro a un lado y un trozo de monte al otro. Sin acera, ni luz, paso obligado de peatones, automóviles y camiones, es un auténtico cuello de botella mortal si se produce cualquier rotura de frenos. Por semejante puente del diablo deben subir y bajar los casi mil niños del barrio, y por él llegan los casi dos mil que pueblan el nuevo grupo escolar de reciente construcción. El segundo acceso al barrio es tan escarpado que, a pesar de su buen pavimento, es inviable al tráfico. El barrio adquiere así un carácter atomizado, sin preocupación por el conjunto y destructor de cualquier intento comunitario. Contrasta, por ejemplo, la luz de sus calles interiores con lo tenebroso y angosto de su acceso”.
ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturarako tesina, argitaratu gabea, 23-24. orr).

Idatzizkoa:

- 1873 Ongarai, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 1)
- 1882 Ongaray o Estartaburu, termino de (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 177)

ONGARAIALDE (*soloak*)

Kokapena: Ongarai

OHARRAK: Bere barruan: *Ongarai* baserria, *Ongaraiburu*, *Ongaraizabal*, *Etxaburuko soloa*, *Monte Hermoso*, *Ongaraiazpia*, *Ongaraiko kurutzeta*, *Ongarai* auzoa. Gaur egun bertan etxeak daude.

Ahozkoa:[ón.garajáldia]

- 066 “Ongaraialdia”

Idatzizkoa:

- 1831 Ongarayalde, heredad (BEHA.: 9A-199, Urteburuko mezak)
- 1877 Ongaray-alde, heredad titulada (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 147)
- 1882 Ongarayalde, término de (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 205)

- 1933 Ongaray-aldia, término de (Esk. 010)
 - 1947 Ongaray-alde, paraje (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 521)
 - 1947 Ongarayalde, paraje (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 571)
- Ongarai-alde (KATASTROA)

ONGARAI AZPIA (*soloak*)

Kokapena: Ongarai

OHARRAK:

Idatzizkoa:

- 1900 Ongaray-azpia (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 305)
- 1923 Ongaray-azpia, heredad llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 409)

ONGARAIBURU (*soloak*)

Kokapena: Ongarai

OHARRAK: Ongarai baserriaren goialdea. Horren gaineko basoak *Txara* du izena, basoa aprobeztatuz mahai batzuk jarri eta atsedean lekua egin dute. Beheko aldean uda garaian jende asko joaten da, eguzkia hartzera. Horregatik, beheko alde honi Benidortxiki esaten diote.

Idatzizkoa:

- 1900 Ongarayburu (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 305)
- 1923 Ongaray buru, heredad conocida por (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 409)



Ongaraiburu / Txara (2000)

ONGARAIKO KURUTZEA

Kokapena: Ongaraizabal

OHARRAK:

Ahozkoa: [óngarajiko kurúčia]

- 010 “Kurutzeko laua”
- 010 “Ongaraiko kurutzia”

Idatzizkoa:

- 1810 Ongaray, cruz de (BEHA.: 9A-199, Kapilautza)
- 1831 Monte de la cruz de Ongaray (BEHA.: 9A-199, Kapilautza)
- 1873 cruz de Ongaray, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 2)
- 1942 Cruz de Ongaray, heredad llamada (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 388)



Ongaraiko gurutzea (2000)

OSINERREKA / OKINERREKA

OHARRAK: *Urteaga* eta *Beranoerreka* elkartzen diren tokia, markesaren lorategia eta *Burduntzaliren* ondoko parajea, *Izarraneko* etxea eta parkea dauden lekua, alegia.

Eskritura zahar-zaharretan, jatorrizko izena ez da agertzen. Zaldibarkoek Zubiaurretik datorrenari *Beranoerreka* esaten diote. Beheko aipamenean berriz, hortik aurrerako guztiari *Osinerreka*. Neu ere horren aldekoa naiz. Osagai hau hartzen duten inguruko toponimoek hala erakusten digute eta: *Osinaga*, *Osinbeltza*, *Osinbaso*, *Osinzuri*... Herritar gehienek, ostera, *erreka* izen arrunta erabiltzen dute edota, zailantzetan izan ostean, Ego.

Etimologikoki: osinerreka > ojinerreka > okinerreka > okiñerreka

Polita da Bernardo Garate Kantabriari egin zioten oharra:

(...) *Quizás, como ermuarra, pudiera objetársele algo. No sabe preparar el clásico condimento de su pueblo: la cazuela de “sarbos”, de esos que se pescan en las frescas aguas de los nacimientos del Ego. Le gusta saborearlos, una vez aderezados por mano competente, pero sin hacer de guisandero. Tal vez sea ello motivo de que no le rindan el debido homenaje los alegres compadres de su villa natal, los “Chindurri”, “Droget” y otros no menos distinguidos en el pequeño mundo de esta zona*. (ISASI in “La voz de España” 1955-V-26, 2. or).

Ahozkoa: [okiñer̄ekia]

- 008 “Okiñerreka”

Idatzizkoa:

- 1942 Ojina, río (BFA.: Admin., Planoak, RA-DL 2844/5)
- 1945 Rio llamado tambien Zubiaurre (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 503)

OSINZURI / OKINZURI (*kalea*)

Kokapena: Beranoerreka

OHARRAK: *Beranoerrekan*, *Errekazabaletarekin* batzen den lekuan, putzu (osin) handi bat zegoen, bertan jendea bainatzen zen. Putzu honi *Okinzuri* (*Osinzuri*) esaten zioten. Zurrunbiloak egiten ziren eta arriskutsua zenez udalak putzu hori harriz betetzeko agindua eman zuen.

Paraje horretan, 1979an, egin zuten kaleak gaur egun ofizialdurik dagoen *Okinzuri* izena bereganatu du.

Etimologikoki: osinzuri > ojinzuri > okinzuri

Ahozkoa: [okiñsuri]

- 022, 063, 066... “Okinsuri”

Idatzizkoa:

- 1994 Okin Zuri (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

OSINBALTZAGA / OKINBALTZ*(Desagertua)**Kokapena:* Urko / Beranoerreka

OHARRAK: *Drogeteniturri* baino metro batzuk beherago beste putzu edo osin bat zegoen, honi *Okinbaltz* esaten zioten. *Urkoalde* harrobian zegoen goiko mendiak *Osinbaltzaga* izena ere hartzen zuen. Bere barruan *Bidebeko gaztañatxo*a lursaila eta *Kanteraetxea*.

Etimologikoki: osinbaltzaga > ojinbaltza(g)a > okinbaltza

Ahozkoa: [okímba|c]

- 022 “Okinbaltz”
- “Okinbaltz” (M^a Feli Mancisidor)
- “Okinbaltz” (Manolo Moreno)

Idatzizkoa:

- 1873 Ojimbaltzaga, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 35)
- 1889 Oguinbaltz, río (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 266)
- 1923 Osimbaltzaga ú Ojinbaltz (Esk. 010)
- 1923 Osimbaltzaga o Ojimbaltz, términos de (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 396)
- 1947 Osimbaltzaga, paraje (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 560)
- 1952 Osimbaltzaga, paraje de (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 512)
- 1957 Oximbaltzaga u Ojimbeltz llamado Urko-bajo (JE.: Liburu XIII, Tomo 404, Finka 730)
- 1962 Osimbaltzaga ú Ojimbaltz, terminos de (Esk. 010)

ORBE (*etxea*)*Kokapena:* Irulietza auzoa, 24. zk.

OHARRAK: Etxeak jabearen izena hartzen du. Trenbide eta *Paulatxoneko* etxeen artean. Ik. Paulatxoneko argazkia.

Ahozkoa: [ór̥be]

- 009 “orbe”

ORBE KARDINAL plaza⁴²*Kokapena:* Orbe Kardinal Plaza

OHARRAK: Orbe Kardinal Plaza hau konbentzio gerraren ostekoa da. Herriko plaza askoz txikiagoa zen eta ez zegoen gaur dagoen lekuan, baizik eta, eliza eta udaletxearen artean, herri askotan gertatzen den legez. Bertan herriko batzarrak eta merkatua egiten zituzten.

Gaur egun plaza dagoen lekuan, lehen, Goienkale kalea zegoen eta honen aurrean, herrikoek zituzten ortuak. Konbentzio gerra pasatu ostean udaletxea birrinduta gelditu zen eta, udaletxea altxatzeko beste leku bat aukeratu zuten, gaur egungo

42. ONAINDIA ESTRADA (73): “D. ANDRES AGUSTIN DE ORBE Y LARREATEGI” (43-53.orr.).

plazan, alegia. Eraikuntza honi esker eta parean eraiki zuten frontoiari esker gunee itxi bat gelditu zen, herritarren beharretarako plaza zaharra baino askoz egokiagoa. Eraikuntza berri honek Goienkale kalearen izena baztertzea ekarri zuen.

“Este espacio abierto, que se fue asentado como tal en la trama urbana de la Villa, planteó la posibilidad a fines del pasado siglo de construir frente a él, en una posición más predominante, un nuevo edificio consistorial, que es el que hoy conocemos (desagertua).

Las casas de Artekale orientadas hacia la calle exclusivamente se fueron dando la vuelta y orientado hacia el espacio de la plaza, apareciendo miradores y balcones.

La apropiación como espacio público, tuvo sus hitos, en la construcción del nuevo ayuntamiento sobre el río, en la del frontón, llegando hasta hoy mismo con pavimentación recientemente efectuada, su peatonalización y la construcción del nuevo ayuntamiento en lugar del anterior”. (UDALA: TAU-76.or).

Hor bizi zirenei dagokienez:

(1886) *“Los de la plaza (tenderos, otros artesanos, funcionarios, profesionales) forman un grupo de perfil bien diferenciado. Entre ellos la familia extensa tiene una menor importancia. Son con frecuencia forasteros casados con otros forasteros. Están más relacionados con el exterior y representan el sector social más evolucionado”. (ERNAROA (86): 3. zk. (143. or).*



Orbe Kardinal Plaza

Hurrengo etxeek osatzen zuten Ermuko plaza:

- *Artekalerekin* joten: *Udaletxea, Pedromarianekoa* (aurretik Kareaganeko etxea), *Ibargainena, Erleta (Eskolanekoa); Herreronekoa, Segundanekoa, Unamuno, Elexoste (Joxebenta).*

- *Goienkalerekin* joten: *Udaletxea*, aldamenean Alondiga eta gero eskolak (goian eskolak, behean pelotaleku txiki bat eta barruan foralak); Gero, *Portale*. Albo-

an, *Kalekoa*. Aurrerago, *Arribakoa* eta elkarri jotzen *Zapatarikoa*, *Undakoa*, *Infreñuneko* etxea eta *Infreñuneko baserria*.

Ahozkoa: [plásia]

- 003, 009, 010, 016, 017, 022, 036, 064 “Plasa”
- 008 “Ermuko plasia”
- 060 “Kalle Kardenal Orbe”
- 063 “Kardenal Orbe”
- 009, 010, 028 “Kardenal Orbe plasa”

Idatzizkoa:

- 1810 Plaza de esta villa (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 451. or)
- 1866 Plaza (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1905 Plaza pr^{al} (BFA.: Udal., 0004/023)
- 1907 Plaza fronton (BFA.: Udal., 0004/033)
- 1994 Cardenal Orbe, plaza (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

ORMABARRI (soloak)

Kokapena: Zearra

OHARRAK: Lomiñoneko tailerra zegoen lekuan, gaurko egunean Lomi Power enpresa. Soloak besterik ez zegoen hemen. Ik. *Zearreko soloa* eta *Zearburu*.

Ahozkoa: [oĩ mábaři]

- 022 “Ormabarri solua”

OSTATUKOA (batzokia)



Ostatukoa (1976)



Ostatukoa (1933)

(Desagertua)

Kokapena: Barrenkale, 8-bis zk.

OHARRAK: *BBK* dagoen lekua zegoen.

Abozkoa: [oštátukua]

- 003, 009, 017, 021, 022, 047, 063, 064, 066 “Ostatukua”

Idatzizkoa:

- 1931 Batzoki (BFA.: Udal., 0012/001)
- 1958 Bar Ostatukua (*El Correo español* 58-IX-28)
- 1965 Ostatukua, casa (ESE.: 8 Híl., 110. or)
- 1975 Ostatukoa, posada (ARRIOLA, M^a J... (1975): 20.or)

OTXUA (baserria)

(Desagertua)

Kokapena: Barrenkale kalea, 7. zk.

OHARRAK: *Txotxoloneko* baserrian ondokoa. *Ostatukoaren* parean.

Abozkoa: [očúa]

- 058, 064 “Otxua”
- 026 “Otxua baserrixa”
- 022 “Otxuanekua”

Idatzizkoa:

- 1930 Ochua (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)
- 1933 Ochua, caserio (BFA.: Admin., Basoen aprobetxamendua., 373. kutxa, C/00373-03)



Otxu baserria

PAGALDAI (*zerratokia*)*(Botata)**Kokapena:* Kareobiaga.*OHARRAK:* Abizen batetik eratorritako leku-izena. *Kareobiaga* baserriaren ondoan zegoen zerratoki hau 1955 inguruan altxatu eta 1985 inguruan bota zuten.*Ahozkoa:* [pagáldaj]

- 022 “Pagaldai”

PAGOPE (*ingurua*)*(Desagertua)**Kokapena:* San Antonio*OHARRAK:* *San Antonio* baserriaren parean. Bertan, Rosina etxea eta garajeak eraiki zituzten.*Ahozkoa:* [pagópe]

- 022 “Pagope”

PASKUALENEKOA / SOLOZABALENEKOA (*etxea*)*Kokapena:* Artekale, 3. zk.*OHARRAK:* *Pedromarianekoa* eta *Erleta (Eskolanekoa)* artekoa. Aurrean *Artekale*, atzean *Orbe Kardinal* Plaza.*Ahozkoa:* [balábanekua]

- 066 “Balaba”

- 022, 064 “Balabanekua”
- 009 “Ibargaiñena”

Idatzizkoa:

- 190? Pascualenecoa, casa (J.E.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 387)
- 1923 Pascualenecua (J.E.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 397)

PAULATXONEKOA (*etxea*)

Kokapena: Irulietza auzoa, 26. zk.

OHARRAK: Bertakoaren izena. *Orbe* eta *Iriondoren* artekoa. sasoi batean zapata-denda eta konfitegia izandakoa.

Ahozkoa: [páylačonekua]

- 009 “Paulatxoanekua”
- 022 “Sapateruana”
- 022 “Paulatxo”

PEDROMARIANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Artekale, 1. zk.

OHARRAK: *Artekaleko* kantoian dago, atzean *Orbe Kardinal Plaza (Udaletxezarra)*; aurrean *Artekale (Sabon/Antonatxaneko baserria)*: ondoan erreka (gaur estalirik).

Aurretik *Kareaganekoa* zen, gero Pedromarik erosi eta *Pedromarianekoa*. Urteetan, bertan Zirkulu Karlista biltzen zen. Gaur egun, beheko pisuan dagoen tabernak Patxi du izena. *La casa del frances* eta *Kurian etxea* ere esaten zioten.



Pedromarianekoa

Ahozkoa: [peđřómarianekua]

- 009, 022, 064, 066 “Pedromarianekua”
- 009 “Kareagana”
- 017 “Pedromari”
- 017 “Patxiñekua”
- 017, 022 “Patxi”

PEPETXIKI / TXANTXIKU (*kale-baserria*)

(*Desagertua, taberna batek hartu du izena*)

Kokapena: Torrekoa

OHARRAK: Atzealdean, ezkerretik eskumara *Rifeñu, Orozko* eta *Txantxiku*. Aurreal-detik, *Torreko* baserria, *Zubiaurre* kalea eta erreka.

Kale-baserri hau Markesarena zen eta 1917-1918 inguruan saldu egin zuen. Hor bizi zena oñatiarra zen, hangoei Txantxiku esaten diotenez, Pepetxiki izen zaharra baztertu eta Txantxiku esaten hasi zitzaion etxe honi. *Txantxikunean*, baina *Zubiaurre* partean, errementariak zeuden. Honen ondoan *Bustintza-Urko / Orozko*.

Ahozkoa: [čañčíku]

- 066 “Pepetxiki”
- 009, 021, 022, 028, 059, 066 “Txantxiku”
- 022, 036, 064 “Txantxikunekua”
- 063 “Txantxikua”

Idatzizkoa:

- 1886 Pepechiki (BEHA.: Matrikula, 8-III, 9-271)
- 1930 Pepe chiqui (BEHA.: 9-III, Paper solteak, 9A-715)
- 1945 Pepechiqui (Esk. 036)
- 1959 Pepechiqui, caseria (JE.: Liburu XIV, Tomo 418, Finka 803)
- 1929 Chanchicoa (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 455)
- 1940 Chanchicua, caserio (ESE.: 7 Hil., 344. or)
- 1957 Chanchicua, caseria (JE.: Liburu XIII, Tomo 404, Finka 679)

PLAZAGOIENA / INFREÑU (*baserria*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Goienkale kalea, 7. zk.

OHARRAK: Goienkale kalearen goialdean, frontoi ostekoa. Atzean zerka zaharra zeukan eta aurrean *Santuko* baserria.

Plazagoiena izen zaharrak eta *Infreñu* berriak garai bana dute. Konbentzio gerraren ostean, herria guztiz hondatuta gelditu zen; konpontzean Goienkale eta Arte-kale artean zeuden ortuak kendu eta gaurko Orbe Kardinal Plaza eraiki zuten. Momentu honetan, aztergai den baserriarentzako izen zaharra agertzen da, *Plazagoiena*, alegia. Izen hau guregana ez da heldu. Antonio Izagirrek kontatzen zidanez, Ermuan beti txistoso asko izan direlako:

“(Santukua) Markesana zuan ba... ta izena ekan Estrataburu. Ta egoten zitxuan han Barixaku Santu egunian atarutzen zian santuok. Egoten zitxuan urte guztian ganbaran, zelan ganbara aundixa ekan. Santuak euazelako baten bati Santukua. Gero San-

tukua hartu juen zeru moruan da Inpreñunekua zuan Plazagüena, hareri Inpreñu ipini otzen gero. Txistoso egon ditxuk asko!

Da gero, nik bost urte nekazela ein juen Patakonia oin esate akona. Da abadiak ipini otzan, Eibartar abadiak, Don Ezekiel Etxeberriak, Urbibitarte behetik errekia da goitxik Matxinen errotarako erretena -Urbi-bitarte ederto ipinitxako izena-. Bastante segidu juan. Gero beste okurrentzia emotzan baten bateri Purgatorixua. Zelan Santukua da Inpreñunekua bazen: Purgatorixua!'. (Antonio Izagirre).

Hizkuntza atalari dagokionez, alternantzia handia dago: batzuek *Infreñu* eta beste batzuek *Infrañu* (zaharrenek *Inpreñu*) esaten dute. Boteprontoan “Fra” esaten duten gehienek, errepikarazterakoan eta pentsatu ondoren “Fre” esaten dute, nik azkenean “Fre”-ren alde jo dut.



Infreñu baserria

Ahozkoa: [imfrénu], [plášágwena]

- 010, 022, 058, 059, 060, 064, 065, 066 “Infreñu”
- 004, 009, 036, 062, 063 “infreñunekua”
- 003, 022 “infrañu”
- 028 “Infreñuanekua”
- 017 “Inpreñunekua”
- 017 “plasagüena”
- 060 “Plasa guena”

Idatzizkoa:

- 1799 casa titulada la del Rebote (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 4, 637. or)
- 1810 casa llamada la del Rebote (BFA.: Admin., propioak eta arielak, Erreg. 9, 451. or)

- 1814 Rebote (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Rebote (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 5)
- 1867 Infreñu, casa de (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 4, 4. zk.)
- 1873 Plazagüena, caseria titulada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 50)
- 1889 Plazagüena, caseria llamada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 262)
- 1893 Rebote o Imprenu (BFA.: Admin. Lur. Est., Karp. 10)
- 1905 Infarnu (BFA.: Udal., 0004/023)
- 1909 Inpernu (BFA.: Udal 0004/025)
- 1923 Infernu, caseria (Esk. 010)
- 1962 Infernu, caseria (Esk. 010)

PLAZAKOA (*ortua*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Plaza ingurua

OHARRAK:

Idatzizkoa:

- 1873 Plazacua, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 1)
- 1882 Plazacua, huerta nombrada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 194)

POLBORANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Zubiaurre, 9. zk.

OHARRAK: Zubiaurreko farmazia dagoen etxea.

Ahozkoa: [polbórianekua]

- 022 “Polborianekua”

PORRULEKU

Kokapena: Orbe Kardinal Plaza

OHARRAK: Merkatu zaharra eta Portale etxearen arteko lekua. Bertan dantzan-eta egiten zen. Izen hau 60-70. hamarkadetan erabiltzen zen.

Ahozkoa: [pořúleku]

- “Porruleku” (Estibalitz González)



Polboranekoa (1997)

PORTALE (*etxea*)

Kokapena: Goienkale, 4. zk. (Gaurko Orbe Kardinal Plaza)

OHARRAK: Ertaroan etxe honen ondoan zegoen portaletik herri barrura sartu ahal izaten omen zen. Atzean, gaurko *Kantabria kalean*, antzinako *Zerka* zegoen. Aldamenean *eskolak* (botata) eta *kalekoa*. Ik. *Arribako* etxeakozkia.

“Edificio de caballete paralelo a la fachada distribuido en cuatro alturas más ático, con sillar en vanos, acceso y balconadas. Se puede destacar los balcones de piedra, de los primeros pisos, sobre molduras: El acceso es lateralizado adintelado”. (DEIKER Barriable-en ikerketaren informazioa. Udalerria: Ermua 034).

Abozkoa: [poř tále]

- 009 “Otxuanekua, Emeterio Telleria, Portalena”
- 062 “Portalekuak”
- 022 “Portalenekua”
- 064 “Otxu, Portale”
- 009 “Portalena”

Idatzizkoa:

- 1799 Portalecoa, casa titulada (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 636. or)
- 1810 Portalecoa, casa llamada (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 455. or)
- 1814 Portalecoa (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1825 Portalecoa, caserio (GJA.: Polizia Errola)

PROBALEKU (*kalea*)

(*Desagertua*)

OHARRAK: Kale honek bertan zegoen probalekuari zor dio izena. Artekalako luzapen bat bezala sortu zen. Zubiaurre kaleko kale-baserriekin kantoia egiten zuen; eta, gora-gorako *Arrako* eta *Zinko* baserriak zituen. Bi gune hauen artean XIX. mende hasieran *Probalekua* eraiki zuten, eta aldamenen bolatokia. Gerra zibilaren ostean *Plaza de España* izena ezarri bazuten ere, orain jatorrizko izena berreskuratu du.

Inguruko etxeak: *Labako* baserria (Zubiaurrerekin kantoia egiten duena), *Txurruka* (Txotxolo) eta *Antolinen etxea* (Taberna); Probalekuaren bestealdean, berri-z, *Juankruzenekoa* eta *Artixanekoa* daude; eta goialdean, Probalekua isten, *Abadea-neko Etxezarra*, burdibidea eta *Urteaga* erreka zeharkatzeko zubia.

“Leben egoten zan urtian behin, San Inaxio hurrengo domekan, probak egoten zian. Da, orduantxe azkenengo jaia izaten zan.

San Inaxio egunian Artetara-ero juaten zan jentia, baiña san Inaxio hurrengo domekia izaten zan ba... etortzen zian konbidauak-ero juaten zian... eztakizu? Tiuk-ero, lengusu-ero, loibak... etortzen zian da orduantxe egunian izaten zan zer hori, konbidau eguna esate jakona. Probak egiten zian y el final de las fiestas.

Beti egoten zian Ermuan, zerian... Plaza de Españan, hantxe... Ermuko probalekua da hemen Bizkaia da Gipuzkuan da danian zaharrena izandakua, bai! Ni bete-bete-betian akordatzen naiz, bete-bete-betian... ni txikitxu... gerra aurretik-eta... orduantxe akordatze jatak astelehen guztietan-guztietan etortzen zian jokatzera, astelehen guztietan. Tolosatik-eta etortzen zian Ermura!, jokatzera probak, bai!... Ermuan afisiñu asko! Zelan probaleku zaharra ta famaia zan Ermuko zera... Bueno!, tallererako tu-

nikekin urtetze eben... tallertxuetatik-eta gizona!... haraxe zerara, plazara". (Jesus Ormaetxea) ARANBERRI (96): (183-184. orr).

Ahozkoa: [p̄robáleku]

- 008, 010, 017, 022, 028, 036, 059, 062, 063, 064, 066 "Probalekua"



Probalekua (1937)



Probalekua (1937)

Idatzizkoa:

- 1866 Prueba de bueyes (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1867 Sitio de pruebas de bueyes y Arrabal (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 4, 4. zk.)
- 1886 Probadero (BFA.: Udal., 0011/002)
- 1905 Prueba de bueyes (BFA.: Udal., 0002/013)
- 1927 Plaza de Proba-leku (UDALA: Ermuko Udaleko akten estraktoa)
- 1940 Plaza de España, calle (ESE.: 10 Bat., 209. or)
- 1958 Plaza de España (*El Correo Español* 58-II-6, 2. or)
- 1994 España, plaza de (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

RIFEÑU (*kale-baserria*)*(Desagertua)**Kokapena:* Zubiaurre kalea.*OHARRAK:* *Orozko* eta *Txantxiku* baserrien artekoa, Zubiaurre kalearen atzealdean.

Hau ez da bere jatorrizko izena. Marokoko Rif lurraldetik etorritako bat bertan bizitzen jarri zenean, ermuarrak pertsonari eta etxeari *Rifeñu* esaten hasi zitzaizkion.

Ahozkoa: [rifénu]

- 009 “Rifeñu”

ROSINA ETXEA*Kokapena:* San Antonio

Rosina etxea (1998)

OHARRAK: Joxemari Madariagak egindako etxea, gerra ostekoa.

Ahozkoa: [rošína]

- 009 “Madariaga”
- 022 “Rosina etxea”
- 009 “Rosina etxia”

Idatzizkoa:

- 1956 Rosina etxea (ESE.: 12 Bat., 67. or)
- Rosina etxea (O)

SABON / ZINKONEKOA (*baserria*)

(*Desagertua*)

Kokapena: VI Mendeurrena kalea

OHARRAK: Amillategi harategitik Akelarre tabernarainoko tartean zegoen, *Arrako* baserriaren ondoan. *Bergara / Arrako* baserria errepideari begira zegoen eta *Sabon Urteaga* errekarari.

Sabon izena soilik eskriturretan eta jabeek ezagutzen dute, kalean *Zinkonekoa* esaten zioten eta. Azken aldaera hau, XIX. mendean errotuta dagoen gaitzizen batean datza.

Santa Cruz markesak egindako baserri honek, argazkian ikusten den bezala, ateburua eta leihoburuak harlanduzkoak zituen.

Ermuan *Antonatzaneko* baserriak ere *Sabon* izena hartzen zuen (idatzizko iturriaren arabera)

Ahozkoa: [šín,ko]

- 003, 008, 009, 017, 022, 058, 064 “Sinko”
- 063 “Sinkoneko baserrixa”
- 005, 022, 036, 059, 064, 066 “Sinkonekua”

Idatzizkoa:

- 1552 Sabon (BEHA.: 9-270, Bataioen liburua I)
- 1810 casa de Sabon (BFA.: Admin., Erreg. 9, 459.or)
- 1814 Sabon, casa (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Sabon (BFA.: Admin., Lur. Est. Erreg. 5)
- 1825 Caserio de Rodrigo de Sabon (GBA.: Polizia Errolda)
- 1878 Sabon, caseria rustica titulada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 87)
- 1886 Cinconecua (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1893 Sabon (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Sabon, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Rodrigo de Sabon, casa y tierras (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1923 Sabon, casa (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 387)
- 1929 Sabon, casa señalada con el nombre de (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 387)
- 1930 Cinko (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)
- 1945 Cinconecoa (Esk. 036)
- 1947 Sabon, casa conocida con el nombre de (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 538)

- 1950 Sabon (ESE.: 11 Bat., 175. or)
- 1959 Sinconecua, casa (JE.: Liburu XIV, Tomo 418, Finka 818)
- 1962 Sabon, casa (Esk. 010)



Sabon / Zinkonekoa (1973)

SAKONA (lur-zatia)



Sakona (1997)

Kokapena: Goienkale

OHARRAK: *Goienkaleko* aparkalekuak dauden lekua. Paraje hau desitxuraldatuko dute laster, bertan etxeak egin behar dituzte eta.

Ahozkoa: [šakóna]

- 022 “Sakona”

Idatzizkoa:

- 1873 Sacona (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1997-X- 25 Sakona (*El Correo Español*)

SALABERRIA (*etxea*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Zubiaurre kalea

OHARRAK: *Iturralde* parajearen egindako etxea.

“1929-1930 urtien bitartean altxau zan, ta 1964. urtian bota zan. Harek hartzen eban lekua, gaur egunian Zubiaurren Rosa Mari harategitxik Gredos tabernaraiño doian etxiak betetzen dau. Pistolia eitsen jarraitxu eben bakarrak izan zian (Mataperros izeneko aire konprimiduko bat), baiña honekin batera berbikixa, bizikleten azesorixuak, merengia eitzeko inbentu bat ta llabe inglesak be eiñ ta saltzen zitxuezen.

Erretratuan, atze-atzian, Malengoneko etxia ta Patakonia basarrixa ikusten dia”. (GONZALEZ Estibalitz (1996): “Salaberrianeko iskillu olea ta etxia” in DROGE-TENITTURRI XXX).



Salaberria

“Salaverria Osaeta, Santiago: Fabricante establecido en Ermúa, Vizcaya, figura reseñada entre los que sometieron producción de armas cortas al Banco de Pruebas de Eibar en la década de 1920, utilizando como contraseña identificativa la marca constituida por las iniciales S.S.. En el Censo Armero del año 1929 se le cita como fabricante de pistolas automáticas, y en 1935 figura a su nombre la patente Nº 138646 por “nuevo procedimiento de doble cierre de seguridad para revólver”.

En el B.O.P.I. no se localiza ninguna marca registrada por este fabricante, pero Hogg y Weeks indican utilizó las marcas ETNA, TISAN y UNIS en la comercialización de pistolas tipo “Eibar” para cartuchos calibre 6.35 mm.. Los mismos autores le atribuyen la utilización de la marca PROYECTOR en pistolas del mismo tipo, pero esta también se indica utilizada por la firma “Echave y Arizmendi”, apuntándose muy ligeras diferencias entre las que dicen ser de uno y de otro fabricante (...).

Hogg y Week también señalan a Santiago Salaverria como fabricante de las pistolas tipo “Eibar” para cartuchos calibre 6.35 mm. que se comercializaron con la marca INVICTA, en una producción contratada probablemente por Eduardo Schilling que registró esta marca en 1916”. (CALVO, J.L 1997: 296-297. orr).

Ahozkoa: [sáláber̃ia]

- 008, 009, 017, 022, 028 “Salaberria”
- 064 “Salabarrianeko tallerra eta etxia”

SAN ANTONIO *ermita*

Kokapena: San Antonio kalea

OHARRAK: Ermita hau san Sebastian eta san Antonio santuen omenez altxatu zen. 1936an ermita izaera galdu zuen. Gaur egun tailerra dago bere lekuan.



San Antonio ermita (1997)

“La ermita de S. Sebastián y S. Antonio, conocida solo como por su segunda advocación es la más próxima al casco urbano. Las noticias que poseemos de ella no van más allá del s.XVIII y quizás fue la última en construirse. Pudo ser edificada en el S.XVII cuando empieza a extenderse el casco urbano. También fue el lugar de ubicación del cementerio hasta el S.XIX”. (ARREGI, I.; CANO, J.; FERNANDEZ, F. (1988): “Ermuko historiarako apunteak” (Argitaratu gabea).

(1890) “Cementerio actual o viejo, dentro de una hermita y su patio proximo a la estación de Ferrocarril”. (BFA.: Udal., 0004/005).

Ermita honek ondoko inguruari ematen die izena: *San Antonio baserria*, *San Antonio auzoa*, *Sanantonio-oste* (zelaia zena).

Abozkoa: [šanántonio]

- 009 “San Antonioko ermitxia”
- 017, 022 “San Antonio”

Idatzizkoa:

- 1626 San antonio, hermita de (BFA.: JBG, 78. zk., 38. or)
- 1753 San sebastian, Hermita de (BAHP.: JAA, 856. zk., 934. or)
- 1814 Sⁿ Antonio (BFA.: Udal., 0014/001)
- 1833 San Antonio, hermita de (BUA.: XXI-2-C-01, 3. or)
- 1854 San Antonio, Ermita de (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1873 San Antonio, Ermita de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 17)
- 1878 San Sebastian, Ermita de (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 139)
- 1909 Sⁿ Antonio, portico de la Ermita de (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 465)
- 1915 San Antonio, cementerio viejo de (ESE.: 7 Hil., 31. or)
- 1925 San Antonio, ermita (ESE.: 10 Bat., 42. or)

SAN ANTONIO (baserria)

Kokapena: San Antonio auzoa

OHARRAK: *San Antonio* ermitatik hartu zuen izena. XVIII. mende hasierakoa.

Bere ondoan *Iturriaganekoa* eta *Atxanekoa*. Parean *Pagope*.

Abozkoa: [šanántonio]

- 008, 022, 024 “San Antonio”
- 009 “San Antonionekea”
- 064 “San Antoniokoa”

Idatzizkoa:

- 1733 cassa que esta frente a la Hermita de San Sebastian (BUA.: XXI-2-B-5, 139-B)
- 1733 casilla que esta frente de la Hermita de san sebastian (BUA.: XXI-2-B-5, 169-B)
- 1814 San Antonio, casa de (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1824 San Antonio (BFA.: Admin. Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 San Antonio (GBA.: Polizia Errolda)
- 1878 San Antonio, casa titulada de (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 140)

- 1889 San Antonio, casa titulada de (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 268)
- 1951 San Antonio, Panaderia de (ESE.: 7 Hil., 464. or)

SAN ANTONIO (auzoa)

OHARRAK: Paraje honetan ermita eta parean zegoen *San Antonio* baserria besterik ez zegoen. Geroago, XX. mende hasieran, Irulietan trenbidetik behera luzatu zen eta etxe ilarak eraikitzen hasi ziren.

1960-80 hamarkadetan, ermitatik behera eraiki ziren etxeek ere *San Antonio auzoa* osatzen dute.

Ermitatik behera, *Ego* ibaiaren ondotik *Errege-bidea* pasatzen zen. Paraje honi *Zubibarri* esaten zioten, erreka bazter batetik bestera pasatzeko zubi dotore bat zegoelako.

Idatzizkoa:

- 1959 San Antonio (*El Correo Español* 59-III-26)
- 1960 caminos nuevos a la altura de San Antonio (*El Correo Español* 60-XI-2)



San Antonio auzoa (1945)

SAN ANTONIO basoa

Kokapena: San Antonio

OHARRAK: Gaur egungo *Zubizarreta* lantegia dagoen parajea.

Idatzizkoa:

- 190? San Antonio, un terreno que sirbio en tiempos de Camposanto y se denomina (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 365)

- 1947 San Antonio, terreno monte castaña llamado (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 535)

SANANTONIO-OSTE (*basoa*)

(*Desagertua*)

Kokapena: San Antonio auzoa

OHARRAK: San Antonio ermitaren atzealdea. Gaur egun tailerrak dauden lekuan.

Idatzizkoa:

- 1848 San Antonio oste, el monte (BFA.: Udal., 0004/008)
- 1859 San Antonio Oste (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1873 San Antonio-oste, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 29)
- 1889 San Antonio oste, termino de (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 267)
- 1911 San Antonio-oste (BFA.: Udal., 0015/001)
- 1929 San Antonio-oste, término de (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 477)
- 1947 San Antonio-oste (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 558)

SAN IDELFONSO (*etxea*)

Kokapena: Zubiaurre, 15. zk.

OHARRAK: Bertakoaren abizena. *Berriztxikia* eta *Abeletxeneko* etheen artekoa.

Ahozkoa:

- 009 “San Idelfonso”



San Idelfonso (1997)

*SAN PELAIO ermita**(Desagertua)**Kokapena:* San Pelaio auzoa

San Pelaio (1955)

OHARRAK:

“Advocación: San Pelayo

Parroquia: Perteneció a la parroquia de Santiago Apóstol

Emplazamiento: Estuvo situada en la actual calle de San Pelayo, junto al campo de fútbol

Fue derribada hace algunos años, para edificar un bloque de viviendas. En uno de los bajos de estas casas, en un pequeño recinto de 4 x 3,36 m. protegido por verga de hierro está colocada la imagen de San Pelayo. En el exterior, en el lado derecho hay una pila de agua bendita.

Notas históricas: En auto de visita de 14 de Marzo de 1691, el Obispo de Calahorra y La Calzada, D. Pedro de Lepe, hacía constar:

“ y porque la hermita de Sn. Pelayo, sita en los términos de dicha villa, amenaza ruina brevemente no se acude a su reparo por lo qual no tiene medios algunos y atendiendo su IM a que la hermita de San Lorenzo de dicha villa tiene algunos maravedis sobrados dava y dió facultad a los administradores de esta Parroquia por via de mi prestado los puedan dar al de la de San Pelayo para su reedificacion y reparo, otorgando escritura de restitución la cantidad que se le prestare...”

Transcurridos cuatro años, el 16 de Noviembre de 1695, el visitador general del Obispado de Calahorra y La Calzada, señalaba que la ermita estaba por el suelo y mandó su reedificación en el plazo de 8 meses.

En la visita el año 1847, D Pablo García Abella, Obispo de Calahorra y La Calzada, deja constancia en el auto de visita del 15 de Octubre de que la ermita se

halla en buen estado y con el aseo que le corresponde.” ARREGI AZPEITIA (87):(157.or).

“San Pelaixoko erromerixa egunian erroskilla saltzailliak egoten zian, ta bertan eitzen zan meza nausixa. Asto bati elizako harmoniua lotzen jakon ta bertara eruaten zan. Meza ostian ezpatadantzarixak, aurrekularixak ta txistua ta tanboliñak animatze eben jaixoi. “Txirringoletan” edo “Txopura igoten” norgehixagokak egoten zian.

Gerra ostian bizikleta karrerak eitzen hasi zian. San Pelaixotik Kaltxangora, handik Aitixoko bidia hartu, ta Ziarreko bueltatik Torretaneko landan ondoko burdibidetik san Pelaixora bajatzen zian karreristok. Buelta honi honenbeste bidar eitxia izaten zan gauziori.

Plazara etortzen zan gero txistularixekin pasakallesian. Gabian bandiak jotzen eban ta domeka horretan hasi ta abuztuko lehen domekararte egoten zian bailabliok plazan.(...)

Barrukaldetik edarra zan. Hiru altare ekazen, ta sartu ta ezkererra korura igoteko egurrezko eskaillarak euazen, barandau zoragarrixakin.

Portikoko lurra harlosakin einda euan ta atian onduan bentana txiki bat ekan. Hara xe botatzen zan limosnatarako dirua. Albo bateko ta atzeko ormen kontra harrizko jarleku bat ekan etarata. Negu aldian hantxe egoten zan euzkirik gozuenan”. (GONZALEZ Estibalitz 1996): “San Pelaixoko ermitxia 1955” in Drogeteniturri XVI, 2. or).

Ahozkoa: [šampálajšo]

- 008, 009, 022 “Sampelaixoko ermitxia”
- 017 “Sampalaixoko ermitxia”
- 010, 017 “Sampalaixo”

Idatzizkoa:

- 1501 Sancti Pelayo, E la tierra e mancanal/ que tenemos en (FUENTES.: 46. zk., 204. or)
- 1501 Sa/n Pelayo, camino que ban a (FUENTES.: 46. zk., 204. or)
- 1516 Sant Pelayo (FUENTES.: 46. zk., 217. or)
- 1623 sanpelayo, Prensa de (BAHP.: JBG, 77. zk., 95. or)
- 1626 Sanpelayo de yermua (BAHP.: JBG, 78. zk., 39. or)
- 1733 San Pelayo, heredad de (BUA.: XXI-2-B-5, 139-B, 1. or)
- 1733 San Pelayo, camino de (BUA.: XXI-2-B-5, 139-B, 1. or)
- 1733 Sⁿ Pelaio, camino de (BUA.: XXI-2-B-5, 139-B, 1. or)
- 1763 San Pelayo, Ermita de (BAHP.: JAA, 861. zk., 212. or)
- 1793 Sⁿ Pelayo (BAHP.: JM, 400. zk., 370. or)
- 1794 Sⁿ Pelayo, Hermita de (BAHP.: JM, 401. zk., 114. or)
- 1814 Sⁿ Pelayo (BFA.: Udal., 0014/001)
- 1866 san Pelayo (Esk. 065)
- 1871 S. Pelayo, la fiesta de (BFA.: Udal., 0010/003)
- 1894 San Pelayo, viñedo (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1909 Sⁿ Pelayo, Ermita de (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 465)
- 1923 San Pelayo, Ermita de (Esk. 010)
- 1962 San Pelayo, ermita de (Esk. 010)

SAN PELAIO AUZOA / SANPELAIIOALDEA

OHARRAK: *San Pelaio*, lehen, ermita bat eta *Antonatxabarri*, *Isasi-Isasmendi* eta *Uretabarren* etxeak besterik ez zen. Inguruan soloak, ortuak eta sagastiak zeuden. Herriitik urrun gelditzen zen alde honi *Sanpelaioaldea* esaten zioten.

1970. urtearen inguruan etxeak eraikitzeari ekin zioten, arrabal berri bat sortuz.

(1975) *“San Pelayo, como Harlem de Ermua, es un barrio en hilera, con su calle frontal sin asfalto, cosido de baches, sin aceras, franqueada por un ribazo de huertas contaminadas con basuras, con numerosos bajos sin habitar, niños que juegan en las aguas fértidas, falto de iluminación y, para colmo, impedido su paso natural del resto del pueblo, por lo que sus vecinos deben circundar el valle de huertas para acceder a la carretera de Mallabia y, por ella, al pueblo”.* (ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturarako tesina, argitaratu gabea).

Ondoko soloei Santukoek *San Pelaioko laua* edo soloak esaten diete. Desagertutako soloak: *Aldapa-aundi*, *Sanpelaioerretenburu*, *Ursolo*, *Txarako soloa*, *Zearsolo*, *Zearsolo*, *Erretenpeko soloa*...

Ahozkoa: [sámpalájšo], [sámpalájšoaldia]

- 010 “San Pelaioidaldea”
- 017 “Sampalaixoko aldia”
- 059 “San Palaixoko solua” (gaur egun parkea dagoen lekuan)

Idatzizkoa:

- 1630 sanpelayo, tierra y heredad en termino de (BAHP.: JBG, 80. zk., 142. or)
- 1660 sanpelayo, heredad en el termino de (BAHP.: PRG, 140. zk. 1. zatia, 108. or)
- 1873 San Pelayo, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 1)
- 1894 San Pelayo-alde, heredad, montes y huertas (BFA.: Est., Terr., Karp. 10)
- 1923 San Pelayo, término (Esk. 010)
- 1933 San Pelayo, término de (Esk. 010)
- 1936 San Pelaio, barrio (ESE.: 10 Bat., 178. or)
- 1954 San Pelayo, Calle travesía de (ESE.: 11 Bat., 274. or)
- 1958 campo de San Pelayo (*El Correo Español*)
- 1962 San pelayo, término de (Esk. 010)
- San Pelaio-alde (KATATROS)

SANPELAIIOERRETEBURU (soloak)

Kokapena: San Pelaio

OHARRAK: San Pelaio ermitaren inguruan zegoen presatik, erreten baten bitartez, ura *Mallaerrotaraino* eroaten zuten. Toponimo hau erreten honen goialdeari dagokio.

Idatzizkoa:

- 1873 San Pelaioerretenburu, termino (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 50)

SAN PELAIOKO FUTBOL ZELAIA (soloak)

Kokapena: San Pelaio auzoa

OHARRAK: 1958an egina.

SAN PELAIOKO ITURRIA

Kokapena: San Pelaio auzoa

OHARRAK: Oso ur ona zen.

“Esta villa está muy bien surtida de aguas potables, siendo riquísimas las de las fuentes del Cementerio de Santiago y la de San Lorenzo: en San Pelayo hay otra á cuya agua atribuyen la virtud de quitar la sarna”. (LABAYRU, E: Historia General del Señorío de Bizcaya III., La Gran Enciclopedia Vasca., Bilbao, 887. or).

“San Palaixon, hor be euan ura ona. Da, kanpotik-eta etortzen zan jentia holan eze-mia-ero, saldarrak-ero... granuak-eta urtetzen otzezenak horrek ur horrek osatu eitxe ebalá esate eben. Da, busti eitzen zitxuen igual ba... trapaak-ero, toalla bat... ero eroser gauza da harekin arpegixa garbitxu-ero, eztakitx... orduan baiña osatu eitsen ziala esate eben”. (Maria Bengoetxea)

(1910) *“Hemos estudiado varios de estos manantiales y una vez hecha la selección indispensable, hemos fijado nuestra atención en el llamado de San Pelayo, situado poco más arriba de la Ermita de ese nombre y á una distancia de medio kilómetro del núcleo de la población de Ermua.*

Para hacerlo así hemos tenido en cuenta la excelente calidad de las aguas, reputadas desde tiempo inmemorial como las mejores del contorno por el vecindario.

(...) el manantial que tratamos de aprovechar nace en una socavación natural de roca arenisca saliendo á la superficie por una grieta de la misma formándose enseguida un pequeño pozo cuyo sobrante constituye un regato”. (BFA.: Admin., Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 2., 3-bis).

Ahozkoa: [šampalájšoko itúříša]

- 008, 009 “San Palaixoko iturririxá”
- 010 “Sampalaixoko ura (manantiala)”

Idatzizkoa:

- 1623 cauce de Sampelayo (BAHP.: JBG, 77. zk., 93. or)
- 1794 fuente de San Pelaio (BAHP.: JM, 401. zk., 107. or)
- 1910 San Pelayo, manantial de (BFA.: Admin., Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 2., 3. zk.-bis)

SANTA ZEZILIA kalea

Kokapena: Gaurko Goienkale.

OHARRAK: 1964an, *Kareobiaga* inguruko alde hau, Herriko musika bandaren omenez, Udal plenoak *Santa Zezilia* izendatu zuen. 1979an, berriz, kale izendegi berriaz *Goienkale* bilakatu zuten. Ik. *Goienkale*.

Ahozkoa:

- 064 “Santa Sesilia”

Idatzizkoa:

- 1967 Santa Cecilia, calle (ESE.: 8 Hil., 155. or)

SANTIAGO *eliza*⁴³

Kokapena: Barrenkale

OHARRAK: Santiago > Santixago > Santixao > Santixau

Hasiera-hasieratik *Puerta de Santiago* dokumentaturik dago.

“El pórtico de la iglesia debió tener cierta preminencia, tanto espiritual como económica o social. Así por una parte algunos juramentos tienen lugar en la puerta de la parroquia”. (ZABALA 97: 20.or).

Durangoko elizaren portikoaren antza handia izan ei zuen. Artekaletik Barrenkaleraino eliza inguratzen zuen, aldamenetan dauden bi ateak estaliz.

Antzinean, gorpuak elizan lurperatzen zituzten. Etxe edo familia bakoitzak hilobi bat zeukan bere izenean. 1735ean elizan burutu ziren konponketak zirela eta hilobiak, dagozkien etxe-izenez izendatu beharrean, zenbaki batez identifikatzen hasi ziren.

“De advocación al apóstol Santiago, ya nos aparece demostrado que por Ermua pasaba un ramal secundario del Camino a Santiago (el de la costa).

En un principio pudo ser una ermita románica, ampliada posteriormente en época gótica como lo demuestra su retablo en piedra labrada característico de este estilo.

Fue agrandada y reconstruida el año 1602 siguiendo sus líneas góticas; los muros construidos en mampostería mientras que la torre adosada se hizo en sillar, esta torre estaba abierta mediante arcos ojivales; por otra parte la nave de la iglesia se hizo en bóveda de crucería.

El cardenal Orbe mandó realizar entre los años 1720 a 1740 una gran reforma de la iglesia, toda ella al estilo “churrigueresco”, predominante en esta época. Aumentó la altura terminando el campanario con una cúpula de este nuevo estilo, idéntica a la del palacio Marqués de Valdespina, colocó un monumental retablo casi todo de castaño americano, y también de estilo churrigueresco”. (ARREGI, I; CANO, J; FERNANDEZ, F (1988): “Ermuko historiako apunteak”, 50-51. orr).

“Monumento histórico-artístico. Construcción inicialmente gótica reconstruida en el período barroco (1602). No existen datos sobre sus características iniciales.

Iglesia esbelta y espaciosa de fábrica de piedra, con una sola nave (125x61 pies) cubierta por bóvedas nervadas.

En su interior cabe destacar el retablo del altar mayor, de estilo barroco-churrigueresco-presidido por el Apóstol Santiago. Del mismo estilo es la caja de órgano, obra del siglo XVIII. El coro -que alberga el órgano- esta soportado por una bóveda de nervios, y bajo él hay dos capillas, en una aparece el escudo de la familia Orbe, y en la otra está situado el sepulcro de mármol de Don Andrés de Orbe y Larrátegui, obispo de Barcelona, arzobispo de Valencia, Inquisidor General y Gobernador del Consejo del Reino, que precisamente fue quien financió las obras de la iglesia.

43. Elizari buruzko informazioa ugaría da:

BARRIO LOZA, J.A (1999): Udal Jauregia eta Santiago Eliza. Ermuko ondare monumentala. Ermuko Udala.

PINEDO (96): (226-228. orr.).

ZABALA (97): (44-45 eta 79-80. orr.).

ONAINDIA (73): 43.or (Agustin de Orbe eta Larreategiri buruz).

ONAINDIA (73): 51. or (Dorreaz eta barruko horniduraz).

ARREGI (88): “El papel de la iglesia en la Edad Media: La iglesia parroquial de Santiago” 38-40. orr.

BAHP.: JAA, 858. zk., 781. or. (Ezkilaren deskripzioa).


El campanario se levanta sobre un arco ojival y fue construido en 1.738 según el estilo churrigueresco. La Iglesia además es rica en reliquias, alhajas y otros ornamentos.

La fábrica de la Iglesia tiene en la actualidad una edificación añadida realizada en la mitad de este siglo destinada a escuelas y dependencias parroquiales que lesiona gravemente la potente imagen del templo". (UDALA: UDA-CAT 4.or).

Elizako arkupetan 1843 data grabaturik dago.



Jose Deuna (XVIII)



Ama Birjiña (XVI)

1960ko martxoaren 5ean elizari erantsirik kiosko bat inauguratu zen. Gaur egun kiosko hori ez dago, Santiago elizaren itxura zatartzen zuelako.

Ahozkoa: [elíſia]

- 009, 022 “Elisia”
- 009 “Santiago Apostol”

Idatzizkoa:

- 1372 Puerta de Santiago (ONAINDIA 71)
- 1513 iglesia de/ sennor Santiago de la villa de Hermua (FUENTES.: 46. zk., 207. or)
- 1626 iglesia de señor Santiago (BAHP.: JBG, 78. zk., 38. or)
- 1658 yglesia del Señor Santiago (BAHP.: PRG, 139. zk-A., 1. or)
- 1659 yglesia Parroquial de señor santiago desta villa (BAHP.: PRG, 139. zk-H., 47. or)
- 1731 iglesia del señor Santiago de la villa de hermua (BUA.: XXI-2-B5, 138, 16. or)
- 1731 Yglesia Parrochial del Señor Santiago de la V^a de hermua (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 33. or)
- 1747 Iglesia Parroquial de santiago Apóstol (ONAINDIA 73: 49.or)
- 1753 Yglesia Parroquial del Santiago Apostol de la Villa de Ermua (BAHP.: JAA, 856. zk., 1. or)
- 1753 Iglesia Parroquial del S^{or} Santiago Apostol de esta villa de Ermua (BAHP.: JAA, 856. zk., 862. or)
- 1777 el titulo de su Yglesia es de Santiago (MKK.I.: I, 92. or)
- 1791 Yglesia Parroquial del señor Santiago Apostol (BAHP.: JM, 399. zk., 377. or)
- 1814 Yglesia Parroquial de Santiago Apostol (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1825 Yglesia Parroquial del Apostol Señor Santiago de la Villa de Hermua (BEHA.: 9-271, Ezkontzak)
- 1867 Plazuela de la Iglesia (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 4., 4. zk.)
- 1994 Santiago apostol iglesia de (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

SANTIAGOPEKO ITURRIA

(Desagertua)

Kokapena: Barrenkale

OHARRAK:

“Hor San Antonioko esate dotzutenak, horrek baiñ zian alegriak eze San Antoniotik honaiñok etortzen zian ura hartzera. Santixapeko ura hartzera etortze zian. Da, esate eben “Uuuu!... guk ez dakau dirurik. Dirurik be ez dakau, ta ardautan be ez dou gatatzen, baiña, osasun ona dakau. Santixapeko ura erate dou, da gaixorik be ez jaku etortzen!”. Da, halan zan”. (Maria Bengoetxea).

(1910) “Dos unicas fuentes, de poco caudal, que por su especial situación, uno al pié del Campo Santo y otra junto á la Iglesia (lugar antiguo de enterramiento), no dan grandes seguridades acerca de la pureza de sus aguas, son los únicos medios que el vecindario

tiene para procurarse tan indispensable elemento de vida". (BFA.: Udal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 2., 3. zk.-bis).

Elizaren albo batean, Baldespina jauregiaren parean zegoen. Iturri zahar hau kendu eta elizaren atzealdean berria eraiki zuten, *Santiagopeko iturria* jartzen duena.



Santiagopeko iturri zaharra (1951)



Santiagopeko iturri berria (1998)

Abozkoa: [santíſapeko itúr iſa]

- 008, 022 “Santixapeko iturrixa”

Idatzizkoa:

- 1884 reparación de la fuente de Barrencalle (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 460)
- Santiago-peko iturria (0)

SEGUNDANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Artekale, 9. zk.

OHARRAK: *Herrero* eta Unamunoren etxearen artekoa. Aurrean Artekale eta Santiago elizako plazatxo. Atzean Orbe Kardinal Plaza. Beheko solairuan harategia bat dago.

Abozkoa: [segúndanekoa]

- 009, 022 “Segundanekoa”

SOLONAGUSIA

(*Desagertua*)

Kokapena: Txabisola

OHARRAK: *Iturralde (Malengo)* baserriaren inguruan.

Idatzizkoa:

- 1889 Solonausia, heredad (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 270, 372)
- 1845 Solonausia, heredad llamada (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 505)

SOLOLUZEA

(*Desagertua*)

Kokapena: Txabisola.

OHARRAK: *Iturralde (Malengo)* baserriaren inguruan. Gaur egun etxeak daude.

Idatzizkoa:

- 1889 Sololusia, heredad (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 270, 372)
- 1942 Sololuzia, heredad llamada (JE.: Liburu X, Tomo 332, Finka 497)

TERESA MURGA (*ikastetxea*)

(*Gaur egungo Udal liburutegia*)

Kokapena: Goienkale

OHARRAK: *Lomiñoko* jauregia eta *Kajeroneko* etxearen artekoa.

1958an, eraikitzen zihardutela, txiki geratzen ari zela konturatu eta hirugarren pisu bat egin zuten. Hala ere, urte gutxitan, Ermuak eduki zuen umeen kopuru handia zela eta txiki gelditu zen. Behar hori nolabait konpontzeko erdipurdiko konponbideak bilatu ziren, umeak herriko lokal txiki askotan barreatuz. Gaur egun, berriaz, arazo hau gainditu da.

“Más grave aún resulta el perfil cualitativo de los centros educacionales, de lo que puede afirmarse:

El único edificio arquitectónicamente pensado para funciones pedagógicas, Teresa Murga, que existía en 1971, insuficiente para albergar a la totalidad de la población escolar, se declaró en estado ruinoso, encontrándose actualmente en vías de reparación. Con el fin de paliar el problema suscitado se recurrió a la utilización de pabellones industriales por su condición de solución de emergencia, no reunían las condiciones mínimas necesarias para el fin docente.

- Concretamente, las localizadas en Ongaray, situadas en el bajo de un edificio de viviendas sin ventanas practicables al exterior, sin modo de ventilación directo, con aulas separadas mediante mamparas sin llegar hasta el techo con el consiguiente perjuicio de la independencia de cada clase y el correspondiente problema de ruidos, etc.

- Los edificios industriales de Areitio, por sus especiales características, sin calefacción suficiente, gran humedad, ambiente desagradable, y además el tremendo riesgo del tráfico por encontrarse en plena carretera general, que estuvo a punto de provocar desgracias fatales antes y durante la utilización del autobús como medio de transporte, unido a la distancia a recorrer. Es fácil imaginar la situación deficiente de las áreas de recreo, si se les puede llamar así.

- En similar situación, las escuelas localizadas en los bajos de viviendas de San Ignacio.

- En cuanto a la situadas en edificios antiguos, como son el Frontón, Correos y el edificio parroquial, pueden mejor acondicionadas, por estar más acordes con la función para la que se usan. Al ser locales antiguos de madera, el ambiente es más agradable y menos frío. Por lo demás, tienen otros problemas, ya que, aún así, no son idóneos para el fin con que se utilizan. Los lugares de esparcimiento de estos niños son plazas del pueblo, en su parte céntrica, que vienen a ser en realidad, los lugares de paseo y recreo posibles en toda la población”. ARRIOLA, M^a J... (1973): Ermua. Comunidad en eclipse. Deustuko Unibertsitatea (Lizentziaturako tesina, argitaratu gabea, 19-20. orr).



Ermua (1960)

Idatzizkoa:

- 1947 Lomiñocua, huerta en (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 528)
- 1958 nuevo grupo escolar (*El Correo Español* 58-VII-22)

TITIÑONEKOA (*etxea*)

Kokapena: Irulietza auzoa, 11. zk.

OHARRAK: *Ariñonekoa* eta *Matxintxikineko* etxeen artekoa. Bertakoaren gaitzizena zen. Ik. *Matxintxikiko* argazkia.

Ahozkoa: [titiñunekua]

- 022 “Titiñunekua”
- 009 “Titiñuanekua”

Idatzizkoa:

- 1930 Titiñua (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)

TORREKOA (*baserria*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Torrekoa, 2. zk.

OHARRAK: XVII. mendean Granada dukeak herriko bazter batean eraiki zuen. Atzealdean *Karabiaga*, goialdean *Txabisola* eta aurrean *Zubiaurre* kalea.

XIX. mende hasieran *Lobiano* izena ere hartzen zuen. Baina, herritarrek honi *Torrekoa* esaten zioten eta Peñafloresta kondeak egindakoari *Lomiñokoa* / *Lobiano*.

Ahozkoa: [tořékua]

- 022 “Torreko baserrira”
- 022, 028, 064, 066 “Torrekua”

Idatzizkoa:

- 1623 Torre de zubiaur, con la puerta que esta pegada a la torre (BAHP.: JBG, 77. zk., 92. or)
- 1799 Casa Torre, propietario Duque de Granada (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 637. or)
- 1810 Torrecoa, casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 447. or)
- 1814 Torre de Loviano, propia del Duque de Granada (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Torre de Loviano del Duque de Granada (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1873 Torrecoa, caseria (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 30)
- 1878 Torrecua (BFA.: Udal., 0011/004, 107. or)
- 1886 Torrecua (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1900 Torre-Lobiano, casa llamada (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 305)
- 1916 Torrecua, casa llamada (ESE. 9 Bat., 346. or)

- 1923 Torrecua, casa de (Esk. 010)
- 1962 Torrecua, casería (Esk. 010)

TORREKO ATXAK

Kokapena: Beranoerreka

OHARRAK: *Torreko* baserriaren parean. Arrantza egiteko leku ona zen. Ik. Diez, Raul (1997): *Ermua, arrantza paradisua 1952* in DROGETENITTURRI XXXIV, 2. or.

Ahozkoa: [tořékoačak]

- 022, 009 “Torreko atxak”
- 009 “Betiko potzua”

TORRETA (baserria)

(Gutziz berrituta, gaur egun Kultur etxea)

Kokapena: Kaltxango auzoa

OHARRAK: Santa Margarita konbentuko monjeena izandakoa. Aurrean *Kaltxango* etxea eta *Larrosianekoa*. Gainean *Torretaburu* eta inguruan *Torretalde*. Bidearen beste aldean *Arrako / Aldapabarrena* baserria.

“Construcción de pretensiones palaciales en estilo Reyes Católicos. Si bien es posterior a 1510, parece ser el edificio más antiguo de los conservados en la villa. Ubicada estratégicamente en la salida de Ermua hacia Areitio. Todavía hoy se mantiene en pie, aunque transformada por entero (en razón de su pésimo estado de conservación anterior, que ha imposibilitado una reforma más respetuosa con el modelo original”. (ZABALA 97: 43.or).



Torreta (1998)

“Se trata de una edificación medieval, cuya función sería el controlar el acceso a la villa por el oeste. Su fachada principal consta de tres niveles; el primero en el que destaca un arco de medio punto con dovelas y una inscripción en la dovela. En el segundo aparece una hilera de ventanas enmarcadas con piedra arenisca, el acceso a esta segunda planta se realiza a través de unas escaleras que bay en su lateral este, estos dos niveles están construido en sillar de cara rectangular y sillarejo. Por último la tercera planta que esta construida en ladrillo, rellenando una estructura de madera”. (ARREGI, I.; CANO, J.; FERNANDEZ, F. (1988): “Ermuko historiarako apunteak”, 49.or)⁴⁴.

Gaur egun gazteen etxea.



Torreta

Abozkoa: [toʁéta]

- 009, 022, 058, 062, 063, 066 “Torreta”
- 064 “Torretakua”

Idatzizkoa:

- 1658 “La tierra y castañal de torreta confinan por abaxo la tierra y heredad del comvento y por otro lado con monte Robledad del comvento y por el otro lado con el castañal de pedro abad de Uriortua y por arriba con el castañal de suso dho”. (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 154. or)

⁴⁴. Informazio gehiago nahi izanez gero ik.: TALDEA-DEIKER: *Bizkaia: Arqueología, urbanismo y arquitectura histórica*. Bizkaiko Foru Aldundia. Deustuko Unibertsitatea. (245-256. orr).

- 1789 casa nombrada de Torreta (BAHP.: JM, 398. zk., 16. or)
- 1799 Torreta, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 636. or)
- 1810 Torreta, casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 450. or)
- 1814 Loseta, torre de (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Loseta, de las monjas de Elorrio (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1866 casa Torrea (Esk. 065)
- 1889 Torretacoa, casa llamada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 263)
- 1893 Torreta (BFA.: Admin., Lur. Est. Karp. 10)
- 1925 Torreta (ESE.: 7 Hil., 173. or)
- 1953 Torreta, caserio (ESE.: 11 Bat., 240. or)
- 1962 Torrecua, caseria (Esk. 010)
- 1994 TORRETA, casa cultural (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

TORTEROANEKOA (etxea)

Kokapena: Izelaieta kalea, 10. zk.

OHARRAK: *Txindurrinekoa* eta *Bustintza / Palaziozarraren* artekoa. Jatorrizko izena ez da ezagutzen, *Torteroanekoa* jabearen sendiaren izengoitia da, aitona okina zen eta.

Ahozkoa: [tořtėruanekua]

- 008, 022, 064 “Torteroanekua”, “Urretanekua”
- 009, 028 “Urretanekua”



Torteroanekoa (1997)

TOTOANEKOA (*etxea*)

Kokapena: Irulietta, z.g.

OHARRAK: *Matxintxiki* tabernaren ostean dagoen txabola. Gaitzizena.

Ahozkoa: [totúanekua]

- 008, 009, 064 “Totuanekua”

Idatzizkoa:

- 1930 Totua (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)

TRAKE (*baserria*)

Kokapena: Goienkale, 10. zk.

OHARRAK: *Lomiñoko* jauregiari erantsitako baserria. Baserri hau Peñaflovida kondarena zen. Trake izena idatzizko dokumentazioan ez da askotan agertzen, *Lomiño* barruko beste etxebizitzat hartzen zelako.

“(…) Ezkerrekoak ataburuduna da, harlandu handiek mugatzen dabe eta ganean kitarra taxuko armarría eta horko laurdenetako baten “JHS MARIA” anagrama ageri dauz. Stover dalako eran laurdendua, lehengo laurdenean maskorraren ganean eutsita dagoan lisloredun gurutzea dago, bigarrenean eta hirugarrenean zortzi adardun izar bana eta laugarrenean gorago aipatu dogun anagrama azalera luzeko idaztorri baten”. (PINEDO 86: 237.or).



Trake (1997)

Eraikuntza honetan *Santa Margarita* konbentua egon zen, Lobianok 1594an Lekeitiotik ekarritako sei monjeekin sortua. Hala ere, leku hau segituan txiki gelditu eta 1600ean Barrenkalekora mudatu ziren. Ik. Konbentukoa⁴⁵.

Ahozkoa: [tʃáke], [tʃákenekuak]

- 009, 010, 016, 022, 036, 055, 060, 062, 063, 064, 066 “Trakenekua”
- 003, 064 “Trake”
- 008 “Trakeneko baserrixa”

Idatzizkoa:

- 1824 otra habitacion de Loviano (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1886 Trake (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1930 Traque (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)



Trake (1997)

TRENBIDEBURU (*soloa*)

Kokapena: Izelaieta kalea, 6. zk.

OHARRAK: *Kuartela* edo *Palaziozarra* osteko ortua.

Idatzizkoa:

- 1923 Trembideburu o Echeostia (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 406)

45. Ik. Rodríguez Condado, Eugenio (98): *El monasterio de Santa Ana de Elorrio*. Graficas Alustiza, S.L.Veritas.

TREN GELTOKIA

Kokapena: Irulietako auzoa

OHARRAK: Trenbidea 1886ean egin zuten. Nahiz eta gure nagusiek “estasiñua” esan, belaunaldi gazteek tren geltokia erabiltzen dute. Neu ere hori normalizatzearen aldekoa naiz.

“El plano del tendido a la altura de nuestro término municipal bien podría estar delatando un desvío intencional en función de determinados intereses”. (ZABALA, M: 118. or).

Abozkoa: [estásiñua]

- 009 “Ermuko estasiñua”
- 008, 010, 022, 025, 017 “Estasiñua”

Idatzitakoa:

- 1860 Camino hierro carril (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1869 Ferro-carril (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)
- 1931 Estación férrea de Ermua (BFA.: Udal., 0003/023)
- 1939 Caseta ferrocarril (BFA: Udal., 0002/003)
- 1959 nueva estación de ferrocarril (*El Correo Español* 59-IX-1)
- 1959 estación de los ferrocarriles vascongados (*El Correo Español* 59-IX-1)



Tren geltokia (1998)



Tren geltokia (1960)

*TXABISOLA (soloak)**Kokapena:* Ongarai

OHARRAK: *Txantxiku* ingurutik *Zerukorainokoa*. Goian, *Ongarai* baserria; behean, *Zubiaurre* kale amaiera eta *Urbibitarte*; aurrean, *Kareobiaga*.

Paraje honen barruan gaur egun desagerturik dauden *Txabisol* (Drogeten txaletaren azpikoa), *Errebalburu*, *Aldapazar*, *Bidegain*, *Iturralde*, *Ursolo*, *Iturritxondo*, *Solonagusia* eta *Sololuzea* sartu beharko genituzke.

Lehen herritik kanpo zegoen paraje honetan sagastiak eta soloak zeuden, eta bertatik Mallaerrotarako erretena pasatzen zen. Gaur egun, mendi aldeko toponimo askori gertatzen ari zaion bezalaxe herri barruan kokatu beharko genuke, 60-70. hamarkadan, alde honetan *VI Mendeurrena* kale berria eta *Santiago* etxeak sortu ziren eta.

Ahozkoa: [čabísola]

- 009, 066, 075 “Txabisolo”
- 009 “Txabisola”

Idatzizkoa:

- 1660 chabuxola (BAHP.: JRG, 140. zk. 1. zatia, 113. or)
- 1818 Chavisola ó Chavusola (BEHA.: 9A-199, Kapillautza)
- 1866 chavisisol (Esk. 065)
- 1873 Chivisol (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1873 Chavisola, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 78)
- 1894 Chabisolo, huerta, monte y manzanal (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Chavisola-alde, huerta (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)

- 1910 Chavisola, cauce llamado de (BFA.: Udal Erreg. 51., Leg. 2., 3. zk.-bis)
- 1911 Chavitzola (ESE.: 9 Bat., 162. or)
- 1922 Chavisola (ESE.: 10 Bat., 4. or)
- 1929 Chavisola, regata (ESE.: 10 Bat., 99. or)
- Chabiya (Jabego zedula)
- Chabiya-alde (Jabego zedula)

TXARAKO SOLOA

(*Desagertua*)

Kokapena: San Pelaio auzoa

OHARRAK: Zortzi pisuko etxeak egin zituzten.

Idatzizkoa:

- 1877 Characo-Soloa, heredad llamado (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 165, 174. or)
- 1878 Characosoloa, heredad llamada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 82)

TXIKURI (txosna)

Kokapena: Orbe Kardinal Enparantza

OHARRA: Herriko jaietan, Santixauetan *Orbe Kardinal* Plaza erdian jartzen zen txosna modukoa. Aurreko astean subastara ateratzen zen eta ondoen ordaintzen zuenak ipintzen zuen taberna hori martxan.



Lekeitioko dantzariak (1928)

Ahozkoa: [čikúri]

- 009, 022, 062 “Txikuri”

Idatzizkoa:

- 1958 Chicuri, la plazuela conocida por (*El Correo Español* 58-VII-24)
- 1959 Chicuri, bar denominado (*El Correo Español* 59-VI-18)

TXINDURRINEKOA (*etxea*)

Kokapena: Izelaieta kalea, 8. zk.

OHARRAK: *Kastotxuanekoa* eta *Torteroanekoaren* erdian dagoen etxea. Etxe honetako izen zaharra ez da ezagutzen. *Txindurrinekoa* Guillermo Bengoetxearen aititaren gaitzizena da, eta gatzitzen hau belaualdiz belaualdi heldu da gaur egunera arte⁴⁶.

“Txindurri jaunagan nik ikusi nuan gauzarik oargarriena, bere gogo-argitasuna, umore ona, izan da. Betikoa, gazte-gaztetatikoa omen du umoreko izate ori. Giltzapian, berak esan zidan “2 años, 8 meses y 28 días” egon zanian ere, ura omen zan danen pena ta naigabeak gozatzen zituana, lagunarte guztiko atabala. Ain gogo argikua izanik, beste gauza askoen artean kontularia da txit atsegiña. Buruz gogoratuko nitualakoan... baiña berari entzundako ipui-zar eta kontu-berri guztiak paperean artu ez dudalako damutan nago. Bertsotan ere egin zigun alako saiotxo bat; amaika bertso eder, txit alaiak batzuk, ukikor xamurrak beste batzuk, kanta zizkigun”. (JUARISTI, M (DUNDUZAR) (1958): 26-27. orr).



Txindurrinekoa (1997)

Ahozkoa: [čiṇdúrĩnekua]

- 009, 022, 029, 064 “Txindurri-ñekua”

TXOTXOLONEKOA (*etxea*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Konbentukoa

OHARRAK: 1932-33 inguruan eraikuntza hau bota zuten eta berrian *Caja de Ahorros* eta foralak jarri zituzten. Aldamenean, *Konbentukoa*; ezkerrean, *Otxu* baserria; eta, aurrean, *Osinerreka*.

Ahozkoa: [čočólonekua]

- 009 “Txotxolonekoa”

46. Ik ARANBERRI (86): (193-194. orr.).



Txotxolonekoa (1912)

UDALA (*etxea*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Zubiaurre, 7. zk.

OHARRAK: Hau ez da udaletxea. *Labakoa* eta *Polboraneko* etxeen artekoa, gaur egun *Aketegi* denda dago bertan. Gaur egun Zubiaurre kaleko etxea bada ere, XIX. mende amaierara arte *Artekale* barruan sailkatzen zuten.

Ahozkoa:

- 009 “Polborianekoa”
- 009 “Sabasena”

Idatzizkoa:

- 1810 Udala, Casa llamada (BFA.: Admin., Lur. Est., Erreg. 9, 447.or)
- 1825 Caserio Udala (GBA.: Polizia Errolda)
- 1873 Udala o Zubiaurre, casa llamada de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 21)
- 1873 Zubiaurre, casa llamada de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 64)
- 1873 Udala, caseria rustica titulada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 74)
- 1893 Udala, casa y tierras (BFA.: Admin., Lur Est., Karp. 10)

UDALETXEZARRA

(1981ean *desagertua*)

Kokapena: Orbe Kardinal Plaza

OHARRAK: Udaletxea zenbait lekutan izan dugu:



Udaletxea (1905)



Udaletxea

Udaletxea, 1400 inguruan altxatzeko erabakia hartu izan zenean, lehendabiziko udaletxe hori herriko lekurik nagusienaren parean eraiki zuten, *Santiago* elizaren aurrean hain zuzen, gaur egungo *Arkupezarrak* dauden lekuan.

(1637) “en la casa del consistorio de la villa de germua y debaxo della lugar acostumbrado de hacer Juntas yayuntamiento publico y abiertas”. (BAHP.: JBG, 82. zk., 335. or).

(1638 eta 1650) *“debaxo de la cassa del consistorio de la villa de germua”*. (BAHP.: JBG, 83. zk., 99. or) (BAHP.: JBG, 91. zk., 155. or).

(1659) *“Memoria de las condiciones conque sea de Reedificar la cassa del concejo desta Billa de hermua (...) Bentanas alapte de la ygl^a dos hacia artecalle y una a Barrenca- lle”*. (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 187. or).

“Ermuko Santiago plazeari joakonez, hiru solairu eta txapitulea dauken etxeak dira horkoak, beheko oinean erdi-puntuko sei arku dagoz, azokako karreapearen itxura emonaz zerbitzu hobetu ezeze plazaren beraren irudia be edertu egiten dabenak”. (PI- NEDO 86: 214.or).

(1793) *“casa consistorial antigua de ella, que existe en la proximidad de dha parro- quial”*. (BAHP.: JM, 400. zk., 1036. or).



Arkupezarrak (1998)

Konbentzio gerraren ostean, udaletxea zeharo birrinduta gelditu zen. Baina zegoeneko, frontoiaren aurrean udaletxe berria bazegoen (bigarren udaletxea).

(1763) *“casa nueva conzegil”*. (BAHP.: JAA, 861. zk., 199. or).

(1810) *“Esta villa tiene dos casas concegiles, la nueva y la vieja en aquella existen la Alondiga, el Peso Real público y la carniceria, no rinde renta y su valor reputan en cin- cuenta mil reales.*

La vieja sirbe para Escuela de niños por lo mismo no produce renta y su valor conside- ran en setenta mil reales”. (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 460.or).

Argazkietan duzuen *Udaletxea*, arestian aipatutako udaletxe berria izan zen, gaurko plazako bazter batean zegoen: eskumaldean *Pedromarineko etxea* eta *Erdiko zubia* zeuden; ezker aldean astokorta eta tailer bi; eta, atzealdean *Errekazabaleta* eta zubitxo bat *Zubiaurre* kalera pasatzeko.

“El actual edificio (desagertua) se situó como decíamos, en la Plaza cardenal Orbe y vino a cerrar por el lado del río, el espacio dejado vacío por la quema de las casas y convertido con el tiempo en Plaza, dejando que continuara por encima del río la calle Cardenal Orbe, hasta conexas con el camino de sirga, en el que se apoyaban a lo largo las distintas casa de aquel arrabal”. (TAU-75.or).

Gaur egun udaletxea Baldespina markesaren jauregian dago (hirugarren udaletxea)⁴⁷.

Ahozkoa: [událečia], [ayúntamjentua]

- 009, 010, 017, 028, 060, 066 “Ayuntamiento”
- 008, 022 “Udaletxia”
- 064 “Arkupiak ditxuena”
- 026 “Arkupesarrak”

Idatzizkoa:

- 1660 casa del concejo desta Billa (BAHP.: JRG, 140. zk. 1. zatia, 107. or)
- 1701 en la sala de las cassas conzexiles y de Aiuntam^{to} de la villa de Hermua (BUA.: XXI-2-A-07, 66. or)
- 1738 casa consistorial de esta villa de Hermua (BUA.: XXI-2-B-7, 117. or)
- 1756 sala del conzejo y Auintam^{to} de esta noble villa de Hermua (BAHP.: JAA, 858. zk., 443. or)
- 1763 cassa nueva conzegil (BAHP.: JAA, 861. zk., 199. or)
- 1793 casa consistorial antigua de ella, que existe en la proximidad de dha parroquial (BAHP.: JM, 400. zk., 1036. or)
- 1799 Casa Concegil nueva (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 629.or)
- 1814 Ayuntamiento (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4)
- 1825 Casa nueva concejil (GBA.: Polizia Errolda)
- 1833 Casa consistorial nueva (BFA.: 0010/002)
- 1833 Casa concegil nueva (BUA.: XXI-2-C-01, 68. or)
- 1854 Casa consistorial de la billa de Ermua (BFA.: 0006/005)
- 1873 Concejo viejo, obras de la tienda del (BFA.: Udal., 0010/003)
- 1878 hospital provisional establecido en esta villa en el año de 1876 (BFA.: Udal., 0011/004, 65. or)
- 1895 Concejo viejo (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 462)
- 1903 Casa nº 1 de Artecalle de esta villa con destino del S^{to} Hospital de la misma (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1078 Kutxa, Erreg. 01078/07)
- 1907 arcos del edificio de Artecalle (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Erreg. 465)
- 1909 Arcos del concejo viejo (BFA.: Udal., 004/025)

47. Udaletxea bota eta jauregia txukundu arte antzinako eskolatan (plazan) egon zen garai batez.

- 1928 Portal de la casa consistorial vieja (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1083 Kutxa),
- 1928 casa nº 1 de la calle Alfonso XIII con destino al Santo Hospital de la misma (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1083 Kutxa)
- 1928 portal de la casa consistorial vieja (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., Karp. 1078 /08)
- 1945 Casa Consistorial (ESE.: 7 Hil., 393.or)
- 1960 arcos de la calle de los martires (*El Correo Español* 60-XI-2)

UNDAKOA (*etxea*)

Kokapena: Goienkale, 8. zk. (Gaurko Orbe Kardinal Plaza)

OHARRAK: Ezkerrean *Zapatarikoa* eta eskuman *Infreñuko* etxea. Muxikan izen bereko auzo bat dago. 1996an etxea bota eta etxe berria egin zuten. Gaur egun, *Eukene* belar-denda dago.

Ahozkoa:

- 009 “Ariñenekuak, Joxeandi eta kortak”

Idatzizkoa:

- 1799 Casa de Undacoa (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 5, 629.or)
- 1810 Casa llamada Undacoa (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 448.or)
- 1814 Unda (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1815 Undacoa, casa conocida con el nombre (BEHA.: Hilak, 71)
- 1824 Unda (BFA.: Est. I, Lur. Est., Erreg. 5)
- 1878 Undacoa, casa urbana llamada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 111)
- 1923 Undacoa, casa llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 111)
- 1959 Undacoa, casa (JE.: Liburu XIV, Tomo 418, Finka 765)

URETABARREN (*etxea*)

Kokapena: San Pelaio

OHARRAK: 1940.ean inguruan egindakoa. *Eguzkialde* izena ere hartzen zuen. Uretabarrena, bertakoaren gaitzizena zen.



Uretabarren (1998)

URBITARTE (*baserria*)*(Desagertua)**Kokapena:* Patakonia kalea, 32. zk.

OHARRAK: *Kanterazarra* aurrean. Leku honek zenbait izen ezagutu du historian zehar: *Urbibitarte*, *Patakonia*; eta *Purgatorioa*. Izen hauen nondik norakoa Antonio Izagirrek ederto azaltzen digu:

“Da gero, nik bost urte nekazela ein juen Patakonia oin esate akona da abadiak ipini otzan, eibartar abadiak, Don Ezekiel Etxeberriak, Urbi-bitarte behetik errekoa da goitxik Matxinen errotarako erretena, Urbi-bitarte ederto ipinitxako izena”. (Antonio Izagirre).

Urbibitarte izenak soloak, etxea eta paraje guztia izendatzeko balio du.

“Da gero etorri zuan Patakon, Patakonian eondakua, Amerikan, bera Zumaixakua uste juat zala, Errekalden bizi zuan hori. Errekaldetik horra etorri zuan, da horra etorri zanian ba... Patakonia ez dakitx zer, Patakonia badakitx zer... Patakoniako gauzak esaten, Patakon ipini otzen izena. Herri guztiondako Patakonia”. (Antonio Izagirre).

Hirugarren izena, ordea, *Purgatorio* askoz berriagoa da.

“Gero beste okurrentzia emo otzan baten bateri Purgatorixua. Zelan Santukua da Inpreñunekua bazen, ba... Purgatorixua”. (Antonio Izagirre).



Urbitarre baserria

Baserri honetan taberna bat zegoen. Baserria desagertu zenean kale berriak hartu zuen izen hori.

Ahozkoa:[úřbičar̄te], [patákonía], [puřgátorišo]

- 009 “Urbixarte baserrixa”
- 009, 017 “Urbixarte”
- 009, 017, 022 “Pugatorixua”
- 009, 017, 031, 022 “Patakonia”
- 022 “Patagonia”
- 036 “Purgatorixo”

Idatzizkoa:

- 1886 Urbitarte (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1920 Urbitarte (ESE.: 7 Hil., 124.or)
- 1930 Urbitarte (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)
- 1931 Ur-bitarte (ESE.: 8 Bat.,128.or)
- 1931 Urvitarte, frente a la de chavisola (ESE.: 10 Bat., 115.or)
- 1934 Urbitarte, casa (ESE.: 10 Bat., 115.or)
- 1949 Patagonia, casa (ESE.: 7 Hil., 437.or)
- 1950 Patagonia, casa (ESE.: 11 Bat., 169.or)
- 1994 Patakonia, travesía (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

URIZAR (*etxea*)

Kokapena: Urkitza

*OHARRAK:*1940ean eraiki zen. Aurrean *Ego* erreka eta *Errotabarri*; atzean trenbidea eta *Txabolondo* (*Pagadieta*); gorago *San Antonio* eta beheerago *Zubibarriaga*.

Ahozkoa: [urířar̄]

- 003, 034, 066 “Urizar”

Idatzizkoa:

- 1940 Villa Urizar (O)
- 1948 Villa Urizar (ESE.: 11 Bat., 90.or)



Urizar (1998)

URKITZA (*parajea*)*(Desagertua)**Kokapena:* Urkitza

OHARRAK: Goian *Otaerre*; behean *Ego* ibaia. *Urkitza* San Antoniotik Sallabenterainokoa izendatzeko XVIII. mendean erabiltzen zen izena da. Geroago, paraje honetan zenbait eraikuntza egin ziren. Bata, zubi berria. Oso zubi ederra. Diotenez, harri bakar batez, alde batetik bestera pasatzeko egina zegoen, orduan *Zubibariaga* izena erabiltzen hasi zen. Bertan altxatu zuten errotak *Urkitza* izena bazuen ere, herritarren artean *Errotabarri* laster zabaldu zen. Honegatik guztiagatik jatorrizko izena gaur egungo ermuarrok ez dugu ezagutzen.

Idatzizkoa:

- 1873 Urquiza, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 74)
- 1877 Urquizu, termino de, cerca de la casa llamada San Antonio (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 77)
- 1878 Urquiza, termino de, cerca de la ermita de San Sebastian (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 139)
- 1882 Urquiza, heredad titulada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 177)
- 1889 Urquiza o Zubibariaga, monte robledal llamado (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 285)
- 1947 Urquiza, heredad llamada (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 527)

URKITZA / ERROTABARRI (*errotia*)*Kokapena:* Urkitza

OHARRAK: Gaur egungo *Errotabarri* geltokitxoan dagoen lekutik baino beherago, erreka ondoan. Gerra aurretik, 1926.ean, *Mallaerrotia* apurtuta egon zen eta sasoi batean errota honek gau eta egunez egiten zuen beharra.



Errotabarri (1937)

Gerra garaian, 1937ko apirilaren 25eko bonbardaketak betiko apurtu zuen, bertan pertsona bat hilik suertatuz.

Idatzizko dokumentazio zaharrean baserri hau *Sallabente* barruan sailkatzten zuten.

Ahozkoa: [eř ótabaři]

- 001, 008, 009, 012, 017, 025, 022, 036, 053, 062, 063, 064, 066 “Errotabarri”
- 021, 054 “Errotabarrixa”
- 012, 059, 066 “Sargentuana”
- 022 “Sargentuanekua”
- 036, 054 “Sargentua”

Idatzizkoa:

- 1701 Urquija, Molino de (BEHA.: 9-271, Hilak)
- 1733 Urquiza, rio y presa del molino de (BUA.: XXI-2-B-5, 169-b)
- 1873 Urquizu, casa rustica Molino nuevo titulado de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 2)
- 1873 Urquizu, molino arinero recién construido en el termino de Urquizu (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 2)
- 1886 Molino nuevo (BEHA.: 9-271, Matrikula)
- 1893 Errota-barri (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Zubibarriaga, molino (BFA.: Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Casa molino nuevo (ESE.: 8 Bat., 177. or)
- 1913 Errotabarri (ESE.: 9 Bat., 218. or)
- 1923 Errotabarri (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 422)
- 1926 Errota-barri (BFA.: Udal., 0012/001)
- 1940 Errotabarri (ESE.: 10 Bat., 210. or)
- 1994 Errotabarri, apeadero (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

URKOSOLO

(*Desagertua*)

Kokapena: Santiago etxe multzoa.

OHARRAK: 1950. hamarkada amaierako hazkundeari aurre egiteko solo honetan *Santiago* etxeak altxatu zituzten. Ik. Industria Guipuzkoana de la cuenca del rio Deva (243. or)

Ahozkoa:

- 001 “Santiago”

Idatzizkoa:

- 1907 Terreno Ojimbaltz conocido con el nombre de Urcosolo (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 387)
- 1923 Urcosolo o Ymiñaerreca, heredad llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 406)
- 1956 Grupo Santiago (ESE.: 8 Hil., 147.or)

URSOLO

Kokapena: San Pelaio

OHARRAK: *Etxarteneko* tailerra eta *Urteaga* errekaaren kontran.

Ahozkoa: [uřsóló]

- 009, 036, 061 “Úrsólo”

Idatzizkoa:

- 1873 Ursolo, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 73)
- 1889 Ursolo, huerta nombrada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 276)
- 1945 “Ursolo” (Esk. 036)
- 1959 Ursolo (JE.: Liburu XIV, Tomo 418, Finka 819)



San Pelaiotik Kaltxango auzoa ikusten da, *Ursolo* argazkiaren eskumaldea zen

URSOLO ortua

(*Desagertua*)

Kokapena: Txabisola (Zubiaurre)

OHARRAK: *Malengo* errota zegoen lekua.

Idatzizkoa:

- 1929 Ursolo huerta titulada (JE.: Liburu VII, Tomo 226, Finka 367)

ZAPATARIKOA

Kokapena: Goienkale, 7. zk. (Gaur egungo Orbe Kardinal Plaza)

OHARRAK: *Arribakoa* eta *Undako* etxeen artekoa.

Abozkoa:

- 064 “Panaderuanekua”
- 009 “Arregi, Kristo, Akabatzailea, Panaderixia”

Idatzizkoa:

- 1878 Zapataricoa, casa urbana llamada de (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 97)
- 1878 Zapataricoa, casa llamada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 111)
- 1923 Zapataricoa, casa llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 97)
- 1959 Zapataricoa, casa hoy llamada (JE.: Liburu XIV, Tomo 418, Finka 765)

ZEARBURU (*soloak*)*Kokapena:* Zearra*OHARRAK:* *Monroe* enpresa egon zen lekua.XIX. mendean hor pagoak, haritzak eta urkiak zeuden. Ik. *Zearra* eta *Ormabarri*.*Abozkoa:* [síar̃buru]

- 063 “Siarraburu”
- 059, 063 “Searburu”

Idatzizkoa:

- 1873 Cearburu (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 16)
- 1878 Ciarraburu, termino de (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 87)
- 1882 Ciarraburu, término de (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 204)
- 1891 ciarraburu (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 5)
- 1831 Ciarraburu (BEHA.: 9A-199, Urteburuko mezak)
- 1889 Ormabarriaburu, termino (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 263)
- 1900 Cearraburu, monte castañal, hayal y robledal (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 339)
- 1947 Ciarraburu, termino de (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 521)

ZEARKALE / ZEARREKO KAMIÑOPEA (*soloak*)*OHARRAK:* 1960-70 hamarkadan *Kaltxangotik San Pelaiorantz* kale berri hau sortu zen. Gerra ostean *Avenida del 26 de abril* izena jarri bazitzaion ere, 1979an jatorrizko izena berreskuratu zuen.*Abozkoa:* [síar̃kale]

- 009 “Siarkale”

Idatzizkoa:

- 1878 Ciarrecocaminopea, heredad llamada (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 107)
 - 1878 Ciarreco-camino-pia (JE.: Liburu II, Tomo 45, Finka 107)
 - 1953 Avenida del 26 de Abril, calle (ESE.: 11 Bat., 254. or)
- Zeharkalea (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)

ZEARRA (*soloak*)*Kokapena:* Udaeta

OHARRAK: *Zearra*, XX. mende amaieran herriak jan duen esparrua da. Bertan industria gunea eta *Zearkale* sortu ziren. Lehen, honen barruan *Zearreko buelta*, *Zearburu*, *Zearrapea*, *Zearreko kamiñopea* eta *Zearreko* soloak.

(1637) “*el mancanal en el término de cearra que confina por un lado el mancanal de don Pedro de mallea y por la otra la heredad de la cassa de ateguren y por arriba el camino Real y por abajo el Rio caudal*”. (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 60. or).

Zearreko buelta pasealeku ezaguna izan da, pasiuari hortik *Areitioraino* jotzen zelako. Ostera honen berri Ermuko kanta zahar batean jaso da:

“Guazen guztiok,	Atso guztiak
guazen guztiok	urtengo dabe
Ziarreko bueltan behera.	bentanetatik
Kanta kantari	kanpora.
sartuko gera,	Esango dabe
Ermuko ziudadera.	hamen datozak
Kanta kantari	Ermuko gazte
sartuko gera,	zorua!
Ermuko ziudadera.	

Kanta kantari
sartuko gera
Ziarreko bueltan behera.
Kanta kantari
sartuko gera
Ermuko ziudadera.
Kanta kantari
sartuko gera,
Ermuko ziudadera”.

(Emilio Areitio)



Zearra

Abozkoa: [síã̃a], [síã̃ekoɓwél̃ta]

- 003, 009, 059 “Siarreko bueltia”
- 008, 017, 022, 032, 066 “Siarreko buelta”
- 022, 032, 066 “Siarra”
- 010 “Siarria”

Idatzizkoa:

- 1637 mancanal de cearra (BAHP.: JBG, 82. zk., 357. or)
- 1638 La tierra y manzanal de cearra que alinda con la geredad de Lasalde por un lado y por la otra con la del licen^{do} carate ycem^e (sic) de arex-mendi” (BAHP.: JBG, 223. zk., 8. or)
- 1660 el mancanal de cearra que confina Por una parte con el mancanal de francisco de Luzarraga y por abajo el Rio caudal y por arriba el camino Real” (BAHP.: JRG, 140. zk. 2. zatia, 41. or)
- 1733 Zearra (BUA.: XXI-2-B-5, 169-B)
- 1831 Ciarra (BEHA.: 9A-199, Urteburuko mezak)
- 1866 Cearra (Esk. 065)
- 1873 Cearra, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 50)
- 1882 Searra, término de (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 201)
- 1923 Ciarra, robledal y castañoal llamado (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 405)
- 1929 heredad nombrada Siarra- segun el Registro su nombre es Sierra- (JE.: Liburu IX, Tomo 293, Finka 465)
- 1947 Ciarra, termino de (JE.: Liburu XI, Tomo 356, Finka 521)
- 1958 Ziarreko buelta (*El Correo Español* 58-VII-6)
- 1994 Siarreko (UDALA: Planoa eta kale-izendegia)



Zearreko buelta (1959)

ZEARRAPEA (*soloak*)

Kokapena: Zearra

OHARRAK: Zearra azpikoa.

Idatzizkoa:

- 1889 Ciarrapia, heredad (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 263)
- 1889 Cierrafria, heredad llamada (JE.: Liburu V, Tomo 156, Finka 285)
- 1894 Sierrafria, heredad (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1900 Cearra o Cearrapia, termino de (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 331)

ZEARREKO SOLOA / ORMABARRIPEA

(*Desagertua*)

Kokapena: Zearkale

OHARRAK: Gaur egun *Bideo 1989* denda dago paraje honetan. Gerra aurretik Mallabirako burdin bidea hortik pasatzen zen. Gerra ostean N-634 errepide berria egin zuten eta paraje hau erdibitu egin zuen. Ondoa, *Zearsoloa* (*Zearrekoa*) eta *Etxarte* etxea. Ik. *Zearra* eta *Ormabarri*.

Ahozkoa: [séãfekua]

- 059 “Searra”
- 059 “Searrekua”, “Searsolua”

Idatzizkoa:

- 1873 Cearrecoa, heredad nombrada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 72)
- 1882 Siarracosoloa, heredad nombrada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 175)
- 1900 Ciarrecosoroa ú Ormabarripea (JE.: Liburu VI, Tomo 191, Finka 305)
- 1923 Ciarrecosoroa ú Ormabarripea, heredad llamada (JE.: Liburu VIII, Tomo 269, Finka 411)

ZERKA / KANTABRIA *kalea*

Kokapena: Kantabria kalea

OHARRAK:

“*Kantabria*” pelotaria jaio aurretik *Goienkale* eta *Karabixaren* artean zegoen aldeari *Zerka* esaten zioten, bertan zerka zegoen eta.

(1372) “*Otro si ningund home que embarge a otro en su casa contra su voluntad peche al dueño de la casa ochenta maravedis de los buenos, é ningund home sacare cuchillo uno contra otro que peche trescientos maravedis, los cien a los jurados é al Escribano, é los cien al querrelloso, é los cien para la obra de la cerca de la dicha villa*”. (ONAIN-DIA 71: Herriko Sorrerako Baieztapen Gutuna, 12. or).

“*Hemen be beste uribildu batzuetan ageri diran hesi-mota bi egozala pensa geinkean: orma garbia, beharbada erronda-leku bategaz osotuta, eta etxetako “ormek” euren osotzen eben orma, mota biotarikoak izanik uribilduaren inguraldea osotzen ebenak bildutako gunea horretara ixiaz*”. (PINEDO: 39.or).

“Nada más conocemos anterior a la fundación de la villa. Esta ordenada su caserío según un sencillo plano de bastida, el tradicional en las ciudades góticas: dos cortas calles paralelas (marqués de Valdespina y Erdikokalea) que eran atravesadas ortogonalmente por un cantón (plazuela de Santiago). La nueva puebla se dispuso sobre el camino que conducía a Guipúzcoa, que se convirtió en su calle principal (Marques de Valdespina), condicionando posteriormente el crecimiento de las demás.

Este casco se hallaba encerrado dentro de un perímetro murado en el que se abrirían cuatro puertas -a fines del XVIII aún se conservaban las dos del lado occidental-. El río, como en tantos otros casos, cumplía la función de foso natural al Sur de la población”. (TALDEA.: Bizkaia: Arqueología, urbanismo y arquitectura histórica. Bizkaiko Foru Aldundia. Deustuko Unibertsitatea-Deiker.

Zerka hau errekan hasi eta *Santuko / Zerkaburu* baserriraino luzatzen zen Leku honetan iturritxo bat zegoen, *Zerkako iturria* izena hartzen zuena. Oraindik ere, bertako jabeek etxeosteari *Zerkaldea* esaten diote, nahiz eta Kantabria izen ofiziala izan.

Bernardo Garate “Kantabria”

“Los pasos menudos de Bernardo Garate hacen el trayecto de Ermua a Eibar en un tiempo apenas sospechable en hombre de su edad. También en sus buenos años de campeón de pelota, su desmañada manera de ser imponía en las gentes, una sensación de torpeza inexistentes, ya que alcanzaba pelotas difíciles con real agilidad y lograba juegos que cantaban su destreza y flexibilidad.

(...) A los catorce años rompióse su muñeca izquierda ensayando en el frontón de su pueblo, Ermua. Todavía hoy se nota el enorme handicap que esto habrá supuesto para “Cantabria” en el desarrollo de las competiciones. Está su mano ladeada y una protuberancia bien visible señala el defecto.

Sin embargo, a los 26 años fue campeón de mano, un día de enero. Fechas: en la festividad de la Candelaria conquistó el título de campeón a pala. El de mano lo retuvo durante seis años, hasta que se lo arrebató aquel elegante Valentín Castellanos (“Zapaterito”), de quien lo adquirió “Mondragonés”. El de pala quedó para el famoso “Begoñés”.

(...) Su poder como pelotari fue notable, además de su arte. Ciertas fiestas jugó un partido matinal contra dos pelotaris eibarreses en el frontón de Ondarroa, ganándolo. Había anunciados para la tarde otros pelotaris, que no llegaron a la villa de los pescadores por algo fortuito. El señor alcalde dijo que, para no quedar sin partido, se repetiría el de la mañana. “Cantabria” se oponía, alegando justas razones de estado físico y otras. Más las del alcalde triunfaron, y se jugó el partido. Apoyados en lo que había aducido nuestro hombre, los apostantes daban momio contra él. Hizo unos tantos, y aun así no se le cantaban favorito, ni mucho menos, sino al revés. Indignado de ello, puso en las jugadas cuanto era, y ganó el partido holgadamente, claro está que con natural indignación de quienes se habían engañado a sí mismos”. (ISASI in “La voz de España” 1955-V-26, 2. or).

*“Desde siempre se ha conocido en Ermua la afición a la pelota, habiendo sido cuna de pelotaris famosos formados en su frontón o en los de las localidades vecinas; entre los que parece obligado recordar el nombre de Bernardo Gárate “Cantabria”, campeón mundial de mano hasta 1910”. AITONA (75): “Hijos ilustres de Ermua” in *Ermuko Jai egitaraua*. Santixauak-75.*

“Intxaurra nuez,
 Ermuan Bernardo juez.
 Mas alla de Kantabria,
 esta la Patagonia.
 Intxaurra nuez,
 Ermuan Bernardo juez,
 nahi dabenak sinistu ta
 nahi ez dabenak ez”. (Emilio Areitio)



Abozkoa: [séɾkia], [séɾkako it̪uɾiʃa]

- 009, 060, 075, “Serkia”
- 009, 075 “Serkako iturririxia”

Idatzikoa:

- 1553 Cercaburu (BEHA.: 9-270, Bataioen liburua I)
- 1704 Zercaburu, la casa de (IRIGOIEN 92)
- 1796 Cercaburu, la casa titulada (IRIGOIEN 92)
- 1799 Zercaburu, la casa de (IRIGOIEN 92)
- 1825 Cercaburu (GBA.: Polizia Errolda)
- 1866 Cercaburu, casa de (BFA.: Udal., 0006/005)

ZERKABURU / SANTUKOA (*dorretxea*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Goienkale kalea, 12. zk.

OHARRAK: Dorretxe honi *Zerkaburu* esaten zioten, herria inguratzen zuen zerkaren gainaldean zegoelako. Antonio Izagirikre kontatu zidan *Santuko* izen berriaren nondik norakoa:

“Markesana zuan ba... ta izena ekan Estartaburu. Ta eoten zitxuan han Barixaku Santu egunian ataratzan zian santuok. Eoten zitxuan urte guztian ganbaran, zelan ganbara haundixa ekan. Santuak euazelako baten bati Santukua. Gero Santukua hartu juen zeru moruan da Inpreñunekua zuan Plazagüena, hareri Inpreñu ipini otzen gero. Txistoso eon ditxuk asko. Da gero, nik bost urte nekazela ein juen Patakonía oin esate akona da abadiak ipini otzan, eibartar abadiak, Don Ezekiel Etxeberriak, Urbi-bitarte behetik errekoa da goitxik Matxinen errotarako erretena, Urbi-bitxarte ederto ipinitxako izena. Bastante segidu juan. Gero beste okurrentzia emotzan baten bateri Purgatorixua. Zelan Santukua da Inpreñunekua bazen, ba... Purgatorixua”. (Antonio Izagirre).

Etxekoek azpiko ortuari *Beko ortua* esaten zioten eta baserriaren gainaldeari, goiko soloci *Etxaburu*. Eskriturretan *Zerkaburu* agertzen da. Baldespina markesarena zen, ordura arte errentero izan zirenek 1923an baserria hau erosi zuten.

XX. mendearen erdialdean dorretxe honi erantsirik etxe bat eraiki zuten, *Santuko etxea* esaten ziotena.

XX. mende amaieran, herriaren hazkunde izugarria zela eta baserri hau bota eta bere inguruan gaurko Santa Ana, San Isidro eta San Roke kaleak eraiki zituzten.

Baserria bota zutenean jabeek, *Martxatondon* txaleta egin zuten eta gaur egun honi *Santuko* ere esaten diote.



Zerkaburu / Santukoa

Ahozkoa: [sántúko], [estártaburu]

- 009, 010, 017, 036, 012, 059 “Santuko”
- 022, 060, 062, 063, 064, 066 “Santukua”
- 031 “Santuko estarta”
- 017 “Estartaburu”

Idatzizkoa:

- 1553 Cercaburu (BEHA.: 9-270, Bataioen liburua)
- 1623 Cercaburu, casa de (BAHP.: JBG, 77. zk., 92. or)
- 1660 cerca Buru (BAHP.: JRG, 140. zk. 2. zatia, 180. or)
- 1799 Cercaburu, Casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 4, 636. or)
- 1799 cerca buru (BAHP.: JM, 404. zk., 333. or)
- 1810 Zercaburu, casa de (BFA.: Admin., Propioak eta arielak, Erreg. 9, 452. or)
- 1814 Cercaburu (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4)
- 1824 Cercaburu (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 5)
- 1825 Cercaburu (GBA.: Polizia Errolda)
- 1831 Santucua (BEHA.: 9A-199, Urteburuko mezak)
- 1866 Cercaburu, casa de (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1867 Santucoa, Casa de (BFA.: Edal Erreg., Udal Konpo., Erreg. 51., Leg. 4., 4. zk.)
- 1873 Santucoa, casa rustica titulada (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 29)
- 1873 Cercaburu, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 50)
- 1893 Cercaburu (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Cerca-buru (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1923 Santucoa (Esk. 010)
- 1925 Santukua, caserío (ESE.: 10 Bat., 42. or)
- 1930 Santukua (BEHA.: 9A-715, Paper solteak)
- 1962 Santucoa (Esk. 010)

ZERKABURU (*soloak*)*Kokapena:* Santa Ana*OHARRAK:* *Santuko* baserriaren *Etxaburua*. Gorago *Martxatondo*. Gaur egungo *Santa Ana*.*Ahozkoa:* [ečáburu]

- 036, 061 “Etxaburu”

Idatzizkoa:

- 1747 Monte de Cercaburu (BEHA.: 9A-199, Kapillautza)
- 1882 Cercaburu, heredad denominada (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 177)
- 1945 Cercaburu (Esk. 036)

ZERUKOA (*etxea*)*(Desagertua)**Kokapena:* Txabisola*OHARRAK:* Gerra ostean, eibartar batek egindako etxea. Ermuan bazeuden *Santuko*, *Infreñu* eta *Purgatorio*, hori dela eta berak *Zerukoa* ipini zion etxe berriari. Gaur egun, kaleak hartu du izena. Gerra zibilaren ostean *Santiago Alto* esaten zioten, 1979ko Udal plenoak izen egokia onartu arte.

Ahozkoa: [serúkua]

- 009, 022, 036, 066 “Serukua”

Idatzizkoa:

- 1946 Zerukua, caserio (ESE.: 7 Hil., 402.or)

ZESTEROSOLO

(Desagertua)

Kokapena: Ongarai

OHARRAK: Gaur egungo *Anaitasuna* ikastola dagoen lekua. Ik. Anaitasuna.

Ahozkoa: [šeštérušolo]

- 010 “Sesterusolo”

ZINEMA

Kokapena: Irulietza auzoa

OHARRAK: Elizakoa da. Gaur egun Musika elkarteak bere egoitza hor du.

Ahozkoa: [šinéma]

Idatzizkoa:

- 1958 cinema Ermua (*El Correo Español*, 58-I-16, 2. or)



Zinema

ZUBIAURRE (*kalea*)

OHARRAK: Ermua herria *Beranoerreka*, *Urteagaerreka* eta *Santiago* elizaren inguruan sortu zen. Erreka bestaldean soloak zeuden eta han hemenka baserri batzuk eta *Mallaerrota*. Hortik herri barrura pasatzeko zubiak egin eta etxeak altxatzen hasi ziren, Zubiaurreko etxeak, alegia.

“Tenemos en Izelaieta un total predominio de armeros, en Zubiaurre también son mayoría los que se dedican a esta actividad en su zona más céntrica, mientras que los labradores ocupan los caseríos perteneciente a esta calle y que se localizan en zonas alejadas del centro (casco urbano)”. (ARREGI, I.; CANO, J.; FERNANDEZ, F. (1988): “Ermuko historiako apunteak”, or).

Zubiaurre atzean *Txabisola* dago; aurrealdean *Beranoerreka* eta herriko hiru kale nagusiak *Barrenkale*, *Artekale* eta *Goienkale*; beheko aldean *Probaleku* kalea; eta goikoan *Kareobiaga*. Hor amaitzen zen *Zubiaurre*. *Urbirtarte* eta ondorengo eraikuntzak sorkuntza berriagokoak dira. 1886an herritik kanpo gelditzen ziren zenbait baserri *Zubiaurre* barruan sailkatzen zituzten: *Telleria*, *Joxio*, *Udaeta*, *Kapatazan etxea* (Eitzaga), *Betiondo*, *Ongarai*, *Kaltxango*, *Torreta*, *Sabon*, *Arrako*, *Orozko*, *Mallaerrota*... XX. mende amaieran baserri horiek desagertu eta euren izena bertan sortu ziren auzo berriei eman zieten (*Kaltxango*, *Errebalburu*, *Ongarai*... e.a).

Kale bera ondoko etxe hauek osatzen zuten: behetik gora hasita, *Labako baserria*, *Udala*, *Ezkerra*, *Berriztxikia*, *San Ildefonso*, *Abeletxenekoa*, *Txantxiku* eta *Torrekoa* (honen aurrean *Torreko atxak*).

XX. mende hasieran, ordea, etxe berriekin batera *Zubiaurre* luzatu zen eta *Ibargain*, *Arrarte* eta *Etxeaundia* zerrendatu beharko genituzke *Beranoerreka*ren ezkerrean; eskumaldean, berriz, behetik gora hasita *Udaletxezarra*, *AGI*, *Pedromarianekoa*, *Atxaneko tailerra*, *Kantabrianeko etxea*, *Kantabrianeko tailerra*.. Leku-izen hauek ikusten duzuen bezala gehienetan jabearen izen, abizen edo gaitzizenetik eratorriak dira, beraz oso-oso berriak.



Zubiaurre (1951)

1920ean Foru Aldundiak *Ermua-Arangizgana (Trabakua)* bidea egitea agindu zuenean *Beranoerreka* porlanez tapatu zuten.

Gerra ostean *Ignazio Olañeta kalea* hartu zuen izena. 1979an, ordea, *Zubiauurre* izena berreskuratu zuen.

Ezkerrean (hurbilenetik urrunenera): *Kantabrianekoa, Pedromarianeko tailerra, AGI, Udaletxea*

Eskuman: *Etxeaundia, Arrarte, Ibagain* (Ibarrola), *Torrekoa* (Ibargainen atzean), *Errementariak* (goian Okariz, erdian Lasarte, behean Lasarte); San Ildefonso; *Zapateroa* (Yomi); *Ezkerranekoa; Udala*; azkena *Labako baserria*.

Abozkoa: [subíau̯ɾe]

- 1873 Zubibarriburu, monte llamado (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 77)
- 1873 Zubibarriagaburu, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 50)
- 1877 Zubibarria, monte titulado (JE.: Liburu III, Tomo 75, Finka 147)
- 1882 Zubibarriaga-buru ó Zubibarriaga, monte denominado (JE.: Liburu IV, Tomo 113, Finka 176)
- 1971 Zubibarriburu, monte (JE.: Liburu XV, Tomo 433, Finka 839)



X
EITZAGAKO LEKU-IZENAK

Egoarbitza, Okillo eta Udaeta mendien magalean Aixolaerreka eta Beko erreka elkartzen dira. Gune lau honetan Eitzagako lehendabiziko baserriak altxatu ziren. Soloak, basoak eta Aixolaerrekak ematen zuen urari esker, Eitzabarrenengoa, Bizinai, Telleriazarra, Barrenazarra, Abeletxe eta urruntxoago dagoen Olaetxe sagardotegiak aurrera egin zuten.

Areitio gaina zeharkatzeko Sallabentetik Pagazubiaga bide zaharra, Eitzagan biderkatzen zen. Adar bat Elgetarako eta beste bat Goierriako. Bide gurutze honetako jendearen joan-etorriak merkataritza ekarri zuen.

Bigarren gerra karlistak udalei zor handiak eragin zizkien. 1851-52. inguruan, herribasoak saltzeari ekin zioten (Munikola, Albizuri, Dolaramayeta, Idoizarraga eta Ibur). Zegoeneko, zeuden baserriek inguruko lurra erosi zituzten eta txara eta basoak lurberri bihurtu zituzten. Peñafiorida kondeak ere baso ugari erosi zituen eta Kondea eta Jauregi (Palazio) armen babesean, Telleria, Eitzagaetxebarria eta inguruak diren Udaeta, Aresti, Munikola eta Berdengillo baserriak altxatu zituen, gero errentan jartzeko.

1886an, 16 etxek osatzen zuten Eitzaga (Sallabentekoak eta Olaerregakoak barne): Abeletxe, Bizinai, Kondea, Palazio, Eitzagabarrenengoa, Eitzagaetxebarri, Eitzagagoikoa, Goikoerrota, Lapurriturri, Benta, Olaetxe, Olaetxetxiki, Ermitakoa, Bekoerrota, Espilla-azpi, Aresti, Olaerregako errota, Berdengillo, Katea, Barrena, Munikola.

Baserri hauetan ohiko beharrez gain, armagintzak ere bere lekua egin zuen. Txispagintzan edo beste piezaren bat zela eta baserri gehienek jardun zuten armagintzan.

XX. mendean, Gerra zibila eskola eta Ermuko Udalarekin izandako tira-birak dira aipagarrienak. Gerrak, gaur ahazten ari bada ere, beldurra ekarri zuen. Santamañazarrean eta Elgetan frentea egon zen. Oso urte beltzak izan ziren horiek. Armagintza bertan behera laga zuten, eta baserriko lanak ere beldurrez egin behar zituzten, noiz buruan bona bat jausiko zain.

Ermuarekin izandako tira-birak Balendin Lasuenek azaltzen digu:

“Intentos de segregación del barrio de Eitzaga: Entre los años 1924 y 1926, hubo intentos de segregar el barrio de Eitzaga para anexionar a la villa de Ermua, por parte de



Eitzaga auzoa (1969)

su Ayuntamiento siendo alcalde Santiago Salaberria. Los trámites iniciados el 24 de abril de 1924 no dieron el resultado que se proponían dado que la mayoría de los vecinos de Eitzaga se manifestaron en contra.

Hubo también un segundo intento de separación en el año 1957 promovido por algunos vecinos y apoyados por el ayuntamiento de Ermua, que como en la ocasión anterior resultó negativo”. (LASUEN 87: 51.or).

Mende amaieran industrializazioarekin batera etxeak hustu egin dira. Dena lagata, urak, suak eta autopistak desagerrarazi ditu baserri ugari. Esaterako, Barrenzarra, Telleriazarra, Lapurriturri eta Abeletxe.

Industriaren pizkundeaz, kaleko dirua hobea zen, baserrikoa baino. Eitzagako seme-alabek, Ermura eta Eibarrera alde egin dute, lan bila. Aitzitik, kaletar batzuek Eitzagan leku aproposa ikusi dute txabolak egiteko. Azken urte hautetan, ortutxoa eta txabolatxoa ipini dituztenez gain bai igeltseroak, pintoreak, garraiolari eta halakoek eraikuntza kaxkar hauek altxatu dituzte.

Eitzagan egindako azken etxea Eitzagagoikoaren azpian dagoena da

Gaur egun Eitzaga auzoak administratiboki *Sallabente* eta *Olaerreaga* auzoak hartzen ditu.

Ahozkoa: [eicá]

- 001, 003, 005, 008, 009, 010, 011, 015, 016, 017, 018, 019, 020, 021, 024, 025, 027, 031, 032, 033, 034, 036, 037, 039, 054, 055, 069, 074 “Eitza”
- 002 “Eitzaga”
- 028, 049 “Itza”
- Erdaraz: “Eisaga”

Idatzizkoa:

- 1488 Izaga (LABAYRU, E 68)
- 1513 Heyçaga (FUENTES.: 46. zk., 204. or)
- 1548 Heycaga, abizena (BEHA.: Bataioak, 9-270)
- 1630 heicaga (BAHP.: JBG, 80. zk., 93. or)

- 1630 geicaga (BAHP.: JBG, 80. zk., 231. or)
- 1658 heycaga, herrerias de (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 158. or)
- 1731 Yzaga (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 7. or)
- 1731 Eyzaga (Esk. 005)
- 1753 Eizaga (BAHP.: JAA, 856. zk., 4. or)
- 1791 Eyzaga, varrio de (BAHP.: JM, 399. zk., 1452. or)
- 1858 Eyzaga, barrio de (BFA.: Udal., 0006/005)
- 1866 Eizaga, barriada de (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 94)
- 1876 Eizaga, barriada de (BFA.: Udal., 0016)
- 1924 Eitzaga (ESE.: 10 Bat., 27. or)
- 1934 Isaga (BFA.: Admin., Dok. Topogr., Zaldibar, Koad. 2, 18. or)
- 1937 Izaga, barrio (BFA.: Admin., Udal 002/001)
- 1939 Izaga (ESE.: 10 Bat., 195. or)
- 1947 Eizaga (Esk. 005)
- 1959 Eitzaga, barrio de (*El Correo Español* 59-VI-27)
- 1973 Eyzaga (Esk. 005)
- 1988 Eitzaga (Deiker)
- 1993 Eitzaga (ZALDIBARKO UDALA)
- EITZAGA (O)

ABELETXE (baserria)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: *Bizinai* baserriaren atzean dagoen baserria. Baserri zaharra autopista egiteko bota zuten. Gaur egun baserri zaharreko tejabana besterik ez da zutik gelditzen. Goian *Etxaburua*. Behean *Errotaostea*.



Abeletxe (1970)

Izen hau gure toponimian askotan agertzen da, *Aixolan* eta *Ermuan* badaude izen hau daukaten beste baserri bi.

Ahozkoa: [abéleče]

- 001, 005, 015, 017, 024, 027, 032, 053, 054, 067, 069, 074 “Abeletxe”
- 070 “Eitzaabeletxe”

Idatzizkoa:

- 1796 Abeleche (KEREXETA, J: 92)
- 1810 Abeleche, casa llamada (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 3)
- 1823 Abeleche (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4 bis)
- 1866 Vicinayabeleche, caseria rustica titulada (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 100)
- 1886 Abeleche (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1888 Abeleche (ESE.: 8 Bat., 18. or)
- 1893 Aveleche, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1917 Aveleche (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Abeleche (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1930 Abeleche (BEHA.: Paper solteak, 9A-715, 9-III)
- 1947 Abeletxe (ESE.: 11 Bat., 66. or)



Abeletxe (Tejabana) (1997)

ABELETXEBURU / ETXABURU (*soloak*)*(Autopistak erdibituá)**Kokapena:* Abeletxe*OHARRAK:* *Abeletxe* baserriaren gainaldea. Gainean *Garamendi* eta *San Pedro* ermita.*Ahozkoa:* [ečáburu]

- 067 “Etxaburu”

ALTZARTEA (*basoa*)*Kokapena:* Urzabaleta*OHARRAK:* *Urzabaletatik* aurrera, autopista eta *Beko erreka* bitartekoa. Lursail hau handia zen, *Altzartegoikoa* autopistak erdibitu zuen eta autopista azpian gelditu zenari *Altzartebekoa* esaten zaio. Aldamenean *Telleriazarra* zegoen. Aurrera jarraituz gero *Erdiko soloa*.*Ahozkoa:* [alcártia]

- 070 “Altxartia”

ALDAPARABURU (*soloa*)*Kokapena:* Idiozarraga (Eitzaga)*OHARRAK:* Horrela esaten zieten Olaetxeok aldapara gaineko soloei. Autopistak zati handia kendu dio.

(1928) “*Un terreno que se compone de tierras de labor, castañal y algunos otros arboles: linda por Norte con la regata y con las antepuertas de la casa Olaeche-chiqui, por el Sur con pertenecidos de dicha casa y propiedad del Conde de Peñafiorida, por el Este con heredades de Albizuri de la indicada Casa de Olaeche-chiqui y por el Oeste con la regata y pertenecidos de Eizaga-echevarria: forma en un perímetro una superficie de seiscientos once áreas y noventa y tres centiáreas, teniendo la heredad llamada Aldaparaburu dieciocho áreas y siendo las quinientas cincuenta y nueve áreas y noventa y tres centiáreas restantes de castañal y arbolar*”. (Esk. 005).

Ahozkoa: [aldáparabúru]

- 005 “Aldaparaburu”
- 005 “Etxaburu”

Idatzizkoa:

- 1880 Aldeparaburu (Esk. 005)
- 1881 Andaparaburu (Esk. 005)
- 1877 Aldepara-barria, heredad (Esk. 005)
- 1928 Aldapaburu (Esk. 005)

ALTZETA (*basoa*)

Kokapena: Idoizarraga (Eitzaga)

OHARRAK: *Lapurriturri* etxea zegoen lekutik gorakoa (hegoalderantz). Beste izen batzuk: *Altzartea*, *Urzabal*, *Presaldea*.

Ahozkoa: [álcařtia]

- 005 “Altzartia”
- 005 “Ursabal”
- 005 “Goiko basua”
- 005 “Presaldia”

Idatzizkoa:

- 1731 Urzabal (Esk. 005)
- 1731 Presalde (Esk. 005)
- 1799 Presalde (Esk. 005)
- 1887 Altzeta (Esk. 005)
- 1799 Urzabal (Esk. 005)

AMESORBE (*basoa*)

Kokapena: Okillo (Goierri)

OHARRAK: Ik. ZALDIBARKO GIDA 1996: 9. or.

(1811) “*En el termino de Amesorbe confinante por oriente con el Río de Pagazubiaga, por el poniente con arboles de Dn Juan de Garitaonandiacelaya, por mediodía también con arboles de la Casería de Solozabaladicoa, y por el norte con citado Río de Pagazubiaga*”. (BAHP.: JM, 413. zk., 193. or).

Ahozkoa: [amásořbe]

- 067, 069 “Amasorbe”

Idatzizkoa:

- 1811 Amesorbe, En el termino de (BAHP.: JM, 413. zk., 193. or)
- 1866 Amesorbe, monte radicante en el termino de (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 93)
- 1934 Amasorbe (BFA.: Admin., Dok. Topogr.)
- 1941 Amasorbe (KATASTROA)
- 1996 Amasorbe (ZALDIBARKO UDALA)

AMESORBEBURU (*basoa*)

Kokapena: Okillo

OHARRAK: *Amesorbe* gainekoa. Haritzak eta gaztainondoak.

(1811) “*Termino de Amesorbeburu. En el termino Amesorbeburu que confina por oriente con arboles de la casería Aranguren y el poniente con arboles de Dn Juan de Garitaonandia; Por mediodía de Dn Domingo de Jainaga, y por el norte de Dn Migel de Birichinaga*”. (BAHP.: JM, 413. zk., 193. or).

Idatzizkoa:

- 1811 Amesorbeburu, Termino de (BAHP.: JM, 413. zk., 193. or)
- 1884 Amesorbeburu (JE.: Liburu V, Tomo 128, Finka 214)

ANTZOLA (*basoa / hegia*)

Kokapena: Idoizarraga (Eitzaga)

OHARRAK: Baso honek, *Eitzaga* eta *Aixolaren* arteko muga naturala egiten du.

Ahozkoa: [ancóla]

- 058 “Anxola”
- 015, 069, 070, 072, 074 “Antzola”
- 037 “Baltzola”
- 048, 053, 070 “Anxola”
- 048 “Anzolako egia”
- 049 “Altzolabasua”
- 069 “Antzologoixa”

Idatzizkoa:

- 1864 Ansola (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 72)
- 1866 Ansola, termino de (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 94)
- 1971 Ansola, monte llamado (Esk. 070)
- 1988 Antzola basoa (DEIKER)

ANTZOLABARRENA (*basoa*)

Kokapena: Idoizarraga

OHARRAK: Antzolatik aurrera.

Idatzizkoa:

- 1864 Ansolabarrena (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 72)

ARKATXE (*basoa*)

Kokapena: Okillo (Eitzaga)

OHARRAK: Ahozko iturriaren arabera lur txatal hau *Eitzagagoiko* baserritik mendebaldera dago, *Telleria* parean dagoen errekatxoaren sakonean, alegia.

Ahozkoa: [ařkáč̣a]

- 024 “Arkatxa (Errekasulua)”
- 049 “Arketxeta”

Idatzizkoa:

- 1925 Arcache (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)
- 1988 Arkatxe basoa (DEIKER)

ARRIBURU / ZABALETABURU (*basoa*)

Kokapena: Okillo (Eitzaga)

OHARRAK: *Eitzagagoiko* baserritik gora, *Eitzagako koba* dagoen lekua. Bere gainean *Onandia* basoa.

Ahozkoa: [aříburu]

- 049 “Arriburu”

Idatzizkoa:

- 1905 Zabaletaburu (Esk. 024)
- 1913 Zabaletaburu, monte (Esk. 024)
- 1925 arribaso (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)

ARRIOLA / AIXOLA (*auzoa*)

Kokapena: Elgeta

OHARRAK: Gure esparrutik at gelditzen bada ere, Eitzagako jendeak Aixolarako eta Elgetarako joera izan du, baita Aixolakoek Eitzaga eta Sallabenterakoa ere. Horregatik auzo honi buruzko aipamen bat merezi du egitea.

Urtegia egin baino lehen, *Arriolaerreka* inguruan sortu zen auzo honetan baserri asko zeuden: Abeletxe, Aixola, Aixolabekoa, Aixolaerdikoa, Aixolagoikoa, Argiberria, Balxolabarrena, Bekoerrota, Errota-azpikoa, Errotagaiñekoa, Errotai, Gosategi, Iburutx, Mendraikorta, Naparkoa, Ola, Olaikorta, Txakilikoa, Txulo, Urbedereinkatu... Gaur egun ia denak urtegiak janda edo lagata daude.

Ahozkoa: [ajšóla]

- 017, 027, 037, 048, 053, 069 “Aixola”

Idatzizkoa:

- 1799 termino de Arriola (BAHP.: JM, 404. zk., 206. or)
- 1851 Ariola, monte (Esk. 005)
- 1879 Termino de Arriola (BAHP.: FB, 6812. zk., 299. or)



Aixola (1997)

ARRIOLAERREKA

Kokapena: Zaldibar

OHARRAK: Antzinako izena *Ego* zen (Ik. Ego). Erreka hau Egoetxean jaio eta Arriolan barrena Eitzagara doa. Auzo-elkartearen atzean, Telleriatik datorren *Beko erreka-ko* urak hartzen ditu eta Sallabenten, Ermutik datorren errekaekin elkartzen da.

Pablo Zubiarrementeriaren esanetan erreka hau *Gosategi* baserri ostean amaitzen da.

“El río caudal que baja de Arriola con dirección a Olaerreaga”. (1881-Esk. 005).

Arriolaerrekak nahiz eta txikia izan, ur handia eroaten du. Ezaugarri honek bere ibarretan eraiki ziren errota ugariak asko lagundu zituen. Ez orain dela asko, bere urretan ur-txakurrak, amuarrainak, kangrejuak, agiriak, ezkailuak... baziren.

Ahozkoa: [ajšolaeréka]

- 009, 005, 011, 017,039, 048, 067, 069, 072, 073, 074 “Aixolaerreka”
- 015, 027, 054 “Aixolaerreka”
- 024 “Aixolaerreka” Ibarra.
- 024 “Egoerreka”
- 037 “Elgetako erreka”

Idatzizkoa:

- 1810 Arriola, río de (Esk. 005)
- 1881 Arriola, río caudal (Esk. 005)
- 1934 Ariola-erreka, río (BFA.: Dok. Topogr.: Zaldibar, Koad. 1)
- 1988 Aixola erreka (DEIKER)
- 1975 Ego (BFA.: Admin., Planoak.: RA-PL-0118)
- 1996 Ariolaerreka (Dur)



ATXAOSTEA (*basoa*)

Kokapena: Antzola

OHARRAK: Haitz + ostea. *Antzola* ostekoa, *Indoleta* gainekoa.

Ahozkoa: [ačóštia]

- 069, 072 “Atxostia”
- 070 “Atxaostia”

AUZO-ELKARTEA

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Eitzagara heldu baino pixka bat lehentxeago, *Beko erreka* eta *Arriolae-erreka* elkartzen den lekuan.

“Eitzagako Auzo Elkarteak gastronomiko hutsa baino gehiago da. Lagunek, inguruko kaleetan bizi direnak edo auzo bereko bizilagunek sortutako elkarteak bilgune eta denbora pasatzeko leku ezin aproposagoak izan ohi dira.

Gaur egun Eitzagako Auzo Etxea dena eskola- BIZKAYAREN Auzo ikastola- izan zen lehenago, eta bertan ikasi zuten umetan elkarteak osatzen duten kide gehienek. Bizkaiko Foru Aldundiak eraiki zuen etxe hori 1921.ean, eta Zaldibarko Udalak, 1978ko uztailearen 20an hartutako erabakiaren ondorioz, Eitzagako bizilagunei utzi zien, Eitzagan kultur eta aisialdi ekitaldiak antolatzeko, hau da, bakarrik horretarako erabiltzekotan. Horrela, bada, urtebete beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, inaurguratu zen etxea.

Gastronomian ez ezik, auzoaren gizarte eta kultura esparruan ere eragin handia du Eitzagako Auzo Etxeak. Etxe horren lanari esker, prestatzen dira jaiak eta omenaldiak, besteak beste; antolatze-lan horietan buru-belarri sartuta ibiltzeaz gain, bestelako ekitaldietan ere parte hartzen dute bertako kideek. Era berean, auzokideen eta inguruko herrietako bizilagunen arteko harremanak bideratzeko eta errazteko aukera ezin hobea eskaintzen du elkarte horrek, bertako bazkide asko auzotik kanpo bizi delako, Ermuan, Eibarren eta Durangon, esate baterako.

Elkarteak sortu zenean, elkartekide gehienak Eitzagan bizi zirenez, talde trinkoa osatzen zuten, baina urteak aurrera egin ahala aldaketak onartu dira, eta gazte jendeari ateak zabaldu zaizkio. Gazteek aberastasuna ekarri diote elkarteari, berritasunez beteak datozelako. Dena den, Auzo Etxea eratzerako bultzatu gintuena, hau da, elkartearen bere-berezko izaera, ez da sekula hilko, aldaketa eta gorabehera guztien gainetik dago eta.

Zalantza barik, Eitzagak badu auzoa garatu eta etorkizunean aurrera egiteko sortu zen Auzo Etxearen premia.

Bazkide bat: P.B (EITZAKO JAIK 1997 egitaraua).

Aurrean, oraindik ere kare-zulo baten aztarnak ikus daitezke.

Ahozkoa: [aušóelkártea], [eškóla]

- 001, 002, 015 “Eskolia”
- 011 “Sosiedadia”
- 024 “Eitzako eskolia”
- 053 “Eskola”

Idatzizkoa:

- 1922 Escuela de la Barriada de Eizaga (BFA.: Udal., 0010/005)
- 1925 Eizaga, escuela titulada (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)
- BIZKAYAREN AUZO-IKASTOLA (O)



Auzo-elkarte (2001)

BARRENA (*argi-zentrala*)*(Berrituta eta aldatuta)**Kokapena:* Eitzaga auzoa

OHARRAK: Eitzaga auzoa pasata eta Aixolarako bide zaharrean *Goikoerrota* dago. Pixka bat aurrerago eta zubiaren beste aldean *Barrena*. Bertan Elgetarako argia emateaz gain, baskulagintzan aritu ziren garai batean. Argi-zentral hau urtetan lagata izan zen eta 1980aren inguruan jaustear zegoenean bota eta leku berean beste eraikuntza berri bat egin zuten.

Ahozkoa: [baféna]

- 005, 011, 015, 024, 037, 048, 049, 053, 054, 069, 070, 074 “Barrena”
- 024 “Eitzako sentrala”
- 069 “Elektra”
- 037 “Sentrala”
- “Aguanekua”

Idatzizkoa:

- 1796 Barrena (KEREXETA, J)
- 1893 Eizaga Barrena, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1904 Barrena, molino de (Esk. 024)
- 1917 Barrena (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)

- 1917 Molino Electra (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1927 Central electrica, casa (ESE :10 Bat., 73. or)
- 1930 Central-electrica (BEHA.: 9A-715, 9-III)
- 1941 Barrena, caserio (ESE.: 10 Bat., 222. or)

BARRENABURU (*basoa*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: **Barrena** errotako goialdea. Ortua izandakoa.

Idatzizkoa:

- 1863 Barrenaburu, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 3)

BARRENAZARRA (*errota*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: 1631ean eraiki ei zen eta inguruko errotarik zaharrenetariko bat zen. **Barrenazarra Barrena** argi-zentrala baino 100 metro gorago zegoen, **Arriolaerrekaren** ondoan. Juxtu, **Eitzagagoiko** baserriko zelaia amaitzen den lekuan.

Ahozkoa: [bařénařářa]

- 011, 015, 024, 048, 069 “Barrenasarra”

Idatzizkoa:

- 1704 Eyzaga Barrena, la casa de (KEREXETA, J: 92: 225. or)
- 1745 Eyzaga Varrena, la caseria de (KEREXETA, J: 92: 459. or)
- 1796 Eizaga barrena, molino (KEREXETA, J: 92: 766. or)
- 1863 Barrena, Molino de (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 2)
- 1863 Barrena, edificio rustico Molino arinero titulado (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 3)
- 1917 Molino antiguo (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)

BARRETA (*basoa*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: Goierrirako bidean, Eitzagatik nahiko urrun.

Idatzizkoa:

- 1866 Barreta, monte llamado (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 129)
- 1988 “Barreta, mendia” (DEIKER)

BEKO ERREKETA (*basoa*)

Kokapena: Telleria (Eitzaga)

OHARRAK: Telleria baserritik aurrera. Errekak ere Beko erreketaren izena hartzen du. Ik. Ermuko mendi aldeko **Beko erreketaren**.

Idatzizkoa:

- 1884 Becoerrequeta, monte arbolar llamado (JE.: Liburu V, Tomo 128, Finka 249)

BEKO SAGASTIA

(Desagertua)

Kokapena: Eitzagaetxebarri

OHARRAK: Eitzagaetxebarriko zabortegia dagoen lekuan zegoen. *Larrazar* gainean eta *Gaztañadia* azpian.

Ahozkoa: [békośagástiſa]

- 053 “Bekosagaštixa”

BEKO SOLOAK

Kokapena: Eitzagaetxebarri

OHARRAK: Eitzagaetxebarri azpiko soloak, baserria eta bidearen arteko soloak. Goian *Potoloa* eta *Munaburua*.

Ahozkoa: [békośolúak]

- 053 “Bekosoluak”

BENTAZARRA

(Desagertua)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Gaurko bidean bertan, *Eitzagabarrenengo* baserriaren ondoan. Eitzagan, Bentazarrak garrantzi handia izan zuen. Durangora joateko, Goierriko galtzada aukeratzeko zutenek hor hartzen zuten ostatu eta zaldientzako atsedeen-leku. Denda ere bazegoen eta goian saloi handi bat. Goiko ganbaran Eitzagako neska-mutilek klasea hartzen zuten.

Lasuen (87): (58.or) “*La Casa-taberna “Bentakoa” de Eitzaga: Construida el año 1853 y que fue propiedad del Ayuntamiento de Zaldibar, fue derribada en 1978, para la apertura de un nuevo camino con motivo de la construcción de la presa de Aixola (Ariola). Se conserva el dintel de la puerta donde puede leerse la inscripción:*

A EXPENSAS DE LA ANTEIGLESIA DE ZALDUA

AÑO DE 1853.”

(1914) “*Una casa denominada venta de Eizaga, destinada á taberna o venta; la plazuela que se halla frente a la misma casa; y la huerta contigua, lindantes con el riachuelo*”. (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8, Esp. 43).

Ahozkoa: [béntaśáſa]

- 053, 054, 069, 070 “Bentia”
- 018, 019 “Eitzako bentia”
- 011 “Bentasarra”
- 017 “Benta”

- 005, 024 “Eitzako tabernia”
- 037 “Taberna”

Idatzizkoa:

- 1833 taberna de Eyzaga (BUA.: XXI-2-C-01)
- 1886 Venta-taberna de Eizaga (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1901 Casa-venta (ESE.: 8 Bat., 233. or)
- 1917 Eizaga, taberna de (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Venta Eizaga (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1966 Eitza benta (ETXEBARRIA, T 86)



Bentazarra

BERRENGUREN (basoa)

Kokapena: Okillo

OHARRAK:

(1811) “*termino de Berranguren: confina por su oriente con propiedad de la villa de Elorrio, por el poniente con propiedad de dha Anteiglesia de Zaldúa y termino de Urbiyeta, por mediodía con termino denominado de Santa marinazar y por el norte con el camino carretil que se dirige desde Ibañeta a la villa de Elorrio*”. (BAHP.: JM, 413. zk., 42. or).

Berreguren herribasoa zen eta 1811 lean, konbentzio gerran egindako gastuei aurre egiteko, Zaldibarko Udalak saldu egin zuen.

Idatzizkoa:

- 1658 Beriguren (sic) junto a las canteras (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 158. or)
- 1811 Berranguren, termino de (BAHP.: JM, 413. zk., 42. or)
- 1893 Berreguren, monte (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)

- 1925 Berrenguren (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)
- 1934 Barrenguren (BFA.: Admin., Dok. Topogr.)

BIZINAI (*baserria*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Eitzagan bertan, Palazioa eta Kondeaneko errota artean. Konde Peñaflo-ridarena izandako baserri honetan txispagintzan aritu ziren.

1658. urtean, nahiko gaizki zegoen eta konpondu zuten. Gure berriemaile-aren aitaren denboran (orain dela 120 bat urte-edo) baserri hau erre eta berriz ere eraiki zuten.

Abozkoa: [biśtnaj]

- 001, 002, 005, 011, 015, 019, 023, 024, 037, 053, 054, 058, 069, 070, 074 “Bisinai”

Idatzizkoa:

- 1548 Bicinay, abizena (BEHA.: Bataioak, 9-270)
- 1630 bicinay, abizena (BAHP.: JBG, 80. zk., 165. or)
- 1638 bicinay mayor (BAHP.: JBG, 83. zk., 187. or)
- 1658 Bicinay, casa y casseria (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 12. or)
- 1729 Eizaga vizinai y de su accesoria de Jauregui, casas y caserías de (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 134. or)
- 1730 Vizinai, sepultura de (BEHA.: Hilak, 9-271)
- 1731 bizinay, caseria de Jauregui y (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 7. or)
- 1731 vicinay, caseria de (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 11. or)
- 1731 Bicinai, casa de (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 17. or)
- 1731 Bicinai, mitades de esta casa de (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 18. or)
- 1791 Bicinay, casa y caseria nombrada de (BAHP.: JM, 399.zk., 1452. or)
- 1796 Bizinai (KEREXETA, J: 92)
- 1810 Bicinay, casa llamada (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 3)
- 1823 Vicinay (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4-bis)
- 1866 Vicinay, caseria rustica titulada (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 94)
- 1873 Vicinay, caseria de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 6)
- 1888 Bici-nay (ESE.: 8 Bat., 19. or)
- 1893 Vicinay, caseria (BFA.: Admin. Lur. Est., Karp. 11)
- 1904 Bicinay (Esk. 024)
- 1917 Vichinay (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1930 Vici-nay (BEHA.: Paper solteak, 9A-715, 9-III)



Bizinai (1997)

BIZINAIOSTE (*soloak*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: *Palazio* eta *Bizinai* baserrietatik *Goiensolora* zegoen tarte. Autopistako lanetan sortutako hondakin guztiek paraje hau, erditik zatitu eta zeukan lau-itxura kendu zioten.

Ahozkoa: [bišínajostíá]

- 073 “Bisinaioeste”
- 070 “Bisinaioestia”

BIZKARRA (*basoa*)

Kokapena: Eitzagaetxebarria

OHARRAK: *Iramiña* eta *Olaburu* bitartekoa.

Ahozkoa: [biškářa]

- 072 “Bizkarra”

BOLATOKIA

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: *Auzo-elkartearen* ondoan.

Ahozkoa: [bolátokiša]

- 015, 069 “Bolatokixa”

EITZAGABARRENGOA (*baserria*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Baserri hau Eitzagako zaharrenetariko bat da (*Olaetxe* baserriarekin batera), bere ormetan Ertaroan egindako defentsarako leihatilak ikus daitezke (tejabana berri baten azpian). Eitzagako berriemaile zaharrenaren esanetan 1549-50. urtekoa ei da (Pedro Bildosola).

“Zaldibar udalerrian Eizaga Barrenengoa baserritxea dogu, XIX. gizaldian eraldakuntza garrantzizkoak egin eta gaur egun egoitzatzat erabilten dan etxea izanik. Halan bada, errenazimentukoa dala esatea gatx egiten da. Beharbada XVI. gizaldiko landa-egoitza aristokratikoa izan zan, garai horretakoetarik gordeten diranak hiru huts-gune dirala: erdi-puntuko txiki bana etxeo albo bietan eta arku eskartzano leundun beste bat eskumako alboan”. (PINEDO 86: 247.or).

Abozkoa: [eicábarénengua]

- 002, 005, 017, 018, 023, 024, 027, 032, 037, 049, 054, 069, 074 “Eitzabarrenengua”
- 067 “Eitzagabarrenengo baserrixa”
- 070 “Eitzagabarrenengua”
- 053, 058 “Eitzabarrenengua”
- 001 “Bildosolana”

Idatzizkoa:

- 1630 cassa de geicaga (BAHP.: JBG, 80. zk., 202. or)
- 1726 Vildosola, sepultura de (BEHA.: Hilak, 9-271)
- 1810 Eyzagabarrena, casa llamada (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 3)
- 1823 Eizagabarrena (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 4-bis)
- 1851 Eizagabarrenengoa (Esk. 005)
- 1864 Eizagabarrenengoa (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 59)



Eitzagabarrenengoa (1997)

- 1873 Eizagabarrenengoa, caseria de (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 8)
- 1888 Eizaga-barrena (ESE.: 8 Bat., 111. or)
- 1886 Eitzabarrena (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1893 Eizaga Barrenengua, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1905 Eyzagabarrena, caserio (Esk. 024)
- 1909 Eitzabarrena, caserio (ESE.: 9 Bat., 103. or)
- 1917 Eizaga-barrena (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga-Barrenia (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga Barrena (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1930 Eizabarrena (ESE.: 10 Bat., 110. or)
- 1949 Eizagabarrenengoa (ESE.: 11 Bat., 116. or)
- 1971 Eizaga-barrena (Esk. 070)
- 1996 ~~EITZAGABARRENENGOA~~, caserio (sic.) / EITZAGABARRENA, caserio (Biztanleen Udal Erronda)

EITZAGAETXEBARRI / LARROSIA (baserria)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Baserriak *Etxebarri* du izena, baina lehen familia bakarra zena bi familia-tan bereiztu zen. Familia batekoen aititak aurpegia kolore gorria, larrosaren kolorekoa zeukalako baserri honetako eskuma aldeak *Larrosia* izena hartu zuen.

Etxebarrikoak baskulagintzan aritutakoak ziren.

Etxebarrira joateko, *Eitzaga* auzoa pasa eta ezkerreko bidea hartu behar da. Bide honetan estrata bat dago *Trintxeria* esaten diotena.

Baserriko ondoko soloak *Mota*, *Gaztañazuloa*, *Potoloa* eta *Esparru* dira.

Etxe aurretik pasa eta *Kerexetatik*, gaur egun zabortegia dagoen lekutik errekatxoa bazen, bertakoek *Etxeosteko errekatxoa* esaten ziotena. Gorago iturri bat dago, hara joateko bidea *Itturriko bidea*.

Inguruan ere badugu *Tabirako Biria*: Etxebarritik Munikolara doan bide bat, alegia. Etxeko morroi batek du parte kontu zahar honetan:

“Tabira zuan kriaui, egon zuan Munikolan, da gero honek juan biar juan kalerera, hona etorri zuan, arek ein juan biria, basoko bidetxu bat” (Javier Gorritxategi)

Ahozkoa: [ečébaři], [lařóšia]

- 001, 011, 017, 018, 024, 027, 049, 053, 054, 055, 069, 070, 072 “Etxebarri”
- 001, 012, 015, 027, 031, 037, 053, “Larrosia”
- 016, 070, 074 “Larrosianekua”
- 074 “Eitzaetxebarri”

Idatzizkoa:

- 1626 heizabarria (BAHP.: JBG, 78. zk., 100. or)
- 1636 eicaga echavarria (BFA.: Admin., Auziak eta autuak, Erreg. 7, 115. or)
- 1731 Eyzaga Echevarria, Caseria de (Esk. 005)

- 1745 Echevarria, la caseria de (FOGERAZIOAK)
- 1799 Caseria de Eizaga Echevarria (Esk. 005)
- 1810 Eyzaga echevarria, caseria de dos inquilinos (BFA.: Admin., Lur. Est. I, Erreg. 3)
- 1851 Eizaga-echevarria (Esk. 005)
- 1864 Eizaga Echevarria, casa caseria de (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 38)
- 1877 Eizagaecheverri (Esk. 005)
- 1879 Eizaga echevarria (BAHP.: FB, 6812. zk., 299. or)
- 1880 Eizaga-Echevarria (Esk. 005)
- 1881 Eizaga echebarria, caseria (Esk. 005)
- 1888 Eizaga-Echébarri (ESE.: 8 Bat., 8. or)
- 1893 Eizaga-echeverria, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1915 Eitza-Echevarri (ESE.: 9 Bat., 286. or)
- 1917 Echevarria (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga Echevarria (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga-Echevarria (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1925 Eizaga-echevarria (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)
- 1931 Eiza-echevarri (ESE.: 10 Bat., 128. or)
- 1948 Echebarri, caserio (ESE.: 11 Bat., 95. or)
- 1988 Eitzaga etxebarria (DEIKER)



Eitzagaetxebarria / Larrosia (1997)

EITZAGAGOIKOA (*baserria*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: San Pedro ermitatik baino gorago.



Eitzagagoikoa (1997)



Ogia egiteko laba (1997)

Eitzagagoikoan agertu den dokumentu batean 1638ko abenduaren 14ko data fundazioa aipatzen da. Baserriaren aurreko orman ondorengoa jartzen du: *Se reedifico por D.Francº de Garitano año (1849)*.

Goiko lurrei *Goiko zelaia* edo *Etxaburu* (1905 Echeburu Esk. 024) esaten diete, behekoari *Etxeazpi* eta eskumakoari *Solonagusia*. Gerra zibilaren ondorioz kale-tar ugari baserri honetara etorri zen, Eibar aldea guztiz hondatuta gelditu zen eta.

Abozkoa: [éicagojkúa], [eicágojkúa]

- 001, 002, 005, 011, 015, 022, 024, 027, 032, 048, 053, 054, 058, 069, 070, 074 “Eitzagoikua”
- 074 “Eitzabikua”

Idatzizkoa:

- 1623 heicaga goicohechea (BAHP.: JBG, 77. zk., 95. or)
- 1626 heicaga de susso (BAHP.: JBG, 78. zk., 38. or)
- 1626 casa de geicaga de suso (BAHP.: JBG, 78. zk., 38. or)
- 1637 heicaga goicohecgea (BAHP.: JBG, 82. zk., 72. or)
- 1637 casa de geicaga de suso (BAHP.: JBG, 82. zk., 72. or)
- 1658 heycagaGoicoehea, cassa y casseria (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 3. or)
- 1658 heycaga goicoechea (BFA.: Admin., Auziak eta autuak., Erreg. 19. 111. zk.)
- 1797 Eizaga ganecoa, molino de (KEREXETA, J: 92)
- 1810 Eyzagagoicoa, casa llamada (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 3)
- 1823 Eizagagoicoa (BFA.: Admin., Lur. Est. I., Erreg. 4-bis)
- 1851 Eizagagoicoa (Esk. 005)
- 1863 Eizagagoicoechea, casa rustica titulada (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 2)
- 1873 Eizaga goicoa, caseria (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 1)
- 1876 Eizaga Ganecoa, la casa de (FOGERAZIOAK)
- 1879 Eizagagoicoa (BAHP.: FB, 6812. zk., 299. or)
- 1881 Eizaga goicua (Esk. 005)
- 1888 Eizaga-Goicua, caserio (ESE.: 8 Bat., 9. or)
- 1886 Eizaga-goiena (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1886 Eitza-goikua (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1893 Eizaga goycua, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1904 Eizaga-goicoa (Esk. 024)
- 1913 Eizagagoicoa (Esk. 024)
- 1913 Eizaga-goicoa (Esk. 024)
- 1917 Goicúa (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga-goicua (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga-goicoa (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1919 Eitzagoicua (ESE.: 9 Bat., 432. or)
- 1922 Eitzagoiena, caserio (ESE.: 10 Bat., 4. or)
- 1927 Eizagoikua (ESE.: 7 Hil., 196. or)
- 1996 ~~EITZAGAIKOA~~, caserio (sic.) / EITZAGAGOIKOA, caserio (ZALDIBARKO UDALA)

EITZAGAKO TXARA

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: **Barrenatik** aurrera, Jesusinen txabolatik aurrera, Arriolaerrekatik esku-maldea. Gazte denboretan bainua hartzen genuen putzuaren goialdea.

Ahozkoa: [ejcako čaría]

- 053 “Eitzako txaria”

ERDIKO SOLOA

Kokapena: Telleria

OHARRAK: **Altzartetik** aurrera dagoen soloa, autopista eta **Beko erreka** bitartekoa.

Ahozkoa: [eřdíkošolua]

- 070, 073 “Erdikosolua”

ERROTAOSTEA (soloak)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: Kondeaneko errotaren ostetik **Urzabaletarainokoa**. **Beko erreka**ren alde biak.

Ahozkoa: [eřótaoštía]

- 070, 073 “Errotaostia”

ESPARRU (soloak)

Kokapena: Eitzagaetxebarria

OHARRAK: **Etxebarri** parean zegoen errekaletetik eskuma alde. Gaur egun zaborte-gia dago eta paraje honetako zati handi bat estalita dago.

Ahozkoa: [ešpářu]

- 053, 069, 072 “Esparru”

ETXEAZPIA (soloak)

Kokapena: Eitzagabarrenegoa

OHARRAK: Auzo-elkartetik **Eitzagabarrenengo** baserrira dagoen soloa.

Ahozkoa: [eččášpiša]

- 070 “Etxeaspixa”

ETXEAZPIA (soloak)

(*Desagertua*)

Kokapena: Aixola

OHARRAK: **Iburutx** errotaren azpikoa. Urtegiak janda.

Idatzizkoa:

- 1864 Echeazpia, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 29)

ETXEBARRIBURU (*soloak*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Eskriturretan *Etxebarriburu* agertzen bada ere ahozkoan *Mota* esaten zaio. Hitz honek zulo asko dagoen lekua esan gura du. Ik *Eitzagaetxebarri*.

Ahozkoa: [mótia]

- 067 “Etxebarriko motia”
- “Mota” (Etxebarrikoa)

Idatzizkoa:

- 17?? Echebarri-buru (Esk. 005)
- 1731 Echevarriburu (Esk. 005)
- 1799 Echevarri buru (Esk. 005)
- 1988 Etxebarriko motea (DEIKER)

ETXEOSTEA (*soloak*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Aixola

OHARRAK: *Iburutx* errotaren osteko ortua. Urtegiak janda.

Idatzizkoa:

- 1864 Echeostea, heredad llamada (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 29)

GARAIURRE (*soloak*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: *Eitzagagoiko* baserriko azpiko soloak (*Etxeazpi*). Baserria eta *San Pedro* ermitaren artekoa.

Ahozkoa: [ečéašpi]

- 049 “Etxe-aspi”

Idatzizkoa:

- 1863 Garayurre (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 2)
- 1904 Garay-aurre (Esk. 024)
- 1919 Garay-aurre (Esk. 024)

GARAMENDI (*basoa*)

Kokapena: San Pedro

OHARRAK: *Garo* + *mendi* hitz konposatuz sortutako leku-izena. Eskriturretan *Garamendi* agertzen bada ere ahozkoan *Karamendi* esaten zaio. *San Pedro* ermitaren ondokoa, beherago *Abeletxeburu*.

Ahozkoa: [karámendi]

- 070 “Karamendi”

Idatzizkoa:

- 1971 Garamendi, paraje (Esk. 070)

GAZTAÑADIA (*basoa*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: *Eitzagabarrenengo* baserriaren atzean, erreka pasata eta autopista gainekoa, ur-biltegiaren ezkerreko aldekoa. Gainean, *Etxebarrirako* bidea. Azpian, *Larrazar* eta parean *Gaztañabarrena*.

Ahozkoa: [gástáñiša]

- 005 “Gastañarixa”
- 053 “Gastañixa”
- 070 “Gastañixa”

GAZTAÑAZULOA (*basoa*)

Kokapena: Eitzagaetxebarria

OHARRAK: Gaztainak horra zulora jausten direlako hartzen du izen hau. *Sagastia* eta *Kerexeta* artean.

Ahozkoa: [gástáñasulua]

- 053 “Gastañasulua”
- 072 “Gastañasulua”

GAZTAÑIBARRENA (*basoa*)

Kokapena: Eitzagaetxebarria

OHARRAK: *Esparru* eta *Solotxikia* azpian. Parean *Gaztañadia*.

Ahozkoa: [gástáñibařéna]

- 053 “Gastañibarrena”

GAZTAÑISAKONA (*basoa*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: Baso hau *Telleriaren* parean dago, autopistaren beste aldekoa.

Ahozkoa: [gástáñisakona]

- 073 “Gastañisakona”

GOIENSOLO

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: Gaur egun autopistak eta Aixolarako bideak zati handia kendu egin diote. Lehen *Bizinai* eta *Palazio* baserrietatik Bitorioneko biltegirainokoa zen. Gaur egun, *Goiensolo Etxebarrirako* bideak, *Aixolarakoak* eta *Aixolaerrekak* mugatzen dute. Aldamenean *Mokotxa*, atzean *Urbirtarte*.

Ahozkoa: [gwénsolo]

- 058, 067 “Goiensolo”
- 053, 069, 070 “Guénsolo”

Idatzizkoa:

- 1971 Guensoro, heredad denominada (Esk. 070)

GOIENZELAI

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: *Berreguren* eta *Beko erreketak* artekoa.

Idatzizkoa:

- 1934 Güenzelay (BFA.: Admin., Dok. Topogr.)

GOIKO BASOA

Kokapena: Mota

OHARRAK: *Idoizarragarekin* jotzen. Paraje honetan ardi-txabola bat dago, *Goikotxabola* esaten diotena.



Goikotxabola (Ardi txabola) (1997)

(1867) “... en su defecto la partida de helechal del monte de Goicobasua propio del mismo Olaechea, entendiéndose la partida que se halla arriba del camino que se dirige del punto de su caserío de igual apellido de Olaechea.

... que contiene 419 areas y 83 centiareas; que confina por Norte, ó parte bajera con Camino Carretil que se dirige de Ergoviza a san Lorenzo; sur terreno de Santiago de Urquia, Oeste con San Lorenzo-aurrea, y poniente con el finado Conde de Peñaforida”. (Esk. 005).

Ahozkoa: [gójkobaśua]

- 005, 072 “Goiko basua”
- 055 “Oletxeko txabolía”
- 012 “Kipulien txabola”

Idatzizkoa:

- 1867 Goicobasua (Esk. 005)
- 1877 Goicobasua (Esk. 005)
- 1881 Goicobasua (Esk. 005)
- 1934 Olechebaso (BFA.: Admin., Dok. Topogr., Zaldibar, Koad. 2)

GOIKOERROTA

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Eitzagatik Aixolarako bide zaharreko lehenengo eraikuntza, erreka-
kontran. Errota honi *Totokoa* ere esan izan zaio, bertakoaren gaitzizena zelako. Alda-
meneko iturritxoak *Totoko iturria* du izena. Gaineko basoak (*Eitzagagoiko* baserria-
ren azpikoak) *Goikoerrotako basoa*.



Goikoerrotta (1997)

Ahozkoa: [gójkoeróta], [totókua]

- 011, 048, 053, 054, 069, 074 “Totokua”
- 024 “Totuana”
- 074 “Aguanekua”
- 011, 027 “Bekoerrotta”
- 049, 053 “Goikoerrotta”

Idatzizkoa:

- 1658 molino de goycohechea (BAHP.: JRG, 139. zk-A., 158. or)
- 1779 Eizaga Goicoechea, molino llamado (BAHP.:JM, 391. zk., 42.or)
- 1863 Goicoerrotea, casa rustica titrulado Molino de (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 4)
- 1876 El molino de Eizaga Ganecoa (KEREXETA, J: 92)
- 1886 Molino de arriba (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1886 Totuena (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1917 Goicoerrotta (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga Errotta (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga-andicoa (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1934 Totocua (BFA.: Admin., Dok. Topogr., Zaldibar, Koad. 2, 20. or)
- 1996 BEKOERROTA, caserio (ZALDIBARKO UDALA)

GOIKOERROTAOSTEA (*basoa*)

Kokapena: Altzola

OHARRAK: *Goikoerrotaren* atzealdea. Goian Aixolarako bidea, behean *Aixolaerreka*.

Ahozkoa: [gójkoerótaostía]

- 067, 069 “Goikoerrottaostia”
- 069 “Totoko-ostia”

GOIKO MOTA (*basoa*)

Kokapena: Idoizarraga

OHARRAK: Zaldibar eta Elgeta arteko mugan.

Idatzizkoa:

- 1866 Goikomotia, terreno arbolat llamado (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 86)

IBURUTX (*errotta*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Aixola

OHARRAK: Aixola urtegiak itota. Errotta honek bi ur-salto eta ogia egiteko labea zeukan. Garai batean armagintzan jardun zuten⁶⁹.

69. Ik. SAN MARTIN, Juan (2000): *Eibar eta Elgetako Toponomastika*. Euskaltzaindia. Onomasticon Vasconiae 21.(150. or).

Ahozkoa: [igúč]

- 015 “Iguix errota”
- 024 “Iguix”
- 037, 053 “Iguxkua”
- 039, 048 “Igutx”

Idatzizkoa:

- 1799 molino nombrado de Iburuch (FOGERAZIOAK)
- 1782 Yburuch, molino de (BAHP.:JM, 393. zk., 170.or)
- 1863 Yburuch, caseria Molino titulado (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 24)
- 1917 Molino Ibus (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Ibuch (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)

INDOLETA (*basoa*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: *Barrenazarra* errotatik *Antzolarainokoa*. *Indoletako* zati bati *Kondebaso* esaten zaio. Ik. *Kondebaso*.

(1811) “*Termino de Yndoleta que confina por el oriente con heredad de la casería de Olaicorta y monte concegil de la villa de Elgueta, por el poniente con propiedad de dha Ante yg^a, por el mediodía con la regata denominada de Ariola y por el norte con el ribazo de la heredad de la casería de Eguarbiza propia del señor Marques de Santa Cruz (Haritzak)*”. (BAHP.: JM, 413. zk., 183-184. orr).

Ahozkoa: [índoleta]

- 053, 067, 072, 070, 074 “Indoleta”
- 058 “Induleta”
- 069 “Indulitxa”

Idatzizkoa:

- 1811 Yndoleta (BAHP.: JM, 413. zk., 42. or)
- 1843 Induleta y Ego, montes (BFA.: Udal., 0010/002)
- 1863 Yndoleta, monte nombrado (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 3)
- 1864 Condebaso, monte arbolar de Undaletta, llamado vulgarmente (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 33)
- 1866 Yndoleta, monte llamado (JE.: Liburu II, Tomo 34, Finka 87)

IDOIZARRAGA / IRUIZAR (*basoa*)

Kokapena: Egoarbitza

OHARRAK: Elgetako mugaren ondoan. Azpian: *Atxaostea*, *Indoletta*, *Antzola*, *Iramiña*, *Bizkarra*, *Olaburu* eta *Martintxobaso*⁷⁰.

“idoizarraga > iroizarraga > iroizarraa > iroizar > iruizar”

70. Ik. SAN MARTIN, Juan (2000): *Eibar eta Elgetako Toponomastika*. Euskaltzaindia. Onomasticon Vasconiae 21.(150. or).

(1864) “El monte llamado Ydoizarraga, que se distingue su hondonada con el nombre de Mataostia, hacia su medio con el de Martinchubaso y su cabeza con el de Palacio-cogastañac”. (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 71).

(1864) “Una porción de monte llamado Ydoizarraga, que se conoce también con los nombres de Ansola, Ansolabarrena y Videcruz, sobre la casería de Eizaga Echevarria”. (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 33).

(1917) “Otro monte en el término de Ydoizarraga que contiene treinta y seis mil noventa y ocho estados cuadrados de área, cuyos confines son por Este montes de la casería de Olaeche; y por Sur montes de Eizaga-goicua y de la representación de Don Valentin de Ormaechea, por Oeste monte de la anteiglesia y villa de Ermua y por Norte otro monte de Olaechea”. (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8, Esp. 43).

Ahozkoa: [irújísar]

- 072, 074 “Idoizarraga”
- 072 “Iruisarraga”
- 053, 058, 069, 070, 074 “Iruisar”
- 067 “Iruisarkolaua”

Idatzizkoa:

- 1864 Ydoizarraga, termino de (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 40)
- 1871 Yruizar, termino de (JE.: Liburu III, Tomo 60, Finka 158)
- 1887 montes llamados Ydoizarraga (BFA.: Ondare-ondasunak eta auzo-ondasunen ustiapena, 271. kutxa⁷¹)
- 1904 Ydoizarraga, el monte llamado (BFA.: Admin., Udal Kon. Aur., 1078 Kutxa, Erreg. 01078/08)
- 1917 Ydoizarraga, término (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8, Esp. 43)
- 1941 Irurizar (KATASTROA)

IRAMIÑA (basoa)

Kokapena: Mota

OHARRAK: *Iruizar (Idoizarraga)* azpian; *Antzola* eta *Bizkarra* bitartean, *Eitzaga-etxebarritik* gora.

Ahozkoa: [irámiñebašua]

- 058, 074 “Iramiña”
- 053, 069, 070 “Iramiñe basoa”

Idatzizkoa:

- 1971 Iramiña, monte llamado (Esk. 070)

71. Jabea: Peñaforida kondea. 1/6 Ermukoa zen eta 5/6 Zaldibarkoa. Dokumentu berean *Ydoizarraga* agertzen da.

ITURRIA

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Atzean *Probalekua*, aurrean bidea. 1995eko azaroaren 11n altxatu zuten. Aurretik, bidearen bestealdean, itxura kaskarreko iturritxo bat zegoen.



Eitzagako iturria (1997)

ITURRIETA (*basoa*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: Okillon.

Idatzizkoa:

- 1894 Iturrieta, monte (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1988 Iturrieta basoa (DEIKER)

ITURRIONDO (*ortua*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Aixola

OHARRAK: *Iburutx* errotaren iturriaren ondoko ortua.

Idatzizkoa:

- 1863 Yturriondo, heredad en el termino de (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 29)
- 1871 Yturrieta (JE.: Liburu III, Tomo 60, Finka 152)

ITURRIONDO*(Autopistak janda)**Kokapena:* Sagastia (Eitzagabarrenengoa)*OHARRA:* Auzo-elkarteren beste aldean, *Arriolaerreka* gainean, *Sagastian* zegoen iturritxo.*Ahozkoa:* [śagástiřa]

- 070 “Iturroundua”
- 070 “Saastaixa”

Idatzizkoa:

- 1971 Iturroundua (Esk. 070)

ITURRITXO (*basoa*)*Kokapena:* Mota*OHARRAK:* *Goikotxabola* eta Olaetxekoen basoen arteko sakona.*“Castañal de Iturriondo de la parte de acia Echevarri” (Esk. 005)**Ahozkoa:* [iřúřičo]

- 005, 039 “Iturritxo”
- 005 “Iturriondo”
- 039 “Berrisko txabola”
- 072, 074 “Iturritta”

Idatzizkoa:

- 1825 Iturriondo (Esk. 005)
- 1851 Iturrieta (Esk. 005)
- 1881 Iturrieta (Esk. 005)

JARDIÑA (*basoa*)*Kokapena:* Okillo*OHARRAK:* *Lurbarri* eta *Migelsakon* gorako basoa.*Ahozkoa:* [xařđiņa]

- 070 “Jardiña”

JAUREGI / PALAZIO (*dorretxea*)

Kokapena: Eitzaga

OHARRAK: Peñafiorida kondeak egindako baserria.

(1993) *"Itxura danez, XIV. edo XV mendean egin zan. Harrizkoa da; atea eta lehiati-lak harlanduzkoak dira eta, gainontzekoa, ostera, erdilandu eta landubako harrizkoa. Alboko fatxadan dagoan armarri borobila berarizkoa da, txingola bat, ilgoran dagoan, ilargia goi aldean eta bost puntako hiru izar behe aldean dituela, XV. mende armaieran, Juan de Labrit erregeak, Nafarroako Juan III.ak, alegia, Fernando Bascovi bere abizenaren ordeiz Iriarte jarri eutsozan arma berak dira"*. (Ik. Zaldibar guía: 30.or).

(1987) *"...se desconoce la época de su fundación, estimándose que podría ser del primero del mismo siglo XIV ó XV. Tanto en la fogueración de 1704 como en la de 1798 aparece como propietario Juan Fernando de Ugarte. Se supone también desmochada, dándole posteriormente con su pronunciada cubierta a dos aguas, el estilo de caserío. Es de piedra con puerta y ventanales de sillería, y el resto de sillarejo y mampostería"*. (Ik. LASUEN: 24.or).



Palazio (1998)

Eraikinaren ormez barruko esparrua Balizko arkeologia gunea da (Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa).

Ahozkoa: [pálašjua], [palášjukua]

- 001, 015, 017, 023, 024, 027, 037, 054 "Palasiau"
- 053, 069, 070, 073 "Palasio"
- 011, 055 "Palasiukua"
- 002, 016, 049, 074 "Palasiokua"

Idatzizkoa:

- 1729 casas y caserías de Eizaga vizinai y de su accesoria de Jauregui (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 134. or)

- 1731 caseria de bizinay y Jauregui (BUA.: XXI-2-B-5, 138, 7. or)
- 1810 Eyzaga, palacio de (Esk. 005)
- 1864 Palacio de Eizaga, casa (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 36)
- 1873 casa Palacio de Eizaga (JE.: Liburu I, Tomo 16, Finka 8)
- 1886 Casa Placio (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1893 Palacio, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 11)
- 1917 Palacio (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Palacio de Eizaga (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Eizaga Palacio (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1925 Palacio, caserio (ESE.: 7 Hil., 173. or)
- 1925 Palacio de Eizaga (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)
- 1930 Palacio (BEHA.: Paper solteak, 9A-715, 9-III)
- 1943 Palaciocua (ESE.: 10 Bat., 237. or)
- 1993 Torre de Eitzaga (ZALDIBARKO UDALA)
- 1996 PALAZIOKOA, caserio (Zaldibarko gida)

KANTERAERREKETA (*basoa*)

Kokapena: Okillo

OHARRAK:

Ahozkoa: [kañtéraēréketa]

- 058 “Kanteraeerreketa”

KANTERAZARRA (*basoa*)

Kokapena: Okillo

OHARRAK: Aspaldian, inguruko baserriak egiteko eta XX. mende hasieran Eibarko udaletxea egiteko *Eitzagagoikoa* gaineko aldean harria ateratzen zuten. Harrobi zahar hau, *Potoko zulo* baino beherago zegoen. Ingurunean hariztiak zeuden.

“Termino de Canterazarra y su segunda partida. Esta segunda partida de Canterazarra confina por oriente con la regata de Pagazubiaga por el poniente con arboles de Dn Domingo de Jainaga por medio día con arboles de Dn Juan de GaritaonandiaZalaya, y por el norte con arboles de Dn Domingo de Arizmendi”. (BAHP.: JM, 413. zk., 42. or).

Ahozkoa: [kañtérasára]

- 049 “Kanterasarra”

Idatzizkoa:

- 1597 Canteras de arenisca (PINEDO: 119. or)
- 1863 Canterazarra, monte (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 2)
- 1904 Cantera zarra (Esk. 024)
- 1925 Cantera-zar (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)

KARABIAGA

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Auzo-elkartearen aurrean. 8-10 metroko sakonera zuen. Gaur egun estalita dago.

Ahozkoa: [karésulo]

- 015 “Karabixa sulua”

KEREXETA (*basoa*)

(*Zati handi bat zabortegiak hartuta*)

Kokapena: Eitzagaetxebarria

OHARRAK: *Eitzagaetxebarritik* gora, ezkerreko bidea hartu eta *Etxeosteko errekatxoa* zeharkatzeko errebuelta ingurua. Gainean *Okaneta* eta *Besteeko txorropea*. Aurrerago *Sagastitxoa*. Bertan karezulo bat zegoen.

Ahozkoa: [kejšetia]

- 053, 072 “Keixetia”

KONDEA (*baserria*)

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Aurrealdean *Zepamendia*. Aldamenean burdibidea eta *Beko erreka* / *Telleriaerreka*. Atzealdean *Errostaostea*. Etxe honen jabea Peñafiorida kondea izan zen.



Kondea (1997)

Ahozkoa: [kondía]

- 009, 011, 015, 017, 020, 023, 025, 034, 036, 037, 053, 069, 074 “Kondia”
- 001, 017, 027, 032, 055, 070 “Kondianekua”
- 018, 021, 024, 054 “Kondiana”
- 002, 027 “Kondiena”
- 009 “Segundanekua”

Idatzizkoa:

- 1886 Conde, casa del (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1886 Conde (BEHA.: Matrikula, 9-271, 8-III)
- 1893 Molino, caseria (BFA.: Admin., Lur. Est., Karp. 10)
- 1894 Condecua, caserio (ESE.: 8 Bat, 196. or)
- 1907 Condeena, casa-molino llamado (ESE.: 9 Bat, 32. or)
- 1917 Eizaga-Herrota, caserio (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1917 Conde, Molino (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 54-75)
- 1930 Conde (BEHA.: Paper solteak, 9A-715, 9-III)
- 1931 Kondekua (ESE.: 10 Bat, 115. or)
- 1938 Condía, caserio (ESE.: 18 Bat, 193. or)
- 1942 Condía, caserio (ESE.: 10 Bat, 193. or)
- 1996 ERROTA-KONDIA, caserio (Zaldibarko Gida)

KONDEANEKO ERROTA

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK: Peñaforida kondearena zen. Lehen irina eta garia ehotu egiten ziren. Kondeaneko baserriaren ondoan.

“(...) Eizagako errotea gailentzen da, eraikin apalak armarri errenazentista bat dauka eta (XVI. gizaldia); izan be Zalduako armarría da. Zaldibarko herrigunetik nahiko urrin dagoen auzoa dogu Eizaga, eta horrexegaitik egoan Ermuko Santiago parrokiaren menpe, elizaz. Herri estiloko eraikin apala da, eta oso bertan behera itzita badago be nahiko ondo gorde dauz andaparea eta ebokerako behar diran enparauak. Estoldan turkoki edo burdinazko gurgil bi gorde dira, harriok, zeharkakoaren egokera berean egonik, andaparearen bidez etorren urak eragiten eutsola. Gurgilen biraketeak goiko solairuan egozan errotarri higikorak abiarazoten ebazan zurezko ardatzei esker (ardatzok bertan dagoz oraindio), benetako eboketa goiko solairu horrexetan egiten zan eta. Estoldea, orduan ohi zan legez, harlandu onez egina da eta ondo zementaututa egoan, uraren erasoak jasaten ebazan eta. Errota hau hain dago eskutik itzita ze, behar dauzan konponketak hainbat arinen egin ezean betiko galduko da gure nekazaritzako iraganeko lekukotasun argi bat”. (PINEDO 86: 255.or).

Ahozkoa:[kondíaneko eróta]

- 053 “kondianekua”
- 005, 011, 054, 069 “Kondiana”

Idatzizkoa:

- 1779 Eizaga, molino de (BAHP.:JM, 391. zk., 42.or)
- 1864 Casa molino (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 37)
- 1917 Molino (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 8., Esp. 43)
- 1925 Molino de Eizaga (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)
- 1996 Eitzagabekoa errota (ZALDIBARKO UDALA)
- 1996 Eitzagako errota (ZALDIBARKO UDALA)



Kondeaneko errota (1997)

KONDEBASO

Kokapena: Arriola

OHARRAK: *Olaikorta* parean dagoen harrobia eta haren gainekoa. Ik. *Indoleta*.

Ahozkoa: [kóndebašo]

- 032, 048 “Kondebaso”
- 037 “Kondebaso basoa”

Idatzizkoa:

- 1864 Condebaso, monte arbolar de Undaleta, llamado vulgarmente (JE.: Liburu I, Tomo 10, Finka 33)
- 1925 Condebaso (BFA.: Admin., Mug. Jur., Karp. 10, Esp. 54-75)

KORTATXU (*errekatxoa*)

Kokapena: Telleria

OHARRAK: *Okillon* jaio eta autopista azpitik pasatuz, *Telleria* parean, *Beko errekarrekin* elkartzen den errekatxoa.

Abozkoa: [kořtáčueřekia]

- 073 “Kortatxuerrekatxua”
- 070, 071, “Kortatxuerrekia”

Idatzizkoa:

- 1811 cortachu (BAHP.: JM, 413. zk., 49. or)

LABADEROA

Kokapena: Eitzaga auzoa

OHARRAK:

Abozkoa: [laβáderua]

- 015 “labaderua”
- 053 “Palasioko presa”



Eitzagako labaderoa (1997)

LAPURRITURRI (*argi-zentrala*)

(*Desagertua*)

Kokapena: Eitzaga (Ermua)

OHARRAK: Olaetxetik Eitzagarako bidean zegoen baserri hau suak hondatu zuen. Geroago, autopista egiterakoan bota zuten.

Paraje honetan, erreka sakonean *Menditxotik* datorren iturria zegoen. Hemendik, Txomin-baltza izeneko lapurra ibiltzen zen sarri. Lekuak berarengandik hartu zuen izena eta bertan egin ziren etxeek, hasieran hiru, gero bospasei ere, Lapurriturri izena hartu zuten.

Etxe hauetan etxebizitza izateaz gain, *Ormaetxea* tornilleria eta argi-indarra emateko barrena ere bazeuden.

